



AUGUSTIÑ GURENAREN AITORKIZUNAK

Nikolas Ormaetxea «Orixe»

Iturria: *Augustiñ gurenaren aitorkizunak*, Nikolas Ormaetxea Orixe. Itzaropena, 1956.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/O/OrixeAugustin.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**AUGUSTIÑ GURENAREN
AITORKIZUNAK**

Nikolas Ormaetxea
Orixek
euskeratuak

Itxaropena argitaldaria.
Zarauz, 1956



Akuriako ta Akizako gotzai txit agurgarri
Clement Mathieu Iaunari

Iauna: zuk eragin ninduzun emeki, obeki esan bultzatu ninduzun birtizki, Augustiñ Gurenaren Aitorkizunen liburua gure izkuntzara biur-tu nenzan.

Emen duzu eskuetan, aspaldion ametsetan zenerabillana.
 Esan ote lezake Detxeparek:

«Euskara,
 ialgi aiz plazara,
 dantzara?».

Besterik ez ba'da ere, ezin esan, S Augustiñek euskerari on aundia egiñen ez dionik. Gaurkotik au gelditu diteke, Biblia leku, euskal-liburu-rik bikaiñena.

Badakigu Augustiñ bere izkuntzaz landara mottel gelditzen dala ardura, edozein izkuntzetan. Ezkera bakoitza beure aldera azi ta garatu oi da.

Guk ezin eman dugu *passif* dalako ori bakan baizik; esaterako *quem amaren, a quo amarer*: «nor nik maita», «nork ni maita».

Bestenaz, artzaien eta ikazkiñen mintzaera onek ez ote dio ondo-samarretik iarraitzen, Latiumgo nekazarieneri ez ezen-latin landuari ere?

Idekazu ta irakur. Baiña lenik emaidazu, otoi, Gotzai-onespena, nik Zure Artzai-eratzunari muñ ematen diotan bitartean.

Ormaetxea'r Nikola

LENENGO IARDUNA

I

Iauna deituz billatu, ta siñetsiz deitu.

1. «Aundi zaitugu, Iauna, ta biziro goresgarri» (Ps. 144. 3); indareean aundi; iakiñean, berriz ez duzu mugarik (Ps. 146. 5). Eta, goretsi nai zaitu Zure sorkari duzun gizontto onek? ilkor izanaz gaiñera bere oberearen aiterra inguruan deraman onek? «Arroskoeri iarki egiten baitzaikie» (Ptr. 1, 5). Alare, goretsi nai zaitu duzuntto onek. Zerorrek naragizu, Zu goxoki gorestera; izan ere Zuretzat egin gaituzu, ta eziñegonez daukagu biotza Zuregan atsedean dezaño.

Idazu Iauna, bi auetan zer dan leenik iakitea ta ezagutea: Zuri dei egitea, ala Zu gorestea; edota Zu ezagutea lenago ote dan, Zuri dei egitea baiño. Nork deituko zaitu ezagun ezean? Ezagun etzaitunak, baten orde beste dei lezake. Ezaguteko deitzen ote zaitugu? «Nola deitu, siñesten ez danik? Edota, nola siñetsi, adierazle gabe?» (Rom. 10, 14). «Billa dabil-tzionak goretsiko dute Iauna» (Ps. 21, 21). Billa dabil-tzionak arkitzen dute, naski, ta arkitzen dutenek goretsiko. Billa zaitzadan, Iauna, dei egiñez, eta dei zaitzadan Zu siñetsiz: adierazia baitzakigu. Nere siñesteak deitzen zaitu, bai; adierazleen bidez Zure Seme Gizon egiñak piztuerazi didan siñesteak.

II

Nola ta nondik etorri, deituz, guregan daukaguna? Zer toki duke guregan?

2. Eta nola dei dezaket ene Iauna, ene Iaun eta Iaungoikoa? Deiturik ere, neregana deitu bear baitut. Zer toki neregana, ordea, nere Iauna etor dakidan? «zeru-lurrak egin ditun» Iauna neregana dedin? (Gen. 1, 1) Bai al da nigan ezer, Iauna, Zu zadukakenik? Edota, nerekin batean egin zenitun zeru-lurrak iduki aal zadukate? Edota Zu gaberik ezer ez dalako da, dan orok Zu edukitzea? Ni ere bainaiz, zer ari naiz etor zakidan? ez bainintzake, izan ere, nigan ez ba zinaude? Oraindik ez ni lurpera, eta alare an zaude. «Lurpera ietxi ba'nendi, an zaude» (Ps. 138, 8). Ez nintzake,



bada, izan ere, Iauna, nigan ez ba ziñaude. Obeki esan, ez nintzake Zugan ez ba'nintza; «Zugandik, Zugatik, Zugan baitira oro?» (Ierem. 23, 23). Baike, Iauna, baike. Nora dagizuket dei Zuri, nerau Zugan egonik? edo-ta mundik zatozkiket? nora dagiket iges zeru ta lurretik at, nigana etor zaitez-nere Iaun ori? Zerorrek esana bait-da: «Nik betetzen det zeua eta lurra».

III

Nola dagō Iainkoa orotan? Nola dauzka oro?

3. Zeru-lurrak betetzen dituzenez gero, al zaitute idukitzen? ala, aiek beterik, gaiñez dagizu, ezin zadukatelako? Nora zabaltzen duzu, ordea, zeru-lurrak bete ondoan gaiñez zaizun ori? Guzia daukazun orrek ez duzu, naski, ezerk zadukan bearrik, betetzen duzuna idukiz betetzen baituzu. Zutaz beterik dauden ontziek etzaitute egonarazten, aiek autsirik ere ez baitzera ixurtzen. Guregan ixurtzen zeranean ere, etzera eortzen; gu iasoten gaituzu; etzera Zu barreiatzen; gu biltzen gaituzu.

Guziak betetzen dituzun orrek, Zutaz osoz betetzen al dituzu? Ala, zatika zadukate, guziek ere ezin zadukatelako? Eta Zure zati berbera, guziak batean al daukate? Ala bakoitzak bakoitza, aundiak aundia, txikiak txikiagoa? Beraz, bai al da Zure zatirik aundiagorik edo txikiagorik? Edota nonai zaude guzia, ezerk oso idukitzen etzaitula?

IV

Iainkoa orotan, dagolarik ari.

4. Zer da, bada, nere Iainko au? Zer dut otoitzen «Iainko Iauna» baik? Bai al da Iaunik Iauna besterik? Edo nor da Iainko gure Iainkoaz landa? (Ps. 17, 32) Garaiena, onena, dezakenena, guzti-dezakenena, urrikaltsuena ta zuzenena, gordeenik agerikoena, ederrena ta bizkorrena egonean ezin-idukia, alda-eziña ta oro aldatzen duzuna; beñere ez berri, beñere ez zahar, guzia berritzaile; arropuzak zaartzen dituzuna, baitarazten ez diralarik; beti iardunean, beti geldi; biltzen eta bearrik ez, eramaten, betetzen eta gerizatzen; sortarazten, iñutzen eta biribiltzen; ezerean peitu ez, eta billa. Maitean irakingaitz, tukuan seguru, urrikian min gabe, asarrean bare, lan-aldaz burubiderik aldagabe; arkitzen duzuna duzu artzen, beñere galdu etzenularik; gaberik ez beñere ta irabaziaz atsegin;

beñere ez zikoitz eta mozkiña duzu eskatzen. Gaiñez demaizugu zordun zaitzagun; eta nork du ezer Zure ez danik? iñori zorrik gabe zorrik atezaten; ezer galtzeke zorrik barkatzen. Zer ari naiz, ene Iainko, ene bizi, ene atsegin guren, edota zer diardu ari danak Zutaz ari danean? Eit, ordea, Zutaz ixil daudeneri, mintzul berrikerontzi baitira!

V

*Augustiñek Iainkoagan atsedeen nai du; bera du osasun.
Maitatu nai du, obenak gora-beera.*

5. Nork ni Zugan atsedenerazi? Nork erakarriko zakit nere biotzera, birbirtu dezazun, nere utsegiñak aantzirik, On bakarra zaitudan Ori laz-tandu zaitzadan? nor zakit? Urrikal'zakida mintza nadin. Zer nauzu ni, maita zaitzadan agintzeko? ezperen, asarre zakit eta zorigaitz aundi eskeinka zadukat? Txikia al da Zu ez maitatzea? Ai ene! Esaidazu Zure errukiz, ene Iaun eta Iainko, zer zakidan. Esaiozu nere animari: «ni nauzu osasun» (Ps. 34, 3). Esaidazu entzuteko eran. Aintzinean dituzu nere biotzaren belarriak; ideki etzazu ta esaiozu nere animari: «ni nauzu osasun». Mintzo orren ondolik laisterka asiko naiz eta atsiko zaitut. Ez neri izkuta Zure aurpegi Ori! Ori ikus-naiez il nadin, ez iltzeko.

6. Animako etxe au estua dut Zu ontara etor zaiten. Zabal ezazu. Erortzear dago; altxa ezazu. Badu Zure begiak, ontaz minberatzekorik: badakit, aitortzen dut. Baiña nork garbituko du? ala, Zutaz besteri dei egin bear diot, «Nere izkutukoetatik garbi nazazu, ta besterenik ez egotzi Zure mirabeari?» (Ps. 18, 13). «Siñesten dut; orregatik ari naiz» (Ps. 115, 1). «Badakizu, Iauna; ez al ditizut esan aintzinadanik ene gaiztakeriak, eta barkatu Zuk onen makurkeria?» (Ps. 31, 15). Ez naiz Zurekin auzitan asiko Egia Zeran orrekin; eta nik ez dut nere burua zuritu nai, nere «gaiztakeria berez gezurta ez dedin» (Ps. 26, 12). Ez noa Zurekin auzitara. «Gaiztakeri billa asi bazendi, nor burutu ledizuke?» (Ps. 129, 3).

VI

Nola etorri zan bizi ontara. Nola iñutu zuten.

7. Begokit, alare, Zure aintzinean mintzatzea, lur eta errauts naizan oni (Gen. 18, 27). Begokit, bai, itza, Zure errukiari mintza bainizaio, ez gizon maxiolariari. Zu ere ausaz irriz ari zakit, baiña berriro erruki zaki-



ket. Zer dut bada adierazi nai, Iauna, au baizik: ez dakidala nondik etorri naizan onara, ots, bizi erio garri ontara ala erio bizigarrira. Ez dakit. Eta zure errukiaren atsegiñek iaso omen-ninduten, —gurasoek esana dakit, aldian, batengandik bestearengan gatzatu baitninduzu; aiek esana; ez bainaz oroitzen. —Artu ninduten, arean, bularraren atsegiñak. Ez amak, ez iñudeek etzuten beren bularrak betetzen; baiña Zuk aien bidez ematen zenidan aur-ianaria Zure erabakiaren ariora, eta aberatasunak, Zuk gauzen barnean ezarriak. zuk ematen zenidan, are, Zuk emana baiño geiagorik ez nai izatea, eta azi ninduteneri, Zuk emana berak neri eman-naia; biotz onez eman nai zidaten Zugandik oparo zutena. On zitzaie, aien-gandik on zitzaidana; aiengandik ez-baiña aien bidez zana. Zugandik baitira, Iauna, on guziak eta nere lainkoarengandik ene osasun guzia. Ontaz, geo baitara nintzan, barne ta landa ematen ditidazunetan oiuka ari baitzakida. Ordun, aldiz, edoskitzen nekin eta atsegiñetan etzitzen; gorputzeko miñetan, berriz, negar egiten, besterik ez.

8. Gero asi nintzan irri egiten ere, lenik ametsetan, gero esnai. Esanik dakit eta siñetsi nun, beste aurrak ere ola ikusten baititugu; nerek ez dut oroi. Emeki emeki baitara nintzan non nindagon; nere naikaria agertu nai nien, bete zezaten: baiñan aiek ezin, ua barnean baitzegon eta aiek nitaz landa; etzezaketan suma nere barnekorik. Beso-eraginka ta oiuka adierazten nien doi doi, al bezalaño, nere gogoa, ez baitzen keiñuen antzeko. Baiesten zutelarik, ulertu ezik ere, naiz kalte zitzaidalako, asarre nnintzaien aundieri menpeko ez nitulako, ta txikeri ematen etzidatelako, ta negarra nien apen orde. Ikusi ditudan aurrak ola dirala auteman dut, eta ni alako nintzala obeki erakutsi didate ez-ikasi aiek, azi ninduten ikasiek baiño.

9. Ara, nere aurtzaroa il zan beiñola, ta ni bizi naiz. Zu, ordea, Iauna, baitzera beti, —Zugan ez baita ezer iltzen; mendea baiño len, lena baiño ere len baitzera, sortarazi dituzun oroen Iaun eta Iainko baitzera, Zuregan baitaude egonarriz, egonarririk ez duten gauzen iturburuak, Zugan baitiraute aldaketa gabe, aldakor diran oroen iatorriak, Zugan bizi baitira noizaldi ontako arrazoigabeen arrazoi betikoak— esaidazu belauniko nagonari, urrikari onentzat urrikaltsu, nere aurtzaroa nere beste adin baten ondorea ote dan, ala amaren sabelean nunarena. Artaz ere zerbait esan zidaten, eta neronek ere emazte aurbearrak ikusi baititut. Adiñ au baiño len zer nintzan, ene Iainko gozoa? Bai al nintzan nonbait edo norbait? Au esan dezaidakenik ez baitut, ez amarik, ez aitarik, ez besteren sumarik, ez ene oroiterik. Irri eragiten al dizut galde auekin, ala, dakidantto ontaz nik Zu gorestea ta aitortzea nai duzu?

10. Aitortzen zaitut, Iauna, oroi ez dutan aurtzaroko gorespének Zuri eman ez. Eman diozu gizonari besterenetik suma artzea ta emazteñoen esaneri siñetsaraztea. Banintzan orduan, bizi nintzan; nere bane-eragiñak adierazteko keiñuak billatzen nitun mintzul-aroaren azken aldeantsu. Nondik olako bizidun au Zugandik ezik? Al du iñork beure burua egiteko antzerik? Bestela, zer iatorritik datorkigu izan eta bizi, Zugandik ezik? Iauna, «izan» eta «bizi» ez baitira Zugan bat eta beste, «bikain izan» eta «bikain bizi» orobat baitituzu. Gaiñenekoa zera, aldakuntzarik gabe; etzaizu igarotzen egungo egunik eta alare eguna Zugan igarotzen da, Zugan baitira guziak: ez bailukte iragan biderik Zuk ez ba zeneduzka. Eta zure urteak ez baitute igarotzerik! «Zure urteak egungo eguna dira» (Ps. 101, 28). Zure egun ortan zenbat gure ta gurasoen egun igaro dira, ta ortatik artu dute neurria, ta ontatik artuko dute nolabait igaro diran oriek bezela, nolabait diraken oriek ere. Zu, berriz, «beti bat» zera; biarko ta urrengo, ta atzoko ta erenegungo ta atzeragokoak «egun» egin dituzu, egun egiñen. Zer neri, iñork au buruz asma ez baleza? Poztu bedi ina ere, ta au bio: «Zer da au?» Poztu bedi ala ere, ta naiago beza ez asmatuz asmatzea, asmatuz ez asmatzea baiño.

VII

Bularreko aurren griña txarrak. Zer adiñetan egon da gizona errugabe?

11. Entzun, Iauna. Eit gizonen obeneri! Gizonak diño au ta erruki zaitio, Zuk egiña baituzu; baiñan obenezkorik ez duzu egin arengan. Nork gogora neri aurtzaroko obenik —Zure aintzinean ez baita iñor oben gabe, ez egun bateko aurra ere— nork dit gogora? Orain txiki dan aurtxoren batek? nitaz oroi ez dutana arengan dakusadalako?

Zer oben nuan orduan? negarrez bularra irrikatzea? Orain ez bularra, baizen ene adiñari dagokion azkurria ola irrika baneza, ista eta irri legidaket arrazoi aundiz. Beraz, ordun itxusiak egin nitun, eta akar zegidanari adirik artzen z niolako, ez zan oitura ta arrazoi neri akar egitea. Olako oiturak adiñarekin erauzten eta aizatzen ditugu. Zentzudunik ez dut ikusi oraiño, etxe-garbiketari ari dala, gauza onak aurtikitzen. Adiñ artan on al zan negarrez eskatzea, kalterakoa ere? Txikiakin, aundiekin, gurasoekin eta zuhurrageekin ere biziki asarretzea guk naia egiten etzute-lako? Ioka, albait, gaitz egitea, makurra lekarkigun gauzarik ematen etzigitelako? Era ortan, aurren azbegiak dira errugabeak, ez aien anima.



Neronek ikusi dut eta ala dakit, aurtxo eziñeramana, mintzatzen asi ez eta, bere titi-lagunari zurbil zurbil, muturra okertuz so egiten. Au ez dakinik ba dea? Amek eta iñudeek sorgintzen omen dute makur ori zenbait sendagailluz. Errugabea izatea al da, beintzat, laguntza bearren bearranean edari artaz bakarrez bizi dan laguna bular-eraiean ez ikusi nai izatea? Barkatzen dira goxoki olakoak, ez naski uskeri edo ezer gutxi diralako, baizik eta adifean sartzearekin galduko baitira. Eta ala bear, zaarragoren batengan begi onez ezin eraman baditugu ere.

12. Beraz, ene Iaun eta Iainko, Zuk eman baitiozu aurrari bizia ta gorputza, dakigun bezalako zentzuz iantzia, azbegiz lokarritua, aurpegiz edertua, bizidunaren kemenak oro eman baitiotzu erabat beure burua iagon dezan; zuk agintzen didazu Zu oetan gorestea ta «Zure izena kantatzea, txit gorengo» (Ps. 91, 2); Zu baitzera guzia dezakezuna, ona, bes-tek egiñ ez dezakentto au bakarria egin bazenu ere; Zu bakarria baitzera guzien eredu, guziz eder, guziak edertzen dituzuna, ta Zure legez antolatzen dituzuna. Bizi izan nula gogoan ez dutan adiñ au, besteri siñetsi bainion, eta bizi izan nula uste dutana, uste siñesgarria, lotsa dut oraingo bizi oni eraxkitzea. Nere oroitearen illunbeari dagokionez, amaren sabelean egin nuan biziaren antzeko da. «Gaiztakerian gatzatua baldin banaiz, eta nere amak obenez iñutu banindun» (Ps. 50, 7), non, arren, ene Iainko, non edo noiz, Iauna, egon zan Zure mirabe au errugabe? Bego adiñ ua. Zer dut ikuskizun, sumarik artzen ezdiotaneko bizi arekin?

VIII

Izketan nola zun ikasi.

13. Ez al nintzan mintzul-arotik mintzarora etorri? Obeki esan, mintzaroa etorri zitzaidan mintzul izan ondotik. Mintzul-aroak etzidan aldegin. Nora ioan zan? Alare galdu zan. Ez nintzan aur mintzagabea: mintzatzen asia nintzan. Gogoan dut aro ua, ta geo baitara nintzan nola ikasi nun mintzatzen. Etzidaten irakasten gizon aundiek itzak itzeri erauntsiz, geroxago letrak bezala; neronek neroni, eman zenidan argitasunez, ene Iainko, nere biotz-eragiñak intziriz, mintzo totelez, eskuei eragiñez, nere naikariak naierara agertu nai nitunean, eta ezin, nai nunik eta nai nituneri. Zerbait izendatzen zutenean, itz ua gogoan artzen nuan, eta neri irakasteko berriro mintzoari keiñuz laguntzen ziotenean, izena ulertzen nuan. Artatik ateratzen nuan, aien itzak olako zer-gauza zula adierazten, keiñuz erakustean. Gorputz-egieraz —au baita iende guzien iatorrizko

izkuntza— aurpegiz ta bei-keiñuz eta beste azbegien eragiñez ageri zan zer esan nai zuten. Mihi-otsak, berriz, barneko naikaria adierazten zun, gauzak eskatzeko naiz astantzeko naiz itzurteko. Orrela, esamaña bakoitzean itzak urrenez urren ipiñiz, maiz entzunez, igarten nion zer adierazten zuten, eta itz aiekin mingaiña ezirik, ene naikariak azaltzen ikasi. Onela ikasi nuan, aiekin ar-emanka, nere gogoia agertzen. Geo, gizarteko itsaso asarrean barnago sartu nintzan, gurasoen eta ni baiño zarragoen mendeko.

IX

Eskolan zigorra. Maisu zenbait, Iainko aundiz mintzo.

14. Iainko, ene Iainko, an zer neke ta maxi egari nitun! zintzo bizitzeko maisueri men egitea agintzen baitzidaten; banukela munduan etorkizun mintzalari eder izanik, izen on eta ondasun billa nezazkela, geuzurrezkoak, naski. Gero eskolan asi ninduten asi-masietan. Ez nekin zertako balio zuten, eta ikasten nagü banintzan, zigorra ematen zidaten. Zaarrak ongi zerizkioten. Nik igaro nezaken bide latz au ni sortu baiño len asmtu zuten, Adanen semeentzat lanak eta miñak ugarituz. Ezagutu ere nitun, Iauna, Zu otoizten zinduten gizonak. Aiengandik ikasi nun, alegiñean, Zu norbait aundi ziñala sumatzen; nere zentzuentzat Zu izkutu egonik ere, entzun eta lagundu nauzukela. Aurtzarotik asi nintzaizun otoika, laguntza ta igesleku zaitudan Orri. Zuri deika asktu zitzaidan mihia. Otoitz egiten nizu, txiki onek, eskolan oi ez nindezaten. «Nere zentzapiderako» entzuten ez ninduzunean (Ps. 21, 3), zaarragoek eta gurasoek irri zegietan ene zaurieri, orudko gaitzik aundienari, ez nere gaitzik nai zutelako.

15. Bai al da, Iauna, Zu alako gogo aundiz idukitzen zaitun biotz aundiren bat? Bai ote da —zozokeriak ere egiten baitu ori aldiz— bai al da iñor Zu ain gogo aundiz atxikirik, zaldiko ta burni-kako ta beste oiñazekari oriek gutxien ditunik, irri egiñez, maisuek aurreri egariarazten zitiguteen oiñazeengatik, gurasoek irri egiten zuten bezala? Nik ere ez nuan bildur gutxiagorik, eta ez nun otoitz gutxiago egiten aieri itzurteko. Alare gaizki egiten nuan agindu baiño gutxiago idatziz edo rakurriz edo gogo eman ez. Adiñ artarako banizun, Iauna, Zuk emanik, aski oroimen eta asmamen; baiña iosteta maite. Ta olakotsuek egin zituten aiek, nerekin apen artzen zuten. Aundiagoen uskeriek «eginkizun» dute izena, baiñan aurrenek, eginkizun izanik, aundiengandik zigor dute. Iñork ez du



aurren kupiderik, ez aundienik, ez bienik. Iritzi oneko epaille batek ez al du beintzat onartuko ni pillotan ari nintzalako zigorkatua, kirola orrek letrak azkar ikasten zeragotzidalako, gero ni letrekin itsusiago ioka nendin. Ni zigorkatzen nindunak, besterik egiten al zun? Maisu-laguna auzixka batean garai ba zitzaion, beazun-miñez eta bekaitzez iraultzenago zan, ni bestek pillotan garaiturik baiño.

X

Kirolak aundinai billa.

16. Alare gaizki egiten nuan, Iauna, —sortuzko gauza guzien egille ta antolatzaile, ez, ordea obenen agintzaile— gaizki egiten nuan, ene Iainko Iauna, gurasoen eta maisu aien aginduen buruzki iardunez. Balia ninteken ongi, nolabaiteko asmoz nik ikastea nai zuten letra aietaz. Ez nintzan gorbizi oberena aukeratu naiez, iosta-naiez baiño. Batzaldietan aundimiñez garaitu gogo nuan, gezurrezko ipuiez ene belarrieri atsegin gogoz aznai geiago eman zezaidaten. Ikusnaia ere areago pizten zidaten aundien ikuskari ta iostetak. Auek antolatzen ditutenak alakoak dira, ori nai baitute, ia orok, beren aurrentzat. Alae, gogara etsi oi dute aiek iotzea, ikaslana eragozten baitiete, ta semeak antolatzaile biurtzea nai dute beurek bezala. Erruki, zaitte, Iauna, olakoetaz, eta iaregin gaitzazu dei dagiguzunok. Iaregin etzaizu oraino deitzen etzatutenak ere, deitu zaitzaten eta iaregin detzazun.

XI

Gaitzaldi batean bataiatu-naia, mutiko zala. Luzapena, ordea, sendatu zalako.

17. Ikasi nuan, aur nintzalarik, bazala betiko bizitza, gure Iaun Iesukristoren umiltasunaren bidez gure aundinaia agindua. Aren Gurutzez ninduten ziñatzen ordutik, eta gatz ortaz ninduten goxatzen amaren sabeletik ara, itxaropen aundi baitzun Zuregan. Ikusi zenun, Iauna, aur nintzala egun batez urdabil-miñ amorratuz iltzear nindagola, ikusi zenun, ene Iainko, zer biotzez eta sinestez eskatu nion Zure Kristoren, nere Iainko Iaunaren bataioa amari, bai eta guziok ama dugun Zure Elizari. Asaldatau zan ene iatorrizko ama, beure biotz garbian gogozago erdi bainindun betiko osasunerako. Bazoan arin, bat batean sendatu

ez banintza, neri lenbiziko Sakramentua emanarazteko ta artan ni garbierazteko, Zu, nere Iaun Iesus obenen barkapiderako aitortzen zindudala. Ner garbitzea luzatu zan, nere zikinkerien obena oraino bizitzearekin aundiago ta galgarriago zitekkelakoan. Banuan ordutik siñeste, ta etxe guziak ere bai, aita ezik; ark eragotzi zidan amaren eskubidea Kristo siñesteko, berak ez baitzun siñesten. Ari zan ari gure ama Zu Aita zintzaidan, Iauna, Aita baiñon areago. Ontan laguntzen zenion señarra garaitzen, eta olaari obeki serbitzen zion ta baita zuri ere, Zuk agindu zenilako egiten baitzun.

18. Otoi, Iainko Iauna, iakin nai nuke, Zuk ere nai bazenu, zer asmoz luzatu zan ene bataioa. Okerrera bidea nere onerako bezala zabaldu al zan, ala ez? Orrela entzuten dugu egun ere alako edo olakorengatik: «Bego; egin beza nai duna, oraiño ez baita bataiatu». Alare, gorputzeko osasunari dagokionez ezdugu esatn: «Bego; zaurituago bedi, oriño ez baita sendatu». Zenbatez obeki ni lenbailen sendatea, nereen eta nere arretaz animako osasuna ukanik: Zuk seguru zaindu zenezan, Zerorrek emana baitzenidan. Obeki, naski! Baiña nere aurtzaro ondoan ene gain zetozen griña-oldar guziak gure amak ezagutzen zitun eta naiago izan zuan, gero moldatzeko zan lur au oldar aiei egotzi, lur ontan ezartzeko zan iduria bera baiño.

XII

Aurtzaroan etzun maite eskolarik. Bear ta bear bialtzea ongi egin zioten. Iainkoa ari zan ortan, «aurtxo pekataritzar» ua zentzatzzen.

19. Aurtzaroan berean, ordea, gaztezaroen aiña bildur ez niela ere, ez nun maite letrarik, eta gorroto nuan aietara eragin nindezaten. Beartzen ninduten, ordea, ta ongi egiten; nik ez ongi, ez bainezaken ikasi, beartu ezik. Bortxaz ez da iñor ongi ari, egin baleza ere. Zirika nindute nek etzegiten ongi; baiña Zugandik ongi, nere Iainkoa. Ez baitzuten ikuten ikasleak, nora ninderamaken, atsegale ezin-asezko urribizira ta izen lotsagarria ukaitera. Zuk, ordea, gure buruko illeak oro bat-banatuak baittituzu, ikastera oker nideragiten aiengandik neretzat etekiñ ateratzen zenun: nere ez-ikasi-naieko okerrak, berriz, zigortako artzen nitun, merezi baintun, aurtxo pekataritzar onek. Orrela, on ez zegidatenengandik Zuk ongi zenegidan, eta nere obenari zegokiona, bidez ordaintzen zeni-



dan. Zuk agindu baitzenun, eta ola da, gogo neurrigabea bera dedila beure zigor.

XIII

Grekoa iguiñago, latīña baiño. Asiberrien eskola obeago, ipui tzarrak ikasten diran gerokoa baiño. Eneas eta Dido.

20. Gaztetxorik ene irakatsi Greziko ele-ederra, zergatik nuan iguin, ez dakit oso oraintxe ere. Oso maite nuan, aldiz, Latikoa, lenengo maisuak ezbaña Gramatiku deritzenak irakasten dutena. Irakurri, idatzi, batbanatu esaten zaien aiek, alegia, greko guziek bezain astun eta nekagarri zitzaizkidan. Nondik au, ordea, nere okerkeritik eta arinkeritik ezik? aragi bainintzan, «non ene gogo an ene zangoa» bainindabillan (Ps. 77, 39). Obe ziran, bai, asimasi aiek, egiago ziralak; aien bidez baitakit bestek idatzia irakurten, eta gogo dutana idazten; ez, bortxaz siñetsarazten zitidaten Eneas dalako aren utsegiñak, nereetaz azturik. Didoren eriotza malkoz busti, maiteagatik il zalako, ta nerea begi txukuz egarri, txit errukarri onek, Zugandik iltzear nindagola, bizi zaitudan ene Iainkoa.

21. Al da, bada, errukarrigorik beure burua eruki ez dan errukarria baiño? Eta Didoren eriotzez negar, arek Eneas maitasunez baitzegin negar, ez neure buruarenez, ots, Zu ez maitatuaz, biotzeko argi zaitudan Iainkoa, ta nere animaren barneko ogi, ta nere ezagumena ta gogamenaren sabela ernaltzen duzun indar. Etzindudan maite «ta aketx nengizun» (Ps. 72, 27), eta egitean nondinai nentzun: «Ori duk, ori!»; mundu ontako adiskiegora likiskeri baita Zurekiko. Eta «ori duk, ori» esan oi zaio, olakoa ez izaten lotsatu dedin. Olakoentzat ez nun malkorik; bai «ezpatez il zan Didorentzat» (Aeneid. VI, 457). Zuk egin-gauza zirtzillen ondotik, Zu utzirik, lurrera nindoan, lur au. Eta ua irakurtea debeka balidate, min nezaken, min zemaidana irakurten ez nulako.

22. Zorakeri aueri ele-eder deritzate; eder, irakurten eta idazten ikasi nitun aien aldean. Baiñan orain egin beza oiure nere Iainak nere animan, eta zure egiak esan bezaida: «ez da ola, ez da ola; askoz ohea da lengo eskola ua». Gertuago bainago Eneasen utsegiñak eta olakoak aantzeko, irakurten eta idazten aantzeko baiño. Gramatikuen eskoletako atalburuan oiala dago dilindan, bai; baiñan eder-estalki orrek gezur-estalki orrek gezur-estalkia diño. Ez betozkit oiuka, ez diet bildurrik. Artean nere animak gogo duna aitortuko dizu, ta nere bide okerreri uko egiten atsedengo du, Zure zuzeneri iarraitzeko. Ez betozkit oiuka Gramatika saltzaileek, ez erostunek;

galdegiten ba diet olerkariak diñoa egi dan, ots, Eneas iñoiz Kartagora etorri zala, ez-ikasiek ez dakitela erantzunen dute, ta ikasiek ez dala egi esanen. Galdegin banezaie, ordea, Eneasen izena zer letraz idazten dan, ikasi duten guziek egi erantzunen dute, gizonak elkar artuz letra oriek ontzat eman zitutelako. Are: bi orietan, ots, irakurte-idazte ala poesi asmakari, zer kalte aundiagoz aantzi oi diran galdegin balezaidate, nor ez daki erantzuna, beure buruaz oso aantzi ez bada? Utsegin nizun aurtzaroran, baliadun aiek baiñon uskeri auek maiteago nitulako; obeki esan, oek maite ta aiek egin nitulako. Lelo nekagarria zitzaidan, bai, «bat eta bat, bi; bi ta bi lau»; goxo zitzaidan, aldiz, zurezko zaldi sabel-uts ua gudariz betea, ta Troiako sugarra, ta Kreusaren itzala bera ere (Aeneid, 11, 772).

XIV

Gerkeria iguin, bortxaz irakatsi ziotelako: latīña maite, iñude artean ikasi zulako.

23. Lelo oriekin ere, zergatik iguin ote nik grekozko gramatika? Homer, iaioa baita olako ipuiak eioten, eta txit goxo bere utsean; biñan aur oni minkatz zitzaion. Greziko aurreri ere Vergili ala zaiela nik uste, ni Homer bezal aiek ua ikasteko neke arek, neke aundi arek, beazunez bezala iizatzen zun greko-ipuien goxo guzia. Itz aienik batere ez nekin, eta zorrozki bortatxen ninduten ikastera, izu-ikaraz eta zigorrez. Latizkorik ereez nekin aur nintzala; alare polliki gogo emanez, bildurrik eta miñik gabe ikasi nitun iñudeen legunkeri artean, atsegiñen eta iosteta aien artean. Bortxarik eta zigorrik gabe ikasi nitun, biotzak baininderagin ene bururakizunak ernetzera, ta ez bainezaken itzen laguntza gabe. Itz aiek maisuz ez-baiña entzunez ikasi nitun, eta nere barne-eragiñak aien belarrietan erditzen nitun. Garbi ageri da au: berezko ikas-naia obe dala bortxazko bildurgarria baiño. Onek mugatzen du beste aren griña, Zure legez, Iauna, asi maisuen zigorretik eta martirien oñazeetaraño. Zure legeek badute barnean samintasun osasungarri, atsegin galgarritik gu alderagiteko.

XV

Iainkoaren alde bedi, emendik ara Augustiñek ikasia.

24. «Entzun, Iauna, nere otoiña», Zure zigorrarenpean akitu ez nadin; Zure errukiak aitortzen asper ez nadin, aien bidez atera bainauzu



biderik txarrenetatik. Zakida goxoago, lillura aiek baño; zaitzadan maita gogotik; egiodan muñ Zure eskuari biotz osoz; atera nazazu azkeneraño nere tentaldi guzietatik. Ene Iaun, Errege ta Iainko, aurtzaroan gauza danik ikasi badut, Zure serbitzurako bekit. Ortarako bitez nere mintzetze, irakurtze, idazte, kontatzeak, zigorkatu baininduzun uskeiak ikastea, eta uskeri aietan barkatu baitzenitidan ene atsegiñezko obenak. Aietan itz asko ikasi nitun onerako, uskeri aiek gabe ere ikasi zitezkenak. Au da aurrentzat ibilbide segurua.

XVI

Gogor erasoten dio ipui itsusiz itz ederrak ikasteari.

25. Eit iri, giza-oituren ibai orri! Nork egiñen dik buru? Noiz arte agoke txukatu gabe? Noiz arte amillaraziko dituk Ebaren umeak itsaso aundi bildurgarrira, osta igaro baititeke ontziz ere. Or irakurri diat Jupiter «ostosgille ta ezkontza-naasle». Biak batean ezin. Gizoneri antzera eragiteko asmatua dik ori: ezkontza naaslea, egizko; ostotsa, gezurrezko. Zein maisuk txartexa dunik entzun lezakek belarri onez, auts ortatik beretik atera dan gizona oiuka ta esanka: «Homer'ek asmatuak dituk oiek, eta iainkoeri egotziak. Naiago nitek Iainkoenak guri». Bidezago esan oi ditek arek asmatuak zitula; baiña gizon tzarri iainkozkoak egotzirik tzarkeriak tzarkerizat artu ez ditezen, ots, olakoen egilleek zeruko iainkoen antzera ari zirala, ez gizon galgarrien antzera.

26. Alare, ifernuko ibai, iregana oldartu oi dituk gizasemeak, olakoak ikasteko dirua ordainduz. Gauza aundiak ari dizkie ageriko enarantzetan, merezi baiño sari aundiago agintzen duten legeen aintzinean. Ik, ibai, arkiatzarekin tupust egiñez, au otsegiten duk: «Emen ikasten ditut itzak, emen ukaiten duk mintza-antzea, gauzak adierazteko ta esanak argitzeko ain bearrezko dana». Orrela, beraz ez genezazkek ulertu itzok: «urre-zuri, altzo, lillura, zeruko iauretxe» ta an idatzirik dauden beste itzak. Terentik gazte lizun bat agertu ez baleza Iupiter'en antzera aidekeri bat egiten, era berean ormako margazki batean zekusala «Iupiter, nola bialdu omen zun urre-zuria Danae'ren altzora, emaztea lilluratuz». Eta ikus, zerutik ikasirik, lizunkeri egiteko biotz nola artzen dun:

—*Zer Iainkok? —alegia.*

—*Zeru-sapai goinea ostotsez dardaratzen dunak.*

—*Nik ere nere gizontxoan ez al nezakek ori egin?*

—*Egin nian, naski, ta gogara.*

Ez arren, ez dira itz oriek obeki ikasten lizunkerien bidez; aldiz, itz orien bidez lizunkeria lasaiago egiten da. Ez ditut gaitzesten itzak, ontzi autak eta baliotsuak; baizik irkasle mozkor aiek aietan eskeintzen ziguten ardoaren gezurra; eta ez zan zillegi epaille gartxuarengana iotea. Nik, alare, nere Iainko Zure aintzinean laspidez oiek gogoratzean, pozik ikasi nitun olakoak eta atsegiñ artu nun aietan doakabe onek; eta etorkizun politeko mutiko deitzen ninduten.

XVII

*Olakoak gertarazten iaioena, Augustin;
Txaloetan aundinau billatzen.*

27. Zilegi bekit, Iauna, Zure emai dutan argitasun ontaz mintzatzen: zer amets zorotan galtzen nuan. Aski urduritzen ninduna, nere eder-itsusiz baliatuki ta zigor-bildurrez, asarre ta min zegon Iuno'ren itzak esatera ninderagiten, ots, «etzezakela Troiako errege Itali'tik aizatu». Iunok olakorik esan zunik ez nun beiñere entzun; baiña poesi-asmakerien ondotik zoro bezala ibiltera beartzen ginduten, eta poetak itz neurtuz esana guk itz askatuz esatera. Eta ortan asarre-miñik aundiena agertzen zuna zan txalogarriena, iainkosa ari zegokionez, bear bezalako itzez esaera iantzirik. Zergatik, ene Iainko, nere bizi egiazko, zergatik ioten zidaten txalo aundiagoa nik ua gerta berritzean, nere adiñeko lagun guziera baiño? Ez al ziran oro kee ta aize? Nere ezagumena ta mihia ez al zitezken gauza obeetan erabili? Zure goreskizunak, Iauna, Liburu Sainduetako goreskizunak arriturik iduki zezaketen ene biotza, ta ez zan ibilliko eriosuar arranoaren erpeetan, lizunkeri zoro orien ondotik. Amaika ladetara opari eskeiñi oi zaie ingeru gaiztoeri.

XVIII

Aizekeri orien gainetik, Iainkoaren aurpegia irrikatzen du.

28. Arrigarri la da, Iauna, ni aizekeri oek eramatea eta Zugandik alde-egitera, nik gertaberritzeko gizona itsusten ba zuten, bere zenbait egite —ez gaizto— arrotz itzez eta izkera maketsez ialkitzen zituala-ta beste gabe, ta aldiz aren lizunkeriak itz ugariz eta apaiñez ebakitzen zitulako biziki edertzen bazuten? Olakoak ikusirik ixilik zaude, Iaun «biotz-zabal, agitz erritsu, egizale zerana» (Ps. 85, 15). Beti ixilik al zaudeke?



Atera ezazu orain osiñ aundi ortatik ene anima, Zure billa ta Zure atsegiñen egarri dabillan anima, biotzez esaten baitizu: «Zure aurpegi-billa nindabillan; Zure aurpegia irratzen dut, Iauna» (Ps. 26, 8). Zure aurpegi-tik urrun, griña illuntsuak. Zugana ioan edo Zugandik etorri ez dugu egiten oiñez, ez tartea igaroz. Arako seme gazteen ua, zaldi, gurdi, itsasontzi edo olako billa ibilli al zan? egan egin al zun egizko egalekin? laisterka ioan al zan belanuk dantzatzuz urrutiko eskualdera, eman zeniona alperrik an xautzeko? Aita samur Zu, eman zeniolako, eta samurrago bearretan itzularazi zenulako! Griña lizunetan, ots, illunbean, ots, zure aurpegi-tik urrun.

29. Ikus, Iauna, ikus, gibel aundiz, oi bezala, gizasemeek iztun zaarren legeak nola dituten gordetzen itzetan eta silabetan; aldiz nola dituten gutxiesten Zugandik betiko osasunerako arturiko betiko legeak. Ain eta, mintza-legearen aurka *ominem* asierako hatsa gabe eman ezker, atsekaitzago litzaieke gizoneri, Zure legeen buruzki gizona gizon dalako gorrotaturik baiño. Gizon etsaia galgarriago ba litzaio bezala arenganako gorrotoa baiño; edota, besteri aurrean artuz kalte aundiagoa legiokelako, bere biotzari gorrotoarekin baiño. Kasiz baiño sortzez barneanago idatzirik daukagu ezagueran, geurori egitea nai ez duguna besteri ez egitea. Bai izkutu zaudela goi orietan ixil, aundi bakar zeran Iainko, lege aspergabez lizunkerik debekatuen ordain kastiguzko itsumenak barreiatzen! Mintzalari-aipua irabazi naiean, auzi-maisuaren aintzinean, iendez inguratuturik, esaiari izugarritzko aserrez ekiten diolarik, gizonak ernai begiratzen du, gaizki mintzatuz «*inter hominibus*» ez esata, ta ez du kezkarik, asarrea-ren asarrez gizona gizonen artetik kenduazteko (*ex hominibus*).

XIX

Etxean litxarrerri; iokuan iruzur.

30. Tzarkeri oen atekan etzana nindagon, aur doakabe, ta olako iardun tokia nintzan ua; bildurrago bainintzan itz arrotz bat esateko, bein esanik, esaten etzunari bekaitz izateko baiño. Au esaten eta aitortzen dizut, Iauna, zertan goersten ninduten aiek, ongi bizitzea aieri atsegitea baizitzadan: Ez nuan ikusten, eez, zer lizunkerien zurrunbillora «aurtikia nintzan Zure begietatik» (Ps. 30, 23). Artan ere nor ni baiñoon itsusiagorik? nardarazten baintun lagun gaiztoak ere; aurtazi, maisu, guraso, engañatzen baintun iokuaren goxoz, uskeriak ikusi naiez, eta antzera iarduteko iosta-urduri. Lapurretak ere egin oi nitun gurasoen iaki-gelatik edo

maietik, litxarreriz, naiz beste aurreri emateko; aiek, aldiz, beurek maite zituten iostalluak saltzen zitidaten. Iokuetan ere, nere aizekeriari ederretsirik, iruzurrez maiz engañatzen nitun. Alare, besteeri egiten niena neri egiten atzematen banitun, gogorki erasoten nien, iñola ezin-eramanez, eta ni atzemanik neri erasoten bazidaten, naiago nuan asarretu men egin baiño. Au al da aurren errugabea? Ez, Iauna, ez; ez, arren ene Iaungoikoa! Aurtzaien edo maisuenpean giñala, intxaurrekin, buxtarriekin, txoriekin iokatzen genun bezalaxe iokatzen dute, urre, ondasun, morroiekin, erriaun eta erregeenpean. Olaxe biurtzen gera adiñetik adiñera, txikien zigorra aundien oiñaze biurtzen dan bezala. Beraz, gure Errege, «zeruko iaurrerria olakoena da» Zuk esatean, aurtxoan kaizu txikia ipiñi zenun eredu (Mt. 19, 4).

XX

Iainkoaren doai aundiak zitun ala ere.

31. Alare, Iauna, diranak oro aundizki ta ederki baitituzu egiten eta burubidez antolatzen, eskerrak, Iauna, ni aur bestrik ez izatea nai ukan bazenu ere. Nintzana banuan ordun ere; bizi nintzan; sumatzen nuan nere iraun-bearra; artzen nuan, baitara gabe, bat eta bakar nintzaneke arreta; nere baitarik zaintzen nuan nere osasuna; atsegin artzen guza nimiñoetan eta nimiño orreri zerien egian. Ez nuan maite bestek iruzur egin zezaidan; oroimen ona nizun, ongi mintzo nintzan, banitun adiskideak, aldegiten nion miñari, ni gutsiesteari, iakiñ-ezari. Olako bizidun batean zerez da arri-garri ta goresgarri? Oek oro nere Iainkoak emanak ditut; ez nik nere buruari; ta oriek oro onak dira, eta oro ni naiz. Beraz, egin ninduna ona da, Beura dut nere ona, ta Ari poz-iauzi dagoiket, umetan ere nitun ondasunengatik. Au zan ene obena: atsegin, aunditasun, egi, Arengan ez-baiñan Aren sorkarrietan billatzea, neregan eta besteengan. Orrela aurtikitzen nuan neure burua naaspillara, gezurrera. Esker Zuri, Iainko gozo, nere edertasun, nere lasapide, nere Iainko! Aunitz esker, oriek eman ditidazulako. Irozoz etzazu. Orrela ni irozoko nauzu, ta Zuk emanak ugarituko dira ta biribilduko, eta ni Zurekin nagoke; naizan ere Zuk eman baitidazu.



BIGARREN IARDUNA

I

Bere lengo itsuskeriak ialkitzen asten da, aiek ez-baiña Iainkoa maitatzeko.

1. Gogora nai ditut ene lengo itsuskeri, gogozko aragikeri aiek, Zu maitatzeko, nere Iainkoa; ez, maite ditudalako. Zure maitearen maitez ari naiz ene bide zearo tzarrak oroitzen, saminki berritzen; Zu gozoago zakidan, gozotasun gezurgabea, gozotasun doatsu ta segurua; ta Bakar zeran Orrengandik aldegiñez, zatietan barreiatu bainintzan, batuko naiz nere puskaetatik. Irazeki baitzitzaidan gazterik, lurreko gauzetan nolabait ase-naia, utzi nuan iekitzen lizunkerizko oian beltza, ta aurpegia maxkaldu zitzaidan; usteldu nintzan nere buruari atsegiñez, Zure begien aintzinean giza-begieri atsegiñez.

2. Eta zer nedukan gogoan, nork ni maita, nor nik maita besterik? Ez nuan, ordea, esirik animatik animara, adiskidego argiaren muga-barrean, loikerietan eta gaztaroko likiskerietan baizik, ta aiek laiñotzen eta lillurutzen zidaten biotza, maitasunaren zeru izatsua ta lizunkiaren gau illuna ez bereizteko. Biak naaste zirakiten nigan, eta nere adin zoroa irris-kerien malkor guzietara zeramaten, eta gaiztakeri guzien ibaiean zuten pulunpatzen. Nausitu zitzaidn Zure asarrea, batere ez nekila. Nere erioaren kate-otsak sogortu nindun, nere aundinairen zigortako. Zugandik urrun nindoan, eta Zuk utzi. Oldartzen nintzan, ixurtzen, lizunkiaren irakiten nuan, eta Zu ixil. Ai nere beranduko poza! Zu ixil orduan, eta ni urrunago nindoazun oiñaze-landan barrena, oinbeste miñen azi-billa, aundikerian ezope, lasaitasunean ekurugaitz.

II

Maitatu nai du Augustiñek: baiña maitasun lizunez. Itsu dagu, laungoikoa ez maitatzeko.

3. Nork menderatu nere gaitz au? nork eni zuzen baliarazi, iges doazin edertasunik asma-berrienak? nork ezarri mugak aien goxotasunari? ain eta, adiñ artako ugiñak ezkon-ogeraño gaintzen baitziran, aiekin

pakerik ez banuan. Aurak ukaiteko, iakiña, Zure legeak agintzen dunera, Iauna; Zuk ugariazi baituzu gure enda, azi eriorok au sortuz, paradisuaren etziran griña arantzatsuetan eskua legun ezarriz; Zure guzizko ahala ez baitugu urrun, urrundu gizazularik ere. Ai nenzan entzun ereneago Zure odeien otsa!: «olakoek aragian arantza badukete; nik goxatzen diet, ordea», eta «on zaio gizonari emazterik ez ukitzea», ta «emazte gabe dagona, Iainkoarenetan ari da, Ari nola atsegin; ezkondua, ordea, munduarenetan ari da, emazteri nola atsegin» (I Cor. 7, 25). Ai entzun banitu oi u erneago, ta «zeruarengatik irendurik» (Matt. 19, 22), Zure besarkak doatsuago iguriki!

4. Irakin nuan, ordea, doakabe onek griñen oldarrerri ederretsiz, Zu utzirik! Zure legea oinpean artu nuan; baiña Zure zigorra ez nuan itzuri. Zein gizonak dezake au? Bertan ziñauden Zu, urrukian asarre, nere bidegabeko poz guziak oztopo samiñez zirtatuz. Oztopo gabeko pozaren billa nindabillan, eta ezin arki Zu besterik; Zuk Zure agindueri alegiazko miña ezarri baitiezu; sendatzeko zauritzen duzu; illerazten gaituzu, Zu gabe il ez gaiten. Non nintzan eta zein urrun nindabillan Zure etxeko atsegiñetatik amaseigarren urte godiñ artan, aragia nausiturik, ari buruz osoz eman nintzaionean! Lizunki zoro ori zillegi utzi oi da gizadiaren itsusirako; baiña debeku da Zure legeetan. Etziran axolatu etxekoak, erortzear nindagola, ni ezkonarazten; ni aalik obekien mintzatzea ta mintzoz eragitea zitzaien axola.

III

Ikastarora eten bear, aítak modurik etzulako. Griña txarrak, artean, sasia bezal ieki.

5. Ain zuzen urte artan ekarri ninduten Madaura auzo-erritik ango eskola utzaraziz, ara ioaten asia bainintzan ele-antzea ta mintza-antzea ikastera. Urrunago bidea ta gastu aundiagokoa gertu zidaten, Kartagora. Gure aita, Tagaste-erriko bizi-lagun xume izanik ere, asmo bixkorrez aberatsago baitzan ondasunez baiño. Norentzat ari naiz au esaten? Ez, naski Zuretzat, ene Iainkoa; gizadiari ari nizaio Zure aitzinean, baldin aren xati bati bederen idatzi ok irakurtea gerta baledio. Zertako, ordea? Nik eta au irakur dezatenek oro gogo eman dezagun zein barnetik dei egin bear dizugun.

Eta zer urbillago Zure belaritik, siñestez aitortzen zaitun biotza baiño, siñestetik datorren bizia baiño? Bai al zan orduan nere aita gores-



ten etzunik, eskolatu naiez ni urrunetara bialduz, beure buruz gaiñeko gastuak artzen zitulako? aunitz aberatsagoko erritarrek etzuten semeengatik ainbeste arreta artzen. Bitartean gure aita ez zan axolatzten nola ari nintzan azitzen, edota zein biozgarbi ninteken, itzez landua izan ezkeru, obeki esan, Zure landan landugabea; Zu baitzera, nere Iainko, bioz-lur onen nagusi ona.

6. Baiñan amaseigarren urte artan, etxekoen eziñez eskolak utzirik, gurasoenean alper nindagola, griña tzarren sasia iekitzen asi zitzaidan ni bete ta geiagoan, eta eskurik ez ua erauzteko. Areago; bein, basia artzen ari nintzala, aitaik nigan giza-suma ta eziñegona auteman zularik, ikotika ioan zan amari adieraztera, illobasoak besoetan lituken gisan. Ahantzi du munduak beure mozkorraldi alaiean, Zu zaitula Irazale, ta Zu maita orde, Zuk irazan ukan du maite; naimenaren barnean baitauka, gaizkira ta biurrira deraman ardo izkutu ori. Baiña gure amaren biotzean asia ziñan Zure iauregia egiten, bizileku berria antolatzen. Aita oraiño kristauegai zan, ikasten asi-berria. Orregatik asaldu zan ama gaixoa, ta ni kristau ez nintzala ere, bildur-ikara zegon ene ibillera makurrez: Zu, aintzinean-ordez, gibelean uzten zaitutenean ibilleraz.

7. Ai ene! Badut bekoki, Iauna, ixil ziñaudela esateko, urrun nindo-azularik. Ixilik ote Zu, orduan ere? Zure ezik noren ziran, ama kristau aren bitartez belarrietan sartzen zenitidan itzak? Etzitzaizkidan batere biotzera ietxi, aiek ziagotena egin nezan. Ark nai baitzun —gogoan daukat arreta guziz agindu zidala— ez nendila lizundu, ta batez ere, besteen emazterekin ez nendila naasi. Emakume-esanak zidurizkidan, eta lotsatu ninteken orieri leku ematen. Zure esanak izaki, ta nik ez iakin. Zu ixilik ziñaudela nik uste, eta ua zitzaidala ari. Aren bitartez etzintzaidan ixiltzen, atertu gabe ari zintzaidan, eta ala ezesten zindun Zu aren seme onek, Zure mirabearen seme onek, Zure mirabe onek. Ez nekin, orde, ta lotsa nuan ene kidekoen artean aiek bezain lotsagarri ez izatea: alako itsutasunez amiltzen nitzan. Ikusten baintun beren gaiztakeriaz urgoitzen: lotsagarriago ta areago. Nik ere atsegin nuan alakoak egitea, ez, egin utsaren atsegiñez; baita aipu-naiez. Zer da itsusgarri, gaiztakeria baizik? Ni, alare, gaiztoago biurtzen nintzan, gaiztetsi ez nindezaten. Eta galduenekin berdintzekorik egin ez nunean, egin nulakoa egiten nuan, errugabeagoz kaxkarrago edo garbiagoz zirtzillago ez agertzearren.

8. Ara nolako lagunekin nindabillan Babiloniko karriketan. Iraultzen nintzan angokaztietan kanelaren eta lurrinkaien artean bezala. Ni aren zilborrean itsatsiago, ta nere etsai izkutuak ni zanpatzenago ta lilluratzenago; lillurakoi bainintzan. Gure ama ere Babilon erditik orduko aldegiña,

baiña bestela nagixko zebillana, axolauago zan ni garbitasunera eragiteaz, senarrak nitaz esan zionaz baiño; ots, griña likitsa ta arrisksua giñare bizian ebakitzeaz, al bait, emazteganako griña onaren bidez ua ezitzeaz baiño. Ez zan axolatu ontaz; bildur baitzan, ni emazteari lotu ezkeru, nereki itxaropidea gal zezan. Ez, naski, ama batek beste mundurako Zugan dun itxaropidea, baizik eta eskolarena; ontara eroriegi baitzeuden bi gurasoak: aita, Zutaz ezertsu gogoeman gabe, nitaz, orde, uskeriak gogoemanez; ama, berriz, oiko ikaskizun aiek Zu ukaiteko laguntza zira-la zerizkiolako; ez eragozpen. Ala nago orain, gurasoen oiturak al bait gogoratuz. Galga lasaegi uzten zidaten iokurako, doari zegokion baiñon areago, nere naikerietan barreiatzeko zorian. Alde guziatn illunbea arkitzen nuan, Iauna, Zure egiazen argitasuna galarazten; eta gaiztakeria zerdan, gizenari izerdia bezala.

IV

Lapurretan, bearrak ez-baiña, gaiztakeri utsak eraginda.

9. Zure legeak laurreta zigortzen du, Iauna, eta giza-biotzetan idatzirik dagon legeak ere bai; gaiztakeriak berak ere ez baitezake itzali. Lapurrak lapurra iasan al dezake bada gogo onez? Ez aberatsak ere, bear gorrian dagona. Nik, naski, lapurreta egin nai ukan nuan, eta egin ere; ez, bearrak eta ez-ukanak zirikataturik, baiña zuzenaren nardaz eta gaiztoaren gaiztoz. Etxean gaiñez eta oberik nula ostu bainun, lapurturekin atsegin artzen nulako ez-baiñ lapurtzearekin eta gaiztakeriarekin. Gure maastia- ren mugatik urbil udareondo bat zegon udarez betea, ez bada begien ez agosapaiaren kilikagarri. Ua iñarraustera ta eramatera atera giñan gaueko ez-orduan mutikorik bigurrienak; ordurarte luzatu baikenun gure iosteta, oitura gaiztoz. Artatik ausarki ostu genun, ez iateko, zerbait ian bagenun ere, baizik eta zerrieri aurtikitzeko. Onela nai genuna egin genun, ez, zillegi zitzaiguna. Orra nere biotza, Iauna, orra nere biotza, tulunbioaren ondarrean egonik urrikaldu zaitiona. Esan bezaizu biotz onek, zeren billa zebillan, alperrik gaizto izateko, ta nere gaiztakeriaren zergatikoa gaiztakeria zala, ez besterik. Itsusia zan eta nik ua maite, galbidea maite; uts eragiten zidana ez-baiñan, utsa bera. Anima lotsagarria, beure ondamendira-ko Zugandik koloka doana, itsusia maitatuz, ez arek dakarren zerbait.



V

*Iainkoa utzita beste zerbaitengatik egin oi da oben;
ez utsaren orde.*

10. Izan ere, eder diran gorputz, urre, zillar eta olakok aurpegi polita dute. Ukitzeari dagokionez, gorputzaren egokierak asko esan nai du. Beste zentzuek ere badute bakoitzari dagokion eragiña. Izen onak, agintzak eta garaitzeak, badute beuren edertasuna: ortatik dator oinbeste mendeku-nai. Guzi oriek ukaitean ez da irten bear, Iauna, Zugandik, ez bidegatu bear Zure legetik. Emengo bizi onek ere badu beure zoramena, nolabaiteko edertasunez, eta eder diran beste gauzañokekin ongi datorrelako. Adiskidegoa ere atsegin da, aunitzen gogoak batera goxoki korapilatzen ditulako. Guzi oriengatik ederresten zaio obenari, oriek on izanik ere, gaizkira-nai neurrigabe onek obe ta oberen diranak utzerazten baititu: Zu, Iauna, Zure egia ta Zure legea. Gauzaño oriek badute beuren atsegiña: baiñan ez nere iainkoak aiña, Ark egin baititu guziak. Zintzoak Argan du atsegin: «Ua da biotz zuzen oroen atsegin» (Ps. 63, 11).

11. Auzitan, gaiztakeria zergatik egin dan galdegiten dalarik, gauzaño orien ukan-naia edo galdu-bildurra agertu dalako, besterik ez da siñesten ere; eder eta egoki baitira, aundiagoen eta zerukoan aldean kaxkar etazirtzil izanik ere. alakok gizona kali du. Zergatik? alakoen emaztea edo landa maitexko zitulako, edo bizitzeko aiña ostu nai zulako, edo zerbait galdu-bilduez, edota, kaltea ukanik mendekuz sutu zalako. Eriotza egin al zezaiken bada eriotzaren atsegiñez? Nork siñetsi? Gizon biozgabeenaz eta ankerrenaz esan baita utsaren orde zala biozgabe ta anker, ark ere emana zun beure arrazoia: «Geldi egonez, eskuak eta biotza baldartu etzitezten». Ori ere, zergatik? Zertako? Gaiztakei aiek egiñez Erromaz iabeturik, izena, agintea, ondasunak ukaiteko; eta lege-bildurra ta diru eskasiz, eta gaiztakeri ezagunezko bizibidearen zailtasuna egozteko. Beraz, Katilinak ere ez zun maite gaiztakeria bera: ua egiñarazten zion beste zerbait, ordea.

VI

*Augustiñek zergatik egin zun lapurreta ua?
Iruzurrez legea austearren?*

12. Zer maitatu nian, beraz, nik, doakabe onek, iregan, nere amaseigarren urteko lapurreta, gaiztakeri? Ez intzan eder, lapurreta izanik. bai al aiz zerbait, irekin mintza nadin? Ebatsi genitun udare aiek eder ziran, bai,

Zuk egiñak baitziran, guzietan ederren, guzien sortarazle zeran Iainko ona, ontasunik aundiena, nere egiazko ontasuna! Eder ziran udare aiek, baiña nere anima doakabea ez zan aien mikuin, obeak ugari baintun. Lapurtzez utsez lapurtu nitun, bilduta bota egin baintun, gaiztakeri utsa ianez; aren atsegiñak alaitzen bainindun. Udare aietatik ene agoan sartu zana, gaiztoaz aogozatua zan. Orain galdegiten diot neure buruari, nere Iaun eta Iaungoiko, zerk atsegin zidan lapurreta artan; eta ezdud itxurarik ere arkitzen. Ez, naski, zuzentasun edo zuurtasunarekin, ez eta gizonaren ezagueran edo oroimenean eta zentzuetan edo bizian berean dagonik; ez ortziko izarren itxurarik edo edertasunik, ez eta —iaio ta il— bizi dunez beterik dauden itsaso ta legorrenarekin, ez eta, bederen, gaiztakeriak berekin dun gezur-ederraren itzalik ere.

13. Aundikeriak ere aunditasun antza artzen du, guzien gain Iainko gaiñeneko Zu izanik. Aundinaiak ere aginta ta aipua besterik zer nai du? Eta Zu izan, guzien artean, betiko agintzadun eta aipagarri. Agintarien bekozkoak bildur eragin nai du. Nor, ordea, bildurgarri Iainkoa baizik? Aren nausigotik nork iges? noiz? non? nola? Gizon lizunen legunkeria maitasun-billa dabil. Ez da, ordea, Zure maitasuna bezain legunik. Ez da maitatzen ezer protxurako, Zure egi argi ua baño: ua da gauzarik ederrena. Ikusmiñak ere iakin-naiaren itxura artzen du; errotik, ordea, Zuk daki-zu guzia. Iakiñ-eza eta zozokeria ere bakuntasun eta «gaiztagabe» izenez iantzi oi dira. Zu baño bakunagorik, ordea, ezer ez da arkizen. Zer Zu baño gaiztagabego? Zuk egiñak gaiztakeriaren buruz buru baitaude. alperkeriak atsedean antza du. Zer, ordea, atsedean egiazko Zu baizik? Lizunkeriak asearen eta ugariaren antza du; Zu, berriz, betetasuna zera, ta atsegin lizungabeen iturri agortu eziña. Ondatzailleak eskuzabal agertu nai du; Zu zera, ordea, on guzien emaille aberatsa. Zikoizkeriak asko ukan nai du; Zuk guzia duzu. Bekaizkeria norgeika ari da; nor, ordea, Zu baño geiagorik? Asarrea mendeku billa dabil; noren mendekua Zurea bezain zuzena? Bildurra, ez-ustean eta bat-batean latz ikaritzen da, batek maite ta opa ta seguru gorde nai ditun gauzak galdu-arrikkuan. Zuretzat zer ez-usteko? Zer bat-bateko? Zuk maite duzuna nork Zuregandik bereizi? Edo non egonarri sendoa Zuan baizik? Urtzen da goibeltasuna bere gutizia asetzen zioten gauzak galdurik; ez bailuke nai ezer ken lezaio ten, Zuri bezala.

14. Orrela likisten da anima Zugandik aldegiñez, eta Zutaz landa dabilla gauza naasgabeen eta garbien billa; zugana gabe, ordea, ezin arkitu. Zugandik urrutzen eta Zure buruzki iekitzen diranek, Zure antza oker artzen dute. Alare, oker antzeratze ortan bereon, ederki adierazten



dute Zu zerala sorkari guzien sortarazle; ez baitute iñola Zugandik oso aldegitik. Zer nuan, beraz, naite lapurreta artan, eta zertan antzeratu nintzaion ene Iaunari okerrean eta gaizkian? Izanez ezin eta itxuraz bederen banizun aukera, aukera maketsa, legearen buruzki iarduteko, eragotzirik ere, zillegi ez zana zigortu gabe egiteko, guzia dezakenaren antz illuna artzeko. «Ara morroia nagusiagandik iges, itzala ardietsiz» (Job. 7, 2). Zer ustelkeri! Zer bidutzi! Zer erio izugarri! Zillegi etzitzaidana al nuan atsegin, zillegi etzitzaidalakoxe?

VII

*Eskerrak Iainkoari erorika oriek barkatu ditiolako.
Erori ez danak, nori zor dio zutik egona?*

15. «Zer zor dioket Iaunari» (Ps. 115, 12) guziok oroiturik oraiño bildur ez naizalako? Maiteko zaitut, Iauna, eskerrak emanen ditizut, Zure izena aitortuko dut oinbeste gaizto ta itsusi barkatu didazulako. Zure graziari zor diot, Zuk ene obenak izotza antzo urtu izatea. Eskerrak Zure graziari, egin ez ditudan gaiztakeriengatik ere. Zer ez ote nezaken egin, gaiztakeria utsaren orde egitea maite ukanik? Aitortzen dut oro barkatu zaizkidala, nere baitatik egin nitunak eta Zure laguntzaz egin ez ditudanak. Zein gizon ausartzen da olako aultasuna ikusiz, beure indarrez dala garbi ta errugabe esataen? gutxiago maita bear al zaitu Zure errukiaren bear gutxiago zulakoan? Erruki orrekin barkatzen baitituzu Zugana datozenen obenak. Zure mintzoari iarrai zaionak, nere oroitzapenak eta aitorpenak irakurtean, ez dezala irri egin bizi dalarik, ni sendatu naun medikuak berak egin baitu, ua itsuski gaizkitu ez dedin, edo ariñago gaizkitu dedin.

VIII

Beste lapurren lagunarte gaiztoa zun maite

16. Zer etekin ukan nun orduan gaixo onek, orain oroitzuz lotsa artzen dutan artatik, batez ere, lapurreta artan ez bainun lapurreta besterik maite ukan, besterik ez, ua ezer etzala; beraz ni ainbat errukarriago. Alare bakarrik ez nuan egiñen —orduko griña orain gogora dutanez— ez nuan iñola bakarrik egiñen. Ortaz, lapurreta egin nunekiko lagunartea nuan maite. Ez da, beraz, egi lapurretan lapurreta besterik ezer maite ez nula; «besterik eza» areago, ua ere ezer ez baita. Zer da bada, izan ere? Nork ira-

katsiko dit ori, nere biotza argitzen dunak eta nere itzalak ikertzen ditunak ezik? Zer ari naiz galdegiten, aztarnatzen, gogoematen? Ordun ostu udare aiek maite ukan banitu, ta aietaz gozatu nai, atsegiñera nindekarren gaiztakeri ua bakarrik ere egin nezaken, aski izan balitza. Ez nuan piztuko nere gutizia, lagunek ni zirikatuz. Baiñan udare aietan ez bainun atsegiñik; gaiztakerian nuan atsegin, lagunekin batean atsegin artuz.

IX

*Obena nork ulertu? Lapurreta ua ez beñere egingo lagunekiko
atsegiña gabe.*

17. Zer zan, bada barneko griña ua? Oso itsusia, naski, ta errukarri ni ua neukalako! Zer zan, izan ere? «Gaiztakeriak nork ezagutu?» (Ps. 18, 13). Bioz-kilikari zerion irri-murrizta zan; olakorik egiten ez genula uste zuten aiek engañatzen baikenitun, eta nai ere etzuten nai, naski, iñola. Zergatik artzen nuan atsegiñ, neronek bakarrik egiten ez nuaz? Iñork, bakarrik dagola neketan irri egiten dulako? Neketan, naski; baiñan, iñor aintzinean ez dula bakar dagon gizona ere irriak garaitzen du, gogoak ezer txit parragarri ematen baio dio. Nik ordea ez nuan bakarrik egiñen; bakarrik ez nuan iñola egiñen. Zure aintzinean daukat, ene Iainko, orduko oroite bizia. Ez nuan lapurreta ua bakarrik egiñen, eez bainun atsegin lapurtu artaz, baiña lapurtzen nulako; eta ori neronek bakarrik egitea, ez nuan atsegingo, eta ez egingo ere iñola. Adiskidego etsaiegia! Eziñ-aztar-na alako lillura! Iostaketaz eta iolasez gaitz egin naia! Besteri kalte egingosea, ez nere irabaziz, ez zitalkeriz ere, baiñan esaten baita: «goazen, egin dezagun». Lotsagabe ez izanak lotsaten gaitu.

X

*Itsuskeri ontatik begiak alde, itzuli detzadan Zugana, Iainko eder,
Zu baitzera biotzaren atsedena.*

18. Nork askatuko du korapillo bigurri ta naasi au? Bai itsusia dala! Ez diot so egin nai, ez dut ikusi nai. Bai Zu, zuzentasun ederra, errugabe ederra, Zu begi garbiz eta eziñ-asezko atsedenez. Zudan dago atsedean aundia, asalda gabeko biziera. Zuregana sartzen dana «beure Iaunaren atsegiñean sartzen da» (Mt. 25, 21). Ez da ikaratuko, ta ederki arkituko da ederrenarekin. Aldegin nuen, ene Iainko, Zuregandik, Zure geldi-egonetik ene gaztezarroan, eta lur gose gertatu nintzan.



IRUGARREN IARDUNA

I

Kartagon erori zan lenbizikoz, gogo zunarekin; baiña zenbat nage bialdu zion Iainko erukiorrak artatik.

1. Ioan nintzan Kartagora, ta nondinai maite lizunak bar-bar zetozikidan. Oraino maite ez nik, baiña maita-nai eta gose izkutuz begitan nedukan gosegabeago izana. Zer maita nindabillan maita-naiez, eta nardagarri zitzaidan bide segurua ta arrixku gabeko bidetxurra; barnean baineukan ianari izkutuaren gosea, Zurea, nere Iainko; baiñan ez nintzan ortaz gose. Ianari ustel-eziñaren gose ez nintzan —ez artaz beterik nindagolako— baiñan utsago ta nardatuago. Nere anima etzegon beure onetan, eta zauriz beterik zoan, urrikarri, sumagauzen uki-galez; sumarik ez balute ez bailirake maitagarri. Elkar-maitea goxoago zitzaidan, batez ere, maitearen gorputzez ase banendi. Likisten nuen, beraz, adiskidetasun garbia aragiaren ur zikiñetan, eta laiñotzen nuen aren zurtasuna aragiaren lurrin iperukoekin. Alare, aizekeri aundiz, itsusi ta lizun izanik, apain eta iendekiko agertu nai nuen. Erori ere nintzan gogo nuneko maitearekin. Ene Iainko, nere urriki! Nolako beazu-zirtaz kirastu zenidan goxotasun ua, Onbera orrek! Maite artu nindun eta ixilka atse-lokarriz lotu. Biltzen nindun, ene pozarren, laztan gaizto aietan. Baiña Zuk iotzen ninduzun burni-zigor goriz, ots, tukuz, goganbearrez, bildurrez, gorrotoz eta asarez.

II

Antzokiko ikuskarriak erakartzen zuten. Gauza lazgarriak ikustean kupitu-naia; miñak nola ditugun maite.

2. Ikustegiko ikusgarriak erakartzen ninduten, ene likiskerien iduri pizgarritz beteak. Negargarri ta lazgarri aiek ikustean zertako kupitu nai dugu, geurok iasan nai ez genuken miñez? Alare ikusleok samindu nai dugu, ta samiñ ori zaigu atsegin. Bai zorakeri urrikarria! miñ artaz ioago ta samiñago gertatzen baikera. Baizik ere, alegi orietan, geurok iasaitean urrikarri biurtzen gera; bestek iasaitean urrikaltsu. Baiña zer urriki arki diteke alegizko ikuskarietan. Entzulea kupitzera deitzen dut, ez, laguntze-

ra. Alegitan ari dana kupituagoz du laguntzenago. Eta, aspaldiko edo gezurrezko gizon aien ezbearretan ikuslea ez kupierazteko eran ari badi-ra, nardaturik eta gaizki-esaka aldegiten dugu; kupitzen bagera, ordea, gustora gelditzen.

3. Beraz, malkoak eta miñak ere maite ditugu? Gizon oro poz-billa dabillen arren, urrikarri izan nai ezik, urrikaltsu izan nai du. Au, ordea, samiñik gabe ez baititeke, orregatik ote ditu miñak maite? Au bai, adiskidagoaren ur garbia da. Nora, ordea, nora doa ur ori ixur, bere baitaz ustlurik eta garbitasun zerutiar ortatik okerturik, lizunkeri beltzen pike-ibai irakiñera? Bego, beraz, urrikia? Iñola ere! Bitez noizbait miñak ere maite. Baiña begira zikindu, nere anima, begira likistu, nere Iainkoaren magalpean, betik goresgarri ta areago dan, gurasoen Iainkoaren babesean! Orain ere ez nago urriki ori gabe; baiñan ikustegietan maiteek elkar lotsagarriro laztantzen zutelarik, poz-lagun ninduten, alegiz bestez ari ez baziran ere; elkar galtzen zutelarik, berriz, urrikiz goibel nintzan; alare, bieta-ra atsegin. Orain, aldiz, urrikarriago dut lotsa-galduen poza, atsegin galgarría ta zorion itsa galduz gorriak ikusten ditun arena baiño. Au urriki ziñago da; baiñan ez nau miñ orrek pozten. Urrikarriaz kupitza maitezko eginkizun ona bada, urrikaltsu iatorrak naiago luke kupitu-bearrik eza. Gaizkinaiezko onginairik baldin bada —eziña baita— egiz ta ziñez urrikaltsu danak urrikariak gertatzea nai ote dezake, aietaz urrikaltzeko? Beraz, miñen bat baietsi diteke; maitatu, ez. Zu, Iainko Iauna, animak maite dituzuna, aietaz gu baiño milla aldiz garbiago zera urriki, eta urrikago, ez baitzera iñolako miñez zauritzen. Nor, ordea, ortarako gai?

4. Urrikarri onek urriki-miña maite nizun, eta urriki-gaia billatzen. Besteren gaitzean, naiz gezur-alegi, naiz dantza-alegi, iarduleak negar zeragidaraño keiñua nizun atsegiñen eta maiteen. Arritzeko al da, ardi galdu gaixo au, Zure artzaingoa ezin-iasanez, atz zikiñez betetzea? Ortik urriki-miña, ez ni barnago samintzeko —ikusiak ez baintun iasan-nai— baiñan alegi aiek entzunik, axaletik bederen uki nindezaten. Alare ba zuten berekin aznai amorratua emateko aiña aunditsu, asarre, zorne, odolmami. Olako biziera, biziera al zan, ene Iainkoa?

III

Eliz-barnean izketatu zan batekin, bien ondamedirako Iainkoaren zigorra. Ikasle zalapartariak.



5. Aspaldi nere inguru egan zebillan Zure urriki ziña. Zenbat gaizta-keritan amaratzen nintzan! Zu utzirik, ipernuko ikusmiñak nideraman zoko bildugarrietara, deabruen akelarreera, nere egin gaiztoak opari eskeintzera, eta Zuk zigor ematen zenidan. Elizkizun ospatsu batean, Elizaren barnean, norbait irrikaturik, izan nizun bekoki arekin ondamen-dirako izketatzeko. Orregatik zigorkatu ninduzun berriro, ez ordea obenaren einean, ene urriki aundiegia, nere Iainkoa, gaizkille aundiengandik ene iges leku! Aiekin nindabillan, burua zut, nere bideak maitatuz, ez Zureak, lasikeri igeskorra maitatuz, Zugandik urrun alde egiteko.

6. Orduko ikasketa aiek, edergarrizko deritzatenak, auzi-etxera zuten bide, eta nik artan nabarmendu nai, bidegabezago ta txalotuago. Olako itsumena du gizonak, itsutasunaz ere illarraintzen baita. Mintza-eskoletan «aintzinetako» nintzan, eta aupatzen nintzan aundinaiezko zora-edariz. Alare, «zalapartari» deritzaten aiek baiño paketsuago, ta aiengandik urrun, Zuk dakizu, Iauna. Izen gaizto deabruzko ori ongi-azien ezaugarri zeukaten, eta aien artean bizi nintzan lotsa gabeko lotsaz, ez bainintzan alako, eta aiekin nindagon, eta aien adiskidegoa atsegin zitzaidan iñoiz, aien egiñak iguiñik ere, ots, maxikeriak; asiberrien lotsaz baliatuki, makurra utsaren orde egiten baitzuten, bere irrien atsegarri. Au baiño deabruzgoko egitenik bai al da? Zer izen egokiagorik «zalapartari» baiño? lenda-nik beraiek deabruak artuak baitziran; baiña besterik maxiatzean eta engañatzean berean, deabruak izkututik irri dagie.

IV

Kikeroren «Hortensius» irakurten du. Liburu onek Iainkoagana biziro eragiten dio. Epeltzen du, alare, Kristoren izena an ez arkitzeak, amaren magalean edoski zun izena.

7. Oriean artean, adin lerrakor artan, mintza-antzea ikasten ari nintzan, artan nabarmentzeko, aundi-aize gaiztoz. Oituzko liburuak urrenez urren ikasirik, Kikeroren liburu batera eldu nintzan, «Hortensius» deritza, aren mintzaek oro arritzen baititu; ez ala biotzondoak. Liburu arek iakin-miña sortuazten du. Ark asmo-aldarazi nindun. Nere otoitz, opa, naikari, Zugana aldarazi zitidan, Iauna. Lengo itxarokizun zozoak bat-batean kaxkartu zitidan, eta iakinkizunetan betiko aipua sutuki tirriatzen nizun. Asi nitzan zutitzen, Zuregana biurtzeko. Liburu ua ez nerabillan mihia zailutzeko, amak bere alderdi guziz ala nairik ere. Aita il zala bi urte

ziran, ni emeretzigarrenean nintzala. Ez nerabillan, ez, mihia zailutzeko; «nola esan» orde, «zer esan» irakasten zidan.

8. Bai sutu nintzala, nere Iainko, bai sutu nintzala, Zuregana lurretik egan egiteko! Ez nekin zer ari zintzaidan, «iakintasuna Zeuregan baitaukazu» (Job. 12, 16). Jakin gale orrek grekoz *philosophia* du izen, eta ango itzek artara nideragiten. Badira zenbait iakinzale, beuren gezurrak itz legunez eta ederrez itzalgaizten ditutenak. Lenaldietan ordurarte olako ziran geienen izenak, liburu artan ezarten eta argiratzen ditu. An ageri da oarkizun Zure arnas osasungarria, Zure mirabe on eta iainkozkoari idarokia, «Begira iñork lillura zaitzaten iakingalez eta itz zoragarri mundu ontako asi-masiak giza-mihiz erakuski, ez Kritoz; onen gorputzean baitaigo bete betean iainkotasuna» (Col. 2, 8). Ontaz bakarrez artzen nuen atsegin liburu artan, badakizu, Iauna; ez alderdi au edo ori billatzez, maitatzez, ukaitez, ardieste, tinki laztantzez; baizik eta iakiñez beraz, nolanaiko zedilla; ez bainekitzan, ene biotzaren argi, apostoluren itz oriek. Iardun arek nindun pizten, sutzen eta erretzen, baiñan oimbeste su-garren artean, zerak epeltzen: Kristoren izenik etzala an ageri. Izen au, Iauna, Zure urrikiz, zure Seme ta nere Salbatzailearen izen au, amaren bularbularretik txintxo edan baitzun nere biotz samurrak, eta barne-barnean zedukan. Beraz, izen au gabe idatzirik zegon edozerk, ele ederrez, apain eta egiaz izanik ere, ez nindun enegandik ateratzen.

V

Liburu Sainduak irakurtea erabakitzen du; baiñan aren arroke-riari kaxkar iduritu zitzaizkion.

9. Beraz, Liburu Sainduak nolako ote ziran aztertzea erabaki nizun. Baiñan arranditsuentzat izkutuegi zerizkidan, bai ñimiñoentzat ere. Izkera arrunta, esankizun auta, izkutupean emana. Ez nindagon ari ekiteko eran, edo ari burua makurtzeko eran. Ordun, irakurtean, ez nion iritzi orain diñodana. Kikero aundiarekin alderatzeko kaxkarregia iduritu zitzaidan. Ene aizekeriak etzun baiesten alako izketarik, eta nere ezagumena ez zan aren barneraiño sartzen. Aurrarekin azi oi dan izketa zan; nik, orde, ez izan nai aur, eta arrandiz neure burua aundi egiten nuen.



VI

Gizon arroputz batzuek, «egia, egia» esanez, gure iaurespidearekin naaste-borraste bat zegiten. Ianari exkaxa zan ua neretzat.

10. Gizon arroputz, ameslari, zoro, aragikoi, berrizu, agoan deabruaren xedea dutenen artean gertatu nintzan. Zure izenaren eta Iesukristoren eta Gogo Gurenaren silabak naasiz, otats bat egiñik, etziran ixiltzen, ele-burrumba zeriela; biotza, berriz, aietaz utsa zeukaten. «Egia, egia» ziñoten, ez Zutaz bakarraz, Egi baitzera; baita Zure sorkari dan mundu onen osagaietaz ere. Oetaz egia ziñoteneri ere ez nien iara eman bear; Zuregatik gorago io bear nuan Aitarik oberena, edertasun oroen edertasuna! O egi, egi! zein barnemuñetik zegizun asperen ene animak, aien agoetan eta liburuetan atergabe ziñan Ori! Zutaz gose nintzala, ikus zer ianari zemaidaten; eguzki, illargia, Zure sortukizun ederrak, baiña sortukizun; ez Zu. Aiek ere ez lenbizikoak gorpuzki egin baitzenitun, ez gogaki, dirdaitu ta eder dirala ere. Nik ordea, Egi, lenbiziko aiek ere ez-baiña Zu zindudan irrika, Zuan «ez baita aldarterik, ez itzalaldirik» (Jac. 1, 17). Zure gose-egarri ninduzun. Ianari aiekin oraiño beste zenbait idurikizun lilluragarri iaukitzen zidaten. Begien bitartez idurimenera gezur aiek sartu baiñon eguzki au obe zan maitatu, begiendako egi baita. Alare, Zu ziñalakoan iaten nitun, ez naski gogoz, ez baitzintzaidan orain bezain gozo. Idurikizun zozo aietan etziñauden Zu. Aiek ez ninduten iñutzen, bai erkitzen. Ametsetakoa ianaria, ianari iatorren antzekotsu da; baiña lo daudenak ez ditu asetzen. Aiek etziran Zure antzeko, orain mintzo zakidanaren antzeko, gorputzezko idurikizun baitziran: gezur-gorputz. Zeruan, lurrean, pizti naiz egazti, aiek baiño areago dira, begiz baitakusaguz. Iduritut baiñon ikusiz geiago dira. Oriek oiñarri arturik, beste aundiagoko mugagabeakoak egizago iduritara ditugu, batere ez diran aiek baiño. Olako uskeriekin iñutzen nintzan; ez iñutzen ere. Zu ordea, nere maite —akitzen bainaiz Zuregan bizkor izan naiez—, Zu etzera ikuskari oietakorik, zeruetan zauden arren dirakenetan ere etzera, oriek ere Zuk egin baitituzu, eta ez daukazu asmorik bikaiñenetan. Zeiñ urrun zauden, beraz, ene iduripen aietatik, ez diran gorputz aien idurietatik! Diran gorputzen idurikizunak egiago dira ta gorputzak berak egiago. Zu etzea, alare, ez gorputz, ez anima ere, au gorputzen bizia baita. animaren bizia zera, biziñ bizia, Zerorrez bizi zerana, aldatzen etzerana, nere animaren bizia.

11. Non zindudan, beraz, orduan? Zein urrun! Zugandik urrun nindabillan, larre-zerrien ezkurra ere zillegi etzitzaidala. Gramatikuen eta

olerkarien ipuin aiek aunitz obe ziran iruzur oriek baiño. Bertso ta lelo, ta «Medea egan», onuratsuago dira, beste arako «bost osagai ñibirri-ñabar», «bost leize beltzetako egiñak» eta baiño, utsaren utsez illerazten baitute siñsteduna. Neurkitz eta lelo ta olako ere ianari dira. «Medea egan» kantatu arren, ez nizun baiesten; kantari entzunik ere ez siñesten. Beste oriek siñetsi nitun. ai, ai, zer zurubitan bana ietxi naiz ipernuaren barnenera! Nekez, sukarrez, aragi-griñaz billa nai zindudan Zu, Iainko Iauna, ez ezagu-argiz, ontaz bainago piztien gaiñetik, Zuri aitortzen dizut, aitortu baiño len urriki zintzaidan Ori! Zu baitzindudan billatzen, piztiak baiño areago egiten naun adimenez ez-baiñan, aragizko zentzuekin. Zu, berriz, nere barnena baiño barnago ziñauden, eta nere gaiñena baiño gorago. Tupust egin nizun arako emazte zuurtze-gabe arekin, Salomon'ek beure zugur-itzetan orrela agertzen baitu atalondoan eseririk, au esanka: «ianazue gogotik ogi lapurtua, edazute lapurretako ur ezia» (Prov. 9, 17). Ark lilluratu nindun. Begietan igerra zidan nitaz landa nindabillala, ta begiz iretsi nitunak ausnartzen ari nintzala.

VII

Gorputz-begiz eta idurimenez atzia besterik ez nuen asmatzen: ez nekin Iainkoa gogaki zanik, ez, zuzentasuna zer zanik.

Beste egirik ez nekin, eta barnak aieri siñestera zirikatzen nindun, zoro aieri. «Gaitza nondik ote, Iainkoa gorputzez mugatua ote, illerik eta azkazalik ote; emazte aunitz dutenak zuzen ote, orobat giza-iltzaileak, animaliak opari eskeintzen ditutenak», eta olakoak galdegiten zitidatenean, iakin gabez naasten nintzan, eta egitik alde, egira nindoala ziduridan; ez baineikin gaitza onik-eza zala, ezaren beraren mugaraiño. Nondik neki-ken? ene iakite guzia gorpuzkiak begiz ikustea baitzan, eta idurikizunak gogoz. Ez nekin Iainkoa gogaki zala, ez baitu azbegirik luze-zabalean, ez baitu mukulurik, mukulua ñimiago baita zatian osoan baiño; ez baztergabea balitz ere, nonbait ñimiago da, tarteka an emen mugatua dalarik; ez baita guzia orotan, gogakia bezala, Iainkoa bezala. Gañera, Liburu Sainduak egiz baitiño «Iainkoaren antzeko» gerala (Gen. 1, 17), ez nekin zertan.

13. Ez nuen ezagutzen barneko zuzentasun ziña ere, Iainko guzialdunaren lege zuzenarena; ez diñot oiturazkoa, onek egin baititu, aldeka ta aldika, alde-aldietako oiturak; ua berriz, nonai ta bei da, ez, bestetan bestea, ez, aldian aldiko. Onela zintzo izan ziran Abraham, Isaak, Iakob,



Moise ta Dabid, Iainkoak beure agoz goresten baititu. Ez-iahiñek beuren kaxkarrean «giza neurritz» (I Cor. 4, 3), gaizto dauzkate, eta gizadiaren oitura guziak oker, beurenekin neurtuz. Ala litzake, esaterako, armaren berri ez dakinak, bataren orde bestea iaztea: zango-babesa buruan edo buru-babesa zangoan. Gero marmariz asi, etzaiola egoki. Edo merkatariri erri-aginduak eguardean saltzen uzten diola ta atsaldean ez diolako asarretzea. Edota etxeren batean morroi bat zerbait eskuz ukitzen ikusi, ta mai-mutillari olakorik uzten ez diotelako, edo ukullu-bazterrean egiten dana mai-aintzinean debekatzen dalako, edo etxe bakoitzean nonai ta bei gauza bera agintzen etzaielako, etxe bera ta erroaildi bera izanik. Aspaldi aietan zintzoeri sori zitzaiena oraiñaldian etzaielako sumitzen diranak, ola dira. Iainkoak batzueri bat, besteeri beste agindu die, aldian aldiko arrazoñez, guziak zuzentasun beraren mirabe izanik. Alaxe, gizon bakarrean, egun bakarrean, etxe bakarrean, zer zeri dagokion, aspaldi zillegi zana andik ordu betera ez da; arako zokoan au agintzen edo baiesten da, eta onako zokoan bidez debekatzen eta zigorkatzen. Iainkoaren zuzentasuna aldakor al da orregatik? —Aldia ez dagokio aldiari, aldi baita. Lurrean labur bizi diran gizonek ez dute ongi ebakitzen lengo mendetako auzirik eta urrungo iendeetakorik, berenekin alderatuki. Aldiz, gorputz batean edo etxe bakarrean aisa dakusate zeri zer eta noiz eta non dagokion.

14. Nik ez nekin oraiño olakorik; ez nuen automaten. Nondinai begiz ukitzen, eta ez ikusten. Bertsoak kantatzean etzitzaidan zillegi edozein oin edonon ezarta, baizik eta neurriari zegokionez. Bertso berean ere, oin bera ez toki berean. Kantaeran berriz, oin guziak batera eramaten nitun; ez puskalaka. Ez nuan ikusten, zintzo aien zuzen-legeak, agindu bakoitza nola zedukan asko nabariago ta garaiago, batere aldatu gabe. Alare, bakoitzari beurea banatuki ta aginduki, aldian aldizka, ez une batean. Guraso aieri nere itsuan oker egozten nien; aiek, orde, ez soilki Iainkoak agindu ta idaroki bezala orduko gauzetaz balia ziran; baita ere, etorkizuna Iainkoak erakutsi bezala iragarri zuten.

VIII

Etorkiaren aurka ta oituren aurka diran obenak eta gaiñerakoak, iru iturburu ditute: agidu-naia, ikusmiña, atsegalea.

15. Noiz edo non da oker, Iainkoa biotz osoz, gogo osoz, asmo osoz maitatzea, ta lagun urkoa norbera bezala? (Mc. 12, 33). Etorkiaren aurka diran obenak, esaterako Sodomar'enak, nonai ta beti gorrotagarri ta

zigorgarri dira. Gizonak oro ala ari balira, Iainko-legez oben beraren zigorra lukete, Iainkoak ez baitzitun egin ola iarduteko. Iainkoak egin dun etorkia bera likisten dugunean, Iainkoarekiko elkargoa austen dugu; baiña giza-oituren aurka diran obenak, oiturari dagokionez itzuri bear ditugu. Errik edo iendek oituraz naiz lege egiñiko elkargoa ez da autsi bear edozein erritarren edo arrotzen burukeriz. Itsusi baita beure osoari ongi ez datorkion zatia. Baiña Iainkoak nonbaiteko oituren edo elkargoen aurka agindu baleza, beiñere egiña ez bada ere, egin bear da; eta egitez utzi bada, berritu; erabaki ez bada, erabaki. Erregeri beure irian iñork ordurarte agindu eza —ez berak ere— agintzea zillegi bazaio, men egiten diogu, ez iritarren aurka; obeki esan, iritarren aurka ez diogu men egiten, gizarteak ituna baitu erregeri men egiteko. Zenbait areago men egin bear diogu sorkari guzien Errege dan Iainkoari, ez-mezean egon gabe, agintzen dituetan? Gizarteko agintarietan txikiagoak aundiagoari bezala, guziok Iaugoikoari!

16. Bestalde, gaiztakerien artean badira: kalte egin-naia (etsaiak etsairi, urruñaz edo iraiñez edo bietara, bietara ere apenez); besteren ona ukan nai (lapurrak bidekoarena); kaltea itzuri-naia (bildur zaionarena); bekaizgoa (doakabeak doatsugoarena, edota, zertanbait doatsu izanik bestek berdinduko ote gaitun bildurra, edo berdin zaigunaren eziñeramana); besteren gaitza gusto utsez naia (ezpatarien begira daudenena, edo irri-egille ta maxiolariena); labur, makur oetako bat edo bi edo guziak batean diralarik, iru sorterro ditute: agindu-naia, ikusmiña, atsegalea. Gaizki izi gera, Iainko guziz ezta, Zure amar aginduetako iru ta zazpi zurdatzetan. Biña, zer itsuskeri Zuri? ez baitzera itsusten. Zer kaltezko Zuri? ez baitzera kaltekor. Apentzen duzu gizonek beren aurka dagitena; Zure buruzki oben egitean, beuren animen buruzki ari dira, «gaiztakeria beure buruari dagokio», naiz Zuk egiñ-etorkia itsustuz edo okertuz ari, edota sori-gauzetan neurrigabe baliatuki edo sori ez diranetan etorkiaren aurka tiriatuki. Zure aurka obendun dira, gogoz naiz itsez asarreturik, «eztenari ostiko egiñez»; edota gizarteko mugak aantzirik, lotsagabeki aupatzen dira, elkartuz edo alderdituz, atsegin edo atsekabe zaien bezala. Zu utzirik egiten dira ola-koak, bizi-itur, izadi-egille ta iagole zeran Ori. Arrokeri bereizi gezur utsa maite bide dugu. Beraz, apaltasun zintzoz itzultzen gera zugana, ta oitura tzarretatik garbitzen gaituzu, ta aldeko zaitugu guk obenak aitortzean. Entzuten gaituzu oin-billurrez lotuok, eta geurok egin-lokarrietatik askatzen, baldin geiago-naiak edo galdu-bildurrak Zure buruzki arrandiz burua zutiarazten ez badigu, Zu, guzien ona baiño geuron ona maitatuz.



IX

*Bide onean aintzina doazanen obenak. Gizonek gaitzetsiak,
Iainkoak onesten, edo aldez-beste.*

17. Baiñan oinbeste gaitzakeri ta makurkeri artean, ba dira, onbidean aintzina doazanen obenak: iritzi ona dutenek gaitzesten ditute on bikaiña-ren legez, eta baiesten obearen itxaropidez, galburua dakarren gari-ondoz bezala. Badira gaitzakeri ta makurkeri antzera oben ez diranak, ez baitzaitute naigabetzen Zu, gure Iainko Iauna, ez, gizartea ere. Ala dira bbi-zirako bear dutena biribilgatzen dutenenak, ez, naski, besterena ukan-naiez; edo zentzarazteko agintariak zigorkatzen ditutenenak, ez baitzuten ausaz kalte egin nairik. Gizonek gaitzesten dutenik aunitz, onesten duzu; ostera, gizonek onetsi aunitz Zuk gaitzesten; egiñak maiz itxura bat baitu ta asmoak beste bat, eta noiz-nongoak ere bai. Zuk, ordea, len debekatu ukanik ere, oi ez dana edo ustegabekoa betbetan agintzen ba duzu, Zure aginduaren asmoa aldi bat ez ageri arren, gizarteko itunen aurka balitza ere, nor otezkotan gelditu, Zure gomenerako egin bear ote-dan, gizarte ua zintzo danean? Doatsu, ordea, Zuk agindu duzula dakitenak! Zure mirabe oriek guzia egiñ oi zuten, naiz ordukoz bear zana agertzeko, naiz etorkizuna iragarteko.

X

*Irri egiten nien iragarle ta saindu aieri; baiña
Zuk neri pikuarekiko siñeskeri bitxi arengatik.*

18. Olakorik ez nekila, irri egiten nien Zure serbitzari saindu ta Iragarle aieri. Aieri irri gitean, zer egiten nuan, Zuk neri egitea besterik? Ezarian, ezarian, ikus zer xoxokeri siñestera aldu nintzan: pikua zugatzetik erauzten danean, ark eta zugatz amak, esne zuri antzeko negarra zegitela; piku ua, saindu manestar batek ian baleza —besteren gaitzakeriz atzemana, ez berarenez— urdaillean egosirik, arnasetik Aingeru biurtuz ateratzen zula; areago, otoitzean eta aupats egitean, Iainko-puxkak erditzen zitula. Puxka aiek Iainkoaren saindu autatu aien ortzak eta sabelak xeatu ez balitu, piku artan zeudekela. Gaizo onek, igaliak urrikiago neduzkan gizonak baiño, ta oentzat egiñak izan. Gose zegonak eskaturik ere, Manestar ez zanari eman ezkeru, ahamen gaixo ua eriotzera galdua zala uste nuan.

XI

*Iainkoak atera zun osiñ artatik, amaren negar eta otoitzen bidez.
Zigorren amets-ikuskari polita.*

19. Luzatu zenidan eskua zerutik, eta atera zenun ene anima illunbe barne aietatik, enegatik negar baitzegin Zure mirabe zintzoak, amek semeen gorputz illaz baiñon areago; siñeztez eta Zure argiz ene eriotza baitzekusan. Aren malkoak etzenitun gutietsi, otoitz egin-leku guzietan lurra bustirik uzten baitzun. Entzun zenion. Nondik amets ua? pozarazi baitzenun biziko ninduzula ta mai berean ianen genula; nitaz aspertzen asi baitzan ene gezur eta birao guziak iguin eta narda zitzaizkiola. Amets artan, beure burua zigor baten gaiñean ikusi zun, eta gazte argitsu bat zetorkiola irriz, goibel eta negarrez urturik zegoanari. Gizalegez pozteagatik galdegin omen zion —iakiteagatik ez— ea zeri oinbeste negar egu-nero; eta amak, nere ondamediari ziola egiten. Seguru egoteko, goraintzi omen ark, eta so egiteko ta ikusteko, «ua non, ni an», nindagola. So egin zularik, ni ondoan ikusi omen, zigor artan berean zutik. Nola ziteken entzun ez bazenio? Zuk, bai, Guzialdun ona, bakoitza guziok bezala sendarazten baituzu, ta guziok bakoitza bezala?

20. Ikuskari ori ialki zidanean, eta ia bera ni bezala biurtuko ez ote zan asi nintzaionean, bereala erantzun zidan zalantza gabe: «Ez dit esan "ua non, zu an" baizik "zu non ua an"». Oroipen onek, Iauna, gogora dutanez, maiz aipatzen baitut, amets ikuskariak berak baiño kupituago nindun: aitortzen dizut. Gure ama ernaiak berela ikusi zun, ikaratu gabe itz oriek naasi zitezkeela, ta berela bereizi zitun; nik ez, berriz, ark adierazi arte. Onela, andere gaixo aren poza, askoz geroko iragarria, bertan poz gertatu zan. Igaro baiziran oraiño beratzi urte, lokatz illunean iraultzen nintzala, askotan zuti nai ta gotorrago itsatsia. Artean, alargun garbi, zintzo, gartxu ua —Zuk nai bezalako alarguna— itxaropidez alai, baiño negar-malkoz ez nagi, beure otoitz ordu orotan ez zan atertzen, Zuri nitaz asperenka. Aren otoitza irixten zan Zure aintzina, baiña ni oraiño illunbe artan uzten ninduzun itzul eta iraul.



XII

Apezpiku baten bidez itz berria Monikari: «egizu otoitz»; utzi; berak ezagutuko du liburu orien «gezurra», eta «ez diteke galdu oinbeste malkoren semea».

21. Oroi dut oraiño eman zenion beste erantzun bat. Beste aunitz utziko ditut, edo oroi ez naizalako, edota, bearrenak aitortzeko iradu naizalako. Erantzun ori Apezpiku baten bidez eman zenion, Elizan ongi inñutua baitzan, eta Zure liburetan ongi ikasia. Nerekin mintza zedila otoiztu zun gure amak nere gezurak birrintzeko, gaizki ikasiak aantarazteko ta onak irakasteko; ortan ari zana baitzan gai ziranekin. Arek uka, zugurki, naski, gero ezagutu nunez; oraiño eskurakaitza nintzala, heresi berri batekin anpatua nindagola, ta auzitxo batzuekin ez-ikasi batzuk urduri utzi nitula, amak esan zionetik. «Utzazu bertan eta egizu otoitz aren alde, berak arkituko du irakurriz, zer gezur ta zer gaiztakeri diran oriek». Esan zion era berean, bera ere ama lilluratuak Manestarrerri eman zienla, ta aien liburu geienak irakurri ez-ezen birridatzi ere egin zitula, eta an garbi ikusi zula inñork eragin gabe, alderdi ua utzi bear zukela, ta ala utzi zula. Ark auek esanik ere, gure ama ez baitzegon lasai negar ugariz otoitzenago omen, ikus nidezala, ta mintza zekidala. Orduan aspertzen asirik esan omen zion: «aldegiu, emazte, iarrai ortan; ez ditekena da oinbeste malkoren semea galtzea». Itzok zeruko mintzo iduritu omen gure amari. Ala esan zidan askotan, elkarrekin giñaudela.

LAUGARREN IARDUNA

I

Aizekeriekin eta gezurrekin elkar lilluratzen; Augustiñek bere lotsaizuna aitortzen du, ta Iainkoari oparia eskeintzen dia.

1. Beratzi urte aietn, emeretzitik ogeita zortzira, irrirts-bidean elkar lilluratzen eta iruzurtzen genun: agerian, ikaskizun iator izenez; izkutuan, berriz, gezurrezko iaurespidez; emen arrokeriz, an siñeskeriz, nonai aizekeriz. Entzute utsalaren ondotik txalo-billa gindoazan ikuskari etxera, bertso batzaldietara, belar-buruntza billa, ikuskarietan norgeigoka, lizun-keri neurrigabez. An, naski, loikeri oietatik garbi naiez, beuren buruak autu ta saindu zeuzkateneri iana ekartzen genien, aien eltzettoetan aingeru ta Iainko biur zedin, gure animen osasunerako. Onela ari nintzan ene adiskideekin, neronekin batean aiek ere itxulasturik. Maxia nazate, nere Iainko, oraiño Zure aintzinean belaunikatu ta erori ez diran aundi-utsak. Nik, ordea, nere lotsaizuna Zure aintzinean dut aitortuko. Utz nazazu nere lengo gezur-ibilerrak gogoan iraultzen eta poz oiuz zuri opari eskeintzen (Ps. 26, 6). Zu gabe zer dezaket, bada, neure burua leizeratu besterik? Ongi nagolarik berriz, Zure esnetik edoski oi dut; Zutaz naiz atse, usteltzen etzeran ianari. Gizona, nornai dala, zer da gizon besterik? Maxia gaitzate aundi ta bizkor oriek: aul eta gaixo geranok Zu aitortuko zaitugu.

II

Berriketa saldu; emazteki oe-laguna. Azti bati erantzuna.

2. Urte aietan, aizekeria ta gezurra maite zuten aieri ele-ederra irakasten nien, eta auzitan garaitzeko berriketa saltzen nien, griñak garaitu ninduten onek. Badakizu alare, Iauna, naiago nizun ikasle on edo on diralakoak ukan. Maltzur etzireneri maltzurkeria nerakuskien, obengabeen eriotza eskatzeko ez-baiña, inoiz obendunen eriotza galarazteko. Ikusi zenun, Iauna, nere siñestea lizunean lerratzen, eta txingia kei aundi tartean bezala. Aizekeria ta gezurra maite zuteneri, ori irakasten nien, «aien lagun biurturik» (Ps. 4, 3). Urte aietan banizun emazte bat, bidezko ezkontzaz ez-baiña nere sugar zoroz autatua. Bakarra, ordea. Zintzo nin-



tzaiolarik, neure buruz auteman nuan, aurrak ukaiteko ezkontza atsegiñetik lizunkeri utsezkora dagon alde. Ontan ere gogoz-beste aurrak sortzen baitira, ta bein sorturik, aiek maitatzea ezin besteko da.

3. Gogoan dut, gaieñra, iardun-bertsoen norgeigoka irabazteko, azti batek galdegín zidala, zer sari nemaioken irabaztearren. Olako sorgin-erriak iguin eta narda nitula erantzun nion. Sari-buruntza ua urre uts izanik ere, arengatik euli bat kalitzen ere ez nula utziko. Bere oparietan bizidunak kali oi zitun, eta opari aietara deabruak deituko zitula ziduridan. Itsuskeri ori ere, garbiz ez nuan zapuiztu, nere biotzeko Iainkoa. Ez nekin Zu maitatzen, ez bainekei gorpuzkia besterik gogoematen. Olako iratxoeri asperenka, ez al doa anima «Zugandik aketx egitera» (Ps. 72, 27), «gezurra atxituz eta aizea iretsiz?» (Os. 12, 1). Ez nuan nai neregatik deabrueri opari egiterik; baiña siñeskeri aiekin nerau nintzaieñ opari. Aizea irestea ta deabruak irestea berdín baita, ots, gezurrari irraituz aien pozgarri ta irri-garri gertatzea.

III

Sendagille zugur batek irakatsi ziona: alabearra ta ala gertatzea.

4. Orregatik ez nitun erabat zapuizten matematiku izenekoen azti-karta aiek: oparirik eskeiñi bear etzalako, ta iratxoeri iñolako otoitzik egiten etzitzaielako. Au ere debekatzen eta gaitzesten du egiazko kristutasunak. «On da, Iauna, Zu aitortzea» (Ps. 91, 2) ta esatea: «Urriki zakida; senda ezazu anima au, Zuri ein baitizu oben» (Ps. 40, 5). Ez da on, ordea, oben egiteko Zure barkamena gaizki erabiltzea; aldiz, Iaunaren mintzoaz oroitzea: «Sendatu zaitut; ez aurrera obenik egin, makurragorik gerta ez dakizun.» (Io. 4, 5). Osasun bide au galarazi nai lukete diotelarik: «Obena nai ta nai ez egitea zerutik dugu», eta «au Venus'ek egin zun, Saturnok ori, Martek ua». Ots, gizon aragi ta odol eta ustelkeri arro dana obenik gabe dagola; aldiz, zeruko izarren Egille ta zaintzaille dana, obendun dala. Nor da, ordea au, gure Iainko ezta baizik, zuzen guziren iturria, «bakoitzari berea demaiona?» (Mt. 16, 27), «biotz damutua ta murgilla gutxiesten ez duna?» (Ps. 50, 19).

5. Ba zan orduan gizon zugur ba, sendagintzan oso iaioa, ta oso eza-guna. Buru gaixo onen gaiñean ark ezarri zidan sari-buruntza Konsul-orde bezala, ez sendagille bezala. Beste gaitzaren sendagillea Zu zera, arroeri iazarriz eta apalari grazi emanex (I Petr. 5, 5). Sendagille aren bidez ere, etzenun utzi anima au sendagaillu gabe. Lagun-abar egin nintzaion,

eta aren izketara ernai txoraturik nindagon, bizi ta atsegin eta zentzuz mintzo baitzan, itzak ladun gabe ere. Iardunear ezagutu nindun azti-liburueri emana nintzala. Alakoak ostika netzala adierazi zidan guraso onbera arek, eta uskeri aiek utzirik, gauza bearragoeri lotu nendiola. Berak ere lenengo ikas-urteetan ikasi omen zitun, lanbide artan bizimodua irabazi gogoz. Hipokrate ulertu ezkeri aiek ere uler zetzakela-ta, aiek utzirik sendagintzari ekin ziola, gezur uts zerizkiolako. Gizon zugur antzo bizimodurik etzukela irabazi nai gizonak itxulastuz. «Zuk, esan zidan, ele-ederra irakatsiz, bizitzeko irabazten duzu; beste gezur oriek, irabazteko ez-baiña zeure gogara dagizkizu. Are geiago siñetsi bear didazu, sendagintzatik bakarretik ongi bizitzeko lain ikasten alegin baitut». Galdegín nion ia nola asmatzen ziran izar-liburuetatik aunitz gauza, eta, alabearrak egiten zula, orotan zabaldurik zegolako. Gertatzen baita iñoiz, bertsolari baten bertsoak gure arira ongi etortzea, etzala arritu bear, goragoko argiz, gure animari zer gertatzen zaion iakin gabe ikasiz ez-baiñan alabearrez gertatzen zaiola, galdera ta gertaera elkar etortzea.

6. Au beintzat irakatsi zenidan arengatik edo aren bidez. Eta neronez zer billa, gogoan ezarri zenidan. Aztikeri aiek uxatzera ez ninduten eragin oraiño ark eta nere adiskide kuttun Nebridik. Au gazte on eta zugur zan, olakoeri irri egiten baitzien. Alare, aien asmaketa izar-iakintzari ez-eta alabearrari zegokiola iakiteko argibide segururik ez bainun arkitu, azti aien iakiteak eragitenago nindun.

IV

*Aurtzaroko adiskide kuttun bat biltzen zaió; iltzen zaió.
Augustiñen naigabea.*

7. Sorterrian irakasten asi nintzaneko urte aietan adiskide bat egin nuan, ikaslagunetan izugarri maite, adiñeko ta garerdiko, ni bezala. Nerekin asi zan. Biok eskola-lagun eta iosta-lagun giñan. alare ez zan ain adiskide, egiz izanik ere; ez baita egizko adiskidegoa Zuk Zuri elkartueñgan itsasten duzun bezalakoa, Zuk Gogo Gurenaren bitartez zabaltzen baituzu maitasuna gure biotzetan. Adiskidego ua xamurregia zan, ikas-griña berak piztua. Nik okertarazi nuan beure egiazko siñestetik —ez baitzun iatorra ta sakona— siñeskeri galgarri aietara. Orregatik zegidan negar gure amak. Gaztearek nere gezurreri zarrakien, eta ni ua gabe, iñola ezin nindagoken. Iges gindoazunon ondotik, Zu itzal-antzo ziñetorkigun. Iainko zentzazaille ta berebat urrikaltsu, arrigarriri ekartzen



baituzu Zugana, eraman zenidan mundu ontatik, adiskide-urtea oso bete gabe, nere bizi guziko atsegiñak baiñon atsegiñago ua, Zugana miragarri-ro gakartzun Orrek.

8. «Nork bat-banakatu Zure goreskizunak» (Ps. 105, 2) beragan bakarragan sumatuak ere? Zer egi zenun orduan, Iauna? «Zein sumaeziña dan Zure irizkizunen tulunbio!» (Rom. 11, 33). Sukarrez kordegabe egon zan luzaro, izerdi otzetan. Etsi zutenean, bera oartu gabe bataioa eman zioten, ez ene alegiñez, uste bainun ene bururakizuneri idukia zegola, eta ez, gorputzean oarkabe egin ziotenari. Oso bestera zan, ordea; birbiztu baitzan eta oneratu. Arekin mintza nindekeneko —bera asi ordukoxe, ez bainion aldegiten, eta elkarrengana eoriegi baiñauden—, maxika asi nintzaion kordegabe artu zun bataioaz, bera ere asiko zalakoan; baitzekin eman ziotela. Ua, ordea, etsai amorratu biurtu zitzaidan, eta nagusiro agindu zidan, olakorik ez nesaiola aren adiskide izan nai banuan. Nik berriz, arri ta belarri egiñik, nere barne-eragin guziak gorde nitun, indarretara etortzearekin gai artaz iardun genezakelakoan. Ua, ordea, egun gutxi buru, ni an ez nintzala, sukarrak berriro arturik, il zan, zoro one-gandik erauzirik, Zuregan ene zai egoteko, nere pozerako.

9. Miñ orrek biotza goibeldu zidna. Noranai begira, erioa nenkusan. Lurra oiñaze zitzaidan eta osrtetxoa zorigaitz izugarri. Arekin iardun nuana ua gabe oiñaze gaitz biurtu zitzaidan. Ene begiak orotan aren billa, ta ua iñon ez. Gauza guzaik nazkatzen ninduten, ez baitzegon aietan. Ezin esan zidaten «etorriko duk», bizi zanean bezala. Kezka aundi nintzan guzi au. «Zergatik ago goibel» (Ps. 41, 12), galdegiten nion ene buruari, «Zertarako estutzen aiz ortaraiño?». Etzidan ezer erantzuten. «Auk itxaropide Iainkoagan» esaten bazidan, nik eziñ etsi; galdu nuan adiskide maite-maite ua geiago baitzan itxaron nezaken lausoa baiño. Negarra utsa zitzaidan goxorik. Au neukan adiskide-orde, animaren pozerako.

V

Zergatik dira malkoak goxo?

10. Oriek iragan ziran, ordea, Iauna, ta aldien aldiak goxatu du nere zauria. Biotzeko belarria erne dagokizut. Esan aal zenezaidake, Egia baitzera, zergatik zaien goxo negarra gaixoeri? Zuk, orotan egonik ere, gure zorigaitza urrun igorri al duzu? Zu zeuregan zaude; gu, berriz, geuron gaitzean iraultzen gera. Alare, Zure belarrira negar ez bagenegi, ez genuke itxaropidearen izpirik. Intziri ta negar, asperen eta mingulin, nondik

artzen du biziera samiñ onek igali ezti ori? entzunen gaituzun itxaropena al zaigu goxo? Bai, naski, otoitzetan, Zugana eldu-naia baitute. Edota, gauza galduaren miñetik eta naigabetik al dator? Ua piztuko zala ez bainun itxaropiderik; ez, eskatzeko negarrik: negarra ta miña besterik ez nuan. Gaixoa nintzan eta poza galdua. Samiñ al da negara? eta len goxo zitzaigunaren nardak eta nardatzeak al gaitu pozten?

VI

Bizitzak nazka ematen beure «animaren erdi» ua gabe.

11. Zer ari naiz berriz? Zinkurin egiteko ez-baiña Zu aitortzeko da ordu. Gaixo nintzan; gauza erio-bearren adiskidegoz lotua dagona, gaixo da. Aiek galtzean, urratzen da. Orduan dazagu gaixo izatea zer dan, aiek galdu baiño len ere. Ala nindagon aldi artan negarrik samiñenean, eta samiñ artan goxo. Bizitzan doakabe. Bizia aldatu nai, bai; baiñan galdu nai ez, adiskidea baiño geiago. Eta arengatik al nai nuken ez dakit —Oreste'z eta Pilade'z diñotena gezur ez bada— elkarrekin il nai omen, batean ez bizitzea eriotz makurragoa litzaiela-ta. Neri, ordea, beste alderako griña izugarri sortu zitzaidan: bizitzea oso nardagarri izaki, ta eriotzaren bildur. Nik ua maiteago, ta ua eraman zidan eriotza gorrotoago ta bildurrago, etsai beltzillun ua. Ua eraman zidalako, beste gizonak ere betbetan galdu zetzakela ziduridan. Olaxe nindagon: oroitzen naiz. Ikus ene biotza, nere Iainko, emen barnean. Oroitzen naiz, ene itxaropide, zikinkeri aien griñatik Zuk bainauzu garbitzen. «Begiak Zugana ditut, eta nere oiñak xedebatik Zuk askatzen dituzu» (Ps. 24, 15). Beste iñor biziteak arritzen nindun, illa baitzan nik illezkor bezala maite nuana. Arritzenago, berriz, ua il eta ni bizitzeak, bera bigarrena bainintzaion. Adiskideaz ongi esan zun norbaitek: «nere animaren erdia». Aren anima ta nerea bi gorputzetan bat zala ziduridan. Bizia orregatik nuan gogait, ez bainun bizi nai erdia: orregatik il-bildurra, nik ainbeste maite nuna osorik il etzedin.

VII

Etzun pakerik arkitzen ezertan. Iainkoagana io nai, ta ezin. Biotzak biotzetik aldegin nai, ta ezin.

12. Zer zorakeri gizona gizabidez maitatzen ez iakitzea! Bai zoro nintzala giza-gaitzak eragabe iasaiten! Ola estutzen nintzan; eziñegonez,



intziriz, negarrez, ez nuan atsedetik, ez erabakirik. Nerekin ninderaman, nerekin ioan nai zuken anima, erdiraturik, odoldurik, eta ez nuan arkitzen non egotzi. Ez oian atsegiñetan, ez ioku ta leloetan, ez usai goxo tokietan, ez oturutza gurietan, ez ogeko lizunkerietan, ez liburutetan eta bertsoetan, ez nuan atsedetik. Argiak berak ere nazkatzen nindun. Ua ezik, guzia gaizto ta aspegarri zitzaidan; asperena on, eta negarra. Auetan bakarrean atsedenttoa. Auetatik alderazten nindutenean, zorigaitz aundi baten zamak azpiratzen nindun. Banekin Zuk arintzekoa ta sendatzekoa zala, Iauna; baiñan ez nai ta ezin ez baitzintzaidan oraiño gotor eta tinko nik Zu asmatzean. Etziñan Zu; lauso utsa zintzaidan, eta uskeri ori nuan Iainko. Anima atsedenguan ezarten banuan, utsean lerratzen zan, eta berriz enegana erortzen. Toki gaizto nintzaion ene buruari: an ezin egon, eta andik ezin aldegin. Biotza nola zioaken biotzetik? nigandik nola aldegin? nola ez neroni iarraitu? Alare sorterria utzi nuan. Ez ikusi tokietan ua gutxiago billatzen nuan. ala ioan nintzan Tagastetik Kartagora.

VIII

Geroak aztuerazten ditu naigabeak lagun berrien artean.

13. Aldiak ez du oporrik, ez da alperrik iraultzen gure biozmiñetan: arrigarriri ari da gure animetan. Miñak egunoro ioan-etorri zebiltzan, eta ioan-etorritz, bestelako itxarokizunik eta oroikizunik zekarkidaten; eta ezarian, lengo miñek atsegin berrieri zegien toki. Miñen urrengoak miñ ez-baiña miñ-iturri ziran. Miñ ua nola sartu zitzaidan aiñ errez eta ain barna? Erio-bearra ilezkor bezala maitatuz, ene anima ondarrean barreiatu nulako. Beste adiskide batzuen pozek arintzen ninduten eta birbizten. Aiekin Zu ez, besterik nuan maite: ipui luzea ta gezur aundia. Onen legunkeri likitsez usteltzen zan gure gogo, belarriak igurtziz. Adiskideren bat ilik ere, ipui ua etzitzaidan iltzen. Beste zerbaitek ekartzenago zun ene anima: elkarrekiko mintzo, irri, ikustate ta abarrek. Liburu xoragarriak elkarrekin irakurteak, elkar axekatzeak, elkar xurikatzeak, iñoiz elkarrengandik makurtzean, elkarpede aunitz billatzeak —gizonak beure buruarekin dagin bezala—, elkarri irakasteak, elkarrengandik ikasteak, aldegiñen biozmiñak, zetozenen atsegiñak. Olako agerkarien bidez, elkar maite dutenek bezala, agoz, mihiz, begiz eta milla siñu legunez elkar berotzean eta aunitzek bat egitean nuan atsegin.

IX

Doatsu da, galtzen ez dan bakarra maite duna.

14. Adiskideengan ori dugu maite, ain eta, birmaitatu gaituna maite ez badugu, edo maitatu gaituna birmaitatu ez, barrena obenduru baitzaitu. Onginai ortan ez dugu eskatzen gorpuz-siñuketa baizik. Ortik negarra norbait il baledi, ta miñ ilunak eta biotz naigabetua ezta samin biurtu zaigulako; eta illen bizitza galdua bizien eriotza da. Doatsu, Zu maite zaituna, ta laguna Zugan eta etsaia Zugatik maite dituna! Galtzen ez dan bakarra maite dunak, ez du lagunik galtzen, guziak Arengan baititu maite. Nor da Au gure Iauna ezik? Zeru-lurrak egin ditun Iainkoa da aiek betetzen dituna, ta betez egiten dituna. Uzten zaitunak bestek etzaitu galtzen; eta uzten zaituna nora doa iges? Atsegin zeranagandik asarre zeranagana. Non ez du arkituko Zure legea beure zigorraldian? «Zure legea, berriz, egia, ta egia Zu» (Ps. 118, 142).

X

Iainko indartsua ezik, oro igeskor.

15. Iainko indartsu, biur gaitzatu, erakus iguzu Zure aurpegia ta osasun dukegu (Ps. 79, 4). giza-gogoa, noranai doala, Zugan ez-bestetan, miñari datxikio, Zutaz eta beraz landa dagon edertasunari datxikionean ere. Zugandik ez balira, izan ere, ez lirake oriek. Iaiotzen dira ta iltzen; iaiotzean izaten asten dira, eltzeko azten dira, ta eldurik zaartzen eta iltzen dira. Zaartugabeak ere iltzen dira; beraz, sortzetik iltzea doazala, izateko usuago aziz, ez-izatera usuago doaz: ori dute izaera. Zati izatea eman diezu, ez baitira oro batean; ioanez ta etorritz dagite izadia, aren zati baitira. Ola da gure mintza-izketa ere: mintza-ala itza galduz ez badoa bes-teari leku egiñez, ez da izketa. Goretsi zaitza, «dan guztiaren Egille Iauna», nere gogoak orietan, baiñan ez bekie zentzuen bidez maiteki itsatsi. Zioazan tokira doaz, ez izatera, ta naikari likitsez urratzen dute anima, berak ere izan nai baitu; maite ditunetan atsedetik nai. Oriek, ordea, egonik ez dute, ez baitaude, iges baitoaz. Nor doakie atzetik aragi-irritsez? nork atzeman, bertan daudela ere? Aragi-irritsa astun da, aragizko baita: ori du izaera. Egiña dan artarako balio du; ez du balio, ordea, dagokien asieratik dagokien bukaerara bidean aiek geldiarazteko. Zure itzak egiñ eta bat baitira, aietan dute entzuten: «emendik eta onaraiño».



XI

Zazude Iainkoagan, ene anima. Utzi aragfa. Iainkoak ez du aldegiten.

16. Etzaita aizezu, nere gogo, ta biotzeko belarria zure aizekerienabarrotsez ez bekizu sogortu. Entzun zuk ere; itza bera ari zaizu itzul zaiten; an da atsedengu egonarrizkoa; an ez dute zurtz uzten maitea, berak uzten ez badu. Ara! Aiek badoaz besteri toki egiteko, ta zati guziek osatzen dute beitiko izadi au. «Norabait aldegin al dezaket», diño Iainkoaren Itzak. An ezarrazu zure egoitza. Nere gogo iruzurrez aspertua, andik duzuna bederen an egotzazu. Egitik duzuna egiari egotziozu; ez duzu ezer galduko. Zure ustelkiak birbirtuko dira, gaitzak oro sendatuko; zuregan igeskor dana eraberituko da, ta egonarri artuko du. Orrek etzaitu eramango bere eror-tokira; zurekin dagoke egon eta iraun, beti dagon eta diraun Iainkoagan.

17. Zertako zoaz aragiaren atzetik, gaizto ori? Bioa bera zure atzetik. Arek sumarazten dizuna zati da, ta zati orren osoa zer dan ez dakizu; alare pozten zaitu. Baiñan aragi-senak osoa atzi baleza, ta berak ere, izadizati danez, zure zigortako muga ez balu, diranak oro zure aintzinean igarotea naiko zenuke, guziak atsegiñ aundiago eman legizuten. Izketa ere aragi-sen berez dantzuzu, ta ez duzu silabak geldit egoterik nai, baiña doazala egan eta datozala urrengoak, guzia entzuteko. Olaxe, bakarra osatzen duten zati bakoitzak ez baitira batean oro, atsegiñago lirake batean, bakoitza ikusirik baiño. Baiñan aien aldean zenbat aundiago da aiek egin zituna, gure Iainkoa, eta ez du aldegiten, ez baitu urregorik.

XII

Gorputzetan Iainkoa goretsi, eta animetan. Itzul Iainkoagana, Iesukristogana. Ez zun utzi Aita; ez gindun utzi gu.

18. Gorputzak maite badituzu, goretsazu aietan Iainkoa, ta biurrazu maitasun ori Egilleagana, maite dituzunetan atsekaberik ez dezazun. Animak maite badituzu, Iainkoagan maita, auek ere aldakor baitira, ta Arengan dute egonarria. Bestela, ioan eta galdu litezke; beraz, Arengan maita bitez. Ar etzazu aal guziak eta otsegiizu: «au maita dezagun, au maita». Berak egin zitun eta etzaie urrun. Egin eta etzun aldegin; baiñan argandik eta Argan dira. Ona non dan egi gozoa. Biotz-barrenean da,

baiña biotzak alde egin dio. «Itzul zaitezte, obendariak, biotzera» (Is. 46, 8), ta egin zinduenari itsatsi zakioe. Arekin zaudete egon; atsedan Arengan eta lasai atsedan. Nora zoazte maldaz maldaz? Maite duzuten ona Arengandik da. Arena danez on eta legun da, baiña bidea saminduko da, Ua utzita bidegabe maite baituzute Argandik dana. Nora nai duzute ioan eta ioan, bide gaitz eta neketsuetan? Zuek billa-tokian ez dago atsedanik. Billa ezazute billatzekoa, baiñan ez dago zuek billa-tokian. Bizi doatsua erio-lurrean nai duzute, ta ez dago an. Nola, ordea, doatsu bizi, bizi ere ez bada?

19. Ietxi zitzaigun onara Bizi zaiguna; eraman zun gure eriotza, ta beure bizi ugariaren ugariz illarazi zun. Ostots-oiu egin zun, biur gaitela Arengana, gugana etorri-antzinako izkutu artara, gizadiarekin ezkondu zaneko lenbiziko sabel garbi artara, gizadi ilkorra betiko ill etzedin. Andik, «ezkon-berria ogetik bezala po-iauziz irten zan erraldoi antzo, bidez bide ibiltzera» (Ps. 18, 6). Nagitu ez-baiña laister egin zun; beure itz, bizi, eriotz, ieixte ta igotzez oiuegin zigun: oiuegin zigun: oiuegin zigun. Begitik zigun aldegin, biotzera itzulirik arki dezagun. Aldegin bazun ere, emen dago. Gurekin luzaro egon nai ezik ere, ez gindun utzi. Beñere utzi ez zun tokira itzuli zan, «mundu au Ark egiña baita» (Io. 1, 10). Munduan zegon eta mundura etorri zan «obenduruen osasunerako» (I Tim. 1, 15). «Nere animak Ua aitortzen du, eta osasun eman dio obenaren orde» (Ps. 40, 5). «Gizasemeak, noiz arte bioz-nagi? (Ps. 4, 3) bizi-aldiaren ondorean ere ez duzutea igo nai ta bizi nai? Nora igotzen zerate goian egonik aurpegiz zerua ukitzera?». Ietxi zaitezte Iainkoagana, igotzeko, Arengana igo-naiez erori baitziñaten. Esaizkiezu auek «negar-ibar ontan», negar egin dezaten (Ps. 83, 7), eta eramatzizu airean orrela Iainkoagana: maitasun beoz suturik esaten badiezu, Aren arnasez esaten diezu.

XIII

Emen beitiko edertasunak zitun maite. Liburu bat idatzi zun «eder eta egoki»az; galdu zan.

20. Oen berri ez nekin eta beitiko edertasunak nitun maite. Leizera nindoan eta laguneri esaten nien: eder ez danik maite al dugu? Zer da, beraz, ederra? zer da edertasuna? zerk erakarten gaitu? maite ditugun gauzekin zerk adiskidetzen gaitu? ederrik eta egokirik ez balute ez baikin-duzketen inola ere erakarriko. Gorputzetan auteman nuan, erabat ikustea bat zala: ortik edertasuna. Egokitasuna besterik zala, ots, zerbait dago-



kiona, esaterako, gorpuzkia gorputz osoari edo oiñetakoa oiñari. Bururakizun onek aznai bizia zemaian biotzaren barnenean, eta bi edo iru iardun idatzi nitun —ez nago xuxen zenbat— eder-egokietaz. Zuk dakizu, Iauna, aantzi baitut, ez ditut enekin, ez dakit nora ta nola aldegin zuten.

XIV

Liburu ua Hieri aipatuari eskeiñi zion, goreskizun billa:

21. Zerk ote ninderagn, ene Iainko Iauna, iardun aiek Erromako Hieri mintzalariari eskeintzera? ez bainuan aurpegiz ezagun; maite, ordea, irakasle aundi izenez, eta aren zenbait esaera agoz agoz zebiltzanak atsegiten baitzidaten. Areago, besteeri atsegin zitzaielako zitzaidan eni ere, arri-turik goresten biatzuten siriari bat, lenik greko-elez ikasia, gero latinez mintzalari bikaiña, ta zuur-iakiteari dagokionetan oso iantzia. Urrun zegoen gizona zuten goresten eta maitatzen. Maitasun ua, esaten dunaren agotik entzulearen biotzera sartzen al da? Bai zera! Bataren maitasunak bestearena pizten du. Maitez goresten dutelako dugu maite goresten dutena; goreslaria gezurrez ari ez dala uste dugulako.

22. Ola maite nitun gizonak besteren iritziz; ez Zurez, ene Iainko, utsegiten ez duzuna. alare, zertako goretzi nai nuan ez zaldizain iaio bat bezala, edo errian begiko duten eiztaria bezala? baizik eta gizon buruian-tzi bezala, edo nerau gorestea nai nuken bezala? Ez nuke nai komerilari bezala goretzi nindezaten, neronek aiek goretzi ta maita netzaken bezala. Naiago nuke zokoan egon, ola ezagun izan baiño, edo besteren iguiña maitasuna baiño. Nere barrenean non kokatzen dira maitasun bixiko ta batatz besteko oriek? Bestegan zer dut maite, arengan maite ez dutana nardatzeko ta uxateko, biok gizon izanik? Geurok zaldi izan ez nairik ere —eziña dana— zaldi on bat maite baitugu, areago komerilaria, izaeraz lagun baitugu. Ni, gizon nzanik, izan nai ez nukena al dut maite gizonagan? Leize aundia da gizona. «Aren buru-illeak batbanatuak dituzu» (Mt. 10, 30), ta ez dira Zuregan gutxitzen. Alare, aren buru-illeak aisago bapana litezke aren biotz-eragiñak baiño. Mintzalari ua, ordea, ni izan nai nuken bezalkoa zalako maite nuan. Zoro nindabillan «edozein aizek ninderamala» (Eph. 4, 14), eta Zuk izkutuegi zaitzen ninduzun. Nondik dakit Zuri seguru aitortzeko, besteren esanetaz nuala maiteago, goresten zuten gauzetaz baiño? Goretzi orde gaiztetsi balute, ta itsustuz eta urruñatuz gauza bera zabaldu ba lute, ez nindun su ta gar ipiñiko. Gauzak ez lirake

beste, ez eta gizon bera ere, baizik eta esaleen griña. Ikus non datzan ene anima, egi gotorrari oraiño atxiki gabe. Esaleen bular-atsa mihiak daragin eran, or dabilla ta or darabillate itzul eta iraul, biur eta birbiur, eta argia goibeltzen zaio, ta egirik ez du ikusten, aintzinean daukala. Axola aundi zitzaidan eni, ark ene jardunen eta ikas-lanen berri ukaitea. Ark baietsi ezkerro, beroago maita nezaken; gaiztetsi ezkerro, berriz, zauritu ziteken Zure indarrez uts bañon utsago dagon biotz au. Alare eskeñi nion «eder eta egoki» ua, gogoz nerabillan buru-barnean eta begi aintzinean; baña goresle-lagunik ez nuan arkitzen.

XV

Zertan ote dago edertasuna. Aburu okerrak.

24. Zure edergiñetan ez nenkusan ederraren muiña, guzia al duzun eta «bakarrik arrigarraro biar duzun Iauna» (Ps.71, 18); gorputzeko edertasunak ninderaman. Ederra, berriz, «berez egoki dana», ta egokia «besteri dagokiona» ziduridan, adibideak gorputzetik artuz. Sartu nintzan ene baitara, baña nere aburuak etzidan uzten gogakietan egia ikusten. Beure indarrez egia begietatik sartzen zitzaidan, baña nere gogo urduriak alde egiten zun, gorputz gabetik marra ta margo ta gorpuzkietara. Nere biatan gorpuzgaberik bez nenkusalako, nere gogoa ere ez nekusakela ziduridan. Zintzotasunean pakea maitatuz batasuna auteman nun; gaiztabidean, asarrea maitatuz, bakantasuna. Batasun artan uste nizun zegola gogo ezagudunaren izatea, egiarena, On guzizkoarena; bakantasunean, berriz, gaizto guzizkoaren alako zer gauza bat, ez zer gauza ere, bizi uts-utsa baño, eta au ere etzala Zugandik, ene Iainko, guzien Egillea. Doakabe ni! Zer niñon iakin gabe, len ari «bakun» izena eman nion «kuntzegabeko gogakia»; besteeri, berriz, «bikun», esaterako, «gaiztakerian, asarrean ta irritsean lizun-keria». Ez baineekin oraiño, ez ikasi, «izan gauza» ez dala gaizto, ta gure anima ez dala on guzizko ta alda-eziña.

25. Gure animako eragiñ ona okertuz, naiz asarre gorrira, naiz lizun-keri xamurrera itsutuki oldartzea gaiztali dan bezala, alaxe, gure gogo-argia gezurrera ta aburu gaiztora okertzea, likisgarri da. Ola nindagon ni, ez baineekin, egiaren erdikide izateko anima beste argiz argitu bearra zala; bera ez baita egi-iturri. «Zuk egiñen diozu argi, nere argitasun, nere Iainko lagun: nere illunbea Zuk argituko duzu» (Ps. 17,9); guziok «Zuk betean duzunetik artzen baitugu» (Jo. 1, 16). Zu zera «mundura datorren gizon



oro argitzen duzun argia» (ibid. 9); «Zugan ez da aldakuntzarik ez itzalgunerik» (Iak. 1, 17).

26. Ni alegiñean Zugana, ta zuk ni Zugandik aurtiki; «arroeri gogo baitzakie» (Petr. 5, 5). Zer arrokeri aundiagorik, ni neurez Zu zerana naizala zoro-zoroan aitortzea baño. Ni aldakor izanik eta obe gerta naiez iakintzu izan nai nukela ikuski, naiago zindudan aldakor, Zu zerana ez naizala uste izatea baño. Beraz, aizatzen ninduzun eta iarki zintzaion ene buru aizezu oni. Gorpuzkiak idurikatzen nitun, e ta, aragi izanik, aragia asmatzen. Gogo ibiltari au «ez zan Zuregana itzultzen» (Ps. 77, 9). Ez diran gauzetan ibilki nindabillan; ez Zugan, ez nigan, ez gorpuzkietan ere. Zure egia ez-baña nere aizekeriak zitidan ala iduritaratzen. Zure aur zintzo ziran ene erriterreri, atzeritu nintzaiera oartu gabe, onela nintzaian ari, berrizu ta zozo au: «Iainkoak egiña bada, animak zergatik utsegiten du?». Ez nion esan nai nere buruari: zergatik, beraz, utsegiten du Iainkoak? Naiago nuan aitortu, nere baitarik eta nere obenez okertu nintzana baño, Zu, alda-ezin ori utsegitera beartua ziñaudela.

27. Ogeita sei edo zazpi urte nitun liburu aiek idaztean, gorpuzt-irudi aiek buruan irauliz biotz-belarriak sogortzen zitidatela. Ernaitzen nitun Egi gozo, Zure barneko soñua entzun naiez, «eder eta egoki»ri buruz, eta «pozez bete nai ezkongaiaren mintzoz» (Io. 3, 29), eta ezin. Utsegiñen abar-otsak urrun ninderaman, eta nere arrokeriaren zamapean, barnera erortzen nintzan. «Nere belarriari ez baitzenion pozik eta atsegiñik eman, eta nere ezur eroriak ez baitzuten poz-iauzi egiten» (Ps. 50, 10).

XVI

Aristotel'en izan-maillak ulertzen ditu; bañan aietan ez zun Iainkoa billatzen gorpuzki antzera asmatzen zulako.

28. Zer balio zidan ogei urtetsuz Aristotel'en «izan-maillak» eskue-tan ukaiteak, eta irakurri ta aditzeak? Kartagoko maisuak, ezpahiak arrotuz, irakasten zitidan. Iainkozko zerbait bailiran, eta beste mintza-maisuak ere bai, ta ni agoa zabalik. Maisu iakintsuenek itzez ez-ezen marrazki aunitzez autsean adierazirik ere, osta ulertzen zituten ikasleak baziran. Irakurritz ikasi baño geiago etzidaten esaten, neronek irakurri ala ulertu bainitun. Aski argi mintzo zan Aristotel iraunkietaz eta ioan-etorkietaz. Dirauken gauza bat, esaterako gizona; aren ioan-etorkiak: zenbat aundi, nolako, elkarkizun, egin-erasanak, noizko-nongoak, egoera ta iazkera. Orrela beste eun, berreun, zireun iraunkietan. Zer balio zidaten kaltetako

besterik? Zu, Iainko arrigarrero bakun, eta alda-ezin ori mail orietan ziñaudelakoan ari nintzan alegiñean kaizu edo edertasunean ziñaudelakoan, edo, Zu aunditasun eta edertasuna bera izanik, mailla oriek Zugan, gorputzean bezala zeudelakoan. Gorputza ez da aundi edo eder, gorputz dalako, aiñ aundi edo eder ez izanik ere, gorputz bailitzake. Gezur zan Zutaz uste nuana, ez egi nere iduripenaren urri bizia, ez Zure zorionaren oiñarri sendoa. Zuk agindua zan, eta nere lurak «arantza ta laparra zekarren» (Gen. 3, 18); nekez garia.

29. Zer balio zidaten ikaskizun nagusi derizatzeneko liburuak irakurri ala ulertzeak, griñatzen morroi banintzan? Atsegiten zidaten, eta aietako egi ziña nondik zan ez nekin. Argiari gibelaka nindagon eta argitu-gauzeri, aurpegiz; beraz, argitu gauzak zekustzin aurpegi au ez zan argitzen. Badakizu, nere Iainko Iaun, mintzaeraz eta itzaldietaz, gorpuzkien luzezabalez, musikaz eta numeroetaz liburuak diñetena, iñork irakatsi gabe errez ikasi nitula. Errez ikastea ta ongi bereiztea Zure doai dira; baño doai orien oparirik ez nizun egiten. Bearreko nitunak kalte zekizkidan, aiek nere mende idukitzea alegiten bainun. Nere indarra ez nuan Zuretzat gordetzen. Urrunetara ioan nintzan ondasun oriek lizunkerian xautzera. Besteri adierazi arte ez nintzan baitara, zein ziran zaill, eta nik adierazi-ala ulertzen zutenak, ikasle bikañak ziran.

30. Zer balio zidaten alegia, Zu Iaun egi-iturri, gorpuzki argi ta muga gabe ziñala uste bainuan, eta ni gorpuzkiaren zati nintzala? Geiegiko gaiztakeria! Bañan ala nintzan. Ez naiz lotsa, Iauna, nigan duzun urrikia aitortzeko eta Zuri dei egiteko, ez baintzan lotsa gizonen aintzinean Zuri birao eta saunka egiteko. Zer balio zidan, beraz, bestek irakatsi gabe, argitasun biziz ainbeste gai korapillotsu nik askatzea, Zurekiko ikasbidean aiñ oker eta itsuski ari bainintzan. Edo zer klate zitzaion Zure aurreri argi-urruti izatea, Zugandik urrun ez bazeuden? Zure egizko siñestearen azkurritz Elizaren kabian lumatuz egalak egiten bazitzazkien? Gauden «Zure egalenpean, Iainko Iauna; zaindu gaitzazu eta eraman orietan» (Ps. 62, 8). Zuk eramanen gaitzazu aur diranak eta «illea zuri dugunok» (Is. 46, 4). Gure sendo izatea «Zure» danean da sendo, «gure» danean aultasun. Gure ona beti Zugan dago, ta Zugandik okertu geralako gaitzatu gera. Itzul gaiten, Iauna, ez erortzeko, gure ona batere gaitzik gabe bizi baita, Zerorrengan. Ez dugu bildurrik, itzultzeko tokirik ezarenik, andik erori baikera; urrun gerala ere, ez baita erortzen gure etxea, Zure betiera.



BOSGARREN IARDUNA

I

Goretsi dezadan Iaungoikoa ta sorkari guziek nerekin batean.

1. Arrazu, Iauna, nere aitoren oparia mihi onen bidez, Zure izena aitortzeko egin baituzu, ortara eragiñez. Senda nere ezur guziok eta esan bezate: «nor Zu aiñakorik?» (Ps. 34, 10). Aitortzen zaitunak ez dizu berri ematen zer gerta dakion, biotz itxia ez baita gordetzen Zure begitik, eta gizonen ankerkeriak ez du alderazten Zure eskua. Gogo duzunean luza oi duzu, urrikalduz, naiz mendekatuz. Ez da zure beotik aldegin dezakenik (Ps. 18, 7). Goretsi zaitza nere animak, maitatzeko, ta Zure urrikalmenak aitor betza Zu goresteko. Zure sorkariak oro, ixildu-orde, Zu goresten ari dira atergabe: giza-arnasa, Zugana biurtu danaren agoz; ihize ta mukulu, aieri so dagiegunen agoz. Gure anima beure nagitasunetik Zugan zutitzen da. Zuk egiñetan oiñarri arturik, egin zenitun Orrengana igotzeko. Or duzu sendagailu ta indar ziñezkoa.

II

Obendari itsusiek ezin zikindu dute Zure edertasuna. Aldegin dute Zugandik; biurtu bitez Zuregana.

2. Iges begite Zugandik eziñegon eta biurriek. Ezagun dituzu itzalarlean ere. Aien inguruan oro eder dira; beraiek itsusi. Zer kalte egin dizute edo zertan kaxkartu dute Zure nausigoa? zuzen eta guzirako bita, gaiñenetik iges egitean? edota, non ez dituzu arkitzen? Egin zuten, bai, iges, ikusten dituzun Ori ez ikusi naiez, eta Zugan tupust egiteko, egin duzunik ez baituzu bere gisa uzten. Zugan tupust begikete gaiztoek, biguin zeranagandik itzuriz; eta bearrik lirake añarrausiak, Zure zuzenean tupust egin eta beuren latzean erori. Ez dakite, ez, nonai zaudela, tokiak etzaitula mugatzen, Zu bakarrik zaitutela bertan Zugandik urrundua ere. Itzul bitez, beraz, eta billa zaitzate; Zu utzi zaituten bezala ez baitituzu beren gisa uzten. Berek dute itzuli bear eta Zu billatu, beuren biotzean baitzauzkate, aitortzen zaitutenean biotzean, beuren buruak Zugan egozteko, ta, bide makurrak utziz, Zure altzoan negar egiteko. Txukatzen

diezu negarra Onbera orrek, eta negar egitenago dute malko atsegiñez, Zuk sendatzen eta pozarazten baitituzu, Iauna, Zuk; ez, aragiz eta odolez egiña dan gizonek. Non ote nindabillen Zure billa? Aintzinean zindudan; ni, berriz, neronegandik iges eta nerau ezin arkituz; ezago Zu.

III

Manestar Apezpiku Paustu dator Kartagotik. Izlari txoragarria, baiñan ez egizalea. Gauza asko-iakiñ arren, olako gizonek ez dute Egja billatzen.

3. Itzegin dezadan Iainkoaren aintzinean, ene ogeita beratzigarren urte artaz. Manestar Apezpiku bat zan Kartagora etorria, izena Paustu, deabruaren xedeba aundi, ainitz naasarazten baitzitun beure ele goxoaren xoramenez.

Nik ere goresten nuan; baiñan elea baiñon egia maiteago nuan; eta oni iara ematen nion: ez nolako ontxixkan ekartzen zidan, baizik eta maiean zer ikas-azkurri ematen zidan, aien izen aundiko Paustu arrek. Esana zidaten, iakinkizun edergarri guzietan oso iaioa zala, ta ikaskizun aitoretan garai ikasia. Iakintzaleen liburu aunitz irakurria bainintzan, eta oroimenean neduzkan, aiek ziñotenarekin Manestarren ipui-andana bekaldetzen nuan, eta aiena baiesgarriago ziduridan, izadia ezaguarazten baitute, Egillea iñola arkitu ez bazuten ere (Sap. 13, 9). Aundi zera, Iauna, ta xumeeri so dagiezu; aundizuak urrundunik dituzu ezagutzen, baiña damutueri zakie urbiltzen (Ps. 137, 6). Arranditsu oieri etzaitzie agertzen, ez izarrak eta ondarrak befiratuki bat-banatzean, ez zeru-zabaldia negurtean, ez izarren bidea aztertzean.

4. Beuren buruz ari dira Zuk eman zenien argitasunez. Aunitz asma-tu dute urtez aintziñadanik, eguzki-illargien itzal-aldietaz, zer eguntan, ordutan zenbat itzalekin. Ez dute utsegin beuren kontuetan, eta aiek esan bezala gertatzen da. Arau iakiñak atera zituten eta irakurten ditugu zer urtez, illabetez, egunez, orduz, eta zenbat itzalez itzali ditezken eguzki-illargiak, eta esan bezalaxe gerta oi da. Arritzen dira ontaz gizon ez-iakiñak, eta ikasiak gaiñak artzen ditute. Arrandi makur orrekin, Zure argitik alde ta zurtz, eguzki-itzalaladia ainbat lenago iragarten dute, ta beurena ez dute aintzinean ikusten. Ez baitute aztertzen argitasun ori nondik duten. Zuk egin zenitula iakinki etzaizkizu eskuetaraten, iduki detzazun, eta berak egin liran gisan, Zuretzat illik daude. Aundinaiez akitzen dira, egaztia gorantza bezala, itsas-zokoetako arraia bidexka izkutuetan bezala. Aragikeriaren menpeko dira, landako abereak antzo, Zuk, su



irasle zeran Iainko Orrek aien kezka illak erre detzazun, il ez ditezken eran piztueraziz.

5. Baiñan etzuten ezagutu bidea, Zure Itza, Aren bidez egin baitituzu neurkizun oriek, Neurtzaile orrek, neur-zentzu ori ta neurt-ezaguera ori; Zuk dakizunak, berriz, ez du neurrik (Ps. 146, 5). Zure Seni-bakarra Bera gertatu zaigu zer iakin, zuzentasun, saindutasun (I Cor. 1, 30). Gutartean neurgarri egin zan eta Kaisari zerga biurtu zion. Ez dute ezagutu bidea, berengandik Arengana, ta Arengandik beurengana. Ezagun gabez beuren izarrekin goiztar eta argizu zeritzoten, baiña lurrera ziran erori, ta biotz zoroa zitzaien illundu. Egi aunitz bazekarten diranetaz, eta diranen Egille Egia etzuten zintzo billanai, ta argatik ez arkitzen. Billaturik ere, Iainkoa ezagutuki, etzuten Iainkotzat goستن; etzioten eskerrik ematen. Galdu dira beuren burutaketan eta iakintsu deritzate (Rom. 1, 21) Zure dituzunak beuren etsiz. Zure ez diranak ere, gezurrak, alegia, orrela ditizute egozten, Egi zeran Orri. Orrela biurtzen dute Zure edertasun ezin-igatua, gizon suntzikorren, egaztien, lauroiñekoen eta sugeen antzeko ta Zure egia gezur biurtzen. Egilleari ez baiñan Ark egiñari dagiote gomen (Ib. 25).

6. Ala ere, aiek erakuski, egi aunitz nedukan gogoan Zuk egiñetaz: zergatik ziran aldien aintzin-urren, ageriko ioan-etorri eta abar, bai, manestar batek aietaz idatzi zitun milla zorakeriekin alderatuz, ezagutzen baintun; baiña zergatik ekaiñ eta gau egun berdin, izarren itzalaldi ta olakorik, aien liburuetan ez nuan ikasten. Ala ere siñestera ninderagiten, eta nere neurketaz eta begiz arkitu arrazoiak aienekin erara ez-baiña bestera zeuden.

IV

Doakabe da, guzi oiek iakiñik, Iainkoa ez dazaguna; ta doatsu, oiek iakin gabe, Iainkoa dakina.

7. Egi zaitugun Iainko Iauna, atsegiñeko al zaizu oriek dakizana? Oriek oro iakiñik ere, doakabe, Zu ezakizana! Doatsu, berriz, oriek ez iakiñik ere, Zu zakizana! Bat eta beste dakizana ez da doatsuago orregatik, Zuregatik, ordea, Iainko bezala ezagunik Iainko bezala edertzen bazaitu, eta esker ematen badizu, ta beure burutakerietan ez bada galtzen. Zugatz baten iabe dana, zenbat goi, luze, zabal, zenbat muskil ditun iakin gabe ere, aren etekiñez esker dagizuna doatsugo baita, ua neurtu ta muskilak oro batbanatu arren, iabe ez dana baiño, ta aren Egillea ezagun eta

maite ez duana baiño; alaxe da doatsugo gizon zintzoa, mundu aberats guziaren jabe baita, eta ezer-ukan gabe guzia baitauka, zazpi izarren itzulingurua ez badaki ere, Zuri gomen dagizuteneri atxiki baledi. Ortzia negur, izarrak barbana, izagaiak azta, eta Zu aldera utzi zagizana baiño doatsuago, naski, alakoa —zoro litzake otezekoan egotea ere—, aztaz eta neurriz Zuk baitituzu oro ezarri.

V

Manesek Gogo Gurena beregan bete-betean daukala aitortzen du. Izar-iakintzan gezurretan atzenaten dute.

8. Oriek ikasi gabe ere, ikasi baitezakegu zintzotasuna, nor esan zion manestar bati olakorik idazteko? Esan baitzenion gizonari: «zintzotasuna da iakintzotasuna» (Iob. 28, 28). Aiek ederki ikasirik ere ba ziteken ontan ikasgabe. Ederki etzekizalako naiz ausarkiro irakatsi, au ezin zekiken iñola. Aizekeri da zer-iakiñ orietaz aupatzea; zintzotasun, aldiz, Zu aitortzea. Bigurri ua, bere berriketa-guziekin gezurretan atzeman zuten aietan iaioak ziranek, gauza izkutugoetan zer aburu zuken garbi agerturik. Ez zan nornai bere ustez. Gogo Guren Pozarazle ta zintzoen zuzentzaile dana, beregan bete-betean zedukala ziagon. Beraz, ontzi, izar, eguzki-illargien ioan-etorrietaz utsetan atzeman zutenean, aren bekoki madarikatua ederki nabarbendu zan, gauza oriek Iainko-iakintzari ez badagozkio ere, uts eta gezur aundi aiek ain zoroki esaten baitzitun, Iainkoari Berari bezala siñes zezaiotela baitziardun.

9. Kristau anai batek au edo ori ez dakienik entzutean, edo baten orde besterantzola, egonarriz begira oi diot. Diranen maillak ez ba dazki ere, etzaio eragozpen, Zutaz, guzien egilleaz, aburu makurrik ez badu; bai, ordea aburu ua iainkozko ikaskizunaren mamia dala baderitzo, ta oker dakina tenkor aitor badeza. Gaitz au ere, ama maitasunak egarri oi du siñestearen seaskan, gizon berri ori biribil dediño, ta edozein ikas-aizek ez deramaño. Aldiz, irakasle, maisu, manestarren gidari ta buruzagi, arrandiz iekirik, ez gizon, baiña gogo Gurena zala siñestearzten zun ua, gezurretan atzi zutenean, nor ez iguin eta urrun aizatu oinbeste zorakeri? Aren itzetatik eta beste olako irakurri liburuetatik ez nuan garbi ikusten egun luze-laburren eta gau-egunen aldarte egizta zitekenik, eta al baziten ere, ez nindagoken tinki, ala zanik; baiñan, siñestekotan, naiago nizun aren mendean gelditu, omen zulako saindutasunez.



VI

*Paustu ele-legun gezurti; ele latzez ere egia esan diteke.
Eletarik etzun nai galde-erantzunka.
Ikaskizun aitorretan iantzi gabe zegon.*

10. Nere adimena arat-onat ibili beratzi urte aietan, Paustu etor-gose nindagon. Etorriko zala agintzen zidaten, nik korapillo ezarriz ezin askatzea gerta zitzaien beste aiek, eta, iardun-ala oso errez askatuko zitidala, aundiagorik banuan ere. Etorri zanean, beraz, gizon atsegiñ eta ele-goxo arkitu nuan, aiek ziñoten gauza berak berriketa askoz zoragarrigoan erasten. Zer zan, ordea, nere egarriarentzat, edontzi baliotsu aien betetzaillea? olako gauzetaz belarriak aspertuak nitun, eta, obeki esanik zeudelako etzekizkidan obeak iduri; ez egi, txukunago zemazkilako; bera ere ez iakintsuago, aurpegi xaloz eta itz ederrez ari zalako. Etziran epaille on agindu zidaten aiek: izketan txoratzen zitulako zirudien zugur eta iakintsu. Ezagutu nuan beste giza mota bat ere, norbait itz ugariz eta landuz mintzo dalako ez baitute baiezten, egiz ezbaiean iarriz. Zuk, ordea, Iauna, ixilik eta arrigarriri irakatsi zenidan, eta argatik siñesten dut Zuk irakatsia dala, egi baita eta ez baita Zu besterik egi-irakaslerik, nondinai ager dedilla. Ikasia nuan Zugandik, etzala ezer egi uste ukan bear mintzo ederragatik, ezta ere gezur mintzo motelagatik; ezta ere egi, landu gabe esana dalako, ezta gezur izketa argi dalako; baizik eta zugurtzea ta zorakeria, igale on edo txar bezala dirala, itz landu naiz landugabeetan atera baititezke, igali oriek bezala.

11. Gizon ua aspaldi entzun-tirria ase zitzaidan, eleta bizian, itz-egokiz, eta zer esana errez iantziz ari baitzan. Atsegiñetan nindagon, bai, eta besteak bezala ta areago goersten nuan. Gaitzi zitzaidan, ordea, entzuleen billeran arengana sartzen ez ustea, nere auzien kezak ari lagun-gisa elkarizketan ez iaukitzea. Noizbait mugona ukanik, nere lagunetan iarduteko leku egokian, agertu nition zenbait arazo, eta, ikaskizun aitorrean erantzia zegola auteman nuan, gramatikan ezik, eta ortan ere edozeinen eintsuan. Ba zun etorria, Kikeronen zenbait mintzaldi ta Senekaren liburu bakar batzuk, zenbait poeta, zenbait manestarren liburu latin ederrean irakurri zitulako, ta egun oro mintzaketan iardun oi zulako. Orregatik erakarten zitun eta lilluratzen, berezko argitasunez eta zoramenez. Diñodan bezala al da nere Iaun eta Iainko, nere barne-ezagunaren iabe? Biotz eta oroimen Zure aintzinean ditut, Zure arreta izkutuz bininderagizun, eta nere uts

itsusiak oro aurpegira egozten zenitidan (Ps. 49, 21), neure burua ikusiz gorrotatzeko.

VII

*Korapilloak ezin askatu Paustuk. Manestarrenganako
grñia ozten zaio Augustiñi.*

12. Iantzia uste nuneko ikaskizun aietan ez-ikasi arkitu nunean, etsitzen asi nintzan, ene kezkarik etzezakela aizatu. Aiek ez iakiñik ere, egizko iainkotiar ziteken, baiña manestar ez izatekotan. Oen liburuak ortziaz, izarretaz, eguzkiaz, illargiaz, ipui luzez beterik baitaude, etzirudidan nik nai bezain barnekiro azalduko zitidanik: manestarren liburuek diñoten bezala ote diran, ala, neronek beste nonbait irakurriak aiña balio ote zuten. Agertu nition, bada, apal-apal ene arrangurak; baiñan ez zan erabaki, aien zama iasotera. Ezagutu zun etzekizala, ta lotsaturik gabe aitoritu ere. Ez zan, ez irakasten alegin eta ezer esan ez oi duten berriketontzi oietakoa: olakorik aski egaririk bainago. Bazun zentzu, Zuregana zuzen ez bazedukan ere; berenaga ez atzargabe. Bere ez iakiñez etzegon oso iakin gabe, ta bere burua etzun ertsi nai ukan eleta zozoan, ez aintzin ez gibel egiteko eran: ortan atsegiñago zitzaidan. Aitortze xalo ori ederrago baita nik iakin nai nukena baiño. Eta auzi zail guzietan alakoa arkitzen nuan.

13. Manestarren ikaskizun aietarako grñia galdurik, aien irakasleetaz etsirik, aipatuen arek ez baitzidan kezkarik kentzen, alare arekin iarduten asi nintzan, biziki maite baitzitun nik ordun Kartagon gazteri nerakastzien ele ederrak. Arekin irakurten asi nintzan, naiz berak gogo zitukenak, naiz argitasun artako gizonarentzat nik nerizkionak. Bestela, ua ezagutearekin, aien eskolan aintzinateko tirria itzali zitzaidan; ez, aiengandik aldegitoko, ez bainun oberik arkitzen, baiña bein ara alderditu nintzan ezkerro, an goxo egotea erabaki nuan, bitartean aukera oberik agertzen ez bazitzaidan beiñipein. Onela, aunitzi erio-xedeba zitzaien Paestu ua, nere aosten asi zan, oarkabe eta nai gabe. Zure arreta izkutuan, ene Iainko, ez ninduzun eskutik uzten, eta gure amak gau ta egun biotzeko odol-malkoak zitizun opari eskeintzen, eta Zu arrigarriri ari ziñan enekin. Zuk egin zenun, Iauna; «Zuk bideratzen baitutzu giza-urratsak, eta aren bidea nai baituzu» (Ps. 36, 25). Egin naun eskuak birregin al nazake betiko osasunerako?



VIII

Kartagon irakasten zuna Erroman irakatsi nai, ango ikasleak paketsuago omen ziralako. Amarengandik iruzurrez aldegiten du.

14. Orregatik egin zenun au: Kartagon irakasten nuna irakasteko Erromara ioan nendin. Ez dut aitortu gabe utziko nola erabaki nintzan; olakoetan Zure izkutu izkutuko asmoa ta begi begietako urrikia gogoe-man eta goretsi bear-bait. Geiago irabazi naiak ez ninderaman Erromara; ezta ere, ala-nai zuten adiskideek aintzatago ar nindezaten —gauza auek zerbait baninderagiten ere—; beste zerbaitek ninderagin bakarrik edo geienik: ango ikasle gazteak paketsuago zirala, ta legez zentzatuago; etziralala beste irakasleen irakasguan sartzen noiznai ta biurrikeriz; aien baime-nik gabe etzitutela beñere sarrerazten. Kartagon aldiz, ikasleen aizukeria itsusi ta neurrigabe da; lotsa gabe oldartzen dira, ta bekozko asarrez, ikas-le bakoitzak beure onerako autatu-tokiak naasten ditute. Ezbearreko aunitz dagite, zozo alae aiek, legez zigorka-bearrak oitura alde ez balute. Onela ugariago dira, Zure betiko legean iñoiz sori ez ditekena, sori baill-tzan egiten dutenak. Eta zigor-bildurrik ez. Itsumen ua aski zigor dute, ta beurek dagitzenak baiño makurragoak datozkie. Nik ikasletan maite ez nitun oiturak, irakasletan egari-bearra nedukan. Orregatik ioan nai nuan ara, ango berri zutenak, an olakorik egiten etzala baitzirautsatzen. Zuk, naski, «Iur ontan itxaropen eta ondare zaitudan onek» (Ps. 141, 6), Zuk ninderagizun ene gogoaren osasunerako toki-aldatzera, Kartagotik alde-giteko zirikatuz. Erroman berriz, zenbait gizon irakasbide iauki zenitidan, erio-bizia maite baitzuten, emen zorakeri egin, an uskeri agindu. Nere urratsak zuzentzeko, aien eta nere biurrikeriz izkuturo baliatzen ziñan. Nere pakea durdurikatzen zutenak, amorruez itu zeuden, eta pakera dei-tzen nindutenak lurkoi ziran. Nik, berriz, emengo zorigaitza iguin eta ango gezur-zoriona maite.

15. Zuk zenekin, ordea, Iauna, emendik eta ara zertara nindoan. Etzenidan adierazi; ez amari ere. Negar izugarriak egin zitun, eta nere ondotik etorri zan itsas-egiraiño. Gogor atzi nindun, itzul nendila, edota nerekin zetorkela. Adiskide batengana ioan-keiñu egin nuan, ez nula bakarrik utzi nai, aizea lagun, ua ontzira zediño. Gezur esan nion amari eta alako amari, ta aldegin nuan —au ere urrikia utzi baitzenidan, zikin-keri itsusiz beterik nindagon oni— itsas-uretik bataio-ureraño ni gorde-rik. Ontan garbitu eta gure amaren negar-zurrustak txukatu ziran, nere-gatik egunoro aurpegipeko lurra aiekin bustitzen baitzun. Oraño, ni gabe ez itzuli nai ta, nekez adierazi nion, ontzitik urbil, San Kipirioren oroika-

ri dan xoko batean egoteko. Nik, ordea, ixilka aldegin nuan; ua, berriz, an gelditu zan otoitz eta negar. Eta oinbeste malkoz zer eskatzen zizun, ene lainko, itsasoz ioaten ez nindezazula utzi baizik? Zuk, ordea, barnerago begiratu, orduko aren nai-muiña etzenun bete, ark eskatzen zuna Zuk egin nindezazun. Egin ufa aizeak eta gure ontzi-oialak puztu, ta gure begi-tik itsas-egia zigun galerazi. Biaramonean, miñ eta oiua ta intziri, belarriak betetzen zitizun; eta Zuk axolik ez. Ni neure griñen bidean ninderama-zun, griña aiek buka zitezen; eta aren naikari aragizkoegia, merezi-miñez zendun zigorkatzen. Zenbait amak bezala ta areago, berekin eduki nai nindun, eta etzekin, nere aldegitteak zer poz zekarkioken. Etzekin; argatik negarti ta minduru, Ebaren ondorioa zun agertzen; asperenez erdi zuna, asperenez billa-nai. Alare, ni gezurti ta anker salatuz, berriro nere alde otoitz egitera biurtu zan, eta ni Erromara.

IX

Erio-gaitza; ipernura zoaken; amaren otoitzak eragotzi.

16. An, gaitzaren zigorrak atzi nindun, eta Zure ta nere ta besteren aurka egin gaizkiak ipernura neramatzin: gaitzakeri aunitz eta astun, iato-rrizkoaz gaiñera; ontaz ere erioa baitugu Adanengandik (I Cor. 15, 22). Etzenitidan barkatuak Kristogan; etzedukan Ark gurutzean suntsitua nere obenagandiko etsaigoa (Eph. 2, 16). Nola neri barkatu, nik Artaz siñesten nuan lausozko gurutzean? Aren gorputz-eriotza gezur ziduridan bezain egi zan ene animarena; eta Aren aragi-eriotza egi bezain gezur zan ene animako bizia; ez bainun siñesten. Sukarra areagotuz, galtzera nindo-an. Nora nindoaken andik, Zuk gerturiko su-oñazeetara, ongi irabazieta-ra baizik, Zure egiaren neurritz? Olakorik etzekin, eta alaere, zegoen tokian entzuten zenun, eta nintzan tokian urrikal zintzaidan ni sendatzeko, oraño biotzetik itsuski gaixo nintzala. Zorigaitz artan ez bainun Zure bataiorik nai, ohea nintzan amari eskatu nioneko artan, oroitu ta aitortu dizudan bezala. Itsuskerirako azi nintzan, eta Zure sendagaillueri irri nen-gien, zoro onek, eta, bi aldiz ez ninduzun utzi iltzen. Gure ama zauri ortaz zauritu balitza, ez zan sendatuko beñere. Ez naiz aspertuko nola maite nindun esaten eta aragiz erdi nindun baiño zer arreata aundiagoz ari zan ni gogoz erditzen.

17. Orduko nere eriotzak aren errai maiteak alden-beste zulatu bali-tu, ezin dut asma nola senda ziteken. Oinbeste otoitz, ain usu ta atergabe egiñak, nora zoazken? Zugana, bestegan ez. Gutxietsi al zenezaken, urri-



kietako Iainkoa, alargun garbi ta gartxu aren «biotz urrikaldu ta murgildua»? (Ps. 50, 19). Ukarra maiz zegin; Zure autatuerei gomen zegien; egunoroko Meza etzun utsegiten; egunean bi aldiz, gau ta arratsalde, zetorren Elizara, ez ipui zoro edo atxoen berriketa billa, baizik eta itzaldietan Zu entzutera, ta Zuk ua beure otoitzetan. Zure doaiez alako zanaren malko aiek, nola Zuregandik aurtiki? Iñola ere ez, Iauna, urrerik, zillarrik edo beste on aldakorrik edo galkorrik ez baitzun eskatzen, baiña beure semearen osasuna. Areago zenion entzuten bertatik bertara ta aintziñez erabaki-legez ari ziñan. Len aipatu ditudan ikuskari aietan —aipatu gabeak ere ba ditut— ari Zuk iruzur egin? Ez olakorik! Gogoan zeduzkan zintzo; ta beti otoitz egiñez, Zure itzemanaren sendogarri zekartzin. «Zure urrikal-mendua betikoa baita» (Ps. 117, 1), zor guziak barkatzea ez-ezen itz-emanenez zordun gertatzea ere on deritzazu.

X

Sendatzen da. Manestar autatuekin epelago. Iainkoa gorpuzki zala uste; ona ta gaitza bi mukulu opoz-opo.

18. Gaitz artatik sendatu ninduzun, beraz, eta Zure neskatoaren semea atera zendun ordukoz gorpuz-gaitzetik, osasun ohea ta ziurragoa eman zenezai. Erroman ere bildu nintzaian saindu gezurti ta iruzurti aieri, ez aien entzuleeri bakarrik —aietakoa zan gaizki egonik sendatu nintzaneko etxekoa— baita «autatu» deritzaten aieri ere. Ez gerala gu oberearen egille ziduridan oraiño; baiña beste zerbait guregn, ez dakit nolako. Nere arrokeriari atsegin zitzaion oben gabe egona, ta zerbait gaizto egitean, ez aitortu nai nik egiña zala, nere anima senda zenezan, «Zuri egin baitzizun oben» (Ps. 40, 5); aldiz, neure burua zuritu nai, ta nere barrenan nitaz beste omen zegolako ori salatu nai. Guzia nerau nintzan, ordea, ta nere aurka nere gaiztakeriak zutitu nindun. Ustez obendari ez nintzalako, oben eta biurrikeri itsusia senda eziñago zan, ots, Zuk ni onerako baiño nik Zu gaitzerako nigan garaitu naiago, Iainko guzialdun Ori. Oraiño etzenion ezarri «zildairik ene agoari, ez atakarik nere ezpaiñeri, nere biotza eletzarretara lerra etzedin, gaiztakeri dagiten gizonekin obena gainzurituz» (Ps. 140, 3). Orregatik nindabillan autatu aiekin. Ala ere, gezur-eskola artan aintzinatu ez nezakela etsirik, oberik ezean, artan lasai egotea erabaki nuan epelago ta nagiago bederen.

19. Gogoak eman zidan, bada, Akademiku deritzaten iakinzale aiek zuzurrago zirala beste guziak baiño, uste baitzuten, egia oro otezkoan

ipuiñ bear zirala, ta gizonak etzezakela egirik utzi. Garbi ziduridan ala uste zutela, aien xederik oraiño ulertu gabe. Nere etxe-nagusiari garbi egotzi nion, ipui aietara zedukan itxaropide geiegikoa, aietaz beterik baitzeuden Manestarren liburuak. Alare aiekin adiskideago nintzan heresi artan etzeudenekin baiño. Ez nuan len bezain bero iagoten, baiñan aiekiko nabastarreak —Erroman aunitz baitziran— besterik billatzeko nagitzen nindun, batez ere, Zure Elizan egia arkitzerik etsi nunean; urrundu baininduten andik, zeru-lurren Iaun, ikusten ditugunen eta ez ditugunen Egille. Oso itsusi zeritzaidan Zuk giza-gorputza zendula siñestea, ta gurea bezalako aragiz ta azbegiz mugaz esitua ziñala. Eta Iainkoa gogoan atean, mukulukia besterik ezin asma nentzen —ez bainun uste bestelakorik ezer zanik— eta ori zan ene uts eziñ-itzurien etorburu iakiñena ta ia bakarra.

20. Onela uste ere nuan, gaiztakerzko zerki bat bazala, mukulu beltz, itsusi, lurra bezain gizen edo aizea bezain argal: eta gogo gaiztoa lur artan kukatzen zala. Iainko onak ezer gaiztorik egin zuenik siñestea nerezko iasak ez baitzidan zuten, bi mukulu asmatzen nitun buruz buru, bakoitza mugagabea, baiña gaiztoa ertsiago, ona zabalago. Iturri zikiñ ontatik sortzen ziran ene gaiñerako itsuskeriak. Katoliku siñestera etorri nairik gogaitzen nintzan, siñeste ori ez baitzan nik uste bezalakoa. Zure urrikiak aitortzen ari bainaiz, ene Iainko, Zu mugadun ziñala aitortuz zintzoago nintzala nindagon —alde batetik gaiztoaren mukulua baitzenun buruz buru— orotatik muga gabe izanik gorputzaren eiteak mugatzen zindula baiño. Obeki nerizkion Zuk gaiztorik ezer ez egin ukaitea, gaizto orren izatea Zugandik dala siñestea baiño. Ez-iakin oni, gaitza gorpuzki zala ziduridan, ez nolanaiko zerki, eziñ bainun asmatu giza-gogoa ere gorpuzki argal besterik, utsartean zabaldua alare. Gure Osasun dan Zure Seme bakarra ere, Zure mukulu argi-argizu artatik zala uste nizun. Ez nuan siñesten Artaz, nere idurimen txoroak zedukana baizik. Maria Birjiñagandik olako zerkirik etzitekela iaio nedukan, aragiz gatzatu gabe. Nere idurimenak etzezakzen asma, gatzatu bai ta ez zikindu. Aragiztatua siñes-bildur nintzan, aragiz zikindua ez uste ukaiteko. Zure gogakoiek, aitortzapen auek irakurtean irri dagikete biguiñ eta maite; baiñan ola nintzan.

XI

Elpidiren itzaldiek daragite Manestarren aurka.

21. Gero, berriz, Zure liburuari egozten ditienak eziñ-edukizko neduzkan; baiñan aienetan ikasienean batekin bakoitzaz iardun nai nuan,



eta zer zerizkion ikusi nai. Kartagon nintzalarik, Elpidi zalako batek aien aurka egin-itzaldiek eragin ninduten; ark Liburu Sainduetaz esaneri ez baitzan errez iardokitzea. Beste auen erantzunak aulago neduzkan, ez baitzituten agerira ateratzen —guri, bai, ixilka— Itun Berriko liburuak ez dakit nortzuk makurtu zitutela, Iuduen legea kristau-siñestean txertatu nairik, eta beurek etzuten aipatzen makur gabeko libururik, alerik ere. Ni, ordea, gorpuzkia gogoemanez, arako mukulu aiek atzirik eta itorik nindukaten, eta aienpean asnasik ezin artu Zure egiaren egurats garbian eta gardenean.

XII

Erromako ikasleak ere gaizto.

22. Erroman bero asi nintzan ara eraman nindun egitekoan, ots, mintza-antzea irakasten; lenik, ikasleak etxera bilduz, ta aien bidez nere ezaguera emanez. Erroman egiñ oi da nik Afrikan egari ez nezaken zere bait. Egia, ango naasmakil aienik emen tzala oartu nintzan; baiña diñotenez, bat batean gazte aunitzek elkar artzen dute naisuari ez ordaintzeko, eta, itza ianez beste batengana aldegin, diruagatik zuzenbidea gutxietsiz. Oek ere gorroto nitun, «ez, gorroto egokiz» (Ps. 138, 25); bear bada gorrotoago baninun aiek neri egin-kalte, besteeri zegien makurra baiño. Lotsagarri dira, naski olakoak eta «Zugandik urrun loikeri dagite» (Ps. 72, 27), iraikeko on puztagarriak maitatuz. Irabazi loa, eskuak zikintzen baititu. Mundu iragankorra dute laztantzen, Zu gutxiesten, egon zauden ori. Giza-gogo loiar Zuk dei, ta Zuk barka dagiozu, itzultzen zaizunean. Oraino olako gaizto bigurriak gorroto ditut; maite, ordea, zentzatzeko, dirua baiño ikaskizuna maiteago dezaten eta au baño Zu egiazko ondasun eta pake txit garbi zeran Ori. Baiñan ordun, nik ez egari naiago nitun. Zuretzat on biurrerazi baiño; neretzat gaizto baitziran.

XIII

Milandik mintza-maisua eskatzen. Augustin dute bialtzen. Amburusi gotzaia.

23. Ontan, Milandik, uri artarako mintza-maisua eskatzen zioten Erromako Agintari nagusiar, erriaren bizkar zala ere. Nerau agertu nintzan manestarren bidez, aizezu zoro oien bidez. Aiengandik aldegitera

nindoan, nik eta aiek ez iakiñik ere. Simaku agintariak mintzagaia eman eta nerea onartuki, ara bidali nindun. Milana orduko Amburusi gotzaierengana ioan nintzan. Mundu osoan ezaguna zan Zure mirabe zintzoa. Aren mintzoak Zure erriari arretaz banatzen zion Zure ogi zuria, Zure olio pozgarria, Zure ardoaren birbiztasun gartxua. Oarkabe, argana ninderamazun, aren bidez Zugana oartuki etorri nendin. Iainkozko gizon arrek aitakiro artu nindun, eta nere toki-alda maitaro ikusi zun, Apaizkiku antzo. Maite artu nuan nik ere, ez egiaren irakasle bezala —ortaz etsi bai nuan— baiña nerekiko onbera zalako. Erriari ari zitzaionean, begiratuki nentzun, ez bear nuken asmoz; baiña zer-ikusi, izenaren beteko mintzalarri ote zan, aundiago, txikiago. Aren agotik zintzilika nindagon, esanari iara eman gabe, ta are erdeñatuz; baiña mintzo lagunak atsegiten zidan. Faustu baiño iakintsuago mintzo zan, baiñan ez ain legun eta xoragarri. Bestela, ez zan alderatzeko ere, ua manestarren ametsetan galtzen baitzan; au, berriz, osasunerako aukera aukeran ari zan. «Baiñan osasuna obendarriengandik urrun dago» (Ps. 118, 155); nigandik ordun bai; ala ere ezarian, iakin gabe artara ari nintzan urbiltzen.

XIV

Zalantza askoren ondoren kristaugai egitea erabakitzen du.

24. Ark esanak ikasten iardun gabe nola esan entzun bakarrik nairik —Zugana biderik etzegola etsipen alperra sartu baitzitzaidan— batean zetozkidan gogora maite nitun itzak eta gutxiesten nitun gauzak; ezin bainitun banatu. Eta egoki ari ote zan ikusteko gogoa zabaltzearekin batean, emeki, emeki, egiaz ari zala sartzen zitzaidan. Lenik gauza aien alde atera zitekela ziduridan, baita bildur gabe katoliku siñestearn alde len manestarrak iardoki oi ziotena ezin suntsizko banerizkion ere. Batez ere Itun Zarreko zenbait asmakari asmatzen bein ta berriz azkotan ikusi nunetik, itzez itz arturik, erio zitzaizkidan berriro. Liburu aietan geienak sen-araura adierazten entzunik, akar nengion ene buruari lengo etsipen artaz, alegia, Legea ta Igarleak iguingarri ta irrigarri zeduzkaten aieri etzitzaiekela ezer iardoki. Alare, etziduridan katoliku bidea artze-bearrik, bestek aurreperra egotziak errez eta burubidez aizatzen zituten irakasle iakintsuak zitulako; ezta nere siñestea utzi bearrik ere, bi aldetako arrazoiak berdintsu ziralako. Egi katolikua garaitua ez banekusan, ez oraino garaille ere.

25. Orduan, bai, alegiñ guziz ekin nion manestarren gezurrak argibide seguruz ager ote nezakzen. Nik gogaki zerbait asma al baneza, aien



asmakeri guziak itzali zitezkeela, ta nere gogotik aizatu, baiñan ez nezaken. Alare, mundu ikuskari ontaz eta ageriko zerki guzietaz iakinzale geienen aburuak artzekoago zirudizkidan manestarrak baiño, nere baitan itzuli ta irauli. Beraz, Akademitarren antzera guzia duda egñiez, eta guzien artean zalantzan, manestarrak uztea erabaki nuan; beintzat, otezko artan ez nendukala an egotek eginbiderik eta. Banitun beste zenbait iakinzale, aiek baiñon obetsiako. Ez nuan lare auen eskuetan iñola ere utzi nai nere animako gaitzen sendatzea, ez baitzuten ezagutzen Kristo Osasunaren izena. Beraz, argi osoa ikusi arte, ari iarraitzeko, gurasoek goraintzitako Eliza katolikuan ikasle berri egotea erabaki nuan.

SEIGARREN IARDUNA

I

Augustiñek eziñ arkitu du egia illunpe artan. Ama datorkio ondora. Badu itxaropen, semea katoliku egñien zaiola. Manestarrak utzi ta Amburusi gana.

1. «Gaztedanik itxaropide zaitudana» (Ps. 70, 5), non zindudan? nora aldegiña? Ez al ninduzun egin Zuk, eta lauroiñeko ta egaztien aldean iakintsu egin ere? Illunpean eta irristaloan nindabillan nitaz landa Zure billa, ta etzindudan arkitzen, ene biotzeko Iainkoa. Itsas-zolaraiño sartua nintzan (Ps. 67, 23). Egia arkitzez entzingaitz eta etsia artua.

Etorri zitzaidan ondotik ama, itsaso ta legor, arrisku orotan Zuregan tinki, Zurekiko bizkor. Itsas-gizoneri bereri biotz ematen zien gal-bildur-rean —oitu gabeko ikaratiekin beraiek egin oi dutena— onez legorrerako zirala itz emanez, Zuk agindu baitzenion ikuskari bidez ori ere. Galtze arkitu nindun, egia arkitzez etsirik. Alare, manestar ez nintzala agertu niolarik —ez kristau katoliku ere—, berriago ori entzunarekin ez zan po-iauzika asi; seguru baitzan, alde ni galdu arren, piztuko zintzaidala. ala eskaintzen ninduzun ark negarrez, beure buruko il-kutxean zekarren bigarren alargun-semeari esan zenezaiion: «gazte, ots, ieiki adi» (Lc. 7, 12), eta pizturik ni izketan asi nendin, eta amari eman nintzaiozun. Geiegiko pozez ez zan asalatu. Zuri negarrez egunoro ainbesteraioño eskatzen zizuna beterik ikustean, ots, egia atzeman gabe nindagon arren, gezurrari kendua nintzala. Areago, seguru baitzan gaiñerakoa ere agindu bezala egñien zenula, bare-bare erantzun zidan, biotza itxaropidez beterik, siñesten zula Kristogan, il baiño len kristau zintzo ikusiko nindula. Au eni. Zuri ordea, urriki-iturri Orri, otoitz eta negar ugariago, Zure lagun-tza agurotu zenezan, ene illunpea argi zenezan, eta gogozago zegin laister Elizara, Amburusiri ezipainetatik zerion «betiko ur bizi iturrira» (Io. 4, 14). Iainkoaren Aingeru bezala miate zun ua, koloka egoite artara ark ekarri nindulako. Gaitz artatik osasunera ark nindekarkela seguru zegon, gaitza areago zirikatuz, merikuek *arriskualdi* diagotena pitzaraziz.



II

Monikak Apezpikuaren debekua ongi artzen du, ots, Aprikan bezala ongi ta ardorik sailnduen illarrietara ez eramateko.

2. Aprikan oi danez, sailnduen illarrietara galarazi, Apezpikuaren debekuz zala iakin zuneko, esanera iarri zan. Bai ni arritu, zein aisa beure burua salatzen zun marmari egin orde. Ez zan ardo-galeak eramana ta ardo-miñak etzun zirikatzen egia gorrotatzera, oinbeste gizon eta emazte bezala, gartxu-kanta entzun orduko nardatzen baitira, mozkorrak urez bezala. Aldiz, iana ta bana-bearra zeraman sakittoan etzun ipintzen bere gartxurako baiño geiago, ots, kotxo ur-ardotu bat; eta, ildako aunitzen illarrietan ori egin bear zalarik beura zeraman noranai. Ola banatzen zun an ziranekin, urzu ez-ezen epel epel, kurkañoaren atsegiña ez-baiño Iainko-iasta billa nai baitzun.

Beraz, Apezpiku argi ta iainkozko arek debekatua zala iabetu zaneke, bai gartxuki egiñik ere, ardozaleeri mozkor-biderik ez ematearren eta oitura aiek siñesgabeen guraso-iaien antzeko ziralako, gogotik utzi zitun, eta lur-igalitzo saskitto bete orde, otoitz garbizko biotz betea eramaten ikasi zun martirien illarrietara iende bearrari al zonetik emanez, an Iaunaren Gorputz-oparia eskeiñi zedin; martiriak buruntza ala artu baitzuten Aren nekeen antzera beuren buruak eskeiñiz.

Etzait iduri ordea, nire Iaun eta Iainko, —ola uste dut Zure aintzinean— Amburusi aiña maite etzun beste edozeiñek debekaturik, gure ama alako oitura uztera iarriko zanik. Maite zun biziro nire osasunagatik, eta ark gure ama Iainkozko iardunagatik, elizkoi baitzan eta egintza onae-tan suar. Ikusten ninduneko atsegiñak ematen zitidan alako ama nulako, ez baitzekin zer seme nindun, koloka bainindagon egi guzietan, eta ez bainun uste bizira-bidea iñola arkitzerik.

III

Amburusiaren etxera. Au irakurketan. Augustiñek astirik az ari galdegiteko. Elizako itzaldiak entzuten zitien.

3. Ez nizun oraiño otoitzetan intzirinik egiten zintzaidan lagun; aldiz, ene gogoa egi-billa ta eleta billa zebillan. Amburusi bera, mundu-arauz gizon doatsu nedukan, oinbestekotzat zedukatelako. Baizik ere, aren ezkongabea neke ziduridan. Ezin nezaion igerri, ezin suma, zer itxaropide zedukan, zer burruka beure aundi-miñaren aurka, zer poza ezbea-

rretan, zein goxo auznartzen zun Zure ogia, biotzean izkutu zedukan agoarekin.

Ark ere etzekin ene griña irakiñen berri, ez ta ere tulunbioaren ertzean nindagola. Ezin galdegín nion gogo nuana ta naierara, beuren aziorrazietako zetorkion iende-saillak eragozten baitzidan aren itza entzutea. Aiekin etzegoneko aldiño artan, edo gorputza azkurriz edo anima irakurgaiez indarberritzen ziardun.

Irakurtean begiak arat-onat zerabiltzan, buruz zentzua aztertuz, mihia geldí zedukala. Askotan, an giñaudela —ez baitzan debeku nornai sartzea, ta nor zetorren iragarten baitzioten— orrela genekusan ixil irakurten, eta ez bestela. Ixillaldi luze artan eseririk aldegiten genun —nor ausartu ua nekaraztera?— ustez eta besteren auzietatik beure esku geldituki, anima indartzeko artzen zun alditxo artan etzükela nai bestetara deitzerik, eta ausaz, erne ta xoraturik zegokionari, zerbait illun arkiturik, argira bearke ziola; edota auzi zaillagoetaz iardun, eta ontan astia emanik, nai baiño liburu guttiago iraultzen lukela; baita mintzoa zaintzeko ere, aisa moteltzen baitzizaion. Nola nai dala, xede onez ari zan gizon ua.

4. Ez nuan beintzat aukerarik Zure mintzo sailndua biotzean zedukanari galdegiteko, oso labur ez ba zan. Ene irakiña arengan ezti-naiez, ua astiro atzematen alegiten nuan, eta ezin ardietsi. Entzuten nuan, bai, igan-dero, «egi-itza ederki adierazten» (2 Tim. 2, 15), eta arako gezurti aiek liburu sailnduen aurka asma zituten gezur-korapilloak gero ta aisago aska zitezükela iabetzen nintzan. Eliza katolikuan graziaz sortarazi dituzun semautsiek, gizona «Zure antzera egiña dala» (Gen. 9, 6) siñestean etzaitutela gorputzez mugatua siñetsi ta iduri bear iakitean, pozik lotsatu nintzan, katoliku siñestean ez-baiña neure aragizko gogoeta zoroen aurka saunka egin nulako; gogakia zer zanik ez bainun den guttienik eta urrundik ere iduritarra. Galdegitez ikasi bear nukena salatuz naigolako. zoroago ta gaiztoago nintzan. Zu, ordea, goieneko ta ondoeneko, izkutueneke ta berteneke, ez baituzu azbegi ttipi-aundirik, nonai guzia baitzaude ta iñongo tokitan ez, ez zera gure gorputz antzeko. Alare gizona Zure antzera egin duzu, ta burutik beatzera tokian dago bera.

IV

Zalantzan oraiño. Amburusiaren itzaldiak gogoz entzuten ditu.

5. Zure antz ori nola genduken ez nekila, arren, iaukitzen nion, nola siñestuko, ez lotsagabe iarkiz, nik uste nuna zalakoan. Oin luzaro lillura-



tu nindutenen gezurraz eta griñaz, egia alegi bezala erasi nulako, ni lotsatuago ta nere barrena egia iakiteko kilikatsuago. Gero argitu bainintzan gezur zirala. Egi zan alare, alegi zirala nik noizbait egi neduzkanak. Eleta itsuz gogor salatzen nuan Zure Eliza, egia zerakusala ez iabeturik ere, etzerakusan beintzat nik itsuski egozten niona. Orrela naasten nintzan eta itzultzen eta pozten, ene Iainko, Zure bakarraren gorputz bakar dan Elizak —artan irakatsi baitzidaten Kristoren izena— etzitula aurkeriak maite, eta beure irakaspen iatorrean, Zu, guzion Egillea, aundi ta zabal izanik ere etziñala giza-antzer mugatua.

6. Pozten ere nintzan, Itun zarreko lege ta Iragarle, oi ez bezalako begiz irakurrarazten, len belarri-mingarri bainerizkien. Zure sainduak ere ala zekusatela niagon; baiña gezurra. Pozik entzuten nuan Amburusi beure erri-mintzaldietan arretaz araua goraintzika: «itzak eriotza dakar, gogoak bizia» (2 Cor. 3, 6); itzez itz makur ar zitekena ark estalki izkutua kenduz zentzuz baitzerakusan ene belarria mindu gabe, ziagona egi ote zan ez banekin ere. Ezeri baietzik eman gabe zalantzan nindagon, leizean amil-bildur, eta dilindan egonak estutzenago nindun. Ikusten ez nitun aietaz, zazpi ta iru amar diran bezain tinki egon nai nuan. Au ezin-ulerta zala ez siñesteko bezain zozo ez nintzan; baiñan au bezala ulertu nai nitun begien aintzinean neduzkan mukulukiak, baita gogaki utsak ere, auek ezin asma bainetzan mukulu-antzer baizik.

Eta siñetsiz senda nindeken, ene adimena garbiturik, utsegin gabe beti dirauken Zure egiren batera adimena zorrozuz; baiña gerta oi baita, sendagille txar bat ezagutuz, onarengan ere ez entzitea; ala zan ene animako osasuna, ez baitziteken ziñetsi gabe senda, eta senda nai ez, gezurrik siñets etzezan. Zure eskueri iazarten nintzaien, siñestezko sendagai-luak aiek egin baititute ta mundu zabaleko gaitzetara edatu, ainbesteko ahala emanez.

V

Artzen du lasapide geixago Liburu Sainduetan.

7. Katoliku irakaspena ontatik obesten nuan: apalago ta batere gezurrik gabe baininderagin argira etzitekera siñestera, zitekela naiz etziteke-la, norbaitentzat bederen; aien agindu zoroak, aldiz, siñetsizko irakaspen-neri irri egin, eta geo ainbeste ipuin gezurruts siñestera beartu, ezin argiratu arren.

Gero emeki zuk, Iauna, zure esku txit biguin, txit urrikaltsuz nere biotza ukituz eta gertuz, baitarazi ninduzun, ikusi gabeko aleun gauza siñesten nitula; oinbeste iendakiren gertaerarik ez dut ikusi; oinbeste erri ta uri ez-ezagunenik. Zer egin genezake bizi ontan, adiskide, mediku ta abarrez, oinbeste ta oinbeste gauza siñetsiko ez ba genie? Azkenik, kolo-ka gabe siñesten nizun zein gurasoren seme nintzan; entzunez bestez ez bainezaken iakin. Zure liburuak siñesten zitutenak obendun etzirala iaberrazi ninduzun, iendaki geienetan alako nausigoz ezarri baitituzu; bai siñesten etzutenak, eta etzizaiela iara eman bear zera esaten baizidaten ere: «nondik dakik liburu oriek Iainko bakar egiazko ta egitiaren arnasak giza-diari eragin ditiola?». Ori nuan siñesteko batez ere, pilosopoen elkarreki-ko burruka bizi aietan irakurririk neduzkan auzi gezurti aiek ez baininduten erakarri beñere Zu etziñanik eta gizadiatz arretarik etzenunik siñestera, zer ziñanik ez banekin ere.

8. Iñoiz bizkorrago, iñoiz aulago siñesten nuan, bai, baiña beti siñetsi dut ba zerala ta gutaz axola ba zaizula, zerki zeran eta Zugana zer bidez ioan-etorri diteken ez iakiñik ere. Beraz, geuren buruz egia ardiesteko aul baikera, ta orregatik bear baitugu Zure liburu sainduen itzala, zera siñesten asi nintzan: olako ahalik iñola ere etzenazaikiela eman baztarretan, aien bidez Zu siñestea ta arkitzea nai ukan ez bazendu. Liburu aietan, baiessgarri zirala entzunik ere, len arritzen nindutenak, misterioaren beraren barnetasunari negozkion, eta guzientzat irakur-errex ziralako, eta beren izkutuaren aunditasna barnago zedukatelako, Zure itzala siñesgarrigo ta agurgarrigo ziduridan. guzientzat daude zabal, itz argiz eta izketa arrontez, biotz-arin ez diran guzien gogoia iardunaraziz, beure altoan guziak ar detzan. Bide ertsietatik zenbait gutxi dekartz; aunitz guttiago lekarke, ordea, mendego aundia ez-balu eta iendeketa aundia umiltasun sainduaren altzora ez balerakar. Au nerabillan gogoan eta an zindudan; asperen nengizun eta entzuten ninduzun; aldero nengin eta Zuk idukitzen ninduzun; munduko bide zabaletik nindoan eta ez ninduzun uzten neure gisa.

VI

Beure buruaren ederra billatzen du; gogorki itsatsia dago griña gaiztoeri. Milango eskalea zori oneko. Griñak miñ ematen diote.

9. Dedu, irabazi ta ezkontza nitun tirria, ta Zuk eni irri. Atsegale orietan minkaztasun gogorak egari oi nitun, Zu besterik neri goxo izatea Zuk ez uztenago ta Zu nere alderago.



Ikus ene biotza, Iauna, auek nik oroitzea ta aitoritzea nai ukan baituzu. Erio-lika artetik atera bainauzu, itsatsi bekizu nire anima. Bai urrikarri zala! Zuk ziztazen zenun zauri gaiñarrean, oro utzirik Zugana biur zedin, biur eta senda, oroz gain baitzaude, ta Zu gabe uts bailirake. Zein urrikarri, beraz, ni, ta nola sumarazi-zenidan ene doakaitza, arako Agintariari gorespenak apaindu bear nitioneko egun artan! Gezurrak zuritu, ta ala zirala zekitenek ontzat eman. Ene biotza olako kezka-gale zalarik, eta bururapen erkigarri aietaz suak artua, Milango bazte-iri bat igarotzen, eskale bat auteman nuan, moxkor, nere ustz iostagura ta alai. Enekin nitun adiskideeri, asperen egiñez, gure zorakeri mingarri artaz mintzo nintzaien —neketan bainindagon ene griñen zirikaz eta nere doakaitzaren zama gero ta astunagoaz— aletin guziz egiazko poza nai izanik ere, bear ba da sekulan ez genula atzemanen, guk baiño len ardietsi zun pozaldiño ua ere. Eskeko lau sosekin ark inguratu zunaren billa nindabillan ni, oinbesteko itzulinguruka, ots, emengo zorionaren poz-billa. Ark ere etzun egiazko pozik; baiña nik, aundimiñ arekin utsalagoa nai. Pozten zan, bai; ni larri nindagon; ua lasai, ni bildur. Norbaitek iauki balida poz ala bildur zer nik auta, poza naski nerantzukun. Berriro galdegin balidate, ua zegon bezala ala ni nindagon bezala egon nai nukun, neure burua auta nezaken kezka-bildurren artean; gaiztoz, ordea, ez egiz. Ez bainun neure burua autatu bear iakintsuago nintzalako, ez baitzan artatik ene poza; baizik eta gizoneri atsegin-naia, ez irakasteko; atsegiteko utserako. Orregatik, «ezurak zure ezi-zigorrez ebakitzen zenitidan» (Ps. 71, 11).

10. Alde bezate nigandik au diagotenak: «axola dio poza nondik dan; eskalea mozkorraz pozten zan, zu ospez». Zer ospez, Iauna, Zuregan ez dagonaz? Arena ez baitzan egiazko poza, ez ta nere ospea ere, ta geiago zorarazten nindun. Moxkor arek gauean berean egosiko zun beure moxkorra, ni nerearekin ari nintzan, lo egina eta esna, egingo ta esnatuko. Zein luzaro! Axola dio, bai, poza nondik datorren, ta zintzoaren itxaropoza oso urrun dago nere zorakeri artatik. Gu biona ere ala zegon, ua doatsuago baitzan, ez, poza gaiñez zeriolako bakarrik, nere erraiak kezkatzen zitun bitartean; baita ere, ark onginaiez ukan baitzun ardo ua, ta nik gezurrez opa nizun aizekeria.

Adiskideeri ontaz luze mintzo nintzaien eta aiengan au autematen nun askotan: nere egoera txarra; eta gaizki egon-miñez, gaitza bera bapikatzen nuan; eta zerbait on gerta ezkeru, iguin nuan atzeman, ia atzeman orduko iges baitzoan egan.

VII

Augustiñek Alipi zirku-iokuetara zedukan griñatik sendarazten du. Ikasle berria.

11. Ontaz mingulinka ari griñan bizi-lagunak. Batez ere Alipirekin eta Nebridirekin iardun oi gendun ortaz. Alipi au nere errian iaioa zan aundizunetakoa, ni baiño gazteago. Lenik Tagasten eta gero Kartagon irakasle asi nintzalarik, ikasle nuan. Oso maite nindun, on eta iakintsu nindukalako, nik ua ere bai, ongira-griña aundia agerten baitzun, gazte zan arren. Baiña Kartagoko oitura tzarren ibaiak iretsia zedukan ikuskarietara, batez ere zirkuero iokuetara. Au errukarriro iraultzen zan, ni ageriko mintza-eskolan ari nintzala. Ez nindun entzuten maisu-antzo, bion gurasoen artean aserre-bidea gertatu baitzan. Zirku galgarriro maite zula ikasi nuan, eta larri-aundi nindagon alako itxarokizuna galtzeko edo galduxe nulako. Oartarazteko edo nolabait alderagiteko, ez adiskide antzean, ez maisu itzalez, ez nuan batere mugonik. Nitaz aitak bezala zerizkiola uste nuan, baiñan ez. Beraz, aitaren etsaigoa alde bat utzirik, oles egiten asi zitzaidan, entzule etorriarik, zerbait entzunda aldegitiko.

12. Iostaketa aietako tirria itu artaz arekin iardutea aantzi nedukan, berezko argitasuna andeatu etzezan. Zuk, ordea, Iauna, Zure sorkari guzien arreta baituzu, etzendukan antzia Zurte semeen artean apaiz gertatuko zala. Nik ez nekila, nere bitartez egin zendun aren zentzatzea ark Zuri egotzi zizakizun.

Egun batez, oi tokian eserita nindagola, ikasleak aintzin neduzkala, etorrita oles egin zidan. Eseri zan, eta ari gendunera erne egon zan. Ikaskizuna alabearrezko zan. Ua argitaratzean, alderakizun egoki bat zitzaidan burura, zirku-iokutik artua atsegiñago ta argigo geldi zedin. Zorakeri ark arturik zeduzkanak, irri zorrotza sumatu zuten. Badakizu, Iauna, Alipi izurri artatik sendarazteko asmorik ez nuala. Ark, ordea, beretzat artu zun eta arengatik esan nula uste; ta beste edozeinek nigana aserre-bide ar zezakena, gazte zintzo arek, beregana asarretzeko ta ni beroago maitatzekoa artu zun. Esana zendun izan ere Zure liburuetan: «zentza ezazu zurgurra ta maiteko zaitu» (Prov. 3, 8). Nik ez nion akar egin; nekina ta ez nekina Zuk zure urubidez erabilki, ta burubide ori zuzena da, nere biotz-mihietan ikatz bizi biurtu zenun. Arekin sutu zenun eta sendatu, itxarokizun oneko gazte aren anima galdua. Bego ixil Zu goresten urrikalmena gogo emaiten ez duna. Nik barne-muiñetatik aitoruko dut.

Itz aien ondolik, leize barne artatik iauzi egin zun, an gogara pulunpatzen batzan, eta goxo-goxo itsutzen. Iñarrausi zun beure anima neurri-



bide bizkorreko. Zirku-iokuen zikinkeriak oro leer egin zioten, eta andik ara ez zan geiago itzuli. Gero, aita erakarri zun, gogoz bestera ere, ni maisu ar nindezan, Manestearren ager-naieko biziera latza maite artu zun, egizko ta iator zalakoan. Zoro lilluragarri zan ordea. Ongira-naia barretik ez dazaguten anima autak, eta axal-apaiñez itxulasten diranak, alegizko ta itzalezko ongira-naiez atzi oi zituten.

VIII

Ikuskarrietan arixkua. Zentzunetatik animaren barneraiña.

13. Gurasoek betiko leloz erakutsi-bidea oso utzi gabe, Erromara aintzinatu zitzaidan, zuzenbidea ikasteko. Ezin siñetsizko irrika sartu zitzaion ezpatariak ikusteko, ta ezin siñetsizko eran nausitu. Berez olakokak iguin izanik ere, zenbait adiskide ta ikaslagunek, otordutik zetozela bidean gertatuz, berak nai ezik eta gogoz-beste, emeki bearrarazi zuten zirkura, odol-iosta galgarri egunetan. «Ene gorputza ara lorrean eramanik an uzten ba duzue ere, nere begiok ernaraziko al dituzue ikuskari aietara?» ziagon bidean. «An egonik, andik alde nagoke, ta onela, zuek eta aiek garaituko zaituet». Aiek au entzutean, berantu gabe berekin eraman zuten, egin ote zezaken ikusteko.

Ara ziralarik, aal zituten tokiak artu zituten. Atsegin basatiak ba-zirakiten. Arek, begi-ateak itxirik, gogoari eragotzi zion gaiztakei aietan sartzea. Belarriak ere ala itxi balitu! Burrukaren inka batean, erri osoaren oiuzugarriak bizi eragiñik, ikus-miñak eramanik, eta, zana zala, guttiesteko ta garaitzeko gertu zegola, zabali zitun begiak, eta zauri aundiagoak io zun animan, ikusi nai zun aren gorputza baiño. Erorikotik oiuz eragin zuna baiño errukarriago erori zan. Belarritik sartu zitzaion, eta begiak zabalerazi, aren anima, bizkor baiño ausartagoa ta ainbat aulagoa, Zuregan orde beregan entziñik, io ta lurrera zezan. Odol ua ikusi zuneko, odolkeria bertan edan zun. Ez zun burua itzuli; erne iarri zan. Ez iakiñean ankerkeria sartzen zitzaion, eta burruka gaizoan atsegiñ artzen, ta odol-atsegiñez mozkortzen zan. Erri xumearen arteko, ta eraman zutenen lagun, ez zan etorri bezalakoa. Zer oraiño? So egin, oiuz egin, sutu, berriz ioateko zoroak artu, ez lengoekin bakarrik, baita aien buru, besterik ere erakarri. Alare, atera zenun andik Zure esku txit bizkor, txit urrikaltsuz. Erakutsi zenion, beregan ez-baiña Zuregan entziten. Ez ordea berelakoan!

IX

Alipi lapurtat artzen dute. Errugabe zegona beure esku uzten.

14. Alare gertaera au aren gogoramenean geoko sendabide gelditu zan. Besterik ere gerta zitzaion Kartagon ikasle nula: egunaren erdian, ikasleek oi dutenez, esatekoa enparantzian buruz zerabilela, ango atezaiak atz-ematen utzi zenun, lapurra bailitzan. Zergatik, gure Iainko? Ikasten asi zedilla gizon aundi-bear ua, gizona auzitan nekez gaiztetsi bear dala, ta ez, ariñegi ziñetsiz. Ez bestegatik, naski, nik uste.

Izan ere, auzi-etxe aintzinean beure oltxo ta idazkortz eskuan, bakarrik zebilala, ikasleetan batek —egiazko lapurrak— ua baitara gabe, ixilkan aizkora ara eramanez, diruzaien etxez-gain nabari dan beun-langara sartu zan eta beruna ebakitzen asi. Beian zeuden diruzaiak, aizkora oterara, marmari egin zuten, eta arki zezatena atzemateko iendeak igorri zituten. Mintzoa entzunik, bildurrez aldegin zun, lanabasa utzirik, beure arekin atzi etzezaten. Aretan Alipik, sartzen ikusi etzuna, usu irteten sumatu zun eta aldegiten. Zergatikoa iakin nairik, ara sartu zan, eta aizkorari begira zegon. Ara non, igorri aiek, bakarrik atzematen dute, aizkora eskuan, aren otsak erakarri baitzitun. Atzi ta eraman zuten. Enparantzako maizterrek, egizko lapurra dutelakoan, illarraintzen dira, ta auzi-gizoneri esku-ratzeko baderamate.

15. Ontaraiño zan ikaskizuna; berela agertu baitzenun aren errurik eza, Iauna, Zu bakarrik baitziñan lekuko. Itzalera edo oiñazera zeramatarik, etxegille bat gertatzen zaie, Uriko etxeen egille beiñenetakoa. Ua buru egiñez, pozten dira batez ere, ark artzen baitzun batez ere enparantzako lapurreten asmoa, nork egiña zan bailezagun. Alipik gizon au ardu-ra ikusi zun erri-guraso baten etxera agur gitera ioanki, ta berela eskutik elduz, iende arengadik bereiz artu zun. Galdegin dio zer ta nola gertatu zaion. Ardaillan eta eskainka zetozen iende xumeeri, berarekin etortzeko agindu zien. Lapurreta egin gazte aren etxera iritxi ziran. Mutilla ateetan zegon nagusiaren bildur-gabe, ta erre aitor zezaken guzia: ain zan aurra. Enparantzian mutiko ukana zun. Alipik baitaratzean, etxagilleari adierazi zion. Onek, aizkora erakutsi mutikoari, norena zan galdez, eta ark bereala «gurea» esan zun. Eta galde-ala, guzia garbitu zun.

Alaxe, auzia ete ontara egotzirik, ustez garaille zan iendea alkearazirik, Zure itzaren banatzaille ta Zure Elizako auzien aztertzaille ua, ikusiago ta ikusiago ioan zan andik.



X

*Alipi zintzoa ez da diru-gose. Nebridi,
irugarren laguna egjaren billa.*

16. Au arkitu nuan Erroman. Adiskide mami egin zitzaidan, eta nerekin elki zan Milana, ni ez utzi nai, ta zuzenbide ikasia egiñean iardun nai, bere oldez baiño gurasoenegareago. Iru aldiz aholku-emaille izana zan, besteek baiño gosegabego. Errurik-eza baiñon urrea iñork maitego izatea, arritzen zitzaion. Aren ariurria zirikatu zuten, atsegiñetara erakarritz ez ezen, bildurra eragiñez ere.

Erroman ari zan, Itoliko eralgi-mutillaren aholkari. Bazan orduan erri-guraso aberats okitu bat, aunitz menderaturik baitzeduzkan ongi-egiñez bearturik edo bildurrez menderaturik. Bere ein aundiz baliauki, legez zillegi ez dan zerbait egin nai ukan zun. Alipik ez uzten. Ark sari agindu. Alipik irri. Ark gaitzak eskaiñi. Zapaldu zitun, oro arriturik, on edo kalte egiteko ainbeste alderdi omen zun gizon aren adiskide nai edo etsai-bildur ez izatearekin. Alboko lege-gizon ua, berak egin nai ezik ere, ez zan bipil iarki; aldiz, auzia onen gain utzirik, onek etziola uzten ziagon. Izan ere, ark ua egin ezkeru, onek aldegin baitzuden.

Letrak beste griñarik ia etzun. Esku-idaztiak merkeago egiñerazi zetzaken pretorianoen bidez, baiña zuzenbideari zegokala, bestera erabaki zan, ematen zioten ahala baiñon eragozten zion zuzentasuna obetsiz. Ezer gutxi da au; baiña «txikian zintzo dana aundian ere zintzo da». Ez zan au alperrik irten Zure agotik: «Zuzengabeko ondasunetan zintzo ez bazerate nork utziko du zuen gain zuzenekoa?» (Lc. 16, 6)

Au nuan orduan adiskide min, eta nerekin zalantzan zegoen zerbiziera artu.

17. Nerbidi ere, Kartagoko auzoa ta Kartago bera ere utzirik —an baitan maiz— aitaren ondare bikaiña ta etea utzirik, atzetik ama gbe, ez zan bestegatik Milana etorri: nerekin bizi nai zula, egia ta zugurtasuna griña biziz ikasteko. auzi zaillen aztertzaile zorrotz arek, nere griña ta nere zalantza zitun, biziera doatsua ukan naiez. Or giñan iru ago gose, bata besteari beure gabea eragiñez, Zugan itxaropen, «mugonez iana eman zenezagun» (Ps. 144, 15). Munduko azi-orraziak Zure errukiz uzten ziguten minkaztasuna nondik ziteken begiematean, illuna genun aintzinean. Intzirika gentozen geurongana au esanez: «Noiz arte ola?». Maiz esaten genen au, ta esatez ezin utzi, ez baikenun argi segurik, aiek utzita artzeko.

XI

Augustiñek geroan billatu nai du egia griña txarrerri ase emanik.

18. Buruan ibilli ta irauli, arritzen nintzan zein luze ioan zan ene ogeita bat urtez gerokoa. Ordun asi nintzan iakin-naiaz sutzen, ua arkiturik utziko nitula atsegin utsal guzien itxaropide utsalak eta gezurrezko zorakeriak. Ogeitamargarren urtean ari nintzan, lokatz berean sarturik, irazeko gauzetan atsartu nai, ta aietan barreiaturik. «Biar arkituko ditut —niagon—, argia agertuko da, ta atziko dut. Paustu etortzearekin oro tipilduko ditut. Esazue, akademitar aundi aiek bizitarako ez al diteke ezer segurik ardietsi? Billa dezagun arretazago, ta ez dezagun etsi. Elizako liburuetan len entzungaitz gor ziruditenak, orain ez dira. Adi ditezke egoki bestela. Egia argitu dakidaño, gurasoek utzi ninduten tokian tinkatuko naiz. Baiña non arkitu? Noiz billatu? Amburusik ez du astirik; irakurteko ez dut astirik. Liburuak berak, non arkitu? Noiz edo non erosi? Norengandik ukan? aldiak eta orduak bana detzadan, animaren osasunerako. Itxaropide aundi sortu zitzaidan. Katoliku siñesteak ez du irakasten nik uste nunik eta salatzen nunik.

»Itsusi zaie aien iakintsueri Iainkoa giza-gorputzez mugaturik siñestea. Ez al dut otsegiñen, besteak oro agerraraziko ditidan ate ontan? Eguartean ikasleek naukate; beste orduetan zer ari naiz? Zergatik ez ari izan ortan? Adiskide aundieri noiz egin ordea agertu bat? aien laguntzaren bear baikera? Ikasleek erostekoa noiz gertu? Noiz atsedeen neronek kezka orietati?

19. »Xuri egin bezate denak. Utzegun uskeri auek. Bizia errukarri da; eriotza ez ezaguna. Bet-betan baletor, nola emendik atera? Emen ikasten zabartu naizena, non ikasi? Zabarkeri onen zigorra ez al dut egari bear? Eta, eriotzak kezka oro zentzuarekin eten balezaz? Azter au ere.

»Ez olakorik! Kristau siñestearen nausigoa ez da alperrik zabaldu mundu osoan, ain nabari. Gorputza eriotzearekin anima ere il baledi, Iainkoak guregatik etzuden sekulan olakorik egin. Zerk gauzka, beraz, zalantzan, munduko itxaropidea utzirik, erabat Iainko-billa ta bizi doatsubilla asteko?

»Nagon, ordea. Oek ere eder dira; badute beuren atsegiña, ez txikia. Oenganako griña ez da berela eten bear, olotsagarri bailizake etara berriro biurtzea. Dedu zerbait irixtekoxe nago. Zer areago irrika? Adiskide aundi geiago ditut. Arnaska geiegi gabe, zenbaiten buruzagi gerta naiteke. Emazte bat ar dezaket ukanduna, nere eralgi-bearrak ez geitzeko: au



duket neurrizko naikaria. Gizon aundi aunitz, ondorekoak ukaiteko gai ziranak, emazteekin ere iakintasuna artu ziran».

20. Onela ari nintzala, aize oek zerabiltzen ene biotza. Iainkoagana biurtzea aspaldidanik luzatzen nuan; Zuregan bizitzea, «egunoro berantzen nuan» (Eccl. 5, 8), eta ez nuan berantzen neronegan iltzea. Doatsu bizi naiez, bizi ua zegon tokiaz bildur nintzan, eta aldegiñez nebilkion billa. Oso doakabe nindekela ziduridan emaztearen laztanik gabe, ta ez nerizkion gaitz ori sendatzeko biderik ba zenunik, ez bainun orren sumarik. Garbitasuna neure indarrez ukan nezakelakoan, zenbat nezaken iakin gabe, zoratzen nintzan, ez bainekin, idatzirik dagon bezala, iñor ez ditekela garbi izan Zuk egin ez bazeneza. Egin nindukezu, bai, barneko intziriz Zure belarria uki baneza, ta siñeste gotorrez ene kezka Zugan egotzi baneza.

XII

*Iakintasuna irixteko ezkongai obe, diago Alipik; baiñan
Augustiñek ezkontzara eragiten dio.*

21. Alipik ikus zer lelorekin eragozten zidan andrea artzea: ezkondu banendi ez giñezkela, iakintasuna maitez, astiro elkarrekin bizi, azpaldi opa genenez. Bera izugarri garbi zan —gauza arrigarria— gazte-lenean iastatu baitzun emaztekoa, ez atxikiegi; aldiz, miñ eta iguin zun, eta aurre-erik eliku aundiz bizi zan.

Ezkonduak ere iakintasuna emanak bazirala, ta Iainkoa merezi zutenak —ni iarkitzen nintzaion—, eta adiskide zintzoak maitatu zitute-
la. Aien aunditasunetik urrun nindagon, bai ni, ta erio goxozko aragi-gaitzari loturik, katea lorrean nenkarren, autsi-bildurrez, aholku oneko itzak baztartuz, zauritu batek askartzera doakionaren eskua bezala.

Gaiñera, nere bitartez suga ari zitzaion Alipiri, bidean sare goxoak nere mihiz eio ta zabaldu, aren oin ggarbi ta lotugabeak oztoparazteko.

22. Ni aientzat niñedukan au lizunkeriarri ola itsatsia arrituki ikusiz, elkarrekin eletan ari giñan aldi oro, ez nintekela ezkongai bizi esaten bainion, eta, neure burua zurituz, alde aundia zegola arek ostuka sumatu zun atsegin artatik, nere oituzko atsegiñetara; ez baitzan ia oroitzen ere, eta neke aundi gabe garaitzen baitzun. Oek ezkontza deduzkoan artuz geroz, etzula arritu bear biziera au nik ez gutxieste, ta bera ere ezkon-miñez asi zan zer-ikusiz, ez lizunkeriz. Nere bizia ain maite zularik, iakin nai omen zun zer ziteken atsegin ua, gabe nik bizi ez-baiña neke neritzona. Bera

aizu egonik, balditzen zan ene menpekoaz, eta baldituz, iasta-naia zetorkion eta iastatzea bera, nitaz balditurik ere, menpe artan erortzeko. Eriotzarekin itun egin nai zun (Isai. 26, 18), eta galbidea maite duna, artan eroriko da (Eccl. 3, 29).

Ez bata ez besteak ez genun aintzat artzen ezkontzaren dedua, nagusi izateko ta aurrak azteko. Batez ere, lizunkerik ezin-asearen oiturak ertsia ninedukan ni; ua berriz, arritze ark zekarren aren atzaparretara. Orrela ginaudela, Zuk, Iainko aundi orrek, gure lur-gaia guttietsi gabe, urrikarriok urrikiz lagundu ginduzun, arrigarrero ta izkutuan.

XIII

Amak Augustiñ ezkonduazi nai du.

23. Emaztea artzera bizi ninderagiten. Eskatua nuan, eta amak eskaiña, bein ezkonduarik, bataio-ur osasungarriak garbi nindezan. Egunetik egunera pozten zan urbillagotzen ari nintzalako; aren ziñak eta agintzak, ene siñestean gertatzen ari zirala zekusalako. Beiñere ezer etzenion adierazi nai ukan ikuskariz, ene gero ezkontzaz, ene otoiñez eta aren gogoz, naski, egunoro biotz-oiuz ark eskatu arren. Ikusten zitun zenbait iduritu uts, beure gogoak erakarriak, eta ialkitzen zitidan, ez ordea Zuk emanekin zun aiña itxaropidez. Etzitun aintzat artzen. Ezagutzen omen zun, etzekin zer iastuz, itzez ezin esan alako, alde zegola Zure ikuskarrietatik aren ametsatara. Eragiten alare. Eskatu zuten nexka, ezkon-adiña baiño bi urte gaztego, ta atsegin zitzaigulako, egon giñauden.

XIV

*Amar bat lagun ziran Augustiñekin batean zintzo bizitzeko
asmoz, baiñan aietako batzuen emazteak galarazi.*

24. Mundu ontako neke galgarriak giuiñez buruan irauliz, mintzatuz, zenbait adiskidek ia erabaki genun mundutik urrun pakean bizitzea; burubide onekin: baltsan ezartzeko ukan genezakela, ta artatik ondasun bat egin. Adiskide zin baiñan, ez zedilla onenik eta arenik, baizik eta guzi-
na bat, eta guzia bakoitzarena, ta guzia guziarena. Lagunarte artan amar bat gizon baiñan, batzu aberats okituak, batez ere aien artean Erromanian, gure erritarra, gaztedanik ene lagun kutuna, beure azi-orrazien kezka larriak ekarri baitzuten gure lagunartera. Arek ginderagin artara, bizkor,



eragiteko eskugain aundia baitzun; aren ondasunak gureen aldean aundi baitziran.

Bear genuna bi lagunek urtekal biribiltzeko ongi eritzi geion, denen guraso egiñez, besteak aizu egonik. Baiñan atxoek utziko ote ziguten gogoemanik —baitzituten zenbaitek, eta guk ere nai— burubide eder ua eskuetan birrindu zitzaigun, eta ala utzi genun.

Berriz lengo asperen eta zinkuriñetara; «munduko bide zabal eta zapalietara» (Mt. 7, 13); milla gogorapen baikenun buruan. Zure zuurtasuna, berriz, beti bat dago (Prov. 19, 21). Onekin egiten zenion irri gure burubideari, ta Zurearen araura gertutzen zenigun mugonez gero iatekok, «Zure eskua zabaliz eta gure animak betiko onetsiz» (Ps. 144, 15).

XV

Bitartean Augustiñ beste emazte batekin naasten da. Griñaren zauriak gero ta su ta min aundiago ematen zioten.

25. Artean ene pekatuak ugaritzen ziran. Ezkontzeko eragozpen zala-ta, erauzi zidaten saietsetik nere oe-laguna, nere biotzari itsatsia. Ebakia ta zauritua nedukan eta odola zerion. Arek Aprikara itzulirik zin egin zizun, beste gizonik etzula ezagutuko, gu bion seme bazarrekoa nerekin utzirik. Ni, errukarri au, andere aren antzik ez bainun, eskatu nuan neskatxa bi urtera artuko nula luzetetsirik, —ezkontzaren ez baiño lizunkeriaren menpeko bainintzan—, nere oitura txarrekin beste andere bat bildu nuan, ez naski emaztea, arekin ene animako gaitza osorik edo aundiagorik azteko ta luzarazteko bezala, ezkontzara arteo. Lengo laguna erauziz egin-zauri ua ez zan sendatzen; aldiz, su ta min gogorren ondolik, usteltzen ari zan, eta otzago-ustez, etsiago oiñazetzen nindun.

XVI

Alipirekin eta Nebridirekin eleta du, onik aundienaz eta gaiztorik aundienaz. Iainkoa urbiltzen ari zitzaon Augustiñi.

26. Zuri gorespen eta ospe, urriki-iturri! Nik urrikarrigo negar eta Zu urbillago. Bertan nuan Zure eskua, ni loietik ateratzear eta garbitzear, eta nik ez iakin. ene lizunkerien ibai barnetik ez nindun alderagiten erio-bildurrak eta azken-epaiak bestek; aburuak aburu, oek ez baitzuten aldegin ene biotzetik. Alipi ta Nebridi adiskideekin eletan niardun on-gaizto-

en mugari buruz. Nere ustez Epikuru zan nagusi, ill-ondoan anima bizi zala ta guk egiñen ordaiña artu bear genula siñetsi ez banu. Ark ez baitzun siñetsi nai ukan. Onela mindagon: illezkor ez bagiñan, eta gorputz-atsegiñ betikoan galdu-bildurrik gabe bizi bear, zergatik ez giñan doatsu? edo besterik zer nai gendun? Ez nekin, biziro urrikarri zala ori; ene loiean ondaturik eta itsurik ez bainenkusan garbitasunaren argia, ez, edertasuna beure ederrez utsez laztantzekoa; aragi-begik ez baiño barrenak ikusten baitu. Gauza itsusietaz ere adiskideekin goxo-mintzatzea, ez nuan begiematen zer iturritatik zetorren. Orduan neduzkan lizunkeri ugarien artean ere, ez nintzan doatsu lagunik gabe! Eit, anima ausartu, Zugandik aldegin da obeki zegola itxaroten zuna! Itzul eta iraul, gibelera, saietsera, aintzina, guzia zaio gogor; Zu bakarrik atsedan. Bertan gaituzu ta ateratzen gaituzu gure uts errukarrietatik, eta Zure bidean iartzen, eta pozten eta esaten: «Ots, artuta eramanen zaituet, eta an edukiko».



ZAZPIGARREN IARDUNA

I

*Iainkoa ez da gorpuzki; baiña nolako da? Zabaldurik ote dago
tarte guzietan, aietan gainez eginez? Aiek alderen alde erasanez?*

Iñola ere

1. Ene gaztezaroa illa zan, gaizto itsusia, ta gizontzen ari nintzan, zarrago ta aundiputzago. Begi ikustenekoa besterik ezer ez nezaken gogoeman zerbait dala. Bein iakinkizunetan asi nintzalarik, etzindudan iduritzen giza antzan —aburu onen iges nindabillan beti, ta pozik nindagon Eliza Amaren siñestean arkituarekin—; baiña besterik zer ziñaken, gogora ezin zetorkidan. Gixontto onek, alegiten nuan Zu Iainko aundiena ta bakarra asmatzea, barne-barnetik: ustel-eziña, uki-eziña, alda-eziña. Nik nola ta nondik ez nekila, argi ikusten nuan alare, ta tinki nindagon, ustel ez ditekena baiño ditekena kaxkarrago dala; uki eziña ukibera baiñon obea, duda gabe; ta aldabera ez dana, aldakor dana baiñon obe.

Nere biotzak marru bizi zegin ene iduripen guzien aurka, ta inguruan zebiltzidan zaborreri guzi oriek burutik bet-beta aizatu nai nitun. Eta osta aizaturik, berriro saldoan zetozkidan oldarka, begiak baiñotzera. Giza-gorputz antzera iduritu ez baneza, ustel-ezin, autsi-ezin, alda-ezin Ua —nik naiago bainun ustelgarri, auskor eta aldakor dana baiño— gorputz-antzeko zerbait iduritaratzera beartzen nindun idurimenak, mundu barnera ixuria edo munduz landa edatua, ote zan. Ustel-uki-alda-ezin diranak berak, nongoa kenduz geroz ezer etzirala uste bainuan, ez ta uts zulo ere. Mukulua tokitik keneuz geroz, eta tokia lurrez, urez, aizez, uts gelditu, alare uts ori toki dala, uts zabaldua dala.

2. Beraz, biotza toildua, neronetaz ere argitasun gabe, nonbait edaturik edo ixuririk edo pilleraturik edo ola ez zegon edo ez zegoken gauza, utsa zala ziduridan. Ene begiek artzen dituten antzetatik ene buruak iduripenak artzen zitun; eta au egiteko doaia ez nekusan alakoa ez zanik. alare zerbait aundi ez balitu, etzezazken iduritara. Ala Zu ere, nere biziaren bizi, bazter gabeko tarteetan aundi iduriztatzen zindudan, munduko mukulu au barrenez barren artzen zenula, ta ontaz landakoa neurri gabe, muga gabe artzen zenula. Lurrak, zeruak, diranak-oro Zu zindukatela ta Zugan bukatzen zirala; Zu aldiz, iñon ez. Aizearen mukuluak ez baitu eguzki-

argia eragozten, artatik iragaiten baita barneratuz, ez autsiz edo ebakiz, baiña guzia betez; alaxen uste nendun, zeru ta aize ta itsaso ez ezen lurra ere, bere mukulu aundi ta tipi erasaten zenula, bertan egoiteko, egin zenitunak oro Zure arnasez, barne ta landa eragiñez. Besterik eziñ eta ola uste nuan: ustel naski. Ala balitza, lur-mukulurik aundienak Zure zatirik aundiena ledukake ta ttipienak-ttipiena. Zutaz orrela beterik baleude, txoriak baiño elefanteak geiago zinedukake, aundigo baita eta tarte geigo betetzen baitu. Onela, zatika leudeke, mundu-zati aundietan Zure zati aundi ta ttipietan ttipi. Ez da ola ordea. Oraiño «etzendun argitu nere illunbea» (Ps. 17, 29).

II

*Manestarren aburu okerrak. Gaiztoaren illunbeak ez dezaioko
Iainkoari kalterik egin.*

3. Alare, aski, zan, Iauna, gezurti gezurtari aien aurka ta berrizu aien aurka, Nerbidik Kartagon zirakasana ta entzuleeri zeragiguna; ez baitzuten Zure Itzaren berri emaiten. Zer egin zizuken Zure kontrako omen zan illunbe-iende arek, Zuk burrukarik nai ezean? Kalte legizuekela? Beraz, ukigarri ta ustelgarri zera. Ez legizuekela? Beraz, zertako burruka? ta olako burruka? Zure zati edo azbegi edo Zure zer-izanaren kontrako indarrekin naasi liteke, Zuk ez egindako gauzekin, eta aiek ustel eta alda lezakete doatsu izatetik doakabe izatera, ta andik ateratzeko ta garbitzeko, laguntza bear luke. Au anima litzake. Zure itzak lagundu lezake, morroi dalarik garbitzen, ustel dalarik berritzen. Bañan ua ere ustelkor, zer-izan bereko baita. Beraz, zu, zeran oro, ots, Zure ze-izana ustel-eziña dala balesate, gezur nardagarria; ustelkor dala balesate, ori ere gezur nazkagarri, esaten astea ere.

Aski argibide zan, beraz, okaztabear arien aurka, ez baitzuten iges-piderik ola mintzatuz, buru-mihien itsuskeri beltzanean.

III

Gaitza ta gaiztoa nondik?

4. Nik alare, gure Iainkoa egiazko Iainkoa, kutsa-ezin, biur-ezin, iñondik alda-ezin zindudalarik, —Zuk egin baitituzu gure gorputzak, ez animak bakarrik, guziak eta oro— ez nuan bereizten eta askatzen gaitza



nondik ziteken. Nondinai zetorrela, Iainko alda-eziña ez nezaken aldakor siñetsi, nerau berebat gerta ez nendin. Orrela billa-bearra nenkusan. Beraz, tinki billatzen nuan, eta gezurra ziaготela iakinki, iges nengien gogotik; ikusten baintun, gaitza nondik zan ikasi-naiez, gaiztoz beterik zeudela; naiago baitzuten Zure zer-izana gaitzbera uste ukan, berena gaizto egin baiño.

5. Nentzuna alegiñez ulertu nai nuan, ots, guk gaitza egitea gure autamentik zetorrela; baiñan ez nenkusan argi ta isaitea Zure burubide zuzenetik. Nere buru-argia leize-barnenetik alegiñean idoki naiez, berriro pulunpatzen zan; alegiñago ta pulunpatzenago.

Zerak arritzen nindun: bizi nintzan bezain egi zala nik autamena banula. Beraz, zerbait nai nuncan edo ez nai, oso eskier nindagon nik nai nula edo ez nai, eta nere obenaren iturria artan zegola oartzten nintzan. Bortxatuz egiten nuna, aldiz, egiñez baiño eragiñez egitenago nula nenkusan, e ta ori oben ez-baiña zigor zala ziduridan, eta berela aitortzen nuan Zuk ez ninduzula oker zigorkatzen.

Ba naiñon oraiño: nork egin nau? Ez ote nere Iainkoak, on baiño are ontasun bera danak? Nondik da beraz nik gaitza nai ta ona ez nai ukaitea, mereziz zigorra ukaiteko? Nork ezarri zidan txertaturik erro minkatz au, guzia Iainko ezti eztiak egiña bainaiz? Deabruak egin banau, nondik da deabrua? Aingerua beure naikari gaiztoz onetik gaizto biurtu bazan, nondik zun ark ere naikari gaizto ori deabru gerta zedin, guzia Egillerik obenak egiña izanik? Burutapen auker zañiltzen eta itotzen ninduten; baiñan ez nintzan «erorten iñork aitortzen etzaituneko arako ifernu artaraiño» (Ps. 6, 6), ots, gizonak gaizki egin baiño Zuk iasan dagizula uste naiago baitute.

IV

Iainkoa ustel-eziña.

6. Ustelkor izaitea baiño ez izaitea obe zala atzeman nuan bezala beste egiak ere ardietsi naiean ari nintzan ari. Orregatik, zernai ziñala, ustel-ezin aitortzea zindudan. Iñoiz iñork ez du ta ez duke gogoeman Zu baiño oberik danik, Zu baitzera onik garaiena ta oberena. Ustelgaitza ustelkorrari egi egiz eta ziur ziur obesten baitzaio —nik bai orduan— Zu ustel-gaitz ez baziña, Zu baiño oberik ene ezagu-argiz atzeman nezaken. Beraz, ustelgaitza ustelkorrari obestekoa zala iakinki, an billa bear zindudan, eta andik oartu, gaiztoa nondik dan, ots, usteltzea bera nondik dan,

ark eziñ baitu uki Zure zer-izana. gure Iainkoa ez du ustelak ioko, ez nai-menak, ez alaberrak, ez ustekabeak, Iainko baita Bera, ta ona nai bait eta on ori bera da; usteltzea, aldiz ez da on. Ezerk etzaitu bearrarazten; Zure ahal baiñon ez baita aundiago Zure niarena. Zerau baiñon Zu aundiago baziña, orduan bai. Iainkoagan, ahyal eta nai, Iainkoa bera da. Eta zer ez-ustekorik Zuretzat, baitakizu guzia? Zerdanik ez da Zuk dezaguzulako baizik. Zertako ari gera eleketa Iainkoaren ze-dana zergatik ez dan ustelkor, ala balitza ez balitzake Iainko?

V

Iainko onak guzia betetzen eta inguratzen badu, nola sortzen da gaitza?

7. Nondik gaitza? niagon, eta gaizki ari nintzan, eta nere billaketa ortan ez nuan ikusten gaizkia. Sorkariak oro nere aintzinean nenkartzin; ikuskari, ots, legor, itsaso, aize, izar, zuamu, ihize, eriozko; ta ez ikuskari, ots, zeru-gaia. Aingeru oro, gogaki oro, aiek ere mukuluzko bailiran, ene iduripenean tokika ezarririk. Guzietaz orepil aundi bat egin nuan Zure sorkari ori, naiz gorputz egizko, naiz ene iduriko gogaki; ez, zan bezain aundi, ez bainezaken iakin; baiñan ene ahalez, orotatik mugatua, naski; Zu ordea, ua inguratuz eta barnera artuz, baiñan iñora mugatik gabe; itsasoa nondinai ta noranai bera bakarrik muga gabe bailitzan, eta barnean belei-ki aundi bat, orotatik itsasoak artua bezala, mugatua ordea.

Onela, Zure, sorkari mugatu au, Zutaz, muga gabez, betea nedukan eta au naiñon: «Or Iainkoa ta Iainkoak egiñak. Iainkoa ona ta oriek baiñon askoz eta askoz ohea; alare On orrek sortarazi ditu. Ikus nola inguratzen eta betetzen ditun. Non, beraz, gaitza? Nondik iario da orrera? Non du erro eta non azi? Izan ere ez al da? Ezdanaz zer bildur eta kezka? bildur alperra bada, bildur au gaitz da, naski, biotza alperrik zirikatzen eta oiñazetzen baitu. Are gaitz aundiago, bildur ukaitekorik ez dala ere, bildur baikera. Beraz, edo bildur duguna gitz da, edo bildurra bera da gaitz. Au nondik da, beraz, Iainko onak oro egin baititu? Onik aundien eta garaien danak on-ezago danik egin du, baiñan oro dira on, Egille ta egiñiko. Nondik da gaitza? Bai al zan gai gaiztorik gaitza artatik egteko, biribiltzeko, antolatzeko, edota serbait utzi al zun artan on biurtu gabe? Zertako au ere? Oro dezakena baita, ez al zezaken guzia biurtu ta aldatu, gaiztorik ezer gelditzeke? Azkenik, ahal oro dun Orrek, artatik zerbait egin nai ukanik, zergatik etzun ezeztatu? Edo Aren gogoz-beste izan al ziteken? Edo



betidanik bazan, zergatik ain luzaro aintzinagoko aldien aldietan ola izaten utzirik, ain geroago artaz zerbait egin? Edota betbetan zerbait egin nairik, ua ez izatea egitenago zuken, Bera bakarrik on garai ta muga gabe gelditurik. Onik ere ez egitea egoki bazan, gai gaizto ua kendurik eta ezeztaturik, etzezaken On arek gai ona egin, artatik oro sortarazteko? Beraz, ez liteke guzieldun, Berak ez egin-gaiaz baliatuki baizik onik egin ez balezake».

Ola ari nintzan ene buruarekin, errukarri au, erio-bildurraren kezka min-miñez beterik, egia atzeman gabe; alare tinki nedukan biotzean Zure Kristoren, gure osasun dan Iaunaren Elizako siñestea. Aunitzetan laiño, bai, ta ikaste-arauz ezbaiean; alabaiñan, utzi orde, gogoa uieltzenago zidan.

VI

*Gerokoa nola asmatu? Izarren bidez? Bi aur berdin sortuen zoria.
Biroki edo bixkiak.*

8. Orduko aizatuak nitun matematikuen azti-gezur eta amets gaizto. Aitor betzat emen ere, barne barnetik, nere Iainko, zure urrikalmenak. Zuk, arean, Zuk soilik —iltzen ez dan biziak bestek nork atera gitzake gezur eriotzetik, eta argi-bear ez dan zurgurtasunak bestek nork argi detzake gure buruak, Orrek baitaragi mundua, aizeak deramatzin orbelak ere —Zuk garaitu zenun ene tenkortasuna, Vindikian zar zorrotzari ta Nerbidi gazte arrigarriari iarki bainintzaien. Arek bipil aitortzen zun; onek duda antzan, baiña maiz esanez, etzala gerokoa asmatzeko iakinbiderik; gizonen igarkizunak, agiz, alabearrez gertatzen zirala, zer ziaготen iakiteke. Esanaren esanez, ez ixildu, ta zuzen gertatu. Zuk eman adiskide au, matematikuen azterzale ez ain nagia, baiñan aien liburueta ez zian ain iantzia ere. Iakin-gai artatik zerbait atera zidan, aita irakatsi ziola-ta. Etzekin zenbat balio zuken aren esanak, aburu aiek aurdikitze!

Gizon au, beraz, gai aitorretan ikasia ta mintzalari landua, izenez Pirmin zan. Adiskide min antzo, bein aholku galdegin zidan itxaropen aundiko mundu-auzi batez, zer ziduridan izar-mordoen araura. Nik berriz, Nerbidiren aburura alderditzen asia bainindagon, nere ezbaiean igartzen nuna esatea ez nion ukatu; berela eratxikiz ordea, gauza aiek irri-garri ta uskeri zirala iabetu nintzala. Orduan ialki zidan, aien aita liburu aiek ikus-naieko amorratua zala, ta griña bereko adiskide bat ukan zula. Xoxokeri aietan biek arreta beraz ari izan ziran su ta gar, etxean ziran ani-

mali askoren iaio-unea autemanez eta orduko izarren iarkera ikusiz, bildma bat egiteko.

Beraz, au entzun omen aitari: ama Pirmenez erditzeko zegola, era berean aitauren lagun baten neskamea ere loditzen ari omen zan. Ez, naski, nagusia oarkabe, zakurren erditzea ere arreta guziz aztertzen baitzun. Ala gertatu omen, batak anderearen eta besteak neskamearen egun eta ordu ta une begiratuki oartzen zitutela, biek batean erdi: ainik eta, batak semearen eta besteak neskamekumearen xeetasun berak eman bear baitzituten izar-iarkera aietaz. Emazteen erdi-miñak asirik, bi gizonek etxe bakoitze-ko berri zearo artu zuten, eta iragarleak gertu zeuzkan, erdi bezain usu iragarteko. Berela gaztigatze ori aisa egin zuten, etxe-nagusi baitziran. Bi aldetik igorriak bidezterdian elkar buru egin baitzutu, izar-iarkera bereizirik ezin auteman ukan zute bakoitzarentzat. Alare Pirmin, aitoren seme, munduko bide aisetan zebillan, ondasunetan gizenduz, deduetan goratuz; beste mutikottoa berriz, bere maillako uztarria egotzi gabe morroi zegon, ezagutu zunak ziaگونهz.

9. Au entzunik —eta ark ziaگونهlako siñesturik— ene gorbizikeri guzia biguindu zan, eta lenik, iakin-nai artatik Pirmin bera okertzen alegen nuan; esaten bainion, izar-mordo aiek ikusiz, egia esatekotan, ikusi ere bear nitula aren gurasoak aundikien artean, errian omen aundiko, beren eskuko sortuak, aitor eta iator eskolatuak; aldiz, eskumendeko ark galdegin balida izar beretatik, nolako ziran aren gurasoak, egia esateko, ikusi ere bear nula aren sendi zirtzilla, mendeko sortua, ta beste arengadik doaietan urrundua. Nola al ziteken, ordea, gauza bera ikusirik bixikoa esatea, egia esatekoz, bera esanez gezur bainiagon. Artatik ageri zala garbi, izar-mordoetatik esaten zana etzala egi gertatzen iakiñez, alabearrez baiño.

10. Ataka ontatik sartuz, olakoak enekin auznartuz, amets oriek zegiztenek iarki etzekizkidan, aieri ekin eta irriz burukatatu nai bainitun, Pirminen eni edo aita ari gezur esan bailiguten, birokien iaioletza gogora ekarri nuan; geienak bata besteren ondolik ain laister oi baitira, tarteko artan —nai bezain balioso ditela— ez baititeke ezer bixikorik auteman, ez idatzi, artatik aztiak ezer asmatzeko moduan. Gainera ez diteke egi idatzi bereri so egiñez gauza bera esan bear bait zuken Esau ta Iakobengaz. Aiek etziran, ordea, berdin gertatu. Beraz gezur, edo egia esanik ere ez egi bera; gauza ikusirik alare. Beraz, iakiñez ez baiño alabearrez egi.

Zu ari zera, Iauna, izadiaren eragille zuzen zuzena, galde ta erantzugille orieri ixilik erantzuten; galdetzen dutenean bakoitzak dagokiona entzun dezan, beure animaren irabazi izkutuz, Zure iritzi barrengo ta



zuzenez. Ez beza esan gizonak: «zer da au? Zergatik au?» (Eccl. 39, 26)
ez beza esan, ez, gizon baita.

VII

*Oiñaze gogorrez eta erdi-miñez billatzen du Augustiñek gaitza
nondik datorren. Oiu Iainkoari, urrun bailegon,
eta Aren belarriak bertan.*

Askatu ninduzun lokarri aietatik, ene Laguntzaille, ta gaitza nondik
zan galdezka, ez nuan aterapiderik. Baiñan eninduzun uzten ene bururaki-
zunen mendeko, Zu baziñala siñes nenzan, eta Zure zer-izana alda-eziña
dala; gizonetaz arreta eta irizpide baduzula, ta Zure Seme ta gure Iaun dan
Iesukristogan eta Liburu sainduetan —Elizak beure eskumendean dauz-
kanetan— osasunbidea ezarria daukazula eriotze ondoko bizirako.

Egi auek nigan atxikirik eta indarturik, gartsuki ari nintzan gaitza
nondik ote. Zer erdi-oiñaze nere biotzean! zer intziri, ene Iainko! Eta an
ziran Zure belarriak, nik ez iakinki. Ixillean bizkor ari nintzala, ene anima-
ren ixil-damu aiek oiua aundi ziran Zure urrikiarentzat. Zuk zenekin, bes-
tek ez, ene miña. Zenbat sartzen zan bada nere mihitik adiskide mamien
belarrira? Ene animako kalapita, mintzo biurtzen al zitzaien? adierazteko
ez bainun astirik eta agorik aski. Bai Zure belarrira «nere biotz-oro guzia.
Zure aintzinean zan ene naimin guzia, ta begietako argirik ere ez nedukan»
(Ps. 37, 9). Ua barnean zegoen, ni landan ua etzun tokiak artzen. Tokian
daudenetara so egiten nizun, eta aietan ez nuan atsedengurik arkitzen. Aiek
ez ninduten artzen «aski da, ongi da» esateko eran; aski ongi nindagoken
tokira itzultzen etzidaten uzten. Nagusi nintzaien eta Zu, nere egizko poza,
Zure menpea, eta Zuk azpira zenitidan nibaiño ttipiago egin zenitunak
oro. Au zitzaidan aro on eta osasun toki: Zure antzeko gelditzea, ta Zuri
gomen egiñez, gorputza menderatzea. Baiña ni Zure aurka, bekoki-azal
onekin, arroki altxa ta laisterka nere Iaunaren aurka nindoala, azpikoek
gaiña artu zidaten, itokarrean, lasapiderik eta arnasik utzi gabe. Nondinai
zetozkidan saldoan eta baltsan, so banengien; iduriz gogoan iraultzen
banitun berriz, itzultzea eragozten zidaten au ziaготela: «Nora oa, ezain
likits ori?» Nere zauritik ateratzen ziran —«arranditsua zauritua bezala
murgillarazi baituzu» (Ps. 88, 11)— ta aundimiñez Zugandik alde ninda-
gon, eta aurpegi aundituak begiak ertsi zitidan.

VIII

*Iainkoak Augustiñ barne-zimikoz daragi eziñ-egonera;
eta begiratu batez pakeatzen du. Sendatzeko bidean.*

12. «Zu berriz, Iauna, beti zera, ta etzakigu betiko asarretzen» (Ps.
84, 5), lur errauts danari urrikaltsu baitzakio. Zure begiari atsegin izan
zaio nere maketsak berdintzea. Barne-zimikoz ninderagizun eziñegonera,
gero barne-begiratu batez pakerazteko. Zure eskuko ixil-sendagailluz ene
aunditsua ertzen zan, eta nere animaren begi laiñotsu ta illundua senda-
miñezko begi-urez sendatzen ari zan egunoro.

IX

*Irakurtzen du, bai, Manestarren liburuetan zerbait Iainkoaren
itzaz edo Semeaz; ez ordea gizon egin zanik eta gugatik il zanik.*

13. Lenik gizon baten bidez —aundigozez puztua zan bera— zen-
bait liburu grekotik latiñera biurtuak erakarri zenitidan, zer irakatsi naiez?
«arrandituseri nola iarki zakien eta xume-naieri nola lagun zakien» (Iac. 4,
6); bide xumetik ioanez gizoneri zenbat urriki erakutsi diguzun, «Zure
Itza gizon egin baitzan eta aien artean bizi izan» (Io. 1, 14). Ez nuan ira-
kurri itz beroietaz, bai ordea gauza bera, aunitz argibide emanik, ots, len-
danik Itza bazala ta Itza Iainkoagan zala ta Itza Iainko zala; ola zala len-
danik Iainkoagan. Guziak Ark egiñak dirala ta Ua gabe ez dala ezer egiñik;
egin dan oro bizi dala Argan eta bizia giza-argi zala; eta argia ilunbean
nabari dala, ta illunbeak ez dula atzeman; eta giza-argia argiaren lekuko
izan arren, ez dala bera argi; baizik eta Itza, Iainkoa bera dala mundura
datorren gizon oro argizen dun argia. An ez nuan ordea irakurri, «bereeta-
ra etorri zala ta bereek etzutela ongi artu; ongi-etorri egin ziotenari
Iainko-seme izateko eskubide eman ziela».

14. An irakurri nuan berebat, Itza, Iainkoa, aragitik, odoletik, giza-
gogotik ez baiño Iainkoagandik sortua dala. Ez nendun ordea irakurri an
«Itza gizon egin zanik, eta gurekin bizi izan zanik». Liburu aiek ikerturik,
aunitz aldetara esanik arkitu nuan, Semea beure izatez Iainko dala Aita
bezala, ta etzula ezer ebatsi Iainkoari berdinduz; baiñan ez nuan irakurri
liburu aietan, «Beure buruz erantzi zala morroi-antza iantziz. Apaldu zala,
eriotzarañño mendeko egiñik, gurutz-eriotzerañño; orregatik Iainkoak erai-
ki zula illengandik, eta izen guzien gaiñetik dagon izen bat eman ziola,
Iesu'ren izenean zerutar, legortar, ifernutar oro belaunikatu dedin, eta mihi



orok aitor dezala, Iesus gure Iauna Iainkoaren ospe-tokian dagola» (Phil. 6, 11). Bai, ordea, aldiz-aintzin eta aldiz-gain Zure Seme senibakarra aldagabe bizi dala. Zure betikide, eta animek, doatsu izaiteko, Aren betetasunetik artzen dutela; ta zugur diranak, «beregana dagon zugurtasunaren erdikide dirala»; ez ordea, «noiz-aldian gaiztoen alde il zala eta Seme bakarrari etzeniola barkatu, baizik eta gu guzian alde ezkuetara eman zenula» (Rom. 5, 6). «Iakintsuerei olako gauzak izkuta ditiezu ta ñimiñoeri agertarazi», nekepean eta zamapean daudenak Argana datozan, Ark birbizteko; otzan eta biotz-apal baita; «otzanan zentzuz deramatzi Beure bideak erakutsiz» (Mt. 11, 25), ikusten baitu gure deuseza ta nekea, ta barkatzen gure pekatuak oro. Iakintasan aitorrez puzturik dauden oriek, ordea, ez dute au entzun nai: «ikasazue nigandik otzan eta apal naizala, ta atsedean dukezue zuen animetan» (Mt. 11, 9) Iainkoa «ezagu badezate ere, ez dute aintzat goresten edo eskerretzatzen; aldiz, beuren bururapenetan barreiatzen dira, ta biotz zozoa illuntzen zaie; iakintsu dirala esanez, tetel biurtzen dira» (Rom. 4, 21).

15. Orregatik irakurten nuan an, «Zure zer-izan eder ustel-eziña gizon, egazti, lauroineko, narraztien antz eta iduritan aldatua zala» (Rom. 1, 23), ots, Aigitekioan ianari, ark galarazi baitzion Esauri len-semblekoa. Zure len-erriak Zure orde lauroineko baten burua goretsi baitzun, biotzez aigitar biurturik, Zure antzeko dun anima, «ergi belar-iale baten aintzinean makurturik» (Act. 7, 39).

Auek arkitu nitun, baiñan ez iretsi. Iakob'i kendu nai ukan baitiozo beure bigarrengoaren latsa, «aundienak txikienari men zegin» (Rom. 9, 13), eta atzerrikoak deitu dituzu ondarrera. Ni ere atzerritar naiz, eta Zugana etorritik, Zure erriak Aijitotik atera nai ukan zun erre ark erakarri nindun, zure baitzenun, nonai zegola. Esan ere zenien atenatarrerri Zure Bialduaren bidez: Zugan bizi, igi, ta izan ere gerala. Aien iakintsuek ere esan zuten, eta aienak ziran, naski, liburu aiek. Baiñan ez nien iara eman Aijitarren antz-idurieri, Iainkoaren egia gezur biurtu dutenek, eta sortzaileari baiño sorkarieri men egiñago diotenak, Zure urea aieri opari egiten baitzien.

X

*Augustiñek berezko argiz-gaiñetik, argi aundi bat ikusten du:
egia. «Naizana ni naiz».*

16. Neuregana itzultzeko gaztigua aietan artuz, sartu nintzan neure barrenean, Zu lagun, Zu gertatu baitzenkidan laguntzaille. Sarturik, ikusi

nuan ene animako begiñoiz, ene animako begiz goitik, nirezko argiz goitik, argi aldaezin bat, ez nornaik ikusten dun au, baiñan kidetsukoa, aundiagoa, au askoz ere argiago gerta bailedin, tarteak oro betez. Ez zan au; argi oengandik besterik zan. Etzegon ene argiz goitik, olio ur-gaiean edo zerua lurrez goitik bezala, baiña gorago —ark egin bainindun— eta ni beerago. Ark egiña bainaz. Egia dezagunak au badazagu, ta au dezagunak, betiera dazagu. Maitasunak dazagu. O betiko egi ta egiazko maitasun eta betiera maite! Zu zaitut Iainko, Zuri ari nakizu asperenka gau ta egun. Lenik, ezagu zindudaneko, Zuk artu ninduzun, nenkusana bazala ikus nenzan, eta ni, ikusle au, ez nintzala. Dirdai egin zenidan begi auletara, nigan bortizki erraiñutuz, eta ikaratu nintzan maitez eta lauoriz. Zugandik urrun nindagola ikusi nuan, urrungo eskualdean, ustez Zure mintzoa nentzularik: «aundien ianari naiz; azi zaite ta ian nezakezu. Ez nauzu ordea, Ni aldatuko zuegan, gorputz-ianari antzo; zu aldatuko zera nigan».

Artan ezagutu nuan, gizona gaiztakeiagatik zentzatu zenula ta nere anima «amareun-sarea bezala erkitu zala» (Ps. 38, 12), ta au esan nuan: «Egia ez al da ezer? ez baitago edaturik toki mugatueta, ez mugagabeetan». Eta urrundik erantzuten zenidan: «Are, naizana ni naiz». Norbaitek bere artean bezala entzun nuan, eta ez nuan itzalik, eta aisago duda nezaken bizi nintzala, egirik etzala baiño, «egindakoen bidez ageri baita» (Ps. 1, 20).

XI

Alda-eziña bakarra da «izan». Ari itsastea komeni zaia.

17. So egin nien Zutaz azpikoeri, eta oso baziranik edo etziranik ez nenkuzan. Izan, naski, Zugandik baitira; ez izan, ordea, ez baitira Zu zeraa. Aldagabe dana izan ere baita. «Neri, arean, Iainkoari itsastea on zait» (Ps. 72, 28), «Argan ez banago, nigan ere ez bainagoke. Ark beregan dagola, oro berritzen du» (Sap. 7, 27), eta «nere Iaun zaitut, ez baituzu nere ondasun bearrik» (Ps. 15, 2).

XII

Gauza ustelgarriak ere, izan badira, Iainkoak ala egiñak.

18. Ustelkorrak on dirala, garbi ikusi nuan; on biribil balira ez bailiteke usteldu; guzitara on danik ez baititeke usteldu; batere on balira, ez



bailukete usteltzekorik. Usteltzea kalte da, ta ona ttipitu ez baleza, ez luke kalterik. Edota ustelkorrak ez du kalterik —ez ditekena— edota —egi egi dana— usteltzen danak zerbait on galtzen du. On guzia gal balezate, ez lirake izan ere. Izan baldin baditezke ta usteldu ezin, obe dira, ustldu gabe gelditzen baitira. On guzia galduz obe gertatu dirala esan? Zer zoroagorik? On guziz gabetzen badira, eza utsa dira; beraz, diraño, on dira. Beraz, diranak, oro on dira; gaitza berriz —nondik zan billa nindabilena— ez da zer-dana, zer-dana balitza on bailitzake. Zer izan ustel-eziña litzake —on aundi naski—, edota ustelkor; eta on ez balitza ez liteke usteldu. Beraz, argi ikusarazi zenidan, on oro zuk egiña dala, ta Zuk egin ezik, ezer ez dala. Eta guziak ez baitituzu egin berdin, argatik dira bakoitza on, ta erabat arturik, guziz on; gure Iainkoak «oro guziz eder» (Gen. 1, 31), egin baititu.

XIII

Gaiztotzat dauzkagun gauzak ere onak dira, beste batzueri dagozkielako. Auengatik ere Iainkoa goresgarri, da.

19. Zuretzat ez ezen izadi osoarentzat ere gaitza ezer ez da; artaz landa ez baita ezer Zuk eman legea autsi dezakenik. Aren zaitetan ba dira ustez zenbait gaizto, besteeri ez dagozkielako. Oek ere beste zenbait on dagozkie, ta beurengan on dira. Beuren artean egoki ez datozenok bada-gozkie azpiko gauzeri, adibidez, lurrari; baitu zerua odeiez eta aizez, berari dagokiona. Ez bezat nik esan «oek ez balira». Oriek bereiz banekustzi, obeak opa bear nituke; baiñan oiengatik utsengatik ere goretsi bear zinduket, «gorestekoa bitzaitue lurrean erensuge ta tulunbio, su, kazkabat, izotz, ekaitz-burrunba —Zure esana baitagite—, mendi ta muñoak oro, arnari-zuaitz eta izaiak oro, pizti ta adargil, narrazti ta egazki, lurreko errege ta erriak oro, lurreko buruzagi ta epailleak oro, mutil eta neskatx, zar eta gazte, Zure izena goersten dute» (Ps. 148, 7) Zeruetatik ere goersten baitzaitute, gores zaitzate, gure Iainko, Zure «Aingeuek oro, Zure Indarrek oro, eguzki, illargi, izarrek oro, argiak, zeruen zeruek eta aize-gaineko urek Zure izena gores bezate» (Ib. 1, 4). Ez nuan oberik opa, guzia gogoemanetz. Gainekoak obe azpikoak baiño, bai; baiña gaineko soillak baiño guziak obe zirala zuzenago nerizkion.

XIV

Orañi Augustiñek Iainkoa bestela ikusten du; ez, tarte guzietan zabaldua bezala.

20. Ez dira osasundun, Zure sorkari zenbait atsegaitzez maite ezti-tutenak. Nere anima ere etzan, atsegaitz baitzitzazkion asko. Baiñan maite baitzindun, ezer atsegaitz izaterik etzun nai. Onek ekarri zun, bi zer-izan ba ziralakora, ta etzun atsedetik, eta zorakeriak esaten zitun. Andik itzuliz, Iainkoa toki mugagabeetan iduritu zun edatua, alakoa uste zindun, eta ua tokiratu zun beure erdian, eta berriz ere Iainko aizunen iauretxe egin zan, Zuri nardagarri. Baiñan, ni oarkabe, eni burua goxatuz, «aizekeria ikus ez nenzan begiak ertsi zenitidalarik» (Ps. 118, 37), Zu iduri-naia atertu zitzaidan, eta nere zorakeia loak artu zun. Eta Zuregan atzarri nintzan eta Zu aleun aldiz bestelako ikusi zindudan, eta ikuskari au ez zan aragiak ekarria.

XV

Gauza guziak Iainkoak bere eskuan dauzka, ta egi dira, izan ere dialako. Beren tokieri ta aldiari ongi dagozkie.

21. So egin nien besteeri, ta izatea Zuri zor dizutela ikusi nuan, eta oro Zuregan mugadun dirala, ez tokian bezala, baiña bestela; eskuan bezala baitaukazu egia, eta guziak, diran arau dira egi; eta gezurra, ez dana badala uste ukaitea besterik ez da. Ikusi ere nuan, bakoitza beure tokian egon ez ezen, beure aldiari egoki datorrela, eta Zu, betiko Bakarra, etziñala lanean asi aldiari egoki geroz; aldiak oro, iraganak eta iragaitekoak ez lioazke ta ez letozke Zu egonean ari ez baziña.

XVI

Gaixo dagonari ogia ere nekarri zaió, argia ere bai. Gaiztoari zintzotasuna gorrotagarri zaió. Gaizto izatea, Iainkoagandik aldegittea da.

22. Neronez sumatu nuan, sendoari goxo zaion ogia erriari latz zaiola, ta begi garbiari maitagarri zaion argia, gorrotagarri zaiola gaxoari. Gaiztoek Zure zuzentasuna atsegaitz dute, ez sugedorri ta arra bakarrik, sorkarrietan azpiko on egin baitituzu, ta gaiztoak egoki datoz, Zure antze-



koago gertatzen diranez. Gaitza zer dan billa ibilli nintzan eta ez da zer-izanez. Zu, Iainko, zer-izan gain gaineko zeran Orrengandik kaxkarenetara makurturik, anpatzen dira, ta beuren erraiak okaztatzen ditute.

XVII

Egi alda-eziña ta betikorra nola arkitu du Augustiñek?

23. Arritzen nintzan Zerau maite zindudala, ez Zure ordezko iduririk. Ez nuan atsedeten Zu gozatuz; aldiz, Zure edertasunak ninderarren, eta berela nere aztak Zuregandik ninderaman. Ontara oldartzen nintzan asperenez: azta au, oitura lizuna zan. Baiñan oroimenean zindudan. Ez nuan itzalik ere, ba ziñanik; Zuri eratzikitzeke ez nintzan ordea gai, «gorputz ustelkorrak anima astuntzen baitu, ta lurrezko etxe onek, burutapenka ari dan adimena kaxkartzen du» (Sap. 9, 15). Tinki tinki nindagon, Zure doai «ikus-eziñak ikuskarietan ageri zaizkigula izadiaren asieratik; batez ere Zure betiko ahala ta Iainkotasuna» (Rom. 1, 20). Zeruko naiz lurreko edertasunak nondik ote ziran ari nintzala, egi betiko ta aldaeziña arkitu nuan, ene anima aldakor onen gaiñetik.

Onela, maillaka, mukulukitik zentzudunera nentorren; ontatik, animaren barneko indarrera, gorputz-leioen bidez baitu landakoen berri. Ontatik berriz, ondorioka artzeko ahalera —mailla ontan baitago irizpidea— zentzuetatik asirik. Ahal au ere nigan aldakor arkiturik, adimenera igo nintzan, eta oituzko bururapena oildu nuan, elkarren buruz-buruko iduripenak aizatuz. Ala arkitu zun animak zer argiz istatua zan, oiuka asi baitzan gutieneko itzalik gabe, aldaeziña aldaberari obetsi bear zitzaiola, ta artatik atera zula aldaeziñaren ezaguera. Au nolabait ezagun ukan ez balu, iñola ere etzezaioken, naski, aldakorrari obetsi. Onela iritxi nintzan dan Arengana, begien itxi-idekian. Orduan ikusi nitun, buru-argiz, ikuskarietarik Zure ikus-eziñak; baiña ez nintzan gai izan begi-zorrozt egoteko, ta gaitza berriturik, lengora itzulki, ez neraman enekin oroitzapen maite bat baizik aren usma ukan naiez; ez bainintzan ua iateko gai.

XVIII

Iesukristo da bidea, egia, bizia; gure aundimiña sendatzen duna.

24. Zu gozatzeko indar-billa ari nintzan, eta ez nuan aukerakorik arkitzen gizonaren eta Iainkoaren «bitartekoa laztandu arte, Iesukristo

gizona, guzien gain Iainko, onetsia baita betiko» (I Tim. 1, 5). Ark deitu nindun au esanez: «Ni nauk bidea ta egia ta bizia» (Io. 1, 14). Eta iateko gai ez nintzan ianaria Ark naasten du aragiz —Itza aragi egin baita— gauza guzien Egille dan zugurtasuna gure aur-bular izan dedin. Ni umil ez izanik, ezin nedukan ene Iainko Iesus umilla, ta Aren aul biurtzea zer nolako irakasle zitzaidan, ez nuan asmatzen. Zure Itza, betiko egia, gain gaineko sorkarietaz goragokoa, azpikoak beureganatzen ari da; azpikoetan berriz, gure loietik etxe xume bat egin du, menpekoak beurengandik aterarik Beregana ekartzeko. Orrela sendatu du gure aundimiña ta unitu gure maitasuna. Bestela, beuren ustean entzinik, urrunago zoazken, eta Iainkotasuna «gure larru-iantziz» (Gen. 3, 21) ttipiturik ikustean, Aren aintzinean belaunika ditezke, ta ua ieikirik, eraiki detzake.

XIX

Augustiñek Iesukristo gizon osoa ikusten du, giza-aragiz ez-ezen animaz ere iantzia, Alipik ez-bezala.

25. Ene Iaun Iesukristo, besterik uste nuan nik: iakiñez berdiñik etzuen ikaintsu aundi bezala, batez ere, Birkiña batengandik miragarriro sorturik, guk Iainkoaren eriogabea ukaiteko bizi ontako ondasunak gutiesten erakutsiz, Maisu aundi baten eskugaiña merezi zula. Itz zula ta edaten, lo egiten, egurastu zala, poztu, goibeldu, mintzatu zala, besterik ez nekin, eta aragi ua, anima ezagudun baten bitartez baizik etzala Zure Itzarekin bat egin. Zure Itza aldaeziña dala dakinak au badaki, ta nik ere banekin nere einean, den guttieneko itzalik gabe. Gorputz-atalak nai ukantik mugitzea, ez mugitza, biotz-eragiñak ukaitea, ez ukaitea, gogorakizun zurrak itzez adieraztea, ixilik egoitea, anima ezagudunaren aldakor-zantzu dirala. Artaz idatzi oriek gezur balira, guziak gezur litezke, ta liburu aiek siñestean ez luke gizadiak osasun-biderik. Baiñan egi baitira, Iesukristo gizon osoa nenkusan, ez gorputz uts, ez eta gorputz bizia eza-gumenik gabe; baizik eta gizona, iakintasan garaiagoa eman zitzaiolako.

Alipik ostera, Iainko ta aragi besterik zanik katolikoak etzutela uste zerizkion: giza-anima ezagudun gabe. Artan tinki baitzegon, Ark egin omen zitunak giza-anima ezagudunaz bestez etzitezkeela egin, siñesteko nagixko zegon. Baiña gero, ori apolindar heretikuen okerra zala ezagutuki, pozik bildu zan katoliko siñestera.

Nik geroxago ikasi nuan, bai, Itza aragi egin ortan, katolikoen egia Plotinen gezurretik berreitzen dala. Heretiku oriek gaitzesteak, Zure



Elizak zer derizkion nabariatzen du, ta ikaskizun zuzena zer dan. «Alderdien bear, ukan ere badugu, siñesdun iatorrak aulen artean ageri ditezen» (I Cor. 2, 9).

XX

Platondarren liburuek ez dute erakusten Kristo umilla ta biozbera.

26. Platondarren liburu aiek irakurriz, mukulu gabeko egia billatzen ikaski, ordun atera nuan Zure ikus-eziña ikuskariengandik eta aiek eragiñik baita ere animako illunbeak len so egiten eragozten zidana. Eskier nindagon baziñala ta mugarik etzendula; alare etzinaudela edaturik tarte mugatuan naiz mugagabea. Egiazki beti lengo Bera ziñala, ez beste edo bestela, alderik eta aldirik gabe. Besteak oro Zugandik zirala, diralazko utsean oiñarri sendo egiñik. Gauza txiki orietan eskier nindagon, baiña Zu iastatzeko indar gabe. Berriketan ari nintzan banekilakoan, eta osasun dugun Kristogan Zugana bidea zitzaidan, nekea nerekin nula, eta ez nengin negarrik, eta nekinez puztua nintzan. Non nuan bada, Iesukristok oiñarri eman zun umiltasunetik datorren maitasun ua? Edo liburu aiek noiz irakatsi zidaten? Zure liburuak baiño len aienak nik ezagutea zertako ote zan? Nere gogoan tinka zedin, nik uste, aiek nola eragin ninduten, eta gero, Zure eriz ene zauriak goxatuki, Zuretan eztitu nintzalarik, ikus nenzan eta bereizi, zer alde dagon antustetik aitorzera; nondik ez arren nora ioan bear dan ikustetik bizitza doatsura deraman bidea ikusi ez ezen, an bizitzera.

Lendanik Zure liburu sainduetan iantzi banintza, ta aien beroan goxo arkitu ba zindut, eta gero aienak irakur, ausaz alderatuko ninduten zintzotasun artatik, edota, mordindua ninduten samurtasun artan iraunik ere, aien liburuetan orobat arki zitekela uste nenzaken, besterik irakurri gabe ere.

XXI

Batez ere Iondoni Paulen liburuetan arkitu du Platondarretan arkitu ez duna ta Goiko Arnasa poz-dardara sartu zaio.

27. Beraz, zure arnas saindua biziro tirriatzen asi nintzan, Batez ere Paul apostoluarenean, eta auziño aiek aldegin zuten; zenbait aldiz ago batean bi mihi zitula baitziduridan, eta aren iarduna etzegola erara lege ta

Profetekin. Agertu zitzaidan mintzo garbiaren aurpegi bakarra, ta ikasi nuan «Ikaraz pozten» (Ps. 2, 11). Nik aietan irakurri nuan egia, auetan Zure graziaren laguntzaz esaten zala arkitu nuan; dakusana «illarraindu ez dedin dakusanaz, ez, ikustez beraz ere —al du ezer artu ez dunik?» (I Cor. 4, 7)—, eta beti bat zeran Ori ikusteko oartu ez ezen, idukitzeko sendatu bear du, urrundik ikusi ezin zaitunak Zugana bide ar dezan eta besarka zaitzan. Gizon barnekoia «Iainko-legez atse ba ledi ere» (Rom. 7, 22), zer egitea dauka beste lege artaz, ots, bere gorputz-atalekoz, «ezagu-legearen aurka baitauka, ta gorputz-ataletan daukan pekatu-legera atzilotzen baitu» (Rom. 7, 23). Zuzen zera, Iauna; guk «oben egin dugu, oker egin dugu, gaizki ari izan gera» (Dan. 3, 27), ta «Zure esku gafiñera erori zaigu» (Ps. 31, 4), ta bidez emanak gakio pekatari zarrari, eriotzaren nagusiari; gure naia berearen antzeko egitera eragin baitu, ta «Zure egian ez baita tinkatu» (Io. 8, 44). Zer dagiko gizon errukarriak? Nork aterako du erio-gorputz ontatik? «Iesukristo gure Iaunaren bitartez dugun Zure graziak baizik?» (Rom. 7, 24) Ua duzu Seme betikide, ta «zure lanen asieran irazana» (Prov. 8, 22). Mundu ontako nagusiak ez dio eriotzerakorik arkitu, baiñan illarazi du (Io. 14, 30); eta gure buruzki zan ill-agiria, uts eman du (Col. 2, 14).

Aien liburuek ez dute olakorik. Orri aiek ez dute olako zintzo-eiterik, aitor-negarrik, Zure opari dan animako urrikirik, biotz damurik eta umiltasunik, ez erriaren osasunik, ez «agindu diguzun iririk» (Apoc. 21, 2), ez Ispiritu Sainduaren kutunik, ez gure erospeneko odol-ontzirik. Aietan ez du iñork kantatzen: «Ene anima ez dagoke Iainkoaren mende? Argandik baitut osasuna; Ua baitut Iainko ta Osasun, laguntza; ez naiz aurrera kordokatuko» (Ps. 61, 2, 3), Biotzez samur eta umil baita, ez dute aintzat Ark irakas dezaie. «Auek iakintsueri ta zugerreri gorde ditiezu, ta ñimiñoeri agertarazi» (Mt. 11, 29-5). Bat da, mendi-galdorretik pake-erria ikusi ta biderik ez arkitu, ta bidetxur nasietan alperrik ibili, oianetan «leoi ta erensuge buru ditutela» (Ps. 90, 13) dabilzanan erasoan artean; eta beste bat da zeruko Iaunak arrisku gabe daukan arako bidea; an ez baita lapurrik, zeruko soldaduzkotik igesegiñik; oiñazetik bezala aldegiten baitute andik. Auek arrigarrero sartzen zitzaizkidan biotzean Zure «apostolurik ttipiena» (I Cor. 15, 9) irakurtean. Zuk egiñeri begi eman nien, eta arritu nintzan.



ZORTZIGARREN IARDUNA

I

Sinplikian'engana iotzen du beure kezka agertzer.
Augustiñek arkitu du Iainkoaren etxearen edertasuna:
baiñan oraiño zalantzan dago.

1. Oroï detzadan, ene Iainko, eta aitor esker onez Zure niganako errikiak. Ene ezurrak oro uieldu bitez zure maitez eta ola esan bezate: «Jauna, nor Zu aiñakorik?» (Ps. 34, 10). Eten dituzu nere lokarriak; dizudan eskein «gorespenezko oparia» (Ps. 115, 16). Ialkiko dut nola eten zenitun, eta iauresten zaituten orok, entzutean au desakete: Onets bedi Jauna zeru-lurretan; aundi ta arrigarri du izena.

Zure itzak ene biotzondoari itsatsi zitzaizkion, eta orotatik ingurazten ninduzun. Betiko biaz eskier nindagon, ikusi bainun, «ikurrez eta ispilluz bezala» (I Cor. 13, 2). Kezka oro galdu nuan alare zerki ustel-ezin dan artaz, artatik baitator ustelkor dana. Zutaz tinkiago baiño Zugan iabalago nai nuan egon. ene bizialdi ontaz guzia koloka nenkusan, eta biotza garbi-bearra nizun orantza zarretik. Atsegin zitzaidan, bai, bidea, Salbatzailea Bera, baiñan aren bide ertsitik ioaiteko zabar nintzan.

Gogora zenidan, eta niri ongi iduritu, Sinplikian'engana ioitea, Zure morroi on baitziduridan, eta ageri baitzan arengan Zure grazia. Entzuna nuan are, gaztarotik Zuri erats-eratsia zala. Orduko zaartua zan eta Zure bideari gogoz iarraikiz eta aunitz ikusiz, ongi ikasia nerizkion. Eta ala zan. Ari nere kezka agertzen niola, arengandik aholku on nai nuan, nindagon egoeran Zure bidean nola nindabillaken.

2. Eliza bete oi zatzaon zintzoz eta bata andik zoan, bestea emendik. Ni berriz, gizarteko biaz nardaturik niñedukan, eta astun zitzaida izugarri, bein griñak itzalirik, izen-miñez eta diru-miñez morrontza nekagarri ua iasaitea. Min oriek ez ninderakarten «maite nun Zure etxeko edertasun gozoak» bezainbat; alare, emazte ark zaiki miñedukan. Apostoluak etzidan eragozten ezkontzea, baiñan gizon guziak ua bezala ezkongai izatera zeragikin, oberen bearrez. Nik, aul onek, gauzarik guriena autatzen nuan eta orregatik nindabillan gaiññrakoetan nagí, kezka erkaturik, ezkonbiziari dagozkion arazoak gogoz-beste iasan bearrez. Egiaren agotik entzuna nuan, ba zirala «irenak, zeru-erriarengatik beuren eskuz iren-

duak»; baiñan «uler dezakenak uler beza» esaten du (Mt. 19, 12). «Iainkoarekiko iakiterik ez duten gizonak utsal dira, eta on agertzen diran zerkitan ere Dan Ua ez dute arkitu» (Sap. 13, 1). Ez nindagon ni uste ustel artan; ua gaindituz, arkitu zindudan Zu gure Irazaille, izadi osoa leku-nula; Zugan baita Zure Itza ere, Zurekin bakar dana, Aren bidez irazan baitituzu oro. Ba da beste gaizto mota bat, «Iainkoa ezagunik ere ez baitu aintzat goretsi, ez Ari eskerrik eman» (Rom. 1, 21). Ortan ere erori nintzan eta Zure eskuinak iaso nindun, eta andik altxaturik, bizkor-bidean ezarri ninduzun. Esan baitzenion gizonari: «or zintzotasuna ta iakintasuna» (Iob. 28, 28). Bai eta, «ez iakintsu agermiñik ukan» (Prov. 3, 7), iakintsu gera «diagotenak tentel biurtu baitira» (Rom. 1, 22). Txirlari ona arkitu nuan eta nitunak oro saldurik, bear erosi, baiñan zalantzan nindagon.

II

Sinplikian'ek, Bitorin Iainkoagana nola biurtu zan ialkitzen dio.

3. Io nuan bada Sinplikian'engana, Amburusi Gotzaiak Aita batzedukan graziaz eta aita orde maite baitzun. Ene gezur-bideak oro ialki nition. Bitorin zanak beñiola Erroman mintza-irakasle zalarik latiñera biurturiko Platondarren liburu aiek irakurri nitula esan nionean, atsegiñak eman zitidan, beste iakintsu-naien liburuetan gerta ez nintzalako; gezurrez eta abarrez beterik baitaude «izadi ontako asi masieri buruz» (Col. 2, 8). Aietan ordea, milla moduz aipatzen da Iainkoa eta Aren Itza. Gero ni Kristoren umiltasunera eragiteko —iakintsueri gordea baitzaie ta niñiñori ageri— Bitorin bera gogora zidan. Erroman zegola ezagutu omen, eta artaz esan zidana ez dut ixilduko; ari buruz Zure grazia aitortea goresgarri baita. Agure iakitun okitu ua, ikaskizun iator guzietan iaioa zan eta iakintsu-naien ainbeste liburu irakurri zitun eta ebatzi. Oinbeste erri-gurasoen irakasle izanik, bere irakaslego argiatatik. Erromako enparantza nagusian arri-iduri bat altxa zioten; gizarteak aintzat baitauka ori. Alare adin artaraiño iainkoazunen iauresle izan zan eta madarikazio guzien erdikide, Erromako aundiki guziak bezala. Puzturik irakasten zioten errairi, Osiris eta olako iainko bidutzi, Anubis saunkaria beinola Neptunen eta Venusen aurka gudu egin eta garaitu zituan, eta abar; Erromak aieri egiten baitzien otoitz. Bitorin au bada, oinbeste urtez beure ago izugarriz, iainkoazun aiek iagon zituna, ez zan lotsa izan Zure Kristoren aur izaiteko ta Zure uztarri apalera lepoa makurtzeko, ta beure bekokia Gurutzearen lotsa-izunean ezitzeko.



Iauna, Iauna, «zeruak eraitxi baitituzu ieisteko; mendiak ukituz ketan ezarri» (Ps. 143, 5), nolatan sartu zintzaion biotzera? Sinplikianek ziagonez, Liburu Sainduak irakurten omen, eta kristauen ele ederrak oro begiratuki aztertzen eta Sinplikian esaten ixilka ta adiskide-antzean, ez agerian «Kristau nauk, gero?». Eta arek: «Ez diat siñetsiko, ez aut kristau idukiko Kristoren Iauretxean ikusten ez autañ». Ark berriz irriz: «Beraz orma-arteak biurtzen dik kristau?». Maiz ari zan kristau zala esaten eta Sinplikianek beti bera erantzuten; ark ordea, berariz orma-arte aipatzen. Adiskide deabruzale arro aiek gaitzi-bildur zan, ustez eta Babiloniko erpiñetik etsaigo aundia zetorkiokela, Iaunak ez baitzitun oraiño xeatu Libaneko izai aiek. Baiñan irakur-ala ta xurga-ala indartu zan eta bildurrak artu zun, «gizonen aurrean Kristo aitor-bildur ba zan, Onek bere aingeruen aurrean uka zezakela» (Lc. 2, 9). Itsuskeri aundiz obendun agertzen zan Zure itz izkutuz lotsaturik, deabru arro eredu artuen madarikazio guzietaz etz lotsaturik. Orduan zun galdu aizekeriendako lotsa t egiak lotsarazi zun, eta betbetan eta ustekabe Sinplikian esan omen zion: «Goazen Elizara, kristau biurtu nai dut». Ua berriz, pozez zoraturik, arekin ioan zan. Siñestean asimasiak ikasi ta berela, bataioan ernaberritzeko izena eman zun. Arritu zan Erroma ta Eliza poztu. Au ikusiz, arro aiek asarretu ziran, ortz-karraskaz erkaturik; Zure morroi onek, aldiz, Iainko zun itzaropide, ta «etzien iara emaiten aizekerieri ta zoro-gezurreri» (Ps. 39, 5). Azkenik, siñestea aitor-orduan grazira datozenek egin oi dutenez, ots, Erromako zintzo guzien aintzinean, alki baten gainetik, artarako itz autak gogoz ikasi eta mingatu baiño len, Sinplikianek eta apaizek ixilkago egin zezakela iauki omen zioten, bildur-ikara diran zenbaitekin egin oi zanez; ark ordea naiago ukan zun gizaldi zintzo aren aintzinean bere osasuna aitortu. Ez baitzan osasun, ark mintza-eskolan irakasten zuna; alare agerian aitortu zun. Areago, zorotalde aren aintzinean beure itzak ebakiten lotsatu ez zanak, etzun lotsatu bear Zure artalde otzanaren aintzinean Zure itza mingatzen. Beraz, aitortzera igo zalarik, ezaun zutenek beren artean aren izena ozenki zematzen atsegiñak erakuski. Nork etzun ezagun? Ago guziek pozik ziaготen, mintzoa galgaturik er: «Bitorin, Bitorin!». Usu esan zuten ua ikustean eta usu ixildu ziran ari atzarri entzun-naiean. Lasapide aundiz aitortu zun egiazko siñestea ta guziak beuren biotzetan eraman nai zuten. Maitearen eta pozaren eskuetan zeramatzen.

III

Zergatik olako poza Iainkoagana biurtzetik, eta gaiztoagakin areago?

6. Zer gerta oi zaio gizonari, Iainko on, poztengoa baita anima etsaiaren osasunaz eta galbide aundiagotik atera danaz, betidanik itzaropide dunaz baiño, edota irrisku guttiago dunaz baiño? Zu, arean, Aita urrikaltsu, «poztengoa zera damudun bakarraz, damu-bearrik ez duten larogeita emeretz zintzoz baiño» (Lc. 15, 4). Atsegin aundiz dantzugu, artzaiak ardi bazterkaria bizkarrean ikotika zeramala; baita drakma galdu zun emazteak, arkitu zularik, auzoen pozarekin Zure altxorrera biurtu zula; negar eragiten digu seme gazte arenak Zure txeko elizkizun aundietan irakurtean; «il baitzan eta piztu, galdu baitzan eta agertu» (Ib. 32). Pozten zera, bai, gutaz eta aingeruetaz, maitasun sainduz diranetaz. Zu beti berdin zera; beti berdin dezagutzu ez diranak eta ez-berdin diranak. Zer gertatzen da, beraz, animagan, len maitazitun gauza arkituetaz edo berriz ukanetaz pozago egoiteko beti ukanetaz baiño? Lekuko dira beste guziak, eta «ala da» diagote. gudari-burua garaile dator; ez, burruka egin ez balu; erasoan irriskua aundiago ta garaikundean poza aundiago. Ekaitzak aurtiki oi ditu itsasgizonak, iretsi bearrean; zurbil daude oro, datorren eriozeaz; zeru ta itsaso iabaltzen dira, ta izugarri poztan dira, izugarri bildur-baitziran. Adiskidea gaixo bada, aren zaiñak gaitza salatzen du; osasunez ikusi nai dutenak oro, biotzean gaixotzen dira. Oberatzen bada, lengo indarrak ez izanik ere, onik eta bizkorrik zebillan ez-bezalako poza gertatzen da. Bizi ontako gurikeriak berak ere, ez, ustekabe ta gogoz-beste, baizik eta naita billatutako nekez ukaiten ditu gizonak. Ian-edanak atsegiñik ez du, len gose-egarri ez egonik. Mozkorrak ere gazigarria ian oi du egarriago gerta dedin, eta edan-ala artzen du atsegin. Oitura ere da, itzeman emaztegaia berela ez eskuratzea, senargaiak gutietsi ez dezan, luzaro irrikatu ez dulako. Au gerta oi da atsegin lizun azkagarreitan, au zillegi diranetan, au laguntasun min miñean eta iatorean, au ilda piztu argan, galdu ta arkitu artan: nonai, atsegiñik aundiena nekerik aundienari darraiño.

Zer da au, Iauna, Zerau Zerorri beti atsegin izanik, urbil zaizkizun zenbait Zutaz atsegitea? Izadian zergatik uts eta bete aldardeka, makurturik eta elkarturik duadenak? Iñolaz ere au dute lege asieratik mendeen mendetaraiño zeru gainetik lur barneraiñoakoak, Aingerutik zizareraiñoakoak, lenbiziko eragiñetik azkeneraiñoakoak. Onela ezarri dituzu zein bere lerroan eta bere aldan, ondasun mota guziak eta Zure lanbide zuzen



guziak. Ai ene! Zein gaiñeko zeran gaiñekoetan eta zein barneko barnekoetan! Ez dugu beñere Zugandik aldegiten, ta osta itzultzen ere gera Zuregana.

IV

*Bitorin biño leize aundiagoan eroriak ateratzen dira.
Atera nazazu ni ere.*

9. Ots, Iauna, iratzar gu, dei gu, piztu ta sutu; zakigu gozo, dezagun maita, dagigun laister! Ez al dira aunitz Bitorin baiño leize itsu barenagotik Zugana etortzen eta urbiltzen eta argitzen? Argi au artzen dutenek oro Zure seme biurtzen dira eskubidez. Errian ezagungabeko ba dira, dazaguztenak aietaz guttiago pozten dira. Pozlagun aunitz danean, bakoitzagan poza-ioriago da, bakoitza berotuz elkar ere beroarazten baitute. Gaiñera, ezagun aunitzek aunitz ondoko dakarte osasunera, ta orrela, aintzinekoak aundizki pozten dira aietaz; ez beretaz bakarrez.

Ez begokit eni, Zure etxean aundiakiak xumeak baiño obeki artuak dirala, «gizarteko kaxkarkeria autatu baituzu aundikeria zapatzeko; zirtzil eta gauzeza, zerbait dana ezeza dezazun» (I Cor. 1, 27). Apostolu kaxkarranak esan zitun itz ok, Konsul-orde Paul Kristo Errege aundiaren ordain izaitera erakarri zularik; berak ere Saul orde Paul izena artu zun garai-kunde onen oroitzapenean. Etsaia garaitzenago da, norbait bortitzago daukanean, eta, iakiña, aunitz daukanean. Beraz zenbat eskertuago estekoa zan Bitorinen biotza, ezin-arutzko gudaletxe bat bezala iduki baitzun deabruak. Bitorinen mihiz —gezi aundiz eta zorrotzez bezala aunitz il baitzitun— Zure semeek poz aundigoa artzea egoki zan. «Etsai bortitza gure Eregek lotu zun» (Mt. 12, 29), eta ari iskiloa kendurik, mihia, bai garbitu ta egoki ere «edozer lan on Zure dedurako egiteko» (II Tim. 2, 21).

V

*Bitorinen gertaerak Jainkoagana sutan iartzen du Augustin;
baiña burruka berekin: «zaude pixka bat» ori,
«zaude puska bat» gertatzen zan.*

10. Zure gizon Sinplikianek Bitorinez au ialki zidaneko, sutu nindun orobat egiteko, artako ialki ere baitzidan. Au eratziki zun gainera: Iulian Agintariaren egunetan kristaueri debekatu zitzaizela ele ederra ta mintza-

antzea irakastea, eta ark, lege au besarkatuz, naiago ukan zula eskola utzi Zure itza baiño; onek «egiten baititu ele-eder aurren mihiak» (Sap. 10, 21). Bortitz baiñon doatsuago iduritu zitzaidan, egokiera baitzun Zugan atsedeteko. Au nuan nik tirria nere leia gogorrez, ez besteren katez. Nere naia etsaiak zedukan, eta artatik egin-katez lotzen nindun. Nai gaiztoak dakar griña, ta griñaren morroi izateak oitura dakar, eta oiturari ez oldartuz, eginbearra sortzen da. Katea esan dut, bai, begizta begiztari kaketuz, morrontza gogorrean baininedukan. Zu, egiazko poz bakarra, urrurik serbitzeko ta gozatzeko nedukan gogo asi-berria ez zan oraino gai lengo zaar indartua garaitzeko. Beraz bi nai-uakite nitun; bat zarra, aragikoi, beste berria, gogakoi; elkarrekin burruka ta elkarrengadik aldegiñez, ondantzen zuten ene anima.

11. Onela nenkusan nere baitan gerta irakurri nuna, ots, «aragia gogoaren aurka ta gogoa aragiaren aurka griñatzen zirala» (Gal. 5, 17). Ni bietan naski, baiñan nigan onesten nitunetan areago, gaitzesten nitunetan baiño. Ontan, alegia, ez ni, bortxaz iasaita bainenedukan naita egin orde. Alare oitura bizkorragotu zitzaidan, naita bainindetorren nai ez nuna. Nork esan bestera? obenari zigor zuzena baitzarraion. Ez nedukan neure burua zuritzerik ere, egia ongi atzeman ez nulako aitzakian etzindudala serbitzen, gizartea utzirik, egi ortan tinki bainindagon. Nik ostera, oraiño lurrari itsatsirik, ez nizun serbitu nai, eta eragozpenak utzi-bildur nintzan aien sarera sartzeko bezain.

12. Gizartearen zamak onea goxoki azpiratzen nindun ametsetan bezala, ta Zurekiko bururapenak, esantu nai dutenen alegiñak bezala ziran, berriro murgiltzen baitira loak garaiturik. Beti lo egon nai dunik ez baita, eta zentzudun guzien iritziz esnai egon obe. Alare, gorputza toil dalarik loa uxatzea geienez zail baita, eta loak goxoago beretzen baitu gizona esna-ordu izanik ere; alaxe, eskierrago nindagon obe zala Zure maitasunari ederrestea nere griñari baiño. Ark atse emaiten zidan; onek berriz xoratzen nindun eta lotzen. Ez nuan zer erantzunik Zure itz oeri; «esna adi, loti, ieiki adi illen artetik eta Kristok argituko au» (Eph. 5, 14). Eta nondinai Zuk egia zeniagola iabeturik, ez nuan erantzutekorik itz nagi ta loti auek baizik: «Berela, berelaxe, zaude pixka bat». Baiña «berela, berela» orrek etzun mugarik, eta pixka ori puska gertatzen zan. Gizon barnekoi antzo Zure legeak alperrik pozten nindun, beste lege batek baininderaman, gorputz-legeak gogo-legearen aurka. «Ark ninderaman bekatu-legera, nere azbegietan bainenedukan» (Rom. 7, 22). Bekatu-lege ori, oituraren indarra da, ark erakarten eta lotzen baitu anima nai ezik ere, naita arta-



ra lerratzeko. Zorigaitz eni! «nork iaregiñen nau gorputz eriogarri ontatik Zure graziak ez bada, Iesukristo gure Iaunaren bitartez?» (Ib. 25).

VI

Pontitianek San Antonen bizitza ialkitzen dio, ta bi iauregi-morroiri gertatua.

13. Aitortuko dut Zure izena, nere laguntzaille ta iaregille zeran Iauna; ialkiko dut zein emagose nindagon eta zein ertsiki loturik gizarteko arazoetan eta nola askatu ninduzun Oituzko lanbideak gero ta urdu-riago negizkin, eta Zuri asperen nengizun egunoro. Maiz nindoan Elizara, arazo nekagarri ta auengarri aiek ni utzi-ala. Alipi nerekin zan, opor, irugarrenez aholku-emaille izanik aioan baitzegon urrena aholkuak nori sald, nik ere mintza-antzea salatzen nuan bezala, saltzekoa ba ledi. Nerbidi, Milango uritar eta izkerazale zan Berekunengana ioan zan gure adiskidegoz, bigarren irakasle, gure guzion adiskide baitzan. Beraz, Nerbidi, gure lagun goxo ta mana, ez zan sari-zun ara ioan —aundiagoa baitzedukan ele-ederrean— baizik eta onginaiez, gure eskabidea aintzat artuz. Zugruki ari zan, gizarteko aundikiengandik gorderik, aiekin pakerik ez galtzeko, lan-ondoan opor egon nai baitzun, albait, zugurtasunarengaz zerbait billatzeko, irakurteko naiz entzuteko.

14. Egun batez bada, Nerbidi aldegiña zala —ez dakit zergatik— Pontitian zalako bat gure etxera etorri zan neregana ta Alipirengana. gure erritar zan, Aprikatar baitzan, iauregian morroi-nagusi. Ez dakit zer nai zigun. Eseri giñan mintzatzeko. Alabearrez, gure aintzineko iosta-mai batean liburu bat auteman zun. Artu, zabaldu, Paul apostolua arkitu zun, ustekabe, naski, nere eginbideko libururen bat arkitu ustean. Irriz eni begira, arriturik eta atsegiñez so egin zidan, liburu ua bakarra ene aintzinean buru egin zulako. Kristau zintzo egiña zan, eta maiz Zuri, gure Iainko Orri, Elizan otoi usuz eta luzez belaunika oi zitzaizun. Adierazi bainion liburu aietan ari nintzala gogozenik, iardunearn asi giñan Aigitoko Anton bakartiarengaz. Aren izena orduko argitsu zan Zure mirabeen artean; baiñan oraino gutartean ez-ezagun. Oartu zanean, artaz luzaro ari izan zitzaigun, alako gizona guri ezaguaraziz, eta gure ez-iaikiñaz arrituz. Balditen giñan, ain berriki, gure egunetantsu, olako gauza arrigarrik egiazko alakoak entzunez; ua gure ez-iaikiñez.

15. Gero itza bakartien saldoetara biurtu zun, Zure usai goxodun oituretara eta lekaroko baso marduletara, ango berri ez baikendu oraiño.

Bazan Milanen elkartetxe bat, anai onez betea, Anburusiren zaipean, eta ez genun ezaguten. Ari zitzaigun oraino, eta gu ixilik, erne. Ez dakit zerk ekarririk esan zigun —Terberin naski— Agintaria eguerdiko zirku-ikus-karietan zegola, bera bere iru etxelagunekin egurastera atera zala arresi ondoko baratetara, eta an, binaka zoazila, bata berarekin eta beste biak elkarrekin beste bidetik. Ibilli ta ibilli, txabola batean gertatu omen, gogoz lander diran zenbait Zure morroiekin —«aiena baita zeru-erria» (Mt. 5, 3)— eta an liburu bat arkitu omen: San Antonen biziera. Aietan bat —Iauregi-morroiri ziran biak— irakurten asi, arritu, sutu, ta irakurtean, olako biziera artzea ta gizartea utzirik Zuri serbitzea erabaki. Artan, maitasun sailduaz eta lotsa osasungarriz beterik, beure buruarekin asarre, Iaunarengana begiak zorroztu eta esan: «Adi zak; neke guzi okin nora goazik? Zer nai diagu? Zer morrontza ari diagu? Agintariaren adiskide izaitea baiño itzaropide aundiagorik ukaiten al diagu Iauregian? Eta an zer duk, galkor eta arriskuz beterik ez danik? Eta zer arriskuz gatozkek arrisku aundiagora? Eta noizko? Iainkoaren adiskide oraintxetik naitekek, nai ukan ezkeror?». Ola ziaigon biziera berri bat erdi-zorian. Berriz irakur, eta barna iñarasi, Zuk ikusten duzun artaraiño. Burutik mundua erantzi zun, laister agertu zanez. Irakur artean eta biotzak eragiñik, alako batean, intzirik, oberen zana autatu ta erabaki zun, lagunari au ziaigola: «Beude neregatik itxarokizun aiek; Iainkoaren morroi naukek oraintxetik eta emen-txetik. Eni iarraitzeko nagi baiiaz, ez akidala etsai». Olako morrontza ta saria nai nitikek, erantzun zion besteak. Biak Zure, Zuri iarraiki naiez eta guziak utziz, diru arekin beuren Osasundegia eraiki zuten.

Orduan Pontitian eta beste baratze-zokoetan arekin zebillana, aien billa asi ziran eta esan-tokian arkitu zituten «goazen etxera» esanez, illunabar baitzan. Aiek, ordea, beuren asmo berra erakutsirik, nondik eta nola ernea zuten eta bizkortua, «gurekin gelditu nai ez ba duzute gu ez nekarazi» esan zien. Oek, damurik lengoan zirala, atsegiñak eman zitien, eta aien oititzeri goraintzi ziran. Biotza lurrean eta lorrean, iauregira itzuli ziran; besteak berriz, biotza zeruan tinki, txabolan gelditu ziran. Ba zituten emaztegaiak, eta auek, ori entzutean, beuren garbitasuna Zuri opa egin zituten.



VII

Iaunak itz aiek Augustiñengana biurtu; au bere atzealdean gorde aurrealdea ikusteko.

16. Au ialki zun Pontitianek. Zuk ordea, Iauna, aren itzak nigana biurtzen zenitun, eta neraunen gibelaldean kukatu banintzan aitzinaldea ez ikusteko, itsusi, biurri, zikin, itzaltsu, zauritsu bainintzan, Zuk iratzuli zenidan lepoa, nere aurpegia ikusi nenzan. Ikusita bai izutu ere; ta neronengandik ezin igesegin. Eta neronengandik begiak saiestu nai ba nitun, ua ialkiz ari zalarik, berriro nere aintzineran nindekarzun, begiak tinkaraziz, ene gaiztakeria arki ta gorrota nenzan. Ezagutzen nuan. Baiñan ezarena egin, eragotsi, aztu.

17. Zuk osoro senda zenetzan, asmo osasungarri ori artu zuten aiek, nik biziroago maite ta neure burua itsuskiago gorrota, aiekin alderatuz, urte aunitz igaro baitziran —amabiren bat— nere emeretzigarrenean Kikeroren Hortensi irakurririk zugurtasunera esnatu nintzala. Oni ekitea luzatzen nuan, lurreko zorionak ezetsirik; au arkitzea ta billatzea bera ondasun guzieri ta erresuma guzieri obestekoa baitzan, eta inguruan naiera neduzkan guzikerieri. Ni, alare, gazte gaizo, gaztedanik gaizo, Zuri garbitasun eske asia nintzan onela: «emaidazu garbitasun eta eliko, baiñan ez oraiño». Bildur bainintzan berela entzun eta lizunkeritik sendatuko ninduzula; ta nik ua itzali baiñon artaz ase naiago. Bide makurretan ibilia nintzan, siñeskeri madarikatueta, ez tinki, baiña beste siñeskizuneri obetsiz bezala. Ez nuan onez billatzen; bai etsai bezala aiertzen.

18. Zergatik luzatu uste nuan, gizarteko itxarokizunak utzirik, Zuri iarraitzea? Ez bainenkusan argi zer bidetik ibil. Etorri zan eguna, nitaz erantzirik, ene barna erasiaka asi baitzitzaidan: «Non duk mihia? Ez omen uan ik aizekeri orien zama aizatu nai, egian tinki ez indagolako. Ona orain egia; alare aizekeriak zapatzen au. Anartean beste oriek egalak ditie bizkarrean; ez ditzak nekatu egi-billa; ez dite olakorik gogoeman amar urtez etagutiagoz ere».

Pontitian mintza-bitartean, ene barrena ola karraskatzen zan eta lotsa izugarritz betetzen nintzan. Iarduna bukaturik eta egitekoa, ua bere-ra ta ni neurera giñan. Zer ez niagon neure buruari! Zer bururakizunetz nun zigorkatu nere anima au, Zuri ondolik iarra zitzaizun! Onek oldar eta uka, baiña zuribiderik ez. Argibide guziak atereak eta aztertuak nitun, dardarako ixil batek niñedukan, eta erio-ikarak artzen nindun oitura ez utzi naiez. Ark nindun irotzen eriotzerañio.

VIII

Alipirekin baratzen. Augustiñen burruka beure buruarekin.

19. Artan, animaren izkutuan, ots, biotzean barna-burruka aundi ua pizarazi nularik, eraso diot, Alipiri, aurpegiz bezain gogoz asaldaturik. «Zertan gizak? Zer entzun duk? Ez-iaikiñek altxa tazerua ebasten dite; ta gu, geure iakite zentzugabearekin ona non iraultzen gizian aragi odoletan! Lotsa al gizak aintzinetik ioan aieri iarraitzeko, eta lotsa ez, ez iarraitzeko?».

Esatekoak esan nition, eta nere suak eraman nindun arengandik. Arriturik begira zegokidan ixil, oi ez bezala mintzo bainintzan. Esanak berak baiño agertzenago zuten ene barrena bekokiak, loek, begiek, mar-goak, mintzaerak.

Gure etzalekuan baratzeño bat zan; an etxean bezala giñabiltzan, etxe-iauna ez baitzan an bizi. Ene biotz-eragiñak ara eraman nindun, enekin asitako burruka niork eragotzi etzekidan. zuk zenekin nora atera nendiken; nik ez. Zoratzen nintzan senda-naiez; iltzen nintzan bizi-naiez. Ba nekin zein gaizto nintzan, eta ez nekin zer onik ninteken berela.

Aldegin dut bada baratzer, ta Alipi nere ondolik urratsez urrats. Ez nuan arekiko isilgorderik. Nola utzi ninduken gaxoaldi artan? Eseri giñan al bezain etxe-urrun. Intzirika ari nintzan ene buruarekin asarrerik aundienean Zure nairik ez nengilako, ene Iainkoa, Zure elkargotik alde nindagolako; artara baininderagiten ene ezurak oro oiuka, Zu zeruraiño goretsiz. Bide ua ez nuan ontziz, zaldiz edo oinez eginbearrik, ez, etxetik baratzeraiño ibili ere. Ara ioan ez ezen etorri ere ez zan ioan-naia besterik; baiñan azkar eta osoki; ez naikari erdi-zauritua, an emen eragiña ta iñarausia, erdia altxa ta beste erdia erori burruka ari dana.

20. Kezka artan, zer keiñuak egiten nitun ene gorputzarekin! Zenbait aldiz gizonak nai ta ezin, besorik ez balute bezala, edota lokarriz loturik edo gaitzez askaturik edo nolabait eragotzirik daudenean bezala. Illeak erauzi, bekokia io, eriak antxumatuz belauna besarkatu egiten ba nuan naita egiten nuan. Nai bai ta egin ez ba ziteken, ene azbegek men egin ez ba lute. Ene nai ukana ta aal ukana zenbatetan etziran berdin! Ez nuan egiten milla aldiz atsegiñago nukena, ta nai orduko aal nenzaken; berela nai ezkeron nai ukaitea baitzan. Almen eta naimen bat ziran, eta nai ukaita, egitea zan. Alare ez nuan egiten, eta gorputzak aisago zegion men gogoaren naikari mengelari, animak bere naikari aundiari baiño, naimen utsean egin bearrik ere.



IX

Animaren gaitza. Nai, ta ez oso nai.

21. Nondik arrigarri au? Eta zergatik? Argi naza Zure errukiak eta galde bezaiet gizonen kastigu izkutueri ta Adanen semeen samin txit beltzilluneri. Nondik arrigarri au? Eta zergatik? Animak gorputzari agin, onek berela men egin; berak berari agin, uka egin. Animak eskua igitzeko agintzen du, ta ain errez egiten du, agin eta egin osta baititezke berezi. Eta anima anima da ta eskua gorputz. Agintzen du animak animak nai dezan, eta bat bera izanik, ez du egiten. Nondik arritzeko au eta zergatik? Nai ukaiteko agintzen du, naski, nai ez balu ez bailezake agindu, eta agin-durik ez du egiten.

Ez du oso nai; beraz ez du oso agintzen. Nai-neurrian agintzen baitu, ta nai-ez-neurrian ez du egiten agindu ori; naimenak agintzen baitu nai ukaitea, berak, ez bestek. Ez du beraz osoiki agintzen; beraz agindurik ez da. Agindu osoa baliza, agindu bearrik ere ez luke, egiña baititzake.

Ez da beraz arrigarri, alde z nai ta alde z ez nai ukaitea: animako gaitz bat da, oituraren zamapean egiak ez baitu osoan zutiarzaten. Ortatik bi naikari, bakoitza oso izanik, batari eskas zaiona besteari baitatxikio.

X

Bi naimen ditugu, baiñan ez bi etorki edo izate. Anima zatitzen da.

22. Itzali bitez, Iainko, Zure aurpegitik, «itzontzi ta lilluratzaille bezala» (Tit. 4. 10), erabakitean bi naimen sumaturik, bi etorki ere ditugula, bata on eta bestea gaitzo diagoten oriek. Berak dira egiz gaitzo, ola uste ukaitean eta berak ditezke ere on, egi idukitzen badute ta egizaleekin badabiltza Apostoluak diagon bezala: «beinola illunbe zintaten; orain, aldiz, argi, Iaunagan» (Eph. 5, 8). Oriek berriz Iaunagan ez, baiña beregan argi izan nairik, animaren etorkia Iainko dalakoan, illunbe beltzagoan gertatu dira, Zugandik urrunago ioan baitira aundimin izugarritz; Zu baitzera «mundura datorren gizon oro argitzen duzun argi ziña» (Io. 1, 9). Begira zer diagozuten; ezazue lotsa, «urbil zakioe ta argituko zerate, ta aurpegia ez zaizue gorrituko» (Ps. 33, 6). Aspaldi bururatu nunez, Iaunaren morroi izatea erabaki nai ukaitean, ni nintzan, bai nai ta ez nai nuana. Ni nintzan, ni. Ez nuan oso bai-nai ta ez-nai. Onela ari nintzan burruka neronekin eta neronegandik zatituz. Zatitze au gogoz beste gertatzen zitzaidan, baiñan etzidan beste anima baten etorkirik salatzen; bai

nerearen nekea; ez naski nik neroni emana, baizik eta nigan zegon bekatuak, naiagoz egiñarenak. Naimen aien bezainbat etorki aier balin badira elkarrekin, bi baiño geiago dira. Norbaitek auta nai baleza, manestarre biltzarrera ioan ala ikustegira, ola diagote: «or bi-etorki: onak onata dakar, gaitzoak arata derama. Nondik bestela bi naimen aier orien ezbaia?». Biak derizkiote ona. Zer bada? Gutan batek, auta-naiez, bi naimen aierrekin ez-mezean badago, ikustegira ioan ala Elizara, aiek ez al leudeke ez-mezean, zer erantzun? Nai eza aitortuko dute, ots, gure Elizara naimen onez dala ioaiten, Sakramentuetaz gantzuturik an daudenak bezala, edota bi etorki gaitzo baietsiko ditute ta bi anima gaitzo gizon berean; eta aiek diagotena ez diteke egi, ots, bat on eta bestea gaitzo; edota egira datozke ta ezin uka, autatzean, anima bakarra zenbait naimenek daragitela.

24. Beraz, gizon bakarrean bi nai-ukaite elkarri aier dirala ikustean, ez bezate esan bi zerki aierretatik edo bi etorburu aierretatik datozen bi anima dirala: bata on eta bestea gaitzo. Zuk gaitzesten dituzu, Iainko egiati, Zuk gezurtatzen eta ixiltzen. Onela, bi nai-ukaite gaitzo autatzekoan, adibidez, gizona edenez ala burdiñez il, olakoren ala alakoren landa ebatsi, biak al ukan ezker; atsegiñez lizunkeria erosi ala dirugosez dirua gorde; zirkura ioan ala ikustegira, biak egun berean gertatuz; oraiño, besteren etxean ebas-tea, al baledi; urrena, ezkon legea auste, aukera dalarik; azkenik, nai-ukaite oriek oro une berean gerta balediz —ez baititezke batean egin— zatitzen dute anima lau edo geiagoko nai-ukaite oriek, ainbeste gauza ukan nai baitugu. Eta alare ez dute aitortzen beste oinbeste zerki ta etorki diranik.

Orobat nai ukaite onetan ere. Esan bezaidate: Apostolua irakurtea on al zaie, naiz Salmu soilla, naiz Ebanjelioa? «Bakoitzari on zaigu» erantzun dezakate. Zer beraz? Guziak berebat atsegiten badute ta une berean, nai-ukaite bixiko oriek ez al dute giza-biotza bereganatzen, zeri eldu auta bitartean? Guziak dira on eta elkarri aier, bat auta arteo; askotara zatika zegon naimena bat artara oldartzen dan arteo.

Ala berean, goitik betierak gu erakartean eta beitik emengo atsegiñak gaduzkanean, anima bakarra da, au edo ua nai baitu, ez nai osoz. Orregatik zarratatzen da oiñaze izugarritz, egiak bat autarazi, ta oiturak bestea ez utzarazi.

XI

Augustiñek berandutzen: griñak marmari egiten.

25. Gaitz eta oinaze oekin nindabillan, neure burua oi baiño zorrozkiago salatuz, nere lokarrian itzulka ta indarka, oso eten nezan arte.



Utzixe nindun; iduki alare. Zu ari zintzaidan oraino, Iauna, nere barnean, bildur-lotsaen zartzailu gogor urrikaltsuz, azken-ari aul ua eten gabe geldi ez nendin, berritzearekin ni bizkorrago lotu ez nindezan. «Berela noa, berela noa» niagon ene baitan, eta itz oekin batean zoan ene naikaria. Egintxe nuan eta egiten ez; ez nintzan lengoan erorten; egitear eta arnas artzear nindagon. Berriro aletin eta gutixago nindagon artan, gutixago; ukitzea eta eltzear. Artan ez nindago, ez nion eltzen, il ala bizi ez nekila. Gaitz zarragoak indar geiago zun nigan oitura obeak baiño. Eta beste gizon biur ninteken une ua urbillago, ta ni izutuago; ez nindun ordea giberazten, bai berantarazten.

26. Aspaldiko berrieten berrietak eta aizekerien aizekeriak niñe-dukaten, eta aragizko soiñekoa iñarrausten zidaten marmarika: «Uzten al gaituk? Oraintxetik ez gaituk irekin sekulako; oraintxetik etzaik zillegiko, ez au, ez ua, sekulako». Eta zertzuk ziran, ene Iainko, zertzuk ziran *au* eta *ua!* Aiza detzala neregandik Zure errukiak. Zer likiskeri idarokitzen zidaten! Zer lotsaizun! Entzuten nitun, ez erditaraño ta gutiagorik ere, ez, naita elkarren aier zetozela; baiñan, atzetik xuxu muxuz, igesi, ta ximiko aulez bezala, itzul nendin. Aiek eten eta iñarrausi ote nindagola, berantarazten ninduten deitu tokira iauzteko; oitura bortitzak au esaten baitzidan: «uste al duk ordea gabe egoiterik?».

27. Txit epelki esaten ordea. Aurpegia itzuli nuneko —eta ni osorik itzultzea bildur— an agertzen zitzaidan garbitasunaren dedu ederra, arrai, ez pozkario tzarrear, oneski legunduz, ezmezik gabe etorri nendin, eta ni artzeko ta besarkatzeko besoak zabalduz, eskuak eredu onez beterik. Ainbeste neskato, mutiko, ainbeste gazte ta adin guzietako, alargun agurgarri ta birkin urtezu, eta guzietan garbitasuna, pozez ernari, ez agor, Zu, Iauna senar zaitutela. Eta irri egiñez ninderagin, au esanez bezala: «oiek eta aiek egin zutena ik ez al dezakek? Oriek eta aiek, beren Iaun Iainkoagan ez eta berengan al diketek? Aien Iainko Iaunak emana nizaio. Zertako ago ekurugaitz? Aurtiki adi lasai; artuko au ta sendatuko». Eziñago lotsa nintzan, oraino entzuten baintun berriketa aien marmariak, eta zalantzan nindagon. Entzun-uste nuan berriz ere: «Adi elkor, lurreko lizunkeri aientzat, moteldu ditezen» (Col. 5, 3). «Atsegiñez mintzo zaizkik, bañan ez Iainkoaren legekkoz» (Ps. 118, 85). Eleta onek nerau nindun aier biotzean. Alipik, ene alboari iosirik, ez-bezelako nere biotz-eragiñen ondoria ixil zigurikan.

XII

«*Ar eta irakur, ar eta irakur*». Augustiñ, Alipi, Monika.

28. Ene gogoeta sakonak ene zarpilkeri guzia barnenetik begien aintzinean eman zidalarik, ekaitz izugarria sortu zitzaidan, negar-euriarekin. Alipigandik alde egin nuan intziri ta guzi ixur zedin, arekin egona gaitzi baitzitzaidan, eta bakartasuna egokiago negar egiteko. Nola nindagon ezagutu nindun. Ez dakit zer esan nuan ene mintzoa negar-ernari ageri baizan ene ustez, eta ieiki nintzan. Ua gu eseri tokian gelditu, arri ta belarri egiñik. Ni piku-ondo batenpean etzan, ez dakit nola, ta malkoeri ataka zabalduz, zurrustak atera ziran, Zure gogoko opari, eta olatsuko itzekin asi nintzan: «noiz arte, Iauna, noiz arte zakiket asarre? Ez etzazula gogora nere lengo gaiztakeiak» (Ps. 78, 5); sumatzen bainun oraino ba ninedukatela. Oiu errukarriak ateratzen nitun: «Noiz arte, noiz arte biar eta biar? Zergatik ez da orain ene lizunkerien azkena?». Auek esanez negar zeridan biotz-erdiratze samiñez, eta ara non, auzo-etxetik lelo bat dut entzuten bein eta berriz, ez dakit mutiko ala neskatorena: «ar, irakur, ar, irakur». Berela, aurpegia aldatuz, al guziz asi nintzan gogo-iraulketa, olako lelorik iostetan ematen ote zuten, eta ez nuan gogora beñiere alakorik entzunik. Negar-iturria galgaturik, ieki nintzan, ustez eta Iainkoak etzidala besterik agintzen, ots, liburua idekita, lenik atzematen nuan atala irakur nenzala. Entzuna bainun, Antonek Ebanjelioa irakurriz, ustekabe gertaturik, berrari esana bezala artu zula irakurten zun au: «oa, sal etzak ditukanak, emaikiek landerreri, eta badukek altxorra zeruan; ator eta iarrai akit» (Mt. 19, 21), eta mintzo onek biurtarazi zula Zugana.

Ala, lasterka itzuli nintzan Alipi zegon tokira, an utzi bainun Apostoluaren liburua andik aldegittean. Artu nuan, zabaldu, ta ixilik irakurri, lenbizi gerta zitzaidan atala: «Ez ian-edanean, ez mozkorkerian, ez oeko lizunkerietan, ez eletan eta bekaizkerian; iauntzi ezazue Iesukristo gure Iauna, ta ez axola aragiaren lizunkeriz» (Rom. 13, 13). Ez nuan geiago irakurri, ez bearrik ere. Berela esan orren azken-itzetan ene biotzean zabaldu argi seguruz ene ezbai guzien laiñoek igesegin zuten.

30. Artan, eriak edo beste zerbait orri tartean ezarririk, itxi nuan liburua, eta aurpegi narez, gertatua Alipiri adierazi. Ari zergerta zitzaion nik ez bainekin, onela agertu zidan. Galdetu zidan zer irakurri nuan; nik erakutsi, eta nik baiño arataxego irakurri. Ez nekin nola iarraitzen zun. Au zan iarraikizun: «siñestean aul dana, ongi arrazue» (Ib. 14, 1). Ark beretzat artu zitun itz ok, eta neri aitortu. Aholku artaz bizkorturik, bere lengo



oituren araura —nik baiño obeak baitzitu— asmo ona ta gogarakoa artu zun, batere kezka larririk eta ezbairik gabe.

Andik amarengana goaz, ola ta ola gertatu zitzaigula. Aren poza! Ialki diogu nola. Poz-iauzi dagi ta garai-keinu. Onesten zindun Zu, «guk eskatu ta uste baiño geiago ematen baituzu» (Eph. 9, 20); negar intziri urrikariz ark eskatu baiño ere geiago eman zeniola baitzekusan. Biur ninduzun Zugana, ainik eta ez bainun ez emazterik ez gizarteko itxarokizunik opa, oinbeste urte lenago Zuk agertu zenion siñes-legean egon nendin. Aren negarra poz aragizko birlobengandik zitxaroken baiño maitekiago ta garbikiago.

BEDERATZIGARREN IARDUNA

I

Eten ditu Iaunak Augustiñen kateak. Iainkoaren atsegiña sartu zaio barnean atsegin diranak baiñon atsegiñago.

1. «Iauna, ni Zure morroi, ni Zure morroi eta Zure neskamearen seme. Eten dituzu nere lokarriak; Zuri eskeiñiko dizut gorets-opari» (Ps. 115, 16). Goretsi zaitzate nere biotz-mihiak, eta nere ezurrek oro esan bezate «Iauna, nor Zu ainiakorik?». Esan bezate ta Zuk erantzun eta esan ene animari: «Ni nauzu osasun» (Ps. 34, 10). Nor ta nolako ni? Zer gaiztorik etziran nik egiñak ezperen esanak, edo esanak ezperen ene nai-ukaita! Zu, aldiz, Iauna, on eta urrikaltsu. Nere erio-zorroa ikusirik, Zure eskuak biotz-barrenetik osiña bete ustel atera dit. Zer zan guzia? Nai nunik nai ez, eta nai zenduna nai ukaitea.

Non zan ain aspaldi nere autamena eta zein isilgorde barrenetik deitu zenun lipar batean, Zure uztarri biguiñari lepoa uzkuartzeko eta Zure zama ariñari bizkarra makurtzeko, Jesukristo «nere laguntzaille ta Erosle?» (Ps. 18, 15) Zein goxo gertatu zait betbetan uskei atsegiñak ustea! Galtzea bildur nuan, baiñan bialtzea poz! Iraitzi zenitun, Iauna nergandik, egizko atsegin eta gain gaiñeko zerana. Iraitzi zenitun, eta aien ordeze Zu sartu, atsegin oro baiño atsegiñago; ez aragi-odolentzat. Argia baiñon argiago, baiña gordeleku oro baiño gordeago, goi-mail oro baiño gorago, baiñan ez, goramin diranentzat. Orduko iare zan ene anima opa eta ukan-kezaen ausikietatik, lizun-atsa iraultzizka atzegitetik. Zuri nindagozun xintaka, ene argi, ondasun eta osasun zakidan Iaungoiko Iaun Orri.

II

Irakasle izatea uzten du, urtea bukatuta.

2. Ele-merkatutik zalaparta gabe emaro aldegiñik, mintza-maisuagoa uztea erabaki nuan; Zure legea ta pakea ez, baiña gezur zoroak eta auziburrukak buruan zerabiltzaten gazte aiek beren asarrerako nere agotik armarik erosi etzezaten. Ain zuzen oso egun gutti ziran peitu mahasketa arorako, eta ordura arteo irautea erabaki nuan ikas-urtearekin aldegitoko, Zuk ni erosirik, salgai gerta ze nendin.



Zuk zenekin gure asmoa; gzonek ez, gureek besterik. Elkar arturik giñauden nonai ttar-ttar ez esateko. Alare «negar-ibarretik gora zurubikanta lelokatz gindoazala» (Ps. 119, 3), ba genitun, Zuk emanik, gezi zorrotz eta ikatz kixkalgari, mihi maltzurrentzat. Oek aholku-antzean iorratu egiten dute, ta maitekiro iretsi, ianaria oi danez.

3. Zure maitez biotza geziztatu zenigun eta Zure itzak erraietan iosiak generamatzin. Zure mirabeen ikasbideak buru barrenean bildurik —beltzetik zuri ta illetik bizi egin baitzenitun— gure zama astuna erre ta kixkaltzen zuten, gu ondarrera ioan ez gintezen, eta mihi-maltzur maxiolariak itzali ordez bizi berotzen ginduten, biziago sutu gintezen.

Alare, Zure izenagatik —mundu zabalean saildu baitzauzkate— nere asmoa ta erabakia zenbaitek goresgarri zuten arren, arrokeri ziduriken berelako oporraldia e igurikatzea, eta begi guzien aintzinean zegon lanbidetik alde egitea. Guziak enegana bihurturik, oporraldia aundinaiez aintzinarazi nula ta abar ziagoketen. Nere asmo ortaz zertako sortarazi eleketa, eta «nere izena itsusarazi?» (Rom. 14, 16).

4. Are geiago: uda artan berean, lan geiegiz, birikenak io nidun, eta bular-miñez eta as-nekez, mintzorik ezin garbitu nuan luzeko. Kezkatu nintzan lenbizi, maisugo astuna ia bortxaz utzi bearko nula, edo eten bederen, sendatu edo bizkortu al banendi. Baiña Zurekin opor egiteko ta Zu Iaun zerala ikusteko nai osoa sortu ta bizkortu zitzaidalarik, pozten ere asi nintzan —badakizu, Iauna— apuko ori ere banula, ez gezurrezkoa, gizonen asarrea ez titzeko, beren semeengatik ez baininduten nai aizu.

Poz ortaz beterik bada, bitarte ua —ez dakit ogei egun ote ziran— iraupenez neraman, baiña nekez, lengo irabazi-naiak aldegin baitzidan, —ari esker oi neraman— eta iraupen ori sortu ez balitzaida, zamapean nindagoken.

Zure morroi dan ene anaiaren batek oben egin nula esan lezake, biotz osoz Zure morrontzan sarturik, ordu bete ere gezur-aulkian eseri nintzalako. Ez nago bestera. Baiñan zuk, Iaun txit urrikaltsu Orrek, ez al didazu bataio saildian barkatu oben au ere beste lazgarri ta erioagarri aiekin?

III

Berekun kezketan Augustiñen lagunartea utzi bearrez. Artean zerura doa. Nerbidi, aldiz, pozten da: ua ere: zerura.

5. Berekun kezkaz igartzen ari zan gure on ontaz, gure lagunartea utzi bearra baitzekusan ertsi zedukaten lokarriengatik. Bera kristau ezik, emaztea bai, onek berantazten zun beste edozerk baio areago, gure bidea-

ri lotu zedin. gisa artara, bestetara ez omen zun kristau izan nai, ezin zuke-la. Alare, an giñaudefio, arenean egoteko esan zigun goxo goxo. «Emaiozu ordain, Iauna, zintzoen piztean» (Lc. 14, 14), eman ere baitiozu aien zori bera. Erroman giñala, gugandik urrun egon arren, gaitzak iorik eta kristau zintzo egiñik, ioan zan bizi ontatik bestera. Onela, gutaz ez ezen artaz ere urrikaldu ziñan, alako adiskide begikoa Zure artaldean etzala gogomanik, min gogorrez oiñazetu ez gendin.

Esker zuri, gure Iainko. Agintzaile zintzo Orrek, berekuni bade-maiokezu Gaztamendiko landa aren ordez —munduko griñetatik an atsedan baikenun— beti eze dagon Zure atsedengua. Pekatuak an barkatu baitzenitun, mendi gaztadun artan, Zure mendi gizen artan.

6. Ua kezketan zegon, baiña Nerbidi pozetan gurekin. Orañio kristau ez zalarik gezur-zulo galgarri artara erori baitzan, ots, Zure Semearen egizko aragia idurizko zala uste; andik aterarik, ordea, Sakramentu bat ere artu gabe, artan zegola, egi billa sutuki zebillan. Au ere, bataioaz zure griñanetik ez askoz geo, katoliko zintzo, garbitasun eta eliku osoz morroi zitzaizula, Afrikan, bere etxeok kristau egiñarazi ondoan, gorputzetik atera zenun.

An bizi da orain «Abrahamen altzoan» (Lc. 16, 22), altzo ori zer baita ere; an bizi dut adiskide Nerbidi, ene adiskide kutun, bein bere esku zaneko Zure semausti. Non dagoke bestetan? an bizi da, ango zernai berri galdegin oi baitzidan gizagaixo ez iakin oni. Ez du aurrera belarria ene agora urbiltzen; gogoaren aoga zure iturriara bai, eta edaten du aal bezainbat ain irrika dun zugurtze ua, azkengabeko doatsu. Etzait iduri ni aantzeko einen artaz mozkor danik. Zu, edanarazten diozun Iauna, gutaz oroi baitzira.

Ola giñauden Berekun alaiarazi naiez, adiskidegoa eten gabe, eta bere bizieran, ots, ezkon-bizian siñestera etor zedin. Nerbidiren begira, berriz, gurekin noiz etorriko. Ber-bertan etortzear giñedukan, eta egun aiek ere bukatu ziran. Luze ta aunitz zirudizkidan, ene barne-muiñetatik au kantatzeko asti gozoa bainun; «ene biotzak esan dizu: Zure aurpegi billa ibili naiz; Zure aurpegi billa ibiliko ere, Iauna» (Ps. 26, 8).

IV

Iaunak Augustiñen bide makurrak zelaitzen ditu. Dabiden Salmuek bizkor eragiten diote. Zenbait esaera gogogarri.

7. Etorri zan, mintza-irakasgoa egiñean utzi-eguna; gogoan utzia bainedukan. Atera zenun, bai, mihia, biotza atera zenun artatik. Zu onetsiz pozik ioan nintzan ene guziekin landetxe artara.



An ele-ederretan nola ari izan nintzan —Zure serbitzurako ziran, Iauna, baiñan atsedean artan ere eskolako arrandia zeriten— lekuko dira lagunekin eleketa eta nere bakarrean Zure aintzinean egin nitun liburuak; Nerbidi aldegiñik egin nitunak, gutunetan ageri dira.

Eta noiz duket asti, orduko Zure onegin guzietaz oroitzeko, batez ere aundienetaz oroitzeko, iradu bainaiz? Oroimenak nitaz oroitarazten nau, eta gozo zait, Iauna, Zuri aitortzea zer barne-zintaz ezi ninduzun eta nola zelaitu zenitun ene burukerien tontorrek, eta bide makurrak zuzendu eta latzak legundu; nola uztarpera zendun ene biotzeko anai Alipi, Iesukristo Zure Senibakar, gure lagun eta Osasun danaren izenera, len ez baitzedukan Au aintzat nere idatzietan. «Jaunak xeatzen ditun izai» (Ps. 28, 5) aundien eskola-usaia maiteago zu, suge-ozka sendatzen duten Eliz-belar osasungarriena baiño.

8. Zer eiagorak egin nitun, ene Iainko, Dabiden Salmu oriek, siñes-lelo oriek, arrandia aizatzen duten doñu zintzo oriek irakurtean, Zure maitasun iatorrean landugabe, landetxean kristaugai opor, Alipi kristaugaiarekin. Ama gurekin genun, iantziz emazteki, siñestez gizaki, zaar otzan, maitasunez ama ta zintzotasunez kristau. Zer eiagorak Salmu aietan, eta nola pizten eta sutzen nintzan, aal banu mundu guzian aiek errezarazteko, gizadiaren aundimiñaren aurka! Mundu zabalean kanta oi dira, ain zuzen, eta aien berotik ez diteke iñor gorde. Zein bizi ta samin asarretzen nintzan manestarran aurka eta erruki nintzaian, ez baitzuten sendagai izkutu aien berririk, eta zoraturik baitzeuden osa zetzaken osagaien aurka. Orduan aiek nonbait ene ondoan egotea nai nezaken, eta an zeudela nik ez iakinki, ikus zezatela nere aurpegia, entzun zetzatela nere oiua oporraldi artan, zer egin zidan laugarren Salmu arek, irakurri nunean: «Deitu zindudalarik entzun ninduzun, ene Iainko zuzena; lorraldian zabaldu ninduzun. Erruki zakit, Iauna, eta entzuizu ene otoitza» (Ps. 4, 1). Entzun zezaketen zentzutela ni baitaratu gabe, tarteko itzak aiengatik esaten nitulakoan; ez baintun esanen; eta esanik ere, aiek nindentzutela oartu banintzan, ez nik esanen eta ez aiek artuko ere, enekiko ta enetzat Zure aintzinean bioz-barrenetik esaten nitizun bezala.

9. Ikara latzetan nindagon, eta berebat sutu nintzan, Aita, Zure urrikia itxedonez eta artan poz-iauzi eginez. Begi-agoetatik ateratzen zekizkidan, Zure ats onak gugana biurturik esaten baitigu: «Gizasemeak, noiz arte biotz-astun? Zergatik duzute maite aizekeria, ta gezur-billa zabiltzate?». Aizekeriak esana nintzan eta gezur-billa ibilia. Zuk, Iauna, aundi egin zenun Zure saildua, illengandik pozturik eta Zure eskuinean ezarririk; goi artatik igorriko baitzun agindu zun «Poz-emailea, egiaren atsa» (Lc.

24, 49). Bialdu zidan eta nik ez ezaguten. Igorrizun, aundi gertatu baitzan illen artetik pizturik zeruetara igoaz. Artean ats ori ez zan emana, «Iesus ez baitzan oraiño goretsia» (Io. 7, 39). Oiuka ari da Profeta: «noiz arte biotz-astun? Zertako duzute maite aizekeria ta gezur-billa zabiltzate? Iakizue Iaunak bere saildua aundi agertu dula» (Ps. 4, 3). «Noiz arte» diago, «iakizue» diago, eta nik ain luzaro ez iakinki, aizekeria nuan maite ta gezur-zun nindabillan. Orregatik, entzutean ikarak artu nindun, ni izan nintzan bezalakoeri esaten zitzailea baitarazten bainintzan. Egitzat neduzkan idurikizun aietan, aizekeri ta gezur zegon. Ene oroipen samiñak alako oiua bizkorrek zeragizkidan. Entzun ai litute, orain arte aizekeria maite ta gezurra nai dutenek! Naasi litezke ta okazta lezakete guzia, eta «Zuri deika», entzuten zenituke, gugatik egiazko eriotzez «il baitzan gure alde otoika ari dana» (Ro. 8, 34).

10. Irakurten are: «asarre zaitezte ta ez egin oben» (Ps. 4, 5). Itzok nola ninderagiten! Ikasi bainun lengoaz neure buruarekin asarretzen gerokoan oben ez egiteko; eta bidez asarretu, nigan eez baitzun oben egiten beste etorki beltz batek, naiz eta ala esan beuren buruekin asarretzen ez niranak, eta «Zure asarrezko epai-egun zuzena agertzen daneko Zure asarrea metatzen ari diranak» (Ro. 2, 5). Ene ona etzegon nitaz landa, eta ez nindabillan aren billa eguzkitan aragi-begiz. Begi gose auek gutaz landa poztu nairik errez galtzen eta berreiatzen dira ikuskarietan, eta irazeko dira; idurikizuna milikatzen dute. Eta gosez akitzen balira ta esan: «nork erakutsiko digu on dana?» (Ps. 4, 6) esaiegun eta entzun bezate: «Zure aurpegi-argia guban agertzen da, Iauna». «Ez baikera gu gizon oro argitzen dun argi; zuk argitzen beikaituzu, len illun giñanak noizbait Zuban argi gaitezen» (Eph. 5, 8). Ikus balezate barneko betiera au! ni urduri nindagon, aiei ez bainezaiken erakutsi nik iastatu nuna. Biotza begietan ai lekarikidate Zugandik landa, ta esan: «nork erakutsiko digu on dana?». Neure buruarekin ni asarretu toki artan, damua ukan nuan gela barne artan —ene gizaki zarra illun an opari egin bainizun, eta neure buruaren berritze-ko gogoeta Zugandik itxedon— an asi zitzaidan ezti agertzen eta biotza pozten. Eta oiua nengin au nitaz landa irakurriz eta barnean ezagutuz; ez nuan lurreko ondasunetan barreiatu nai, astia iretsiz eta ark ni; bainun beste goriak, ardorik eta oliorik betiera soil artan.

11. Eta urrengo txatala irakurtean biotz-oiua aundiaz niagon: ai, *pakean*, ai, *Argan* (Ps. 4, 9) ai, zer esan du? *etzanen naiz eta lo artuko*. Nor oldartuko zaigu arako idatzi ua gertatzen dalarik: «eriotza urrupatu dute garaitzean?» (I Cor. 15, 54). Zu, aldatzen etzeran Uaxe zera, ta nekeak aazten ditun atsedena Zuban dago; besterik ez baita iñor Zurekin, ez eta



Zur etzeran ezer ukaitekorik; Zuk ordea, Iauna, eman didazu itxaropide bereizia. Irakurten nuan sutzen nintzan eta ez nuan arkitzen zer egin il sogorrekin —aietako izan bainintzan— izurri gaizto ni, saunkagille min eta itsu, Zure argiz argi diran zeru eztizko liburu ezti aien aurka; eta aien etsaiek erkitzen ninduten.

12. Noiz oroituko naiz opor-egun aietako guzietaz? Ez naiz aantzi ere, ez dut ixilduko Zure zigorraren latza ta Zure errukiaren arrigarrik lasterra. Ortzetako miña eman zenidan, ezin mintza nindekeño, eta an zeuden ene guzieren nere alde otoitz egiñaraztea gogoak eman zidan, Zuri, osasun guziren Iainkoari. Ezkoan idatzirik eman nien irakur zezaten. Berela, biotzez belauniko giñaneko, aldegin zun oiñaze ark. Zer oiñaze ordea! Edo nola aldegin zun? Izutu nintzan, aitortzen dut, ene Iauna eta Iainko; olakorik ez baitzaidan gertatu aurtzarotik. Zuk naia biotzaren erdiraño sartu zitzaidan, eta siñestearen pozez goretsi nuan Zure izena. Siñeste arek ez nindun uzten iragan pekatuetan nare egoiten, oraiño ez baintun bataioz barkatuak.

V

*Uzten du Augustiñek beure maisuga. Amburusi Gotzaiak
Isaias irakur dezala lenik esaten dio.*

13. Oporraldi biaramonean gatziratu nien Milandarreri, beste ele-saltzaile bat auta zezatela; nik Zure morroi izatea autatu nula, ta beste artarako ez nintzala gai as-nekez eta bularreko miñez. Adierazi nion idatziz zure Apezpikuari, Anburusi gizon sainduari, lengo burubideak utzirik orain artu nuan asmoa, Zure liburuetarik zeintzuk batez ere irakurri bear nitun esan zezaidan, ainbesteko grazia artzeko gaiago nendin. Isai profeta agindu zidan naski; nonbait, iñork baiñon argaigo iragarten baitu aintzinadanik Ebanjelioa ta siñesgabeeri deia. Nik, ordea, lenengo irakurraldia ez ulertzen eta gaiñerakoa olakoa zala ustez, geroko utzi nuan, Iaunaren izkuntzara oitu arteo.

VI

*Adeodat, Augustiñen semea. Aren doaiak. Gazterik iltzen da.
Augustiñi goxo zaizkio Salmuek eragindako malkoak.*

14. Izena eman ordu zalarik, landa utzirik Milana itzuli giñan. alipik ere nerekin ernaberritu nai zun Zugan, Zure sakramentueri dagokien iantzi apala iantzirik; eta beure burua ezteko, oin-utsik zoan Itoliko lur izoz-tuan, izugarri bizkor. Eratxiki zitzaigun Adeodat aurra ere, nere aragizko bektuz sortua. Zuk ongi egiña zan. Amabost urte osta zitun, eta buru argiz, gizon adiñeko ta ikasi zenbait baiñon areago zan. Zure ukanak aitortzen ditut, ene Iauna eta Iainko, guzien egille, ta gure maketsak berdindu detzakena. Aur arengan ez baitzen nererik, bekatua baizik. Zure ikaskizunetan azi bagenun ere, Zuk argiturik egin genun; ez bestek. Zure emaiak aitortzen ditut.

Bada nere liburu bat, *Maisua* deritzona. Artan, seme au Zuri mintzo zaizu nerekin. Elkar-izketa artan esanarazten ditiodan bururakizun oro arenak dira, amasei urte zitula. Arrigarriagoak ere ikusirazirik nauka. Ikaratzen nindun aren argitasunak. Nork, zu ezik, mirakuilu aien egille? Gazterik eraman zenun emendik; eta nareago oroitzen dut, ez baitut bildurtzekorik aren aurtzaroaz, gaztezaroz eta bizi guziaz. Zure grazian adiñeko bezala artu genun, Zure ikasguan eskolatzeko. Bataiatu ginduten eta iragan biziko kezka aldegin zigun.

Egun aietan ez nintza aspertzen Zuk gizadiaren osasunaz artu erabaki sakonak eztiro gogoematen. Zenbat malko, Zure eliz-mintzoak eragiñik, kantu ta soiñu gozo aien bidea! Mintzo aiek belarrira sartzearekin, egia an urtzen zitzaidan biotzeraño. Ala sutzen nintzan zugana, malkoak zerizkidala, ta goxo zekizkidan.

VII

*Salmuak kantatzeko oituran sartzen da. Iustina, Balentinian
Agintariaren ama.*

15. Mintzoz eta biotzez anaiak zudu aundiz kantatzeko oitura pozgarri ta erakargarri au asi-berria zan Milanen. Urtea zan, ez asko geigo, Iustina Belentinian Errege aurraren ama, Aritarren alderdia arturik, Zure gizon Amburusiren ondotik esetsika asi zala. Erri gaixoa, Eliz barrenan zetzan, Zure morroiarekin, beure Gotzaiarekin, iltzeko gertu. an bizi zan ene ama, Zure neskamea, otoitz egiñez, kezka ta gaualdi aietan aurrenetakoa. Gu, oraiño Zure atsak berotu gabeak, kupitzen giñan alare iriaren biurrialdi izugarri artaz. Ordun erabaki zuten, samiña sogortzeko ta ez aspertzeko, Sortaldeko oiturara eresi ta Saolmu kantatzea. Ordutik gaur-



daiño irauten du mundu zabalean, ango antzera, Zure artalderik dan tokietan oro.

16. Ordun, esandako Apezpiku ari ikusbidez agertu zenion Portasi eta Gerbasi martirien gorputzak non gorderik zeuden; oinbeste urtez Zure izkutuko gordeguan baitzendentuzkan. Andik mugonez atera zenitun, emazte ta are Erregiña zan aren amorrua itzaltzeko. Agerturik eta lur gaiñera aterarik, Amburusiren Basilikara, bear zan deduz zeramaztela, sendatzen ziran, ez deabru satsuak artuak bakarrik, auek aitortzen zutela, baita aspaldiko urteetan itsu egona, irian oso ezaguna; alako poza zer zan galdegin eta iakin zularik, iauzi egiñik, ara eraman zezatela, otoi, esan zion beure itsu-mutillari. Ara sarturik, utzi zioten izerdi-zapi batez saindu aien il-kutxa ukitzen, «Zure aintzinean eriotze baliotsua ukan baitzuten» (Ps. 115, 15). Egin zuneko, eta begietan ezarri, betbetan argitu zitzaizkion. Ots au zabaldurik, Zure gorespenak bero ziran, argi. Arrezkero, etsai aren amorrua iabaldurik, siñestera biurtu ez ba zan ere. Esker Zuri ene Iainko! Nondik nora erabili duzu nere oroimena Zu aitortzeko; aantzi baititun aundiagoak ere! Alare, Zure «gantzukien usaia ola zabaltzen zalarik, ez gindoan lasterka Zure ondolik» (Cant. 1, 3); orregatik negar egi-tenago nuan eresi aiek entzutean, len asperenka Zuri, orain atsa artuz, gorputz argal au bete bederen.

VIII

Monikak elaria maite txokoan. Neskameak salatzen du.

17. Etxean gogaide egonarazten gaituzun Orrek, lagun eman zenigun Euodi gaztea, gure erritarra. Erresuman ogibideko zala, gu baiño len Zugana itzuli ta bataiatu zan; eta munduko gudari-iantzia erantzirik, Zurea artu zun. Elkarrekin giñauden, batean bizitzeko asmo saindua artuz. Zure morrontzarako tokirik gisakoena zein ote genun giñabiltzan, eta Afrikara gindoazan. Gure ama, gu Tiberiko iz-agoan giñala il zan.

Beude gauza aunitz; arnaska bainoa. Ara etzazu nere aitortzapan eta esker on, ene Iainko, ixildurik ere, ezinkonta-ala gauzetaz. Oriek ixil utzirik ere, ar etzazu, nere Iainko, nere aitortzapan eta esker on. Ez dut ixilduko, ordea, Zure neskame artaz ene animak erdi al dezakena, berak erdi bainindun aragiz mundu ontara, gogo betiko argirako iaio-arazi nindezan. Ari Zuk emanak aipatuko ditut; ez baitzun beure burua egin, ez ongi azi ere; Zuk egin zenun. Aitamek etzekiten nolako gerta zizaieken. Zure bil-

durrean Kristoren zigorrak eskolatu zun, Zure Seme bakarraren azibideak, zintzoen etxean, Elizan, eliztar on bezala.

Ongi aziarazteko, amaren alegiña baiño gorespenago un neskame zaar batena, aren aita bizkarrean eramana baitzun, aurrak neskaandien bizkarrean bezala. Orregatik, eta zaar zalako, eta zintzo, angusiek aintzat zedukaten kristau-etxe artan. Nagusiaren alabatxoak ere begiratuki arretatzen zitun, eta aiek zentzaten aski gogor zan, bear zalarik, eta erakusten ein batean zugar. Otordukoan gurasoen maiean gartxu-gartxu oiturik, edariz itotzen bazeuden ere, etzien uzten urik edaten ere, oitura gaiztorik ar etzezaten, eta zugarri esaten zien: «orain ura edaten duzue, ez baituzue ardorik eskumendean; bein ezkondurik, ardangelaren iabe zeratenean, urak nardatuko zaitue, baiñan edateko oiturak menderatuko». Ola erakutsiz eta aginduz, gaztezaroko irrika galgatzan zien, eta nexkatoen egarria neurkiro ezten zun, eder ez danik opa ez zezaten.

18. Alare, seme oni aitortu zionez, ardomiña xurru-xurru sartu zitzaion. Oi bezala gurasoek kupelaren gainetik ardoa aterarazten ziotenean, kotxoa, ontzira gabe, ezpaiñez urrupatzen zun xorta bat. Ez zan geiagora ausartzen. Etzun ordikeriz egiten, baizik eta adiñeko litxarreriz, iosta-nai bizian. Zaarragoen bildurrak ustarka oriek ematen ditie aurre-ri, Baiña xorta ari egunoro xortak eratzikiz, —«pixkean zabar dana askoan erortzen baita emeki» (Eccl. 19, 1)— ardo-kotxo ia osoak titxirikian edaten ikasi zun. Non zan neskame zaar ua ta aren debekua? Zer balio zun, Iauna, Zure sendagairik gabe, gaitz ixil artarako? Aitamek eta uni-deek aldegiñik, Zuk, orotan baitzaude, Zuk deitzen gaituzu, Zu arigaituzu nagusiagoen bidez, animen osasunerako. Zer egin zenun ordun, ene Iainko? Nola arretatu? Nola sendarazi? Zure izkutuetarik ez al zenion attererazi beste noribait, burnia bezain zorrotz dan ahopaldi gogor sendagarrria, eta sastako batez ebaki ustelkeri guzi ua?

Kupelara laguntzen zion neskameak, etxeko andere arekin eztabaidan, gerta oi danez, uts au egotsi zion eletzar zorrotz onekin: «ordia». Ziztako orrekin beure itsustasuna ikusi ta berela gaitzetsi zun eta utzi.

Adiskide zurikatzaileek makurtzen gaituten bezala, etsai ziztazaleek zuzentzen gaitute iñoiz. Aien bidez degiezuna ez-baiñan berek gogo dutena ematen diezu. Neska arek, asarreturik, etxeko andere ua samiañarazi nai ukan zun; ez sendarazi. Orregatik ixilka egin zun, edo xokoan gertatu ziralako, edota berantegi salatuz bera ere bildur zitekela. Zuk, ordea, zeru-lurren Iaun eta Iabe Orrek, munduko ibai uger au burupidez garbitzen baituzu —mendeen iragaite zuzena baiña naasia— bataren



zorakeriz bestea sendatzen duzu, zentzarazi nai duguna zentza ditenean, geuren buruari egotzi ez dagiogun.

IX

Monikak eraman aundia du senarrarekin; au beriz asarrekor da, biotz ona izanik ere. Monika denekin pakegille.

19. Beraz, garbi ta gartxu, Zuk gurasoeri meneko zenegiela, ez gurasoek ua Zuri, ezkon-adiñera zanean, senarra nagusi bezala serbitu zun, eta Zuretzat irabazten alegin. Zintzotasun aren bidez egiten zenun eder, begirapenez maitagarri, senarrarentzat xoragarri. Ohaide berriekin ezkontza naasten zunean, ortaz ere etzion egundaiño akarrik egin. zureerrukiaren begira zegon, Zu siñetsirik Zuk garbi zenezan.

Ua beriz, txit biotz oneko zala ere, asarrekor zan. Onek bazekin, ostera, ez oldartzen, ez egñez, ez itzez. Pakeatzen eta ematen zanean, mugonez adierazten zion zoran geixko sutu bazan. Azkenik, andere aunitz, gizon otzangoak ukanik ere, ukaldiz aurpegia ubeldurik zekutsala, gizonen aurka adiskide-antzan mintzo ziran; ua aien mihiaren aurka; berariz, baiña benetan oartaraziz, ezkon-ituna irakurten entzutean, neska-me-agiri zala uste ukan bear zutela zesaien; beraz, beuren lerroari zegokionez, etzala on aieri gaiñak artzea. Arritzen baitziran nolako senar basa iasaiten zun, ez baitzun esaten ez aditzera emaiten Partirik beure emaztea io zunik edo egun bateko errixtarik ere ukan zutenik. Lagun-antzean galdegiten zioten zergatik, eta aintzintxe esan dutan arrazoina emaiten zien. Ala zegitenek eskerrak emaiten zioten, protxua ikusirik; etzutenek, zigorpean iarraitzen zuten.

20. Amaiarreba ere lenbizian neskame gaiztoen xuxu-muxuz amaren aurka asarretu zan; baiñan otzan eta goxo iokatuz, eta artan iraunez, ainbesteraño menderatu zun, berak saltzen baitzion semeari neskameen mihi gaiztoa, eta aren eta erraiñaren artean galarazten zuten pake-sari, ordaiñak emaiten. Semeak, amarekin zintzo izanez eta etxeko burubidea ta pakea begiraturaz, atzemanak atzemailearen gogara zigorkatu zitun. Amaiarrebak beste ainbeste eskaiñi zien, ari atsegiteagatik aren erraiñaz gaizki mintzo baziran. Arrezkero ez zan iñor ausartu, eta beuren artean onginai goxo gogoangarri batean bizi izan ziran.

Zure neskame ari —aren sabelean erne baininduzun, ene Iainko, ene erruki (Ps. 58, 18)— emai aundi au ere egin zenion: al zun tokian, asarreetan eta eziñ-etorrietan pakegille agertzea. Bi alderditatik zernai ele

zorrotz elkarren aurka esanak entzunik ere, etzion batarenik besteri salatzzen, onezkoak egiteko zana besterik. Bertako lagunari urruneko etsaiaren gorroto bizi itz samieñez agertzeko, alakoak korrokatzen baititute beuren biotz arrotik eta astunetik.

Au ez litzake izugarri, nonai zabaldurik dagon bekatuzko izurri laggarri au giza-saldoetan egunoro damurik ikus ez bageneza: etsai asarreeri etsai asarreen esanak salatu ez ezen, ez esaneri ez esanak eratziki. Gizon iator danarentzat ezer gutxi da, gizarteko asarreak ez piztea ez ezen, gaizki mintzatuz geitzea. Ongi mintzatuz itzaltzen alegin bear luke. Ola zan gure ama, biotzeko eskola irakatsi baitzenion Zuk, barneko maisu Orrek.

22. Azkenean, senarra ere irabazi zun ondar-egunetan, eta siñesgabe arengandik iasan zunaz e zan minduru siñestun egin zanetik. Zure morroien neskame ere zan. Ezagun zunak aintzat zedukan eta Zu goretan eta miatatzen zindun, aren biotzean ziñaudela sumatzen baitzun, bizi-tza saindua lekuko zala. Senar bakarraren emazte izanik, gurasoekikoa egin zun; etxea zintzo iaurri zun; beure egin onak lekuko zitun. aurrak aztean, aiek Zugandik aldegiñaldi oro erdi oi zitun. Azkenik, Iauna, Zure doaiez mintzarazten bainauzu, ua il baiño len bataioko grazia arturik elkarrekin bizi giñan guziok, erdi ginduzken eran arretatu gindun; gu guziok erdi genduken eran serbitu zigun.

X

Ostiako elkar-izketa zerutarra.

23. Mundu au utzi eguna urbil zula —Zuk zenekin, guk ez— daki-zun bide izkutuz, gu giñauden etxe barneko baratzera leiotik begira gertatu giñan bi-biok. An, Tiber akaldean, iendeenganik urrun, bide luze egiiñik, itxedonaldia genun itsasoz ioaiteko. Bakarrik geniardun, beraz, ema-amaro eta lengoak aantziz, geroari begira, egiazen aintzinean —ama Zu baitzera— Sainduen betiko bizia nolako diteken; «begik ez baitu ikusi, belarrik ez entzun, giza-biotzak ez sumatu» (I Cor. 2, 9), iturri biziaren urean biotz-agoa irrikaz zabaltzen genun, Zugan dan ango xortaz gure neurrian ihiztaturik, oinbesteko gauza nolabait asmatzen ote genun.

24. Ondorio ontara iritxi giñalarik, ots, aragizko zentzuen atsegiña —dan aundi dala, gorputz-dirdai aundienaz iantzia ere— bizi doatsu arekin ez zala alderatzeko ez-ezen, ez eta oroiteko ere, bera sutsuagoz Berarengan igorik, mukulukiak oro maillaz mail erabilli genitun eta zerua bera ere, andik ixurtzen baitute beuren argia eguzki-illargi-izarrak.



Gorago igotzen giñan oraiño gogorapenez eta itzez, eta Zuk egiñetaz arrituz, gure animetara iritxi giñan, eta areago, Israel beti egiazko ianariz unitzen dun eskualde ugari eziñ-aitu artara. Zugurtasuna da ango bizia, auek oro Berak egin baititu, ziranak eta dirakenak. Bera, berriz, ez da egi-ten; bazan eta izanen dan bezala da beti. Obeki esan, Ark ez du bazanik eta izanenik; *da* bakarrik, ordea, betikor baita Artaz mintza ta Ua irrika, atzematen dugu apur bat oldar osoz. Asperenka, gure arnasaren asiñiak an utziz, gure agoaren otsera biurtu giñan, gure itza an baita asten eta bukatzen. Zer, ordea, Zure itzaren antzeko, Iaun ori? Beragan baitago beti zaartu gabe ta dana berrituz.

25. Onela ari giñan: Aragiaren marmaria noribait ixil baledio, ixil itsaso-legor-aizeen idurikizun oro, ixil ortzia ta anima bera ere, ta beure buruaz aantzirik gaiñez balegi; ixil amets eta iduripenezko agerkari oro, ixil zernai zantzu ta irazeko gauzak oro —entzuten ditunari au esaten baitiote: «ez gira gu egin; gu egin gaitunak betiko dirau» (Ps. 99, 3-5)—; au esanik ixil balitez, egin zitunarengana belarria ernatuz, eta Bera mintza balekigu, ez aien bidez, baiña Bere-berez, Aren itza entzun dezagun, ez giza-mihiz, ez Aingeru-mintoz, ez odei-otsez, ez idurikizunez, baiñan oriek gabe orietan maite dugun Ua Bera; guzien gain dagon betiko iakin-tasuna gogoaren argi-zitzaz atzeman; egoera au luza balekigu ta ikuskari txirdillen guziak itzali, ta so gagozkion Ua argi-zizta ontaz atzi barneko pozez... guk asperenka nai dugun betiko bizia ez al da argiune onen antzeko? Ez al da au arako «sar zaite Zure Iaunaren pozean»? (Mt. 25, 21) Eta noiz sartu? Ez al da orok piztean, «orok oso alde-berrituko ez bagera ere»? (I Cor. 15, 51).

26. Onela ari nintzan, onelaxe ta itz oekin berkin ez bada, Zuk daki-zu, Iauna, egun artan olakoak esanik mundua kaxkar zirudigula bere zora-pide guziekin. Orduan amak: «Seme —esan zidan— nerekiko ez dut gaurgero atsegiñik mundu ontan. Emen zer egin eta zertako egon ez dakit, emengo itxarokizuna galdurik. Gauza batengatik nai nuan luzexago bizi, ots, il baiño lenago zu kristau katoliku ikusteagatik. Are geiago eman dit Iainkoai, zu, munduko ondasunak erdeñaturik Aren morroi nik ikus-tea. Zer ari naiz emen?».

XI

Monikaren eriotze ederra, Augustiñen eta Adeodaten bioz-miña.

27. Ez dut oroi ongi, zer erantzun nion. Andik bost eguntara geie-nez, sukarrak ogeratu zun. Gaitzaldian, bein kordea galdu labur. Ara giñan. Asi gintzaion laguntzen, baiña bereala baitaratu zan eta giñaudene-ri so egin zigun anaiari ta neri, ta zerbaiten billa bezala galdegin zigun: «non nintzan?». Gero, gu izuturik ikustean, «emen ezaliko duzute ama» esan zigun. Ni ixil nindagon, malkoeri eutsiz; anaiak zerbait esan zun, arean, beue sorterrian urrungabe il obe zukela. Au entzunik zorrozki so egin zion ala mintzo zalako ta gero neri: «ikus zer diagon». Gero biori: «Ezarrazue nonai gorputz au, etzaitzekela ontaz kezka; baizik ere Iaunaren aldarean oroi zaitetze otoi, nitaz, nonai zaudetela». Al zun itze-kin au guri adierazirik, ixildu zan. Gaitza aurrera zoan, baita nekea ere; ni ordea, Iaun izkutu, zintzoen biotzetara ixurtzen dituzun doaiak eta andik datozen ondorio arrigarriak gogoan nitula, pozten nintzan eta eskerrak emaiten nitizun; baineekin zer arrta biziz ari zan beti illarria antolatzen, senarrarenaren ondoan. Biotz batez bizi izan baitziran, gure animak ez baitu Iainkozkorik aski sumatzen, zorion ua ere nai zuen oraiño, eta ien-deen oroitean utzi, itsasoz aldegiñaldia egiñik ere bi ezkonduen autsa, naaste, lur berak estaltzen zula.

28. Zure ontasun beteari esker, kezka utsal onek biotzetik aldegin zionean, ez baneki bezal ta ortaz baitaratuz bezala, poztu nintzan izugar-ri. Izan ere leioan geniardula, «zer ar naiz emen?» esan zunean, etzun agertu sorterriak ill-gogorik. Gero esan zidaten, Ostian, ni an ez ninda-gola, gure ama ene lagun batzuekin bizi ontako nardaz ta eriotzaredn onez lagunkiro mintzo zalarik, oro balditurik zeudela aren ontasunaz zuk emanaz. Beure erritik ain urrun gorputza utzi bearrak bildurtzen ez al zun galdegin ziotenean, «Iainkoagandik ezer ez dago urrun» erantzun zien, «ez naiz bildur azken-egunean ni piztu-lekua aantziko zaionik». Orrela, gaitzaren beratziurrenean, berrogeita seigarren urtean, nik ogeita amabi nitula, anima iainkozko ta zintzo ua gorptzetik atera zan.

XII

Augustiñek bakartasunean malkoeri baimen ematen die.

29. Gorptzari begak ertsaraztean, goibel izugarria zetorkidan bio-tzera, ta negar biurturik begietara zoan. ene begiek, nik zorrozki aginduz, berean iresten zuten iturri ua, agortzeraiño. Burruka arek oso gaitz egin zidan. Azken-atsa eman zunean, Adeodat aurrak negarrari ekin zion, eta guk erasorik ixildu zan. Ola berean, nigan zan aur-negar-gura, gazte min-



tzoak, bioz-mintzoak galarazten zun ixil zedin. Etzitzaigun egoki illeta ua negar-intziriz ospatzea, negarra, agiz, erukarrieri ta ezerez biurturi egiten-baitzaie. Ua ordea, ez zan errukarriro il, ez oso ill ere. Aren oiturak eta «siñeste ziñak» (I Tim. 1, 15), uste ustelgabez, siñetsarazten zigun ori.

30. Zer nuan alako miñ astuna barnean? Elkarrekin goxo ta maitaro egin bizi eten-berriaren zauria naski. Azken-gaitzean ene arreta ikusirik «zintzoa» esan zidan esku-legunka —ua nere poza— ta samurkiro gogora zidan, sekulan etzula nere agotik itz gogorrik edo lotsagaberik entzun. Alare, biok egin ginduzun Iainkoa, zer zan nik nion begirapena ark eni zidanarekin alderatzeko? Berz, poz aundi artaz zurtz gelditzeak zauritzen zidan anima, zarratatzen bezala bizia, arenarekin bat egiña bainuan.

31. Aurrari negarra galarazirik, Eudik Salmoak artu zitun eta bat kantatzean asi. Etxeko guziak generantzuion: «Zure errukia ta zuzentasuna kantatuko ditut» (Ps. 100, 1). Gertatua iakinki, aunitz anai ta emazte elizkoi bildu ziran, eta oituraz zegokienak ari il-iantzia antola bitartean, nerizkion tokian, bakarrik utzi nai ez nindutenekin iardunean ari ninzan ni, itzak zekarrenaz, eta egi gertatuaren beroz gantzutzen nuan, Zuk zene-kin zauri ura. Aiek etzekiten eta ernai zeuden ene iardunari, ni mingabe ninagolakoa. Baiña nik Zure belarrietan aietako iñork entzun gabe neure belaxkakeria erasiatzen nuan eta neure goibel-iariora ixten. Men egitentxe zun, baiña berriro beure oldarrez zetorren, ez malko ixurketaraño, ez aurpegia aldatzeraño; baiña nik nekin neure biotzaren estuasuna. Aldian aldika gure etorkiari berez datozkion gerta bear oriek ni ola eragitea txit gogaikarri bainun, beste min batek samintzen zun ene miñ ori, ta bi goibel aldik urtzen ninduten.

32. Gorputza eraman zutenean, ioan-etorria malkorik gabe egin nuan. Oi danez, illarri ondoan gorputza utzirik ill-etxean sartu baiño len, mezakoan Zuri egin oi ditizugun otoitz aietan ereez nuan negarrik egin; ostera, egun guzian itzaltsu nindagon eta naasaldi artan aal bezala nengizun otoitz, ene miña senda zenezan. Etzenun sendatzen, nik uste, nik ongi gogoan au artu nezan: ikaskizun bakar arekin ere, edozer oiturak zer indar dun, gezur-itzik iresten ez dunaren biotzean ere. Eman ere zidan gogoak basialdi bat artzea, aditu bainun basitu izena artatik zetorrela grekoan *balaneion*, barneko kezka aizatzen dulako. Basiturik ere lenbezala gelditu nintzal aitortzen diot zure errukiari, «ume zurtzen aita» (Ps. 67, 6). Goibelaldi samin arek etzun izerdirik ere nere biotzan. Gero lo egin nuan, eta atzartzean ene miña arindua sumatu ez gutxi ere.

Eta ogeko bakarrean, Zure Amburuziren egi-bertsu aiek nitun gogora:

Zeru-lurren irazaille
argia piztu duzuna,
argi eder ontaz duzu
apainki iantzi eguna.
Gorpuz-nekeen sorgarri
egin duzu gau illuna;
barne-kezkak uxatzeko
sortu duzu lo biguna.

33. Gero, ezarian, lengo biotzaldia artu nindun, ama oroitz. Aren Zurekiko iardun iainkozkoa ta nerekiko samurtasun saindua betbetan galdu bai nitun, pozik egin nuan negar Zure aintzinean, autaz eta argatik, nitaz eta nigatik. Malko idukieri baimen eman nien, ixur zitezela nai aiña, ta biozpean iñaurri nitun. Aietan etzin zan ene biotza, Zure belarriak baitzeuden an, ez edozein gizonenak, nere negarra aundikeri io baitzezaket.

Eta orain, Iauna, idatziz aitortzen dizut: Irakur beza naidunak eta ulertu beza naierara. Nik amari, bitarte artan ene begientzat illa zegon amari, ordu zatiño bateko negarra egiñean obenik arki baleza, —berak nigatik urteetan egin zun Zure begientzat bizi nendin— ez bedi nitaz nausa; ezperen maitasun aundia badu, ene bekatuengatik egin bezaizu negar Zuri, Kristogan anai geran guzior Aitari.

XIII

Guzien otoitza. Augustiñen azken-otoitz bikaiña.

34. Nik, aldiz, aragi-irritsa legotzidaken zauri artaz sendaturik, beste malko mota bat oso bestea ixurtzen dut zure neskame arengatik, gure Iainkoa. Adanengan iltzen dan oroen arrixkuak ene barrenari eragiña. Ua oraño gorputzean zala ere Kristorengan zegon arren, Zure izena ta siñestea oituretan aipagarri baitzeramatzin, ez nesake alare bataioan ernaberri-tu zenunetik etzula itzik esan Zurelegea austekorik. Egi dan Zure Semeak esan zigun: «norbaitek anaiari zoro balesaio, ifernuko leizez obendun bedi» (Mt. 5, 22). Eit gizonen bizi aipagarri ere urrikia alde batera utzirik aspertu bezeneza! Obenak ez baitituzu gogor arakatzen. Zure alboan lekua lasapidez dugu itxaropen. Zurekiko irabaziak kopuratzen ditunak zer egiten du Zure onegiñak kopuratu besterik? «Ai gizona gizon ezagu baledi, ta aupatzen dana Iaunagan aupa» (I Cor. 10, 7).



35. Nik, beraz, ene bizi ta dedu zaitudan biotzeko Iainko, ark egin-oank lipar batez aantzirik —aiengatik eskerrak pozik ematen baititzut— amaren bekatuengatik dagizut otoitz. entzun nazazun, gurutzetik eseki egon zan gure zaurien sendagai arengatik: «Zure eskuñean eseririk gure alde ari baitzaizu» (Rom. 8, 34). Badakit urrikaltsu zala ta biotzez barkatu ziela zorduneri; barka izkiozu berari ere, bataio ondoan oinbeste urtez egin bazitun. Barka, Iauna, barka «etzaitela auzitan arekin» (Ps. 142, 2). Zure itzak egi baitira, «urrikiak gainditu beza zorrotasuna» (Iac. 2, 13). Urriki agindu diezu urrikaltsueri, ta ala ziranak, Zuk egiñik ziran ala; «nai duzunaz erruki baitzera ta nai duzunari urrikaltsu ageri baitzakio» (Exod. 33, 19).

36. Nik esana egin duzula iduri zait; baiñan «ene agoak oldez diagona onetsazu, Iauna» (Ps. 118, 108). Iltzear zegola ez baitzun gogoan gorputza aundikiro lurpera zezaten, ez, usaiez lurrindu zezaten, ez illari auta ukan zezan, ez, beure errian eortzi zezaten. Olakorik etziguin agindu; bai-zik ere Zure aldarean ataz oroi gintezela, bera an baizan egunik utsegin gabe; baitzekin opari saindua an eskeintzen zaigula. «Ark suntsitu baitu gure aurka zegon oben agiria» (Coll. 2, 14). Gure etsaia agiri onekin zan garaille, gure gaitzegiñak kopuratuz eta guri zer egotzi billatuz. Baiñan ezer etzun arkitu gure Garailleagan. Nork itzuliko dio odol gaiztagalea? Nork itzuliko, gu etsaiari kentzeko erori zun saria? Sari orren balio izkutuari siñes-lokarriz lotua zeukan beure bizia Zure mirabe arek: ez beza eten etsaiak Zure geizpetik. Ez dedilla tartetik sar, ez indarrez, ez amurruz, leoiririk ez erensugerik. Ark ez du erantzunen zorrik etzula, salatzaille maltzurak, auzitan gezurta ezdezan; ezperen barkatuak ditula, ta barkatalleari ez dezaiokela iñork itzuli Ark zorrik gabe guregati ordaindu zuna.

37. Beza pake senarrarekin, len eta gero ere ez baitzan beste iñorekin ezkondu. Ari men egin zion, Zuri «zitua» (semea) emanez «iraupenarekin Zuretzat irabazi zezan» (Lc. 8, 15). Argi etzazu, Iauna, Zure otseñak, nere senideak, ni otsein bainaute biotzez, mintzoz, idatziz. Au irakur dezatenek oro gogora bezate Monika Zure mirabea, beiñola senar zun Patirkirekin; aien bidez ekarri baininduzun aragiz mundu ontara, ez dakit nola. Ene guraso ta senideetaz oroi bitez mundu iragankor ontan, Aita, Zurepean eta Eliza Katoliku Amarenpean; baita beiko Ierusalemgo uritarrek ere, ara baitoa bidez bide asperenka Zure erria, atera zanetik itzulia egin arte. Onela, amak eskatzen didan azken-otoitza, ene otoitz soilla baiño oiago ditke aitorkizun auek araziko duten aunitz otoitzen bitartez.

AMARGARREN IARDUNA

I

Augustiñek egia nai du Iaungoikoa aitortuz.

1. «Ezagu zaitzadan, ene ezagule, ezagutu, Zuk ni bezala» (I Cor. 13, 11). «Ene animari indar zakiona, sar zakio ta idukazu itzalik eta zimurrik gabe» (Eph. 5, 27). Itxaropide au dut; orregatik ari naiz, eta orrek poztan nau. Bizi ontako enparauak, negar egiñago ta eginbear ezago; ta ez egiñago ta negarbearrago. «Zuk egia duzu maite» (Ps. 50, 8), «ari darraiona argia baidator» (Io. 3, 25). Iarraiko diot nere biotzean Zure aintzinean aitortuz, eta nere gisa, aunitz lekukoren aintzinean.

II

*Aitortu nai ezik ere, Iainkoak ezagutzen du giza-barrena.
Lotsatzen da ta beregandik baztartzen Iaungoikoari eltzeko.*

2. Zer litzaizuke, ordea, nererik izkutu, aitortu nai ezik ere, Zure begieri ageri baitzaie giza-barrenaren tulunbioa. Izkutu, ni Zugandik ez-baiña, Zu nigandik ziñake. Orain ene zotiña lekuko baitut ene buruaz nardatu zaidala, Zuk dagidazu argi ta atsegiñ, Zu nai zaitut eta maite, lotsatzen bainaiz nitaz. Bastartzen naiz neregandik Zu lastantzeko, ta ez Zuri, ez neri ez bezaiot atsegiñ Zugatik bestegatik.

Ageri nauzu, beraz, naizan au. Esana dut zer protxuz aitortzen dutan. Ez bainaiz ari gorputzaren itzez edo mintzoz; baizik animaren itzez eta gogoetaren oiuz entzuten baitu Zure belarriak. Gaipto naizanean, Zuri aitortzea ta nitaz nardatzea bat da; ona naizanean, Zuri aitortzea ta neroni ez egoztea berdina da, «zintzoa Zuk onesten baituzu» (Ps. 5, 13), baiñan lenik «gaizttoa on biurtzen duzu» (Rom. 4, 5). Beraz, ene aitortpen au, nere Iainko, Zure aintzinean ixilla da ta ez ixilla. Ago-soiñurik ez baiña biotz-oiua du. Ez diet gizoneri ezer zuzenik esaten zuk len ez entzunik, eta ez didazu ezer entzuten len Zuk ez esanik.



III

*Gizoneri ere aitortzen die Augustiñek beure barnean zer dan.
Ezin argiratu du egia diadala,
baiña dioten maitasunez siñestuko diote.*

3. Zertako aitor nizaie gizoneri, «nere miñ guziak senda lezazketen gisan?» (Ps. 102, 3) Besteren bizia iakin-miña dute, ta berena zuzentzeko alper dira. Zertako nai didate entzun nor naizan, eta Zugandik ez dute entzun nai nor diran? eta ni neronetaz entzuten nautelarik, nola dakite egi danentz, iñungo gizonek «ez baitaki zer gertatzen zaion barnean, barneko argitasunez baizik?» (I Cor. 2, 11). Aietaz zu entzuten bazaitute «Iainkoa gezurti da» ezin esan. Zugandik norberaz entzutea zer da, norbera ezagutze besterik? Beraz, nork esan ezagueraz «gezurra da» bera gezurti ez bada. Baiña maiteak guzia baitu siñesten, elkaturik bat dagiotenen artean, nik ere, Iauna, gizonen entzuterrean aitortzen dut, ezin baituket argiratu egia diodala; siñesten didate, ordea, belarriak maitasunak zabaltzen baitizkie.

4. Zuk, ordea, nere barrenaren sendagille, argi dezaidazu, zer protxuz ari naizan. Nere lengo gaitzen aitortzeak —barkatu bai dituzu ta estali ni Zutaz doatsu egiteko, bataioko siñestez Zugan ni biurturik— irakurtzean eta entzutean biotza pizten dute, etsiz lo ez egiteko eta «ezin dut» ez esateko; baizik eta ernai ditezela Zure errukiaren maitean, Zure graziaren gozoan; onekin baita bizkor gaixo oro, ta onekin ezagutzen baitu bere gaitza. Oneri ere atsegin zaie beren lengo gaitzak entzutea, ez baititute orain. Gaitz diralako ez-baiña, izandu ta ez diralako zaie atsegiñ. Zer protxuz, ene Iauna, nere barrena egunoro ari baitzaizu aitortzen Zure errukia, lasaiago itxaronez beure errugabea baiño; zer protxu, esazu, gizoneri oraiño idatziz Zure aurean aitortu nor naizan, ez nor nintzan, protxu ori ikusi ta oroitu baitut. Baiña aitor aldian berean ezagutzen nauten ta ez nautenek ere iakin nai dute nigandik, nitaz zerbait aditu baitute; baiñan aien belarria ez dazarkio nere biotzari, ta onetan nago ni naizan oro. Nere aitorra nai dute, beraz, barrendik nor naizan, begirik, belarririk, ez ezaguerarik ez baidezakete sartu. Siñesteko nai dute; are ezagutzeko? Didaten maitasunak esaten die, ez diodala gezurrik aitortzean, eta ark siñestarazten die.

IV

Zer protxuz aitortu gizoneri? Iainkoari esker eman dezaioten eta arengatik otoitz egin dezaten.

5. Zer protxuz nai dute ordea? Atsegiñak eman nai ai ditidate Zure doaiez Zugandik urbil nabillala entzutean, eta otoitz egin nai nere alde nere lorrez berantzen naizanean? Agertuko nizaie bada. Ez da protxu aula, nere Iainko Iauna, Zuri aunitzek nigatik esker emaita eta nigatik otoiztea. Maita beza nigan anaiak, maitatzeko diozuna, ta miñ beza, miñ izateko diozuna. Anai-biotzak egin beza au, ez arrotzak; ez besteren semeak, agotik uskeria baitarite ta eskuiñetik makurkeria. Anaiak, onesten naunean pozten da nitaz, eta gaitzesten naunean, samintzen: onetsi, naiz gatzetsi, maite bai nau. Olakorik agertzen nakio. Asaska bedi nere onean as-estu nere gaitzean. Nere asmo on eta doai oro Zure da; gaitz oro, berriz, nere oben eta auzi-gai. Asask bediz aiekin, asestu auekin, eta eresit ta negar igo bedi zure aurrera, usai on dariten anaien biotzengandik. Zu berriz, Iauna, Zure etxearen usaiez ats arturik, erruki zakit Zure erruki aundiz, zure izenez, eta asi duzuna utzi gabe, buka ezazu bukatzekoa.

6. Au da nere aitorpenen protxua, nolako nintzan ez-baiña nolako naizan aitortzea; ez Zugan bakarrik poz-ikara izkutuan, ez, goibel izkutuan itxedonez, baita gizaseme siñestunen belarrietan, nere poz-lagun eriovide iritar atzetik naiz aurretik ioan zaizkidan bidaide ta adiskideen belarrietan. Morroi dituzu; nik anai; Zure seme ta nere anai egin dituzu, nere nagusi, aien morroi izateko agindu baitidazu. Zurekin eta Zugandik bizi nai badut. Zure itzak itzez agintzea gutxi zan, aurretik Berak egin ez balu. Ni ere esan eta egin ari naiz, Zure egalpean, arrizku geiegiz Zure egalpean zintzo ez banindago eta nere gaitza bazenezagu. Aur naiz baiña, beti bizi dut aita, ni gizaz iagoteko. Beraxek egin nau ta iagoten. On guzi Zu zera, Zu, altsu Ori, nerekin bai zaitut ni Zurekin orduko. Nik serbitzea nai duzun oieri desaieket, beraz, ez nor nintzan, baiña nor naizan eta oraiño zer naizan; ez bainaiz nerau nere auzi-maisu. Beraz, ola entzun nazate.

V

*Giza-barrenek beure berri badaki; ez, ordea, gauza guzietan;
aitortuko du, beraz, zer dakin eta zer ez dakin.*



7. Zu zaitut ebazle, Iauna. Gizonak bere barrenean daukana barre-nak beste iñork ez badaki ere, badu giza-barrenak bere berri ez dakin zer-bait; egin duzun Orrek dakizu aren berri oso. Ni, ordea, nerau nardatu arren eta lur et auts etsi arren, alare nitaz ez dakidan zerbaít Zutaz bada-ki. Erraiñu itzaltsuan, ikusten zaitugu orain, ez begiz begi. Orregatik Zugandik alde banillanean Zure baiño nere aurreanago nabilla. alare badazagut ezin zaitudala baztertu. Ez dakit, naski, zer tentaziori iazar al nakion, ez nakion. Itxaropide dut, zintzo baitzera, al dugun baiño geiago ez gaituzula tentatzen utziko, eta tentaldian iraupen emanen diguzula onez atera gaiten. Aitor bezate bada, nitaz zer dakidan, zer ez dakidan, nitaz dakidana ere Zure argiz baitakit; eta ez dakidan noiz arte ez dakit? Zure aurpegiak nere illunpea eguerdi biurtu dezaño.

VI

Maite du Iauna Augustiñek. Zer maite du, ordea, Iainkoa maita-tzean? Ez gorputz eder, eta ez ageri dan ezer; ez beure barrua, ark egiña baita.

8. Dударik gabe, Iauna, iabe naiz maite zaitudala. zure itzez biotza zauritu didazu, ta maite zaitut, Zeru-lurrek et an daudenek oro nondinai desaidate Zu maitatzeko; bai beste guzieri ere, aitzakirik ez dezaten. Erruki zaizunaz errukiago zera, ta urrikaltsuari urrikaldu zakio: bestela zeru-lurrak elkorrentzat mintzo dira. Zer dut ordea maite, maite zaituda-nean? Ez gorputz eder, ez aldi eder, ez begiok maite duten argi zuria, ez lelo guzien doñu gozo, ez lore ta gantzuki ta usainki guri, ez mana, ez ezti, ez aragi laztangarria: ez dut au maite Iainkoa maite dutanean. alare argi antzeko zerbaít maite dut, mintzo edo usain edo ianari edo neregiza-bar-neko laztan antzeko bat dut maite, argi egiten ditanean: tokiak artzen ez eta mintzo du, aldiak ebasten ez eta usain du, aizeak barratzen ez ta iastu du, ianak ez du tipitzen, aseak ez du erauzten atxiki balekio. Au dut maite, nere Iainkoa maitatzean.

9. Eta au zer da? Galdeign lurrari eta «ez naiz» esan zidan, ta artan dauden guziak berebat aitortu zuten. Itsasoko tulunbio ta narrazti bizieri galde, ta «ez gaituzu Iainko» erantzun zuten; «galde aruntzago». Uhats igeskorrrari galde, ta «gezurra diago Anaximenek» erantzun zidan uhatsak bere egazti guziekin: «ez gera zure Iainko». Zeru, eguzki, illargi izarrerri galde, eta «ez gera zuk nai duzun Iainkoa» diagote. Esan nien nitaz landa dauden guzieri: esaidazute zuek zerbaít nere Iainkoaz, zuek ez bazerate.

Ta oiú aundiz mintzatu ziran: «Ark egin gaitu». Nere galdea, aieri so egoi-tea izan da; ta aien erantzuna, beuren edertasuna.

Itzuli zintzan neraugana ta «i nor aiz» galdegin, eta «gizona» eran-tzun. Gorputz-animak nere gain dauzkat, bat barne, bestea landa. Zein oetan billatu bear nuan, ene Iainko, lur-zeruen artean gorpuzki billa nere begi-errainuak urundu ala galdezka bialdurik? Obeki naski nere barnean. Zeru-lur eta ango guziek «ez gera gu» ta «Ark egin gaitu» erantzutean, bar-neari ari zitzaizkion gorpuzki ordeko oriek buru ta maisuari bezala. Barrenak badazaguz gauza ok landakoen bidez. Nik barnez ezagun ditut: nere barne-argiak gorputz-ataken bidez. Mundu zabalari galdegin nion ene Iainkoaz, eta «ez nauk ni» erantzun zidan, «Ark egin niagok».

10. Gorputz-atalak oso dituten guzieri ez al zaie ageri edertasun au? Zergatik etzaie deneri berdin mintzo? aundi ta ttipi, ihizeek badakuste, baiñan ezin galdegin, ez baitute zentzu berri-emaileen gain, irizpidea nagusi. Gizonek, aldiz galdegin dezakete «Iainko ager eziña ageri dirane-tatik ezagutuz»; baiñan aien maiteak azpiratzen ditu ta ezin iritzi eman. Galde dagienari ez baiño derizkienari derantzuiote. Ez dute mintzorik aldatzen, ots, edertasunik: batak ikusi uts, bestek ikusi ta galde, badagi bakoitzari bestela agertzeko: berdin agertuz, zaie, oni mintzul, oni min-tzodun. Are guziari zaie mintzo, baiñan Aren mintzoa landan artzen eta bernean egiarekin alderatzen dutenek ulertzen dute. Neri egiak «zeru-lur eta gorpuzki oro ez dituzu Iainko» diagot. Aien etorkiak diago, mukulua ttipiago da zatian osoan baiño. Obea zaitut, anima, Zuk biziarazten bai-tuzu gorputz onen mukulua, bizia emanez, eta gorputzak ez dio beste gorputzi emanen. Zure Iainkoa, ordea, zure biziaren bizi duzu are.

VII

Animaren bidez igoko da Iaunagana.

11. Zer dut beraz maite nere Iainkoa maitatzean? Nor da nere buruz gaiñeko ori? Animaren bidez igoko naiz Arengana. gorpuz-lokieri itsatsi-rik eta aiek betez dutan indarra gainduko dut. Ez dut arkituko indar orre-kin ene Iainkoa, ezagurik ez dun beor eta mandoak ere arki bailezake, ta indar berorrez bizi da aien gorputza ere.

Ba dut beste indarrik, aragia biziarazi ez ezen, ernarazten dunik. Iainkoak egin zidan, ez, belarria ikusteko, ez, begia entzuteko, baiña bata bat eta bestea beste egiteko; ta ernabide guzieri beuren toki ta eginkizun



bakoitza: oriek oro nere animak bakarrk dagizki. Gainduko dut indar au ere, baitute au ere beor eta mandoak: ernatzen dira gorputzaren bidez.

VIII

Naimenaren bidez iainkoagna. Aundia da oroimenaren indarra.

12. Igoko naiz ortik ere, mailka, egin nindunagana. Banator oroimenaren zabaldi ta iauregi aundietra ontan baitaude ezin-kontala erraiñuren gordairuak, erna-gauzek ekarriak. Or dago gorderik bururakizun oro, edo geituz edo gutituz edo ernabidez artua nolabait aldatuz. Baita ortan, gorde ta goraintzi dugun edozer, ahanzteak iretsi ta eortzi ez badu.

Ortan nagonean, gogo dutena ekarriazi nai dut, eta olako berela datorkit, beste olako berantago, gordagu izkutuagotik letozen gisan; olako ta olako bultzaka datoz, eta besteren billa gabiltzala «ez al gera gu?» diagote erdira iauzika. aizatzen ditut eskuz bezala oroimen aurretik, nai dutan lañoa argidediño, ta izkututik aintzina datorreño. Zenbait, erreze eta lerro galdu gabe eskatu bezala datozkit eta lengoek oraingoeri toki dagite, ta toki egiñez gorde oi dira, berriz nai dutanean ateratzeko. Au gertatzen da, zerbait buruz ialkitzean.

13. An daude oro, batean eta bereiz gorderik, bakoitza bere atetik sartuak: argi ta margo ta gorputz-erraiñu begien bidez: mintzo mota oro belarriz; usain oro sudur-zuloz; dastagarri oro agoz; gogor eta bigun, otz eta bero, legun eta latz, astun eta arin, gorputz guziz, berriz, onen barne naiz landa. Bear dalarik guziak oro berritzen ditu ta iraultzen oroimenaren kolko aundi onek, eta har aren sabel izkutu eziñ esan-alako onek; oek oro bakoitza bere atetik sartzen dira ta an kokatzen. Ez dira berak sartzen; baizik eta erna-gauza aien erraiñuak; eta gertu daude oroi nai dunarentzat.

Oek nola edutu diran, nork esan? Zein zentzuk eratu ta barnean gorde ditun ageririk ere? Illunbean eta ixil nagonean ere, ogo badut, ateratzen dituk margoak oroimenera, ta bereizten ditut zuri ta beltz eta beste edozer. Soiñuek ez dute elkar iotzen eta nasten begiz sartua oroitzean, an bereiz kokaturik bezala baitaude. Oeri dei dagiet nai-ala, ta emen ditut berela. Mihia geldi ta eztarria ixil, nai dutana dut kantatzen; alare an dau den margo aien erraiñuak ez dira tartean sartzen, ez dute elkar atertzen, belarrietatik daridan gordairua berrirotzean. Eta abar beste atzargailuen bidez sartu ta bildu oro, naierara oroi ditut, eta lili zurien usaia bereizten

dut ubelenetik batere usnatu gabe; ta ezti leguna naiago dut latza baiño, ez iastatuz edo ukituz, baiñan oroituz.

14. Barnez ari naiz ola, nere oroitearen gela izugarri ontan. emen gertu ditut zeru-lur itsasoak, aietan oartu ditudanekin, ahantzi ditudanaz lekora. emen arkitzen naiz nerua eta oroitzen, noiz, non, nola egin dudan, eta egitean zer egoeran nindagon. Emen daude nik oroi ditudanak, atzarritz naiz siñetsiz. Gordairu beretik eiotzen ditut lengo atzar-gauzen erraiñuak, naiz aietatik atereak, edo aietatik beste ta beste geroko eginkizun, gertakizun eta itxarokizun, eta auek oro berriro aurrean bezala diraultzit: «Au ta ori egingo» diagot nereko, oinbeste erraiñuz beterik daukadan animako sabel aundi ontan, eta au ta ori dagit. «Au edo ori gerta baledi», «Ez beza Iainkoak au ez ori!» diagot nigan, eta esatean gauza guzi orien erraiñuak gertu datozkit oroimenaren gordairu beretik, eta ez neza-ke olakorik esan ere oriek gabe.

15. Aundi da oroitearen indarra; aundiskoa, ene Iainko; etxe aundi ta baztergabeta. Nork aztertuko du sakon? au animako indarra dut eta neri dagokitana, eta ez dezaket ulertu naizan osoa. Ortaz, anima, bere bera idukitzeke estua da. Non dagoke beregan kokatzen ez dana? Berz landa ez eta beragan? Nola bada ezin atzi? Onek arritzen nau, onek balditzen. Badoazi gizonak, mendi garaiak eta itsas-ugin izugarriak, eta ibaien errai txit zabalak eta Okeanen ingurua ta izarren itzuliak arriturik begiratzer, ta beuren burua uzten dute ta ezdiraarritzen nik aiek aipatzen ez nitula begiz ikusten; eta ezin aipatu nere oroimenean ikusi ez banitu, ez mendi, ez ugin, ez ibai, ez izar, nik ikusiak, eta Okean siñetsia nere oroimen barnean kanpoan bezala ikusi ezik olako tarte ikaragarrietan. Ez nitun, ordea, ikusiz iretsi begiz ikustean, eta ez daude nigan, aien erraiñuak baizik, eta badakit zer suma-bidez ezarri zaizkidan gorputzean.

IX

Ikaskizun aitot, ele-eder eta abar, oroimenean daude erraiñurik gabe; ez, soiñua edo usaia edo iana bezala.

16. Ez dakartzi oriek bakarrik ene oroite-leku neurrigabe orrek. Or dauka ikaskizun aitorrak oraiño ahantzi gbe, barnago lekurik, lekurik gabe. Orien erraiñuak ez baiño beroriek dakartzit. Ele ederra zerdan, zer dan baieztamena, zenbat galdera diran, ots, dakidan oro oroitean daukat; ez erraiñua gorde ta gauza landan utzirik; ez, mintzoak aldegin bezala ez, belarrian sartu dan zuzmurra berrituz, soiñu egiñez bezala, ez baitu



soiñurik, edota usaia igaro ta aizean galdurik bezala sudurra atzarriz, andik baitakar oroitera beure erraiñua guk oroitzuz berritzen dugula; ez iana bezala, ez baitu sabelean atserik, eta alare oroitean atsegiten bezala du; ez eta ukitzean sumatzen duguna, urrun ere oroitzuz iduri oi baitugu. Gauza oek etzaizkio sartzen, baizik eta aien erraiñuak izugarri zaillu atzi oi ditu eta gela sorgin antzekoetan kokatzen, eta arrigarriro gogoratzuz ateratzen.

X

Iru galdera-motak (badan, zer dan, nolako dan) ez dute erraiñurik uzten ezagueran.

17. Galderak iru dirala dantzutanean, ba dan, zer dan, nolako dan itz auen mintzo-erraiñuak dauzkat, eta badakit aizean soñu egiñez ioan dirala, ta are ez dirala. Mintzoak diagon gauza bera, berriz, ez diteke sumaz uki ta ez dut ikusi nere gogoan bestetan. Eta oroitean, aien erraiñuak ez baiño berak gorde ditut.

Nigana nola sartu diran biagote nai badute. Iragaiten ditut ene gorputz-ateak oro, ta ez dut sumatzen nondik sartu diran. «Margodun badi-ra», au diagote begiek, «guk iragarri ditugu»; «soiñurik badute», au diagote belarriek, «guk sumarazi ditugu»; «usairik badute», au diago sudurrak, «nigandik igaro dira»; «iasturik ez badu», au diago atsemenak, «ez neri galde»; «mukulurik ez badu», diago ukimenak, «ez dut eskukatu; ta esku-katu ez badut, ez dut sumarazi».

Nondik nora sartu ziran auek ene oroitean? Ez dakit nola; ikasi ditudan ez baitzikiot besteri siñetsi, baiña nerez ezagutu egi dirala; ta oroitari goraintzi ditiot, kokatuz bezala, nai nunean ateratzeko. An zeuden bada nik ikasi baiño len, baiñan ez oroitean. Nola, beraz edo esatean zergatik ezagutu ditut, eta, «ala da, egi da» esan dut, oroitean zeudelako bai-zik? Ain zeuden ordean urrun eta gorde zoko sakonetan, norbaitek iragar-ritz atera ez balira ez baintun irauliko.

XI

Zer da «ogitar»? — Buruan iraultzea, (len an zeuden gauzak).

18. Onela, erraiñurik gabe, sumaz baztar, berengan diran bezala arzen ditugun erraiñu oriek barnean dakutsagula esatea, zer da? Oroitak

maiz naaste zeduzkanak erabiliz biltzen ditula ta gogoratzten. Len barraturik eta zabaturik kuku zeudenak, orko dei batekin gogora datozela eskura bezala.

Zenbat olako dakar barnean ene oroimenak len arkiturik, esan dutana, eskura bezala. Ori da ikastea ta iakitea. Aldiño bat oroigabe uzten baditut, berriro murgiltzen dira ta zoko izkutuetera igesegiten dute, berriz ere andik irauli bear duten gisan —ez baitute beste tokirik— eta berriro bildu bear ikas ditezen, ots, barreiatu, *biltzea* bezala baita buruz erabiltzea, eta ortatik dator *erabilli*. *Bil* eta *erabil* bezala dira egin eta eragin. Itz au beretzat artu du buruak egoki latiñez, buruan biltzen dana, buruz erabiltzea baita.

XII

Nola dauden numeroak oroimenean.

19. Oroimenak oraiño badauzka lumeroen eta zabalaren berein lege gorputz-sumarik ernatu ez dutenak. Ez baitute margorik, soiñurik, usairik, iasturik edo ukirik. Ele egitean entzuten dut itzen mintzoa, baiñan itza bat da, mintzoa besterik. Grekoz eta latiñez mintzo bereizia dute; baiñan adi-itza ez da greko ez latin, ez beste izkuntzarik. Zurgin-lerroak ikusi ditut mei-meiak amaraun-sare antzo; besterik dira Matematika-lerroak; ez dira aragi-begiek eman ditidan aien erraiñuak: batere gorputzik buru-irauli gabe barnean dezaguzanak, daki zer diran. Lumero kopuratuak ere sumatu ditut gorpu-sumaiki guzietatik; baiña kopuratzaleak besterik dira; oen erraiñurik ez da; beraz areago dira. Egin bezait par nik au esatean, egin bezait par ikusten ez ditunak, eta kupituko naiz aren parraz.

XIII

Nola dauden oroipenak oroimenean.

20. Auek oro, oroiten dauzkat, eta nola ikasi ditudan ere, bertan daukat. Oetaz ele ta gezurti aunitz entzunik oroitean daukat. Gezur izanik ere, ez da gezur oroi ditudala, eta egi aiek eta gezur auek beste-besteka bereizi nitula. Oroitzen ere naiz bereizten ditudala len ez bezala auek, eta maiz bururatzean bestela bereizi nitula, gogoan daukat. Beraz oroi naiz auek maiz ulertu ditudala, ta orain bereizten eta ulertzen dutana oroitean gordetzen dut, ulertu ditudala gero oroi nadin. Beraz, oroi nintzala oroi



naiz. Orain oroitzanak gero gogora badetzat, oroitearen doaiez gogoratu-tuko ditut.

XIV

Biotzeko eragiñak nola dauden oroimenean: lau griña animak.

21. Barne-eragiñak ere oroitean berean daude; animan berean daudenean bezala ez-baiña oso bestela, oroiteari dagokionez. Pozik egonduz oroi bainaiz ez nagonean; eta lengo illunaldiaz ere bai, illun ez nagonean. Bildur gabeen oroi dut, noizbait bildur nintzala, ta irrirts gabeen lengo irrirtsa dut gogora. Iñoiz bestera, illunaldi igaroa pozik gogora dut, eta illunik pozaldia.

Gorputz-eragiñaz ez da arrigarri, gogoa bat, gorputza beste baita. Ez da, beraz, aundi, lengo gorpuz-miña pozik gogora badut. Baiñan anima gogoa bera baita, zerbait gogoan idukitzeko agintzen dugunean, «gogoan», oroiteari «gogoa» esanez.

Au ola izanik, ene lengo illuntasuna pozik oroitzean, nola du poza animak eta oroiteak illuntasuna, anima nola dago poz eta oroitea illun? Anima alai, poza daukalako; ta oroitea ez, illun illuna daukala ere. Au ez al da animaren? Nork esan ori?

Beraz oroimena animaren sabel aundi antzo da; poza ta illuna, berriz, aren ianari gozoa ta miña bezala; oroitera igortzean, sabelera bezala igarorik an gorde ditezke, baiñan iasturik ez dute. Parragarri da bata besteren antzeko iotzea, baiñan ez dira oso bestelako.

22. Oroitetik ateratzen dut animaren griñak lau dirala: irrika, poza, bildurra, illuntasuna. Eta aietaz iardun-ala beuren motetan banatuz eta itzez mugatuz, zer esan arkitzen dut eta andik ateratzen; ez naiz ordea naasten oroitzuz gogoratzean. Nik oroitu ta berritu baiño len an zeuden; orregatik atera ditut oroitzuz.

Ausaz, auznarrean iana sabeletik bezala, auek oroitetik ateratzen ditugu gogoratuz. Zergatik ez, beraz, gogo-agoak sumatu iardutean, ots, oroitzean pozaren goxoa edo naigabearen samiña? Orotan antzeko ez dana, ontan al da bixiko? Nork itzegin naiko luke, naigabea edo bildurra aipatuz aldioro naigabetsu edo bildurri baledi? Alare ez gindeke mintza, itz-mintzoa gure oroitean erraiñuz sumatu ez ezen, gauzen beren ezaguerara arki ez bageneza. Au ez dugu artu iñongo gorputz-atetik, baizik eta gogoak berak, bere griñen berri sumaturik, oroiteari egotzi ditio, edota ez egotzirik ere, iduki egin ditu.

XV

Nola daude oroimenean, arria, eguzkia, oiñazea, osasuna, numeroak, oroimena bera?

23. Baiñan erraiñuz ala gabe, nork esan errez? Aipatzen dut, arean arria, aipatzen eguzkia, sumatzen ez ditudanean; aien erraiñuak gertu dauzkat gogoan. Aipatzen dut gorputz-miña, ta miñik ez dutanean ez dut aurrean; baiñan aren erraiñua gogoan ez banu, ez nekike zer esan eta iardutean ez nezake berezi atsegiñetik. Osasuna aipatzen dut onik nagonean, an dut gauza bera ere; alare aren erraiñua gogoan ez banu ez nezake gogora iñola ere izenaren mintzotik; gaixoek ere, osasuna aipatzean, ez lekikete zer esaten dan eraiñua bera gogoan ez baleukate, gauza urrun egonik ere.

Aipatzen ditut bapanatzeko numeroak, eta gogoan dauzkat, erraiñuak ez baiña berak. Aipatzen dut eguzki-erraiñua ta gogoan daukat; aren erraiñuaren erraiñua ez baiño bera: oroitu-ala gertu daukat. Aipatzen dut gogoana ta badakit zer dudan aipatzen. Eta non ezagutu gogoanean ezik? Au ere izanez ez baiño erraiñuz al dago bere aintzinean?

XVI

Anztea (aztutzea) nola dago oroimenean?

24. Anztea aipatzean, eta badakit orobat zer aipa, nola ezagutu oroitu gabe? Mintzoa ez baiña gauzaren adiera diagot. Mintzoak zer diagon aantzi baneza, ez nezake ezagutu. Beraz, oroitea gogoratzean berez gertu dago oroitea bera; aanztea gogoratzean, oroitea ta aanztea gertu daude: oroitea, artatik gogora baitut, aanztea ua gogora baitut. Anztea zer da oroiterik-eza beizik? Nola dago beraz aintzinean gogoratzeke; ala dagoan ezin baitut gogora? Oroitea gogoan balin badago, aanztea ere bertan dago; aanztea zer dan ez genezake berriz iakin, itzaren mintzoa entzunik oroitu ez bagendi. An dago, aantzi ez dezagun, etaan dagola aantzi oi dugu.

Ez al da ageri, aanztea gogora dakargunean ez dagola oroitean berez, erraiñuz baiño; aanztea berez an balego oroitarazi ez baiña aantzazaginen baikinuzke. Au nork usmatu? Nork ulertu?



25. Ni beintzat Iauna, emen ari naiz eta nigan ari naiz: lur zeken eta izerdi aundiko biurtu naiz. Ez naiz ari zeruko zabaldiakedo izarren tartea neurtzen, ez lurraren deudua billatzen: ni naiz oroiketa, ni anima. Ez da aundi, ni ez naizan oro nigandik urrun badago. Ni baiño zer nigandik urbillago? Nere oroitearen doia ere ez dut ulertzen, ez binago artaz landa. Zer esanen dut, seguru bainago aantzteaz oroi naizala? Esanen al dut ez dagola nere oroitean oroi dutana? Edo nere gogoan aanzia ez aantzteko daukadala? Itxurarik ez dute biak ere.

Zer irugarrenik? Nola esanen dut aanzia bera ez baiña aren erraiñua dagola nere oroitean, gogora dutanean? Au ere nola esan? oroitean zerbaiten erraiñua ezarten dalarik, erraiñu au ezarteko, aurrean egon bear baitu gauza bera. Ola dut oroi Kartago, ta beste egon leku guziak ere, ola giza-aurpegiak eta beste sumaikien berriak; ola gorputzaren osasuna ta oiñazea. Aurrean zeudela, oroiteak artu zitun aien erraiñuak aurrean ikusteko ta berritzeko, aldegiñik ere oroi nadin.

Orta, aanzia, berez ez-baiña bere erraiñuz balin badaukagu oroitean, aren erraiñua an gendun atzemateko. An egonik nola idatzi zezaken erraiñua oroitean, len bildurik daukana ere aanzia itzaltzen baitu an egonez? Alare nolana dala, seguru naiz aanzia bera oroi dutala, oroi duguna galduz, nola dan ulerkaitz eta adierazkaitz izanik ere.

XVII

Oroimenak indar aundia du. Gizonarenak zoko ta zizku aunitz ditu, ezin konta-ala gauzen erraiñuz bete dagolako. Oroimenetik igoko naiz Iainkoagana. Non arkitu ortik landa?

26. Gauza bizkorra da orimena, nere Iainko, izugarria, sakona ta aleun aldetarakoa; eta au anima da, ta au ni naiz. Zer naiz beraz ene Iainko? Nolako etorkia dut? Aldetsua: askoerako bizia ta ezin neurtu-ala-koa. Emen derabiltzat nere oroimeneko landa, leize, ezin kontaal artzulo ezin kontaal mota gauzez beteak, naiz erraiñuz, gorputz guzien al bezala, naiz aurki egonez, ikaskizunak bezala, nia ez dakit zer ezagueraz, animako griñak, bezala, animak isaiten ez ditula ere oroitean dauzka, oroitean dagon oro animan baitago, or derabiltzat laster eta ega, al bezain barrena zietan sartuz, eta ez dute azkenik. Oin bizkorra da orimena. Olako bizi-indarra du eriotzerako bizi dan gizonak! Zer egiten dut beraz, ene Iainko, ene egiazko bizi? Gaiñduko dut oroimen deritzon ene indar au, gaiñduko dut Zugana iotzeko, argi gozo. Zer esaten didazu?

Ona ni, nere animatik Zugana igoz, nitaz gaiñduko baitzaude; gaiñduko dut oroimen deritzon indar au ere zu atzi naiean atzigai bazera; Zuri itsatsiko nazaizu itsas al ba dakidizu. Ihizeek eta egaztiek ere oroimena badute; bestela ez lirake bilduko beren etzauntzetara, ez lukete beste aunitz oi-gauza egien; eta ez litezke oitu oroimenez bestetaz. Gaiñduko dut oroimena ere, non au arkitzeko? Iainko on eta lasapide gozo, non Zu arkitzeko? Ene oroimenetik landa arkitzen bazaitut, etzaitut oroi. Eta nola Zu arkitu, oroi ez bazaitut?

XVIII

Gauza galduak nola arkitzen ditu oroimenak?

27. Emazte bat, drama galdu ta su-argiz ari zan billa. Aren oroiterik ukan ez balu etzun arkituko. Arkitutakoan, nondik zekiken ua ote zan, artaz oroi ezik? Galdu ta arkitu aunitz dut gogoan. Orrela dakit, zerbaiten billa ibillian «au al da? ori al da?» neri galdegitean, nai nuna agertu arte «ez da» esaten nula. Zer zan gogoan ukan ez banu, eskeiñirik ere e neza-ken artu, ez bainun ezagutuko. Ola gertatzen da betik, galdu-billa ibilki, arkitzen dunean. Alare ikuskariren bat begitik galtzen badugu, oroitetik ez; aren erraiñu barnean daukagu, ta bila gabiltza agertu arteo. Arkitzean, barneko erraiñutik ezaguten dugu. Ez badugu, ez dugu esan oi galdua arkitu dugula. Au begitik galdua zan, bañan oroitean zego.

XIX

Zer gertatzen da oroimenak berak zerbait galtzen dunean? Bertan billatu.

28. Oroiteak berak zerbait galtzen dunean —ala gertatzen baita galdua oroitzeko arkitu nai dugunean— non gabiltza oroitean berean ezik? Eta bat besteren orde gogora bazaigu, lekutzen dugu nai duguna buru egin arte. Ta egitean «au da» esan oi dugu, ta ez genezake esan ezagun ez bagenu, ez ta ezagun ere, oroi ez bagenu. Aanzia genun alare.

Edota osorik galdu gabe zegoen zatitik gaiñerakoa atzi nai al genun? oroimena ez baitzan betetan iraultzen oi bezala, ta oitura etenda bezala errenka eskatzen zun peitu zizaiona.

Ala, gizon ezagun bat begiz naiz gogoz, aren izen aanzia gogora nai badugu —ez baitugu gogora oi izenarekin— ez dugu beste edozeiñena-



rekin elkartzen, eta baztertzen dugu, oitu bieri berdin baietsi arte. Nondik au oroitetik ez ta? Bestek aipatuta gogora dugunean, an dago. Ezbaitugu berri bezala siñesten, baiñan oroituz baiesten dugu esaten duguna dala. Gogotik oso galdu baledi, aipaturik ere ez dugu oroitzen. Oraino ere ez dugu erabat aantzi, aantzi dugula bederen oroi baitugu. Beraz, oso aantzi duguna galdurik ezin arkitu.

XX

Iauna Bera nola billatu? Zoriona billatzen da. Oroituz nola? ez baitugu ezagutzen. Sumatzen dugu, ez dakit nola. Oroimenean dago beintzat.

29. Nola billa zaitut beraz, Iauna? Zure billa nabillela bizi doatsua billa nai baitut. Zaizadan billa, ene anima bizi dedin. Ene gorputza ene animatik bizi dut eta ene anima Zuk bizi duzu. Nola nabil, bada, bizi doatsu billa? Ez baitaukat «aski, an dago» esan arte. Esan bear dut billa nola nabillan: oroituz aantzi banu bezala, edo aantzi dutan bezala? edota bizi ez-ezaguna ikasi gogoz, naiz ezagun ez dutala, naiz aantzi dutala aantzerañño ere aantzia? Bizi doatsua ez al da orok nai duguna? ta nai ez dunik iñor ez da. Non ezagutu dute ola nai izateko? non ikusi ola maitatzeko? gugan daukagu: ez dakit nola. Badira ukaz doatsu diranak ere eta itxedonez doatsu diranek baiño; baiñon ukanez ez itxedonez doatsu ez diranak baiño obeki. Auek ere, nolabait ez baleukate, ez lukete doatsu izan nai ere: ta nai dutela iakin-iakiña da. Ez dakit nola duten ezagun baiña badaukate nolabaiteko ezagueran: oroimenean ote dan nago; artan badago, doatsu izan giñan noizbait (ez naiz ari ortaz orain) edota bakoi-tza, edota lenik oben egin zun gizon argan, argan illak baikera guziok eta argandik errukarri iaio; bizi doatua oroitean ote dagon ari naiz. Ezagun gabe ez baikenuke maite. Izen au entzuten dugu ta guziok gauza bera nai dugula aitortzen; mintzo utsak ez gaitu asetzen. Grekoak latiñez dantzunean, ez du atsegiñik, ez baitaki zer esan duten; guk atsegin dugu, berriz, bai ark ere grekoz balentzu, gauza bera ez baita Latiko ez Greziako, eta ua irixteko irrika daude beste izkuntzetako gizonak. Ezaguten dute beraz orok, eta itz berez galdegin balekie doatsu izan nai duten, dudu gabe baietz lerantzukete. Ori ez liteke gerta, izen orrek diagon gauza bera oroitean ez balute.

XXI

Zoroineko bizia ez dugu begiz ikusten, Kartago bezala; ez entzuten mintzaldi bat bezala. Poza oroitzen dugun bezala ote?

30. Ala oroi al da Kartago ikusi duna? —Ez: bizi doatsua ez da begiz ikusten, ez baita gorputz. Ala oroi al dira numeroak? —Ez: ezagun dituk ez baititu ukan nai; bizi doatsua berriz gogoetan dugu ta maite dugu, eta oraino ukan nai dugu doatsu izaiteko. Ala mintza-antzea? Ez: izen au entzunik gauza au bera gogora arren, oraino mintzalari ez dirnak eta izan nai duten aunitzek —ortan ageri baita ezaguera badutela— gorputzeko sumaikiz auteman ditute zenbait mintzalari, ta atsegin artu, ta ala izan nai dute. Alare, barne-ezaguera ukan ez balute, ez lukete atsegin, ez izan nai ere alako. Bizi doatsua, aldiz, ez dugu sumatzen bestegan gure sumaikiz.

Ala oroi al da poza? ausaz; ene poza oroi baitut illun egonik, bizi doatsua ere baidoakabe izanik. Gorputz-sumaz ez dut berriz nere pozik ikusi, entzun, usnatu, iasttu, ukitu, baiña barnean gertatu zait poztean, eta aren ezagua itsatsi zaio nere animari, oroi baitezaket guttietsiz, iñori irrikatuz poztu nautela oroi zaizkidan gauzen araura. Lizunkien pozak ere eragin nau, orain arao ta birao gaitzesten baditut ere. Gauza on eta ederrak ere bai iñoz, irrikaz gogora ditut, ondoan ez badauzkat ere, ta aien lengo poza goibeltsu gogora badut ere.

Non eta noiz, beraz, sumatu dut ene bizi doatsua, oroitzeko, maitatzeko, opa ukaiteko? Ez nik bakarrik edo guttirekin; guzi guziak nai dugu izan doatsu. Tinki ezagu ez bageneza ez genuke tinki naiko. Zer ordea? Biri galdegiten badiegu, gudari izan nai dute ala ez, batak nai ta besteak ez nai erantzun dezake; doatsu izan naiduten galde balekie, biek berela, kolo-kan egon gabe, baietz esan dezaikete, ta doatsu izateko bestetako ez dula batak gudari bai, besteak ez izan nai. Batak poza andik, bestak emendik dulako ez ote? Oro erara daude doatsu naiean, eta erara leude galde balekie; poztu nai dutela, ta poz au deritzote bizi doatsua. Batak an, bestek emen, ukaiten badu, batera ioaiten alegiten dute orok: pozera. Au sumatu ez dula iñork ez baitezake esan, orregatik «bizi doatsu» izena entzutean, oroitean arkituz ezaguten dugu.

XXII

Iainkoa beste pozik ez dut nai: au da zoriona.



31. Bego, Iauna, Zure morroiaren, aitortzen zaitun morroi onen biotzetik bego urrun, nolanaiko pozez ni poztea, ta nik ori zorion iriztea. Gaiztoeri ez-baiña Zu urrurik maite zaituteneri ematen zaien poza baita; Zu Zerau. Au da bizi daotsua: Zugan, Zugandik, Zugatik poztea; au da ta ez besterik. Besterik dala uste dutenek, beste poz-billa dabilta, ez egiazkoa. Alare, gogotik ez dute lekutzen erraiñu oro.

XXIII

Zorioneko bizia egiazen poza da: Zurea, nere Iainkoa.

32. Oro doatsu izan nai dutela, ez da beraz egi, Zugan poztu nai ez dutenek ez baitute egitean doatsu bizi nai, Zu bizi doatsu bakarra izanik. Nai al dute, edo-ta nai dutenik ez egiteko al dutenera erortzen al dira, ta artan erara egon, «aragia animaren aurka ari dalako ta anima aragiaren aurka, ez baitute gogorik aski, ezin duten ua nai izateko» (Gal. 5, 7).

Orori galdegiten diet egiz ala gezurraz poztu naiago duten; doatsu izan nai luketen bezain bipil diagote egiaz poztu nai dutela. Bizi doatsua egiazen poza baita. Au da Zutaz poztea, egi zeran Iainko, nere argitasun, nere aurpegiko esasun, ene Iainko. Bizi doatsu au orok nai dute, bakarrik doatsu dan bizi au orok nai dute: egiaz orok poztu nai dute.

Uts eragin nai dunik aunitz atzeman dut; uts egin nai dunik iñor ez. Non ezagutu dute bada bizi doatsu au, egia ezagutu zuten artan ezik? Maite dute, ez baitute utsegin nai, eta bizi doatsua maite dutenean —egiazen poza besterik ez baita— egia ere maite dute, eta ez lukete maiteko, beuren oroitean, aren berri zerbait ez balukete.

Zergatik ez dira, beraz, artaz pozten? Zergatik ez dira doatsu? Doatsu baiño doakabe biur detzaken gauzetan gogozago aribaitira, aiek aul gogoratuz. Oraino argi gutti dago gizonengan; bebiltza, bebiltza, illunak atzi ez detzan.

34. Egiak zergatik dakar erra, ta zure egi-zabalzalea zergatik gerta zaie etsai, egiazen poza bestrik ez dan bizi doatsua maite dalarik? Egiaz besterik maite dutenek, maite duten au egi izatea nai lukete. Ola maita oi da egia. Utsegin nai ez dutelako, utsean daudela ezdute siñetsi nai. Egi-orde maite duten arengatik diote erra egiari. Maite dute, argi egiten dularik; era diote, naasten ditularik. Uts egin nai ez ta eragin bai nai dutelako, maite dute bera agertzean; gorroto, ark aiek agerraraztean. Ola pagatuko die, agerraraztea nai ez dutena agerraraziz, eta bera ez agertuz.

Ola, bai; giza-animak itsu, aul, lizun itsusiak ola nai du; berari ezer izkutatzerik ez du nai. Oker ateratzen zaio: egitik ezin kuka bera ta egia bai arengandik. alae bere doakabea, gezurrez baiño egiz poztu naiago du. Doatsu, beraz, egi utsez pozten dana, guziak Berengandik egi duten Aren akarrik gabe.

XXIV

Egiazen Iainkoa arkitu du oroimenean. An dauka ta an arkitzen du.

35. Ikus noraino ioan naizan Zure billa nere oroimenean, Iauna, ta andik landa etzaitut arkitu. Zu arkituz geroz, ez dut arkitu Zutaz ezer gogoan ez nunik. Ezagutu zaitudanetik etzaitut aantzi. Egia arki-lekuan berean arkitu dut ene Iainkoa, Egia Bera; ta ikasiz geroz, ez dut aantzi. Beraz, ikasi zaitudanetik oroimenean zaduzkat, eta emen arkitzen zaitut, Zugan oroitzuz pozten naizanean. Olako atsegin sainduak eman ditidazu Zure errukiz, nere bear-izanari begira.

XXV

Baiña oroimenaren zein txokotan dago Iainkoa?

36. Baiña non zaude nere oroimenean, Iauna, non? Nolako egoitza eratu duzu? Nola iauretzea eraiki? Zuk egin diozu nere oroimenariartan egoteko doaia. Baiña zein zizkutan ote zauden ari naiz. Zu gogoratzean iragan ditut ihizeek ere dituten zizku aiek; ez baitzindudan arkitzen an, gorpuzkien erraiñu tartean. Gogo-eragiñen goraintzia dutan beste aietara iragan naiz; eta an ere ez arkitu. Sartu naiz animaren beraren zizkuan, baitu onek ere bere zizkua oroimenean; anima ere bere nordanaz oroi baita. Etzeunden an er, ez bai zera gorputz-erraiñu, ez bizien gogo-eragin, ots, gu alaitzen, goibeltzen, griñatzen, bildurtzen, oroitzen, aantzen eta abar geranean bezala. Etzera anima bera ere, Zu baitzaitu Iau; eta griña oriek aldakor dira. Zu berriz aldagabe zaude guzien gain, eta nere oroimenean egon nai izan duzu, artan ezagutu baitzaitut.

Baiña zergatik ari naiz non zauden, an nongorik balitza bezala? An zaude, bai, oroi baitzaitut ezagutuz geroz, eta an arkitzen zaitut Zu gogoratzean.

**XXVI**

Bere buruz gain, Beragan arkitu du Iainkoa.

37. Non arkitu zaitut, beraz, Zu ezaguteko? Ezagutu baiño len ezbaizindudan oroitean. Ezaguteko non arkitu, beraz, Zugan eta nitaz gain ezik? Ez da tokirik, eta arat onat gabiltza, ta iñon tokirik ez. Zu, Egi, auziburu zaude galde datozkizunentzat, eta galde bixiko guzieren batean erantzuten diezu. Garbi erantzuten ere, baiñan ez dute guziak garbi aditzen. Nai dutena galdegiten dute, baiña nai dutenik ez dute beti aditzen. Zure morroirik oberena, berak nai duna aditzen duna ez-baiña, Zuri aditua nai duna da.

XXVII

Berandu maitatu du Iainkoa. Barnean zeukan, eta Augustiñ beregandik kanpo.

38. Nekez maitatu zaitut edertasun ain zaar etaain berri, nekez maitatu! Barnean ziñeukadan, eta ni landan nindabillan, eta an zindudan billa nai; eta Zuk egin-eder auetara oldartzen nintzan, itsusi au. Enekin ziñan eta ez nintzan Zurekin. Zugan ezik liraken ere aiek, Zugandik urrun nindukaten. Egin didazu dei ta oi, ta nere sogortasuna autsi; argi ta dirdir egiñez aizatu duzu ene itsumena; ats egin duzu ta arnas artu dut, Zu zaitut arnasten; iastatu zaitut eta gose-egarri naiz; ukitu nauzu ta pakea darit.

XXVIII

Gizonaren bizia burruka da.

39. Ni osoa natxikazunean, ez dut aurrera nekerik eta lanik, eta nere bizia Zutaz beterik biziko da. Baiña zutaz betetzen duzunaarintzen baituzu, Zutaz betrik ez nagolako astun nakio nere buruari. Burruka ari zaikit poz negargarri ta negar pozgarri ta ez dakit nork duken gurenda.

Ots, Iauna, erruki zakit! Ene min gaiztoek poz onakin dute burruka eta ez dakit gurenda nork duken. Ots, Iauna, erruki zakit! Ai ene! Ez dut kukatzen nere zauririk: sendagille zera, ni gaixo, Zu urrikaltsu, ni errukarri. Ez al da gudu, giza-gizia lurrean? Nork maite ditu neke-lanak? Iasaitea nai duzu, ez maitatzea. Iasankizunik ez du iñork nai, iasaitea maite badu

ere. Iasaiteak pozten badu ere iasaitekorik eza naiago du. Zori txarrean ona nai dut, onean txarra dut bildur. Bi on tartean zer da giza-bizian gudu ez danik? Eit milla ta bi milla bider gizarteko zoritxarrari, onera-naia baitu, ta txarra gogorra dalako, iraupena galarazi lezake. Giza-bizia ez al da lurrean, etengabeko gudu?

XXIX

*Emazu agintzen duzuna ta agindu zazu nai duzuna.
Garbitasuna eskatzen duzu? Emazu agintzen duzuna ta agindu nai duzuna.*

40. Itxaropide guzia nik Zure erruki txit aundian dut. Emazu agintzen duzuna ta agin zazu nai duzuna. Elikua agintzen diguzu? Norbaitek ziagona, Iainkoa ez emanik elikurik ez dala iakinki, noren doai dan iakitea ere zugurtasun zan. Elikuak, arean, biltzen eta bateratzen gaitu, askotara barratu baiñan. Zurekin zerbait maite dunak eta ua ez Zugatik, guttiago maite zaitu. O maitasun, beti sutan itzali gabe zauden maitasun, ene Iainko: sutu nazazu! Elikua agintzen duzu? Emazu agintzen duzuna, eta agin nai duzuna?

XXX

*Oraindik badatozkio ametsetan aragikerizko iduripen gaiztoak.
Emanen dio pakea Iainkoak.*

41. Begi-irrits, aundinai, ezteko agintzen didazu, bai. Bai akezkeia er. Ezkontza, berriz laketsi; baiñan oberik didazu erakutsi. Ta Zuk emanik, ori egin naiz apeztu baiño len. Baiña nere oroimenean —luzaro mintzatu naizanez— gauza lizunen erraiñuak bizi daude. An itsatsi ditu nere oiturak, eta esnai nagola indarrak ez badute, lo nagola atsegin eman ez ezen ederretsi ere eragiten didate, egiñean bezalatsu. Eta nere animan eta aragian lillurak zenbat indar du. Gezur-itxurak lotan naragite, egizkoak esnai baiñon aruntzago. Ene Iainko Iauna, ez al naiz orduan nerau? Alare nigandik nigana, ernai egonetik lotara zenbat tarte dago une batean! Zergatik, beraz, lillura orieri esnai oldartzen nizaie, ta gauzak berak lotan ez naute eragiten? Begiekin itzaltzen al dira? Zentzuekin lo artzen al dute? Nola lotan ere iazarten gizaie maiz, ta gure asmoaz oroiturik eta artan txit garbi egonez ez diegu leku ematen lillurapide orieri? Alare lotan leku ema-



nik ere badago aldea, barrena lasai gelditzen bazaigu esnatzean, eta bitarte ortan, guk ez dugula egin arkitzen dugu, gudan nolabait damurik gertatu dana.

42. Zure eskuak ez al du aalik aski, Iainko guzialtsu, ene animako gaitzak oro sendatzeko, ta Zure grazi ugariz ametsetako nere zikin lizunak itzaltzeko? Ugari etzazu are, Iauna, nigan Zure doaiak, animak Zugana iarrai dakidan lizun-likatik askaturik; ez dedilla beretzat gorbizi, ta ametsetan ere leku eman ez-baiña ez detzadala ustelkeri itsusi oriek egin, erraiñu loien bidez aragi-iarioraiño. Guk eska-ala ta ulertu baiño geiago baitagikezu, Iainko altsu, ez ada aundi, bizi ontan eta adin ontan nik loaldi garbian alegintto batez atsegin orieri gutti edo batere ez ederestea. Oraiño gai ontan zein gaizto naizan, esan dizut ene Iaun ona, poz-dardaraz eman didazun ortaz, eta negarrez, ondu ez naizan artaz. Baditxarot nigan Zure urrikia biribilduko duzula pake beteraiño. Au dukete nere barne-landak Zurekin, gurendak eriotza iresten dunean.

XXXI

Barauen bitartez motelduko zaio griña ori.

43. Ene egunak badu beste neke bat: aski beza. Gorputzaren eguneko aultasuna zuzperten dugu ian-edanez, Zuk sabeleko iana suntsitu arteo; nere gosea illen baituzu asetasun miragarritz, eta gorputz ustel au betiko ustelgabez iantziko.

Orain ordea bear goxo dut eta goxotasun onen aurka ari naiz, atzi ez nazan eta egunoroko gudua dut baruretan, ene gorputza maiz morroi biurtuz. Nere miñak atsegiñak aizatzen ditu. Gose-egarriak min zerbait dira, su ta sukarrak bezala iltzen dute ianari sendagarria ematen ez bazaie. Au bertan dugu zure doai pozgarriz. Doai orietan lurra ta ura ta zerua ditugu morroi, eta atsegiñaren atsegabe dute izena.

44. Au artako erakutsi didazu: sendagaia artzera bezala iatera urbil nadin. Baiña gosearen neketik asearen pakera igarotzean, bertan itxediten dit irritsaren segarak. Iragaita bera atsartzea da, ta igaroteko ez da beste irangurik, bearrak ala eraginda. Ian-edanaren izatea osasuna baita, oni biltzen zaio atsegiña bideondoko antzo, ta maiz bideurreko gerta nai du, eta osasunarengatik egin nai omen duguna arengatik egitea nai du.

Ez dute biek neurri berdiña: osasunari aski zaiona, atsegiñari osta. Maiz ez dakigu gorputzak oraiño gaixo-laguntza nai dun ala gezur-atsegiñarena. Ez-iakin ontaz alaitzen da anima gaixoa ta ortan arkitzen du

zuribidea: osasunaren doia zer dan ez agertea poz du, osasun antzean irritsa itzalgaizteko. Tentazio aueri egunoro iarkitzen nakie, albait, eta Zure eskuinari dagiot dei, Zudan egozten ditut ene kezak, ontan koloka bainago.

45. Iainko mintzoak au agintzen dit: «ez bitez toildu zuen biotzak sabelkerian eta mozkorkerian». Mozkorkeritik urrun nago: erruki zakit, urbildu ez dakididan. Sabelkeria bai, iñoiz limurtzen zaio Zure morroi oni: urrun ezaidazu, arren; «iñor ez diteke gartxu, Zuk ez emanik». Otoitzean aunitz demaiguzu, ta otoitza baiño len onik artu badugu, Zudandik artu dugu; otoitzondoan ori ezagutea ere bai. Ez naiz mozkor izan iñoiz; baiñan ezagutu ditut mozkorrak Zuk gartxu egiñak. Zuk egin duzu, beraz, iñoiz izan ez ziranak ez izatea, Zuk egin, ziranak beti ez izatea, Zuk egin ere, ori nork egin dun biek iakitea.

Ona Zure beste itz bat: «ez ioan zure irritsen ondotik», eta «aldegi zu zure naikeritik». Entzun dut au ere Zure doaiez, eta maite dut: «ianez ez gera ugariago; ez ianez etzaigu peituko», ots, bata ez nau aberastuko, besteak ez ondatuko. Ona beste bat: «Guzia dezaket indartzen naunagan». Au da zeruko saldoko gudaria, ez gure autsa. Oroit ordea, Iauna, auts gerala, gizona autsetik egin duzula, ta galdu ta arkitu zala. Ark ere etzeza-ken berez; auts beretik baitzan. Olakoak Zure arnasez esan zitulako maite dut: «guzia dezaket indartzen naunagan». Indar nazazu, al dezadan; emazu agintzen duguna, ta egin zazu nai duzuna. Onek artu duladiago, taillarraintzen dana Iainkoagan illarraindu bedi. Beste bat eske ari zan: «ken izkidazu sabel-irritsak». Ortan ageri da, ene Iainko Iauna, ematen duzula, Zuk agindua egiten danean.

46. Erakutsi didazu Iauna, «garbiendako oro garbi»; baiña «gaitz zaiola gizonari erorbiderako iatea»; «Zure sorkari oro on dala, ez aizagarri, esker egiñez ar baledi»; «ianak ez gaitula goraintzi Iainkoari», eta «ian-edanaz ezgaitzala iñork iritzi»; eta «iaten dunak ez dezala erdeiña, iaten ez duna, ta iatunak ez dezala galetsi eztuna». Au ikasi dut Zuri esker. Zuri ospe, ene Iainko, ene irakasle, ene belarrien ernarazle, biotzaren argitzale; atera nazazu tentaldi orotatik. Ianaren zikiñari ez baiño irritsarenari diot bildur. Badakit Noeri sori zizaiola ian-aragi oro iatea; Eliak aragia ian zula; gartxu miragarri zan Ioanes ihizeak, ots, larrapottiak ianez etzala loitu; badakit Esau txilistak lilluratu zutela, ta Dabid, egarri zala bere buruari akar egin ziola, eta aragiak ez-baiña ogiak tentatu zula gure Erregea. Israel erriak ere basoan aragia irrikatu zulako ez-baiña Iainkoaz marmari egin zulako gaitzetsi zun Iainkoak.



47. Ian-edanaren tentaldi auek narabilte egunoro; ez baitago bein eten eta geiago ez ukitzerik, emazteekin egin nuan bezala. Beraz, galga bear du zintzurak lasa-ertsi egiteko. Baiña nor da, Iauna, bear danetik araxego lerratzen ez dana? Nornai dala, aundietsi beza Zure izena, aundi baita. Ez ordea ni, bekatarri bainaiz. alare aundiesten dut Zure izena, ta mundua garaitu zun Arek otoitz dagi nere obenengatik; Aren gorputzaren atal aulen artean bainago, ta Zure begiak nere maketsak ikusi ditu ta zure liburuan idatziak gaitzke oro.

XXXII

Usai gozoeri ez die kasurik egiten.

48. Usaien zoramenaz ez naiz luzatuko: urrun diranean, ez ditut billatzen; urbil diranean, ez baztertzen. Gabe egoteko gertu nago. Ala uste dut, oker ez banago. Negargarri da illunbe au, ez baitut ezaguten nigan dagon ahala. Ahal ontaz anima bere buruari galdezka ez da aisa bergan entziten, daukana ere izkutu baitauka, gertatuz ageri ez balekio. Iñork ez luke tinki egon bear bizi ontan —guzia gudu baita— gaiztotik obe gertatu dana, obetik gaiztoago gerta ditekela. Itxaropide bakarra, lasapide bakarra, agindu bizkor bakarra: zure urrikia.

XXXIII

Belarrien atsegiñak (soiñuak) geiago tentatzen du. Batzutan kasu geiegi egiten die; besttan gutxiegi-edo esaterako Eliz-kanta entzutean. Onek zerbait kezkatzen du.

49. Belarriko atsegiñak isitukiago naasten eta menderatzen nau; baiñan artatik azke atera nauzu. Atsegin zait, bai, mintzo legun ikasiak eresten dunean, Zure itza birbizten dun leloa; ez ari itsasteko, baiña nai dutanean gaintzeko. Adierak ematen dion biziaz gaiñera nere biotzean toki gisakorik billa nai badu osta emaiten diot; baitirudit iñoiz, gisa dan baiñon dedu aundiago demaiodala. Itz iainkozko oriek ola kantatu gabean baiño kantaturik, gure barrenai Iainkoagana suarkiago daragiotela nago. Gure barne-eragiñak oro badute beren arioko adierazpide bat mintzoan eta leloan, eta aidego ixil batek esnatzen ditu. Baiña gorputz-atsegiñak maiz itsutzen nau, ta etzait komeni anima kemengabetzea. Zentzu-arrazoinen bide ontan zentzuak etsi etsian atzetik ez-baiña aurretik erakustun

ioan nai du, lagun izatea arazoinari zor badio ere. Ontan dagit oben oar-kabe; baiña gero oartzen naiz.

50. Zerbait aldiz, ordea, amarru oni geixko igesegin nairik, bakan alare, zorrotzegiz okertzen naiz. Dabiden eresi-lelo bigun guziak belarri-tik eta Elizatik ere iraitzi naiko baintuzke. Obeki dirudit Alexandriko Apezpiku Atanasiz ardura entzuna; Salmu-emailleari ain azpitik kantaraz-ten omen zion, kanta ez baiña mintzoa esan omen zitelen. Alare, Eliz-kantak neri eragin malkoetaz oroitzean, bai fedea arkitu berrian, bai orain ere, mintzo garbiz ta egiera egokiz emanik, leloa ez-baiña esana iastatzean oitura au txit onuragarria derizkiot berriro.

Ola nago koloka xoramenaren irriskuz eta osasunaren bearrez; eta baiestenago dut Elizan kantatzeko oitura, anima aula belarrien atsegiñez iainkoagana igo dedin. Ez nuke, alare biribil aitortu nai. Baiña, gerta oi zaidana, esanak baiño leloak eragitenago naunean, oben nekagarri dagit, eta naiago nuke kantarik ez entzun.

Au da nere egoera. Barnean zerbait on dagizuenak, andik baitatoz egin onak, egizue negar nerekin eta nitaz. Ez dagizuenak etzerate kupit-zen. Zuk, ordea, ene Iaun eta Iainko, entzun; begira neri; senda nazazu. Zure begietan auzi gertatu naiz, eta ori dut neke.

XXXIV

Begien atsegiñak (argiak), biziro erakartzen du.

51. Aragi-begi auen atsegiña dut azken-auzi. Entzun bezate aitortza-pen au Zure iauretxearen belarriak, ene anai zintzoen belarriak. Ola buka-tuko dut aragi-irritsari dagokiona. Zirkin daragit oraiño, «negar-artean, nere zeruko egoitza iantzi nai nukenean» (II Cor. 5, 2). Begiek maite ditute, eite eder eta bixikoak, margo ñabarrak. Ez bezate atzi nere anima: atzi beza Iainkoak. Ark egin baitzitun eer garai, eta Ua da nere on; ez auek. Esnairik egunoro ukitzen naute pakerik eman gabe. Kanta-leloak iñoiz emaiten dit oro, ixiltzen diranean. Dakusagun argi au, margoen Eregiña, egunez noranai edatzen baitzait, limur legunkatzen ari zait oarkabe, bes-tetara nagola. Ain barna sartzen zaigu, ordea, betbetan kentzen badigute, biziki irrikatzen baitugu, ta luzaro goibeltzen gaitu.

52. O Tobia itsuak semeari bizirako bidea erakustean ikusten zun argia! Maitasun-oiñaz aintzin zoan beinere utsegin gabe. Isaak'ek zarturik kuku zeuzkan aragi-begiak ikusten zuten argia! Semeak ezagunez onetsi ez-baiña onetsiz ezagutu zitun. Edo Iakobek ikusi zuna; ark ere zaar eta



itsu biotz-argiz argitu baitzun semeengan ondoko errien etorkizuna. Iosepengandiko billoberri eskuak antzumatuz ezarri zitien buruan, aien aitak nai bezala ez-baiña barrenak agintzen zion bezala. Argia bera da, bat da, ta, baita ikusten eta maitatzen dutenek ere.

Baiña niagon begi-argi onek, munduzale itsueri lillura biguin limurkoiez goxatzen die bizia. Ortaz goersten etzaitutenek ere, guzien Irazaila, Iainko artzen dute goizeko eresian eta ark ez ditu artzen beren loan. Ola nai nuke izan. Iarki nazaie begi-lillureri, nere oiñak kateatu ez ditezen, Zure bidean ioan bear baitute; ta Zugna iasotzen ditut gogo-begiak, «ene oiñak segaratik aska detzazun». Maiz atera oi dituzu, kateatzen baitira. Ateratzen ater gabe; ni berriz maiz itsasten nizaie, nonai arteak edaturik baitaude; «Israel zaintzen duzun orrek ez baituzu lo-armarik, ez lo-zorrorik» (Ps. 120, 4).

53. Begien berezko zorameneri zenbat eta nolako zorbide eratxiki zien gizon antzetsuek, iantzi, oiñetako, edontzi ta olako lanetan. Baita margazki ta idurikizun beren eginbide doietik aratago eramanez! antze aren gisako dira kanpotik, eta egin dituzun Ori uzten zaitute barrendik, beren izaera suntsituz.

Nik berriz, ene Iainko, ene edertasun, emen ere eresi egiten dizut eta «gorespenezko opari» oparigille Ori, esku antzetsu aien bidez datorrena animaz gaindiko edertasun artatik baitator. Ua du asperen gau ta egun nere animak. Artatik artzen dute antze-gizon oriek ere lan orien neurria; baiñan ez beren onerako neurria. An dago ta ez dute ikusten aruntzago ez ioateko ta «indarra Zuretzat gordetzeko», ta belaxkakerietan ez barreiatzeko.

Irritiz mintzo naizan onek ere, eder orietan oiña sartzen dut, baiña Zuk ateratzen duzu, Jauna, Zuk ateratzen, «Zure urrikia begi-aintzinean baitaukat». Atzi naute doakabe au, ta Zuk urrikarriro ateratzen nauzu; aldiz oarkabe goragotik erorita ere, aldiz miñez lerratu orduko.

XXXV

*Begien irritsa edo ikusmiña. Ikuste au, zabalago edatzen da:
iakinkizunetara, ikuskarri galgarrietara eta abar.*

54. Oni datxiko beste tentazio mota bat askoz arriskutsuagoa. Aragi-irritsez gainera —zentzu ta atsemen guzien limurbide baita, ta ari darraizkonak galtzen baitira Zugandik urrun— bada animan aragi-atsegiñ ez-baiña aragi-bidez datorren beste irrits bat, ikus-nai utsal bat, ezagute ta

iakite izenez iantzia. Ikus-gogoan baita, eta ikasteko zentzu nagusiak begiak baitira, idazle sainduak «begi-irrits» izena eman zion.

Ikustea berez begiari dagokio. Beste zentzuetaz ere itz ori erabiltzen dugu, ezagutu adierazteko. Ez dugu esaten «entzun ista au, entzun txingarra, edota usna dirdai au, edota iasta erraiñu au, uki argitasun au»; guziok ikusi egiten baitira. Esaten dugu ordea, ez bakarrik ikus zer argia! —begiek bakarrik ikusi baitukete— baita «ikus zer soiñua, ikus zer usaina, ikus zer atsea, ikus zein gogorra».

Beraz, erabat, zentzu guzien suma begi-irritsa deritza, esan dutana. Ikusteko eginbide au batez bat begiena izanik ere beste zentzuetan ere ba derabillagu antzera, ezagutuz mintzo gerala.

55. Obeki ageri da zentzuen bidez atsegiñaren eta ikasnaiaaren alde: atsegiñak eder, mintzo, guri, goxo, legun diranak billatzen baititu, ikusnaiak aldiz baita bestera, neke artzeko ez baiña ikasnaiez eta aztertu naiez. Zer atsegin dugu gorpu xeatuaren lazgarria ikusteaz? Alare, nonai datzala, an doaz goilbeltzera, zurbiltzera. Ametsetan ikus-bildur ere dira, esnai daudela ikusarazi bai lien, edo eder-izenak eragin litun gisan.

Orobat beste zentzuetan, luza ez nadin. Ikusmin onentzat ikustegietan arrigarriak agertzen ditute. Onela ari dira gutaz-gain dagon izadiko izkutuak aztertzen; iakiteak ez du protxurik eta gizonek iakin besterik ez dute nai. Onela aztikerietan ere, ikasnai biurriz. Onela, iainkotasunean ere Iainkoa bera zirikatzen dute agerbide arrigarriak eskatuz, osasunerako, ez baiño ikusnai utserako.

56. Segaraz eta irrikuz beterik dagon oian izugarri ontan orra zenbat itzuri ditudan eta biotzetik iraitzi, Zuk lagundu bezala, ene osasun-Iainko. alare noiz nuke bekoki, egunoro nundinai furrundaka datozkidan olakoe-tan, noiz nuke bekoki ezeren ikusnai eta ikasnai txororik ez dutala esateko?

Ikustegiak ez narama, izarren biderik ez dut iakin nai; beste munduko en erantzunik ez dut galdetu: madarikazio guziak gorroto ditut. Zenbat amarruz ari zait, ordea, etsaia, siñale bat eskatzeko Zuri, morroi xume ta garbi Ierusalem izenean, oi leku emaitetik nagon baiño urrunago egon nadilla gero ta geiago. Beste norbaitengatik Zuri nik otoitz egitean, beste asmorik dut, eta Zuk nai duzunari nik nai izaitea emaiten eta emanen didazu.

57. Nork esan, ordea, gure ikusnaiak egunoro zenbat eta nolako purtzilkerietan kilikatzen gaitun eta zein maiz erortzen geran. Zenbatetan, uskeriekin datorguna egari oi edo dugu lenik, aul ua ez naigabetzeko; gero, ezarian gogotik entzuten dugu. Zirkuan zakurra erbiaren ondotik



doala, ez diot iara ematen; baiña landan gerta banendi, gogai aundiren batetik erauzten nauu eta eize arek beregana makurtzen, biotzaen griñaz, ez astoa bazterraraziz. Eta nere aultasuna laister adierazten ez bazenida, edo ikuskari artatik Zugana igoarazten beste gogai batez, edo puztatu ta utzi, zozotzen naiz artan.

Etxean nagola, sugandilla, euli-eizean edo armiarma sarean biltzen ari dirala ez al naute ernarazten? Bizidun ok ttipi izanik ere, gauza bera daragite. Andik igaro oi naiz Zu gorestera, guzien Egille ta antolatzaile miragarria, baiñan ez da andik asi nire atzartasuna. Berela ieikitzea bat da; ez erortzea beste bat.

Olakoz betea da nere bizia, ta Zure urriki txit aundia beste itxaropenik ez dut. Gure biotza olakoen gordagu gertatzen danean, eta millaka uskeriz ernaritzen, orduan atertzen eta naasten da gure otoitza, eta Zure aintzinean biotz-oiuz Zure belarrietara dugularik, ez dakit nola eten oi zagun zeregin aundi ori gogai bitxi orien zaratarekin.

XXXVI

Mendeku edo bengantza-naia, arrokeria.

58. Au ere gutxiestekoen artean sartuko al dut? edota ezerk itxaropidera bilduko al nau Zure erruki ezagunak ezik, asi baitzera ni aldaerazten. Badakizu zenbateraño aldatu nauzun, lenik apen-griñatik sendatu bainauzu, «gero nere okermin guzietan nere alde ioka zaiten, eta nere makalkeriak oro senda detzazun, nere bizia ustelkeritik atera dezazun, ni errukiz ta urrikaltasunez buruntzatu nazazun, eta ner guraria onez ase dezazun». Zuk ezi baituzu Zugana bildurrez ene arrokeria, ta nere lepoa «Zure uztarripean» otzandu. Baderamat orain, eta «arin zaida», orrela agindu baitzenun eta egin; ola zan egitan, eta ez nekin, aren azpira-bildur nintzanean.

59. Baiña, Iauna, Zu bakarra baitzera Iaun arrokeri gabe, Zu baitzea egizko Iaun bakarra, Iaunik ez duzuna, utzi al nau irugarren tentaera onek, edo utzi al nazake bizi guzian? Biziera doakabe ta arrokeri itsusi da gizoneri maitagarri ta bildurgarri izatea, ortatik poza datorrelako, ez bes-tegatik. Ontatik dator batez ere, Zu ez maitatzea ta Zuri bildur iatorra ez ukaitea; orregatik «arroeri iarki ta xapaleri grazi eman» ari zera, ta mende ontako aundinaia «burrunka ari zakio», ta «mendi-oiñarriak ikara dauzkazu». Beraz, gizartean elkarri laguntzeko gizonen maite bildurrak on bazaizkigu, gure zorionaren etsaia akioan ari zaigu «aupa, aupa», xedera

antzo zabalduz, arretz entzunik oarkabe atzi gaitzan eta Zure egiaren poza egitzi dezagun eta gizonen gezurrean ipiñi. Zugatik ez baiña Zure orde z gogo dugu maite ta bildur gaitzaten; eta orrela, aren antzeko biur-turik, beretzat iduki gaitzan, maitekide ez-baiñan oiñazekide izateko. Bere egoitza iparrean ezarri baitu, illun eta epel diranak bere antzera Zuri bide gaiztoz eta bigurritz mendera dizaizkizun. Gu, berriz, Iauna, Zure artaldeño gaituzu; ar gaitzazu. Zabal ego oriek, oietara iges goazan. Zu zaitte gure aundipide. Zugatik gaitzez gugan maitagarri edo bildurgarri. Zuk eze-tsita maitagarri opa izan nai duna, gizonek ez dute iagoten Zuk ebaztean, eta ez da iare izanen Zuk galtzean. «Obendaria bere barneko gurarietan goretsi ez, eta okergillea onetsi ez-baiña», Zuk eman zenion doairen bate-gatik goretsia danean, eta au ere pozago baldin bada gorespen ortaz goretsia izateko daukan doaiez baiñpo, au ere goresten dute Zuk ezeztean, eta goresle au obeago da goretsi au baiño. Ari Iainko-doaia atsegin zion gizon orrengan; oni goxoago zaio giza-doaia Iainkoarena baiño.

XXXVII

Mihia (mingaiña) galgatu bear da: goreskizunen arrixkua.

60. Axukaldi auek egunoro axukatzen gaitute, Iauna; atergabe axukatzen. Giza-mihia egunoroko labe da. Ontan ere galga agintzen diguzu: emazu agintzen duzuna ta agin zazu nai duzuna. Ontan Zuk dazagutzu nere biotz-intziria ta nere begien errekak. Ez diot errex igarten izurri ontatik noraiño nagon garbi, ta agitz bildur naiz, nere begiek ez-ta Zureek dakizaten oben izkutuetaz. Beste edozein axukalditan, badut nere burua aztartzeko almena; ontan ia baterez. Atsegin lizunetik eta ikusmin geiegitik badakusat nola iritxi naizan ene barrena galgatzera, gauza aietaz, nai edo bear, gabe naizanean. Neronengan dakusat ordun noiz zaidan neka-garriago, noiz ezago, aiek ez ukaitea.

Aberaskiari dagokionez —iru griña orien naiz biren, naiz guzien mendeko dirala— anima ezin oartu baledi ukanez guttiesten ditula, utzi ditezke oarremateko. Baiña goreskizun bage egoteko ta ain gabe zer deza-kegun aztartzeko, gaizki bizi bear al dugu? edota galduki ta basati, ezagun gaitun orok igundu gaitzaken eran? Zorakeri aundiagorik ez diteke esan ez asma. Goreskizuna oster, bizitze on eta egite onen lagun oi eta izan danez, ez aren lagungoa, ez biziera ona, ez ditugu bazter utzi bear. Zerbaiten gabe egona, pakez ala nekez egari al dukedan ez dut ezaguten, ez daukadaño.



61. Zer aitortzen dizut, Iauna tentaldi-mota ontan? Gorespenak atsegiten didala, alegia. Baiñan egjak areago gorespenak baiño. Autarazi nai balidate, edo zoro amorratu izanik guzietan utsegin eta gizon guzien gorespene iasco, edo zugur eta egian oso tinki egonik, gizon guzien iraiñak iasco, badakit zer aut. Ez nuke nai ordea, besteren agotik datorkidan edo-zer gorapenez nere poza geitzerik. Geitzen dit, ordea, ta are, gutxitzen iraiñak. Eta aulkeri onek asaldatzen naunean, nere burua zuri-naia dator- kit, zuk dakizu, Iauna, nolakoa; eta kolokan uzten nau. Zuk agindu baiti- guzu galga, ots, gure griña zertan galgatu, ta berebat zuzentasuna, ots, nora io, eta Zu ez-ezen lagun urkoa maitatzea ere nai baituzu, askotan pozten nau ustez, urkoaren etekiñak eta itxaropenak ondo-ulertzen duna- ren goraldiz poz naizanean; orobat aren gaitzez naigabetzen naiz, ez- iakinki naiz on-arren iranka ari zaizkienean. Nere goreskizunez ere nai- gabetzen naiz iñoiz, nigan naigabe zaidana goraiatzten dutenean, edo nere doai gutxigo edo kaxkarragoak bear baiño geiago goresten diranean. Nondik dakit, oraiño, zergatik ola eragiten naun; nere goreslea nigandik okerzea nai ez dutalako, ez aren etekiñak naragilako, baiña neri nigan atsegiñ zaizkidan on oriek goxoago zaizkidalako besteri atsegiñ zaizkio- nean? Ez naute ni goresten —ala esan— nitaz nere aburua goresten ez dutenean; nere gogoko ez diranak aupatzen baititute, edogeiegi, nere gogoz besterago diranak. Ontan kolokan ote nago nereko?

62. Izan ere Zugan dakusat, Egi, bestek ni gorestean, neraugatik ez- baiña urkoaren onak ni eragitea komeni litzakela. Eta ala ote dan ez dakit. Ontan ezagunago nauzu nerau baiño. Arren, ene Iainko, nerau erazagu nazazu aitor dizkidala arkitzen ditudan ene zauriak, nere alde otoi- tuz daga- keten anaieri. arretazago aztertu naiz berriro. Urkoaren etekiñak banaragi nere gorespenetan, zergatik naragi gutxiago, ni orde beste bat bidegabez iraintzen dutenean? Zergatik mintzen nau areago neri baño besteri bide- gabe berberaz nere aurrean egozten dioten goitzarrenak? Au ere ez ote dakit? Azkenik nere burua lilluratu nai al dut, eta egirik ez esan Zure aurrean, biotzez eta mihiz? Aiza, Iauna, nigandik zorakeri au! Ez bekida agoa «obendarien olio» nere burua gantzutzeko.

XXXVIII

Ageriko egñiak goreski-naia, nai arrixkutsua.

63. «Beartsu ta txiro nago» (Ps. 108, 22), ta obeki, izkutuan intzirika nerau atsekabetuz eta Zuri erruki-eske nere utsa bete dedin arte, ta arro-

aren begiak ez dakin pake osoa iritxi arte. Agotik irten oi dan iardunak eta gizonen ageriko diran egñiak goreski-naia dute txit arrixkutsua, eskale- antzo bildutako goreskizunak norbera aupatzea baitute muga. Axukatzen gaitu, ta ortan norbera salatzean, salatze arretxegitik, eta askotan aundinai txoro ortaz txorokiago arrotzen da; beraz ez da arrotzen aundikeri utsala gutxietsiz, ez baitu gutxiesten artaz arrotzen danean.

XXXIX

Geron barnean geure buruaren atsegiñaren arrixkua.

64. Barnean ere barnean dugu beste gaitz bat, tentaldi mota berean. Ark utsaltzen ditu beren buruan poz diranak, naiz besteri ez atsegiñ, naiz atsekabe eman, naiz atsegiñ nairik ez ukan. Baiña beren buruak asko poz- tuz, Zu zaitute naigabetzen, onak diranez ez-ezen, baita zure onetaz, berenak lituten gisan, eta naiz Zureetaz, baiña bereri zor litzazkien gisan, edota naiz Zuri eske, lagunkiro poztuz ez-baiña besten bekaitzez. Guzi auetan, olako arrixku ta nekeetan, badakusazu, iauna, nere biotzaern bil- durra, ta nik obeki sumatzen dut Zuk sendatzen ditidazula bestek egin ditidala baiño.

XL

Irauli ditun gauzetan ez-baiña Iainkoagan arkitzen du toki segurua.

65. Noiz etziñauden enekin, Egi, zer itzuri ta zer irrika neri erakutsiz zuri nere barrena nik al bait zabaltzean ta aholku eskatzean? Irauli dut mundua ortik, aal nun zentzuz, eta so egiten diot enegandik eta nere zen- tzuetatik gorputzari darion biziari. Andik sartu naiz nere oroimenaren zizketan, zabaldi aundi ta, arrigarrero gauzaz beteetan; begiemaner arri- tu naiz, eta Zu gabe ezin bereizi izan dut aietan ezer, eta Zu aietakorik etziñala arkitu dut. Ni ere asmazale au, guziak irauliz eta bakoitza bere einean ipiñi naiez zentzuek zekarkidaten zerbait artuz eta galdetuz; beste batzuk nerekin naaste zaudela ikusirik zentzuak berak bereiziz ta batba- natuz eta oroimenaren aberaski aundietan, auetaz itz, besteak gordez, bes- teak ateraz; nerau ere au egitean, ots, au egiten nuneko kemena ere etziñan Zu, argi betikorra baitzera, ta orri galdegiten nion, baziran, zer ziran, ain- tzat artu bear ziran; eta erakustunari ta agintedunari ernai nindagon.



Askotan dagit au; ontan dut atsegiña, eta nere bearretik iare naginean, atsegiñ ortara dut igesegiten. Zuri galdeka arrotzen ditudan guzietan ez dut toki segururik animarentzat arkitzen Zugan ezik. Zugan biltzen baitira nere zati diranak, nererik ezer Zugandik alde egon ez dedin. Eta iñoiz sartzen nauzu biotzaldi oso oitu gabea, barnera, alako guritasun ez-ezagun batean, ez baitakit, nigan osotu baledi, zer diteken nitaz, bizi au ez danik. Baiña berriro erortzen naiz nere galbide astun auetan eta oiturak iresten nau, ark nauka negar aundiz, eta ertsi nauka. Oituraren zama alako da! Emen egon aal eta ezin; an nai, ta ez gauza, bietan doakabe.

XXI

*Guzietan egja da Iainkoa,
eta nik gezurrarekin batean eduki nai nuan.*

66. Orregatik begieman ditut ene pekatuen gaitzak iru irritsetan eta Zure eskuñari egin diot dei nere osasunerako. Zure dirdaia biotz zaurituz ikusi dut, eta birzauriturik, nor doake ara? esan. Iraitzia naiz Zure begien aurretik. Zu zera guzien buru dagonegia. Nik ordea, etzindudan galdu nai nere euki-gosean; Zurekin gezurra nai ukan. Iñork ez du gezurrik esan nai egi itxura galtzeko aiñakorik. Galdu zindudan, beraz, ez baitzaizu eder gezurrarekin egoitea.

XXII

Augustiñ Iainkoagana bitarteko billa.

67. Nor arki nik. Zurekin adiskidetu nazanik? Aingeruengana io bear al nuan? Zer otoitzez? Zer sagarakiz? Askok Zugana itzul naiez —bere-nez ezin— bide ontra io zuten, eta ikuskarien ikusmiñean erori ziran, eta lilluratzea irabazi zuten. Iakite arroz puzturik asi ziran Zure billa kolkoak anpatuz ez ioaz; biotzean orobat «eguratseko indarrak» erakarri zituten beren arrokeriaren lagun, aien aztikeriz atzipean gelditzeko. Bitartekoa nai zuribide, ta arkitzen ez, deabrua baitzan argi-aingeu biurturik. Eta aragi arroa bizi-ro erakarri zun bearaagi-mokor etzalako. Aiek eriorok eta obendari ziran; zu, berriz, Iauna, ezin erio ta obengabe ta Zurekin onezkoak arroki egin nai zituten. Gizonen eta Iainkoaren bitartekoa zerbait Iainko-antzeko bear zun eta zerbait giza-antzeko, bietan giza-antzeko izanik Iainkoagandik urrun egon etzedin, edo bietan Iainko-antzeko izanik gizo-

nengandik urrun egon etzedin; beraz, ezin izan bitarteko. Beraz, bitarteko gezurti arek arrokeriz izatea merezi baizun Zure epai izkutuz, bat du gizonekin, ots, pekaua, ta besterik dula agertu nai du Iainkoarekin; Aragi ilkorrak ez baitu biltzen, illezkor orde agertzen da. Baiñan oben-saria eriotza baita, au du gizonekin berdiñ, aiekin batean eriotzara galdua dala.

XLIII

Egjazko bitartekoa Iesukristo bakarra da.

68. Egizko Bitartekoa, aldiz, Zuk erruki izkutuz umilleri erakutsia, Ua eredu zala umiltasuna ikasi zezaten, gizonen eta Iainkoaren Bitartekoa Ua, Iesukristo obendari ilkorren eta zintzo illezkorren artean agertu zan; eriorok gizonekin, zintzo Iainkoarekin, zintzo-saria bizia ta pakea baita Iainkoarekin baateko zintzotasunez, gaizto zintzotuen eriotza uts eman zezan; aiekin erdikide ukan zun eriotza. Au agertu zitzaien antziñako saindueri, Beronen geroko nekaldiaren siñestez zerura zitezen, gu aurrekoaren siñestez bezala. gizon danez Bitarteko; Itz danez ez tarteko, Iainkoaren berdiñ baita eta Iainkoagan Iainko, ta Iainko bakarra berarekin.

69. Zenbat gaituzu maitatu, aita on, «Zure Seme bakarrari ez baitio-zu barktu, baiña gu gaiztoongatik duzu emana!» Zenbat gaituzu maitatu «guregatik ez bitzitaion lapurreta iduritu Zurekin berdintzea, menpeko egin zan gurutz-eriotzeraiño», illen artean bakarrik eskuko zana, «bizia uzteko ta berriro artzeko eskubide duna», guregatik opari, ta garaille dlako opari, gure alde Zure apaiz eta iaureskeiñi egiña; ta lepo egiña dalako Apaiz, iopu giñanok Zure Seme biurtuz Zugandik iaioz eta guri gomen egiñez!

Bidez daukat Arengan itxaropide, Arengatik nere gaitzak oro sendatuko baitituzu Zure eskuñean iarririk gure alde otoika ari dan Arengatik. Bestela, etsi nezake. Asko ta aundi dira gaitz ok, asko ta aundi, baiña Zure sendagaia areago. Uste genezaken, Zure itza gizonen elkartetik urrun zegola eta orrela etsi, gizon egin eta gurekin bizi izan ez balitza.

70. Nere obenetaz eta nere doakabearen zamaz ikaraturik, biotzean irauli nuan eta gogoak eman zidan bakartegira ioatea; Baiña zuk eagotzi nauzu ta bizkortu nauzu orrela: «Orregatik Kristo guzien alde il zan, bizi diran aiek berentzat ez-baiña aien alde il zanarentzat bizi ditezen». Zugan egozten dut, Iauna, nere kezka, Zure legeaz arrigarriak gogoemateko bizi naizano. Badakizu nere iakin-eza ta aultasuna; irakas nazazu ta senda. Zure bakarrak, beregan baitauzka zuhurtze ta iakiteaern ondasun guziak;



bere odolez erosi nindun. Arroek ez nazate beltzatu, nere eroste ori gogotan baitaukat, eta iaten dut, edaten, banatzen, eta, gaizo ni, Artaz ase nai dut, iaten duten eta asetzen ditun aien lagun. «Eta goretsiko dute billa dabilzionak».

AMAİKAGARREN IARDUNA

I

*Iainkoa betieran bizi da; gu noizaldian. Amaikagarren iardun
ontan aldia zer dan azterzen du.*

1. Iauna, Zure betiera ortatik ez al dituzu ulertzen nik esanok, edota, aldian gertatzen dana aldika ulertzen duzu? Zezrtako aipatzen dizut, beraz, oinbeste gertari? Nere bidez ezagu detzazun? Ez, naski; baizik eta Zugana nere griña piztu dezadan —eta irakur nazatena, guziok au esan dezagun: «aaundi da Iauna taguziz goresgarri». Bein ta berriz esan: Zure maitearen maitez ari naz ontan. Otoitz ere badagigu, egiak au dion arren: «badaki Aitak zeren bear zeraten zuek eskatu baiño len». dizudan lera aitortzen dizut, eta didazun errukia, errukarri onek, asi zeran ezkeror erabat iaregin nazazun; deitu nauzun ezkeror, neronengan errukarri ziatari utzi ta Zugan nabill doatsu, gogoz beartsu, otzan, minduru, goseti, zuzenaren egarri, errukior, biotz-garbi ta pakekor.

Berein gauza aipatu ditizut aal eta gogo nitunak, Zuk nai baitzenun lenik Zuri aitortzea, nere Iainko Iaun Orri, «ona baitzera», Zure errukia betikor baita.

II

Iainkoak asieran egin zitun zeru-lurrak aztertu nai ditu.

2. Noiz, ordea, ni gai Zure aholku, izualdi, pozaldi ta zuzenbide guziak lumaren mihiz edasteko? orien bitartez ekarri bainauzu erriari Zure itza erakustera ta Zure Sakramentuak ematera. Oro ondozka ialki al banetza, asti-xorta bakoitza garesti zaida. Aspladi sutan nago Zure legea auznartzeko, taartan nere iakitea ta iakiñeza, zure argitasunaren asiera ta nere illunaren ondarra aitortzeko, bizkortasunak auleria iretsi dezan. Gorputza ta anima zuzpertzuan ondoan, eta gizoneri zor diegun eta ez dieguna ta alare ematen dieguna eman ondoan, ez ditut alperrik ixuri nai gelditzen zaizkidan orduak.

3. Nere Iaun eta Iainko, entzun ene otoitza. Zure errukiak entzun beza nere guraria, sutan baitago, nerekiko ez-ezen, maite ditudan anaie-



kiko. Badakusazu nere biotzean ola dala. Bekizu opari nere buru-mihien serbitzua, ta emaidazu Zuri zer eskeiñi, Txiro ta beartsu naiz, Zu aberats deika dauzkazun guzientzat, gutaz axola iakiña baituzu. Erdaindu etzazu ausarkeri tagezur guzitik nere azal eta barrenak, nere ezpaiñak. Zure idazti Gurena bekit atsegiñik garbiena. Ez bezat artan uts egin ez uts eragin. Entzun eta erruki, Iauna, ene Iainko Iaun, itsuen argi, gaixoaren kemen, eta gaiñera, dakustenen argi ta indartsuen indar; zuade ernai nere barrenera, ta entzunazu nere barne barneko oiua. Zure belarriak barne ontan ez badaude, nora goazke oiuka? «Zure duzu eguna, gaua Zure». Zure gogara doaz uneak. Emaiguzu asti Zure legearen izkutuak iraultzeko, ta ez aterik itxi itsegin dezateneri. Ez baitidazu alperrik utzi oinbeste orrialde illun eat sakon idazten. Nere oian ontara ez al dira ibillian biltzen basuntzak iatera, etzatera, auznartzera? Iauna, bikaindu nazazu ta agertu izkidazu. Zure mintzoa dut poz, Zure mintzoa, atsegin ugarien gaiñetik. Idazu maite dutana, maite baitut, eta ori Zuri eske. Ez utzi galtzen Zure doaiak; ez gutxietsi Zure belar egarri au. Aitortuko dut Zure liburetan arki dezadan oro, ta gora-mintza entzunen. Zu edanen zaitut eta Zure legearen arrigarriak begiemanen, zeru-lurrak egin zenitun asiera artatik, Zurekin beti irauten dun uri sailduko iaurreirra artean.

4. Erruki zakida, Iauna, entzunazu nere guraria, ez baita, nere ustez, lurkoi ,ez urre, ez zillar, ez arri, ez soiñeko eder, ez dedu, ez aginte, ez lizunkeri; ez eta lurrean bizi geraño gorputzari zor zaiona: au geigarri ematen baitzaigu Zure iaurreria ta zuzentasuna billatzen badugu. Ikus, Iauna, nundik dan ene guraria. «Gaiztoek atsegiñak aipatu ditidate; ez ordea Zure legea aiñakoak» (Ps. 118, 85). Orra nundik dan ene guraria. Ikus, aita,begira ta ikus eta eman ontzat eta atsegin artu, nik zure errukia- ren aurrean grazia arkitzez. Zure itzen mamia agertu bekio ate-ioka ari zaizun oni. Zure Seme Iesukristorengatik eskatzen dizut, Bera baituzu «Zure eskuiñeko gizona, Zeruetako autatu duzun Giza-semea», Zure ta gure bitarteko. Aren bidez billatu ginduzun gu billa ez genbiltzazala, ta guk billatzeko, Zuk gu billatu ginduzun; Zure Itza, Arengatik egin dituzu guziak, eta aien artean ni; Zure Seme bakarra, Arengatik deitu baitzenun erri siñestuna semautzi izatera ta aien artean ni, Arengatik otoizten zaitut, «Zure eskuiñean baitago iarririk gure alde arrenka; Arengan baitaude gorderik zugurtze ta iakite iturri guziak». Oien billa nabilla Zure liburetan. Artaz mintzatu zan Moise; berak dio au, Egiak dio.

III

*Moises'i ezin galdegin eta Iainkoari galdegiten dio,
aditzera eman dezaion itz auen adiera:
«asieran Iainkoak zeru-lurrak egin zitun».*

5. Entzun dezadan eta uler, «asiera zeru-lurrak nola egin zenitun». Moisek idatzi zun au, idatzi ta aldegin; Zugandik Zugana igaro zan,eta orain ez daukat aurrean; baneuka, elduko nioke ta otoitz egiñen eta Zuregatik arren, adierazi lezaidan. Belarriak ernaituko nituke aren agoko mintzora. Eberkeraz baledi, alperrik io lezake nere zentzua; artatik ene adimenak ez luke ezer artuko; latiñez, ordea, banekike zer diagon. Baiña nondik nekike zer diagon? Au baneki ere, argandik ote nekike? Barnean naski, nere buru-txokoan, ez heberkeraz, ez grekoz, ez latiñez ez barbar- izkeraz, Egiak, ago mihien laguntza gabe, ele-zatien otsik gabe esanen liket: «Egia dio»; eta nik berela Zure gizon ari, lasapidez ziur nesaiok: «Egia diozu».

Baiñan ari galdegin eziñik, Zuri, Egiari, Zutaz beterik mintzo baitzan. Zuri galdegiten dizut, ene Iainko (barkatu, arren, ene obenak). Otsein ari esanarazi zeniona, ulertarazi idazu.

IV

Zeru-lurrak berak diagote egiñak dirala, aldakor dirala, bestek egiñak dirala. Ain eder diralarik, Iainko ederrak egiñak dira.

6. Badira naski, zeru-lurrak; eta oiuka aridira, egiñak dirala, aldatzen baitira tokiz eta itxuraz. Egiña ez dan oro, ta alare dana, argan ez da ezer len ez zanik, ots, aldatzerik eta itxurgaltzerik. Oiuka ari ere dira ez dirala berenez egiñak: «egiñak geralako gera izan ere; beraz, izan baiño len ez giñan, gerok geratu egiteko». Egia bera da oiuka diagotena. Zuk egin dituzu, beraz, Iauna, Eder Orrek, eder baitira; On orrek, on baitira; Zeran Orrek, baitira izan ere. Ez dira egin ditun Ua bezain eder, ain on, ain «izan». Aren aldean ez dira eder ez on, ez «izan». Badakigu au —esker Zuri—; ta gure iakitea Zure arekin alderaturik ez-iakiña da.

V

Nola egin zitun Iainkoak zeru-lurrak.



7. Nola egin zenitun beraz, zeru-lurrak eta zelako esku-lanez izadi ain aundia? Ez naski antzelari gizagilleak bezala, gorpuzkitik gorputza, animaren naierara, barne-begiz, beregan dakusan eredia nolabit ezarriz —eta nondik lezake, Zuk egin zenulako ezik?— eta eitea eman dio len zanari, ta izatea zunari: lurrari, arriari, zurari, edo olako edozeri. Ta nondik lirake auek Zuk erabaki ezik? Antzelariari Zuk eman zenion gorputza, Zuk anima, gorputzaren agintari, Zuk gaia ere zerbait egiteko; Zuk antzerako asmamena, agerira zer atera barnean ikusi dezan; Zuk gorputzaren zentzua, adierazle antzo egiten duna bere barnetik ekaiera atera dezan, eta berebat zer egin dun barneari iragarten diona, onek aurrean daukan egari barnez-barne galde dagion ongi egiña danentz. Zu goersten zaitute orok, guzien Egille ori. Baiña nola egin dituzu? Nola egin dituzu Iauna, zeru-lurrak? Ez naski zeruan ez lurlean zeru-lurrak, ez eguratsean edo urean, auek ere zeru-lurreri baitagozkie. Izadi osoa ere ez duzu egin izadi osoan, ez baitzan non egiñik, «izatea» egin zedin baiño len. Eskuan ere etzendum kan ezer,zeru-lurrak artatik egiteko. Nondik zendukean ezer Zuk egin gaberik, Zuk andik zerbait egiteko? Zer da, izan ere, Zu zeralako baizik? Esan zenun, bada, ta egin ziran, eta Zure itzez egin zenitun.

VI

Zer itzez esan zenun, Iauna, egin zenitula? Soiñuzko itzez?

Ez; oso bestera.

8. Nola esan zenun, ordea? Odeieko «au da nere Seme kutuna» mintzo bezala ote? Mintzo ua egiña ta iragana da, asi a bukaua. Ele-zatiak soiñuka iragan ziran, bigarrena lenaren ondotik, irugarrena bigarrenaren atzetik eta ola urrenez urren, azkena besteen ondotik, eta azkenaren urrena ixiltasuna. Garbi nabari da ortik, beste sorkari aldikor baten mugimentuak eragiña zala, Zure nai betikorrari men egiñez. Eta Zure itz aldiorako egiñok, ageriko belarriak iragarri zition adimen zuhurrari, onen barrengo belarria Zure betiko itzera baitago adi. Alderatu zitun onek, aldian otsa zuten itzok Zure itz betikor ixillarekin, eta onela esan zun: «besterik da, oso besterik». Auek oso nitaz azpitik daude, izan ere ez dira, igesi baitoaz; nere «Iainkoaren itzak, ordea, betiko dirau» nitaz gaiñetik. Beraz, mintzo iragankorrez esan bazenun zeru-lurrak egin zitezela, ta ola zeru-lurrak egin, zeru-lur oriek baiño len bazan sorkari gopuzki bat, aren igialdietatik mintzo ua aldizka iragan zedin. Baiña zeu-lurrak baiño len ez zan gorputzik; eziperen aldi gabeko mintzoz egin zenitun, aldiko mintzoa

sortaraziz, zeru-lurrak zitezela esateko. Dana dala, mintzo aen sortzea Zuk egiña ez bazan, ez zan ere. Beraz, itz auek mamitzeko gorputza gerta zedilla itzez esan zenun?

VII

Iainkoaren itza betieran da: Ez du lekurik, ez orai-gerorik.

9. Beraz, Zuregan Iainko dan itz Ua ulertzera deitzen gaituzu, betieran esaten dana, eta Artan guziak betieran esaten dira. Esaten ari zana ezda bukatzen, ez besterik esaten guziak esateko; batean eta betieran guziak; bestela aldia eta aldaera da, ta ez betiera, ez egiazko erio-eziña. Ulertu dut au, Iauna, ta eskerrak Zuri. Ikasi dut, aitortzen dizut, ene Iauna, ta ikasi du nerekin egi iakiñari eskergaitz etzaionak. Ba-dakigu Iauna, ba-dakigu, zana ez dan edo dana ez zan giñoan, il eta iaio egiten dala. Ez da beraz, Zure itzean gerorik eta ondorerik, egiz illezkor eta betikor baita. Orregatik beti kide zaizun itz ortan, batean eta betieran esaten duzu zuk esan oro, ta gertatzen da egiteko diozun oro. Esanez bestez ez duzu egiten; alare ez dira gertazen batean eta betieran Zuk esanak oro.

VIII

Zure Itz alda-eziña mintzo zaigu.

10. Zergatik, arren, ene Iainko Iauna? Nolabait ba-dakit baiñ anola esan ez dakit onela ezik: asiera ta bukaera dun edozer, noiz asten da eta noiz bukatzen. Asi bearko edo buka bear zula Iainkoaren ezaguerak ala dakusanean artan ez baita asten, ez bukatzen. Zure Itza bera da ori, «asiera baita eta mintzo baitzaigu». Onela mintzatu zan Ebanjelioan korputzez, eta onela mintzo zitzaien ageriko giza-belarrieri siñes zegioten, barnean billa zezaten, eta betiko Egian arki zezaten; artan irakasten baitie ikasle guzietari Maisu on eta bakarrak. Artan entzuten dut, iauna, Zure mintzoa neri esaten: irakasten diguna mintzo zaigu; irakasten ez diguna mintza bazaigu ere etzaigu guri mintzo. Nork irakasten digu, ordea, dirau Egiaik bestek? Sorkari aldakorra ari zaigunean egi iraunkorrera garamatzi, an ikasten baitugu benetan egonean entzuten dugularik, eta «poz aundiz pozten gera senargaiaren mintzoarekin», geraneko tokira itzularaziz. Eta asiera da. Iraun ez baleza, uts egitean, ez genuke nora itzuli. uts egiñetik



itzultzen geranean, ezagutuz itzultzen gera naski, «asiera baita eta mintzo baitzaigu».

IX

Semea asiera da, ta asiera ontan egin zitun lurrak: Semeagan.

11. Asiera ontan egin zenitun Iauna, zeru-lurrak, Zure Itzean Zure Semeagan, Zure indarran, zure iakintasunean, Zure Egian arrigarriro mintzatuz eta arrigarriro iardunez. Nork ulertu, nork adierazi? Zezr da ni tarteka argitzen nauna, nere biotza zauri gabe iotzen duna? Ikaratzen nau ta sutzen: ikaratzen, antzeko ez nakionez; sutzen, antzeko nizaionez. Zuhurtasuna, zuhurtasuna bera da argitzen nauna, nere gaudua urratuz eta nere naigabe aunditan berriro illunez estaltzen nauna. Artaraño auldu da beartasunean ene kemena, ezin baitut egari on zaidana, zuk zerorrek, Iauna, nere obenak ere barkaturik nere gaitzak oro senda detzazun arte; zuk iaregiñen baituzu ustelkeritik ene bizia, ta errukizko ta urrikarizko buruntza ipiñiko didazu ta ondasunez aseko duzu nere guraria, «nere gatzetasuna arranoaren antza berrituko baita». Itxaropenak iaregin gaitu, bada, ta Zure aginduen begira egonarriz gaude. Entzun zaitzala aaldunak barnetik mintzo zakiola. Nik lasapidez eginen dut oiu Zure itzaren araura: «bai aundi dirala Iauna, Zuk egiñak; guziak zuhuratsunez egin dituzu». Asiera da, ta asiera ontan egin dituzu zeru-lurrak.

X

Zer ari zan Iainkoa zeru-lurrak egin baiño len.

12. Ez al daude oso zargaldurik au diotenak: «zer ari zan Iainkoa zeru-lurrok egin baiño len? Alpe bazegon —diagote— ezer egiten ez bazun, zergatik ezbeti aurrera ordurarte bezala, beñere lanik egin gabe? Beñere egin ez zun sorkarai bat egiteko Iainkoagan eragin berririk baldin bada ta asmo berririk, nola diteke ori egiz betiera, ez zan asmoa sortzea-ekin? iainkoaren asmoa sorkari ez-baiña lenagoko baita. Ezin bailiteke ezer egin, Egillearen asmoa aurretik ez baletor. Beraz, Iainko-asmoa Iainko-izatearekin berdiñ da. Baiña Iainkoaren izatean len ez zanik sortu bada, ez da egiz esaten izate ua betikor dala; ta sorkaria sortzeko Iainkoaren asmoa betikor bazan zergatik ez da betikor sorkaria ere?».

XI

«Zer ari zan» diagotenak ez dute ulertzen gauzak Iaunagan eta Iaunak egiñak dirala.

13. Au diotenak etzaitute ulertzen zu, Iainkoaren zuhurtasun, animen argi, ez dute ulertzen oraiño Zuk eta Zugan egiñak nola gertatzen diran, eta betierakoak ulertu nai ditute albait; ostera, aien biotza orai-geroen eragiñetan egin dabil eta oraindik uts dago. Nork geldi-erazi ta tinkarazi lipar batez, beti diraun argia egonean atxitzeko, ta beñere ezin dirauken aldiarekin alderatzeko, ta berdiñ gabe dala ikusteko? Aldi luzea ez dala egiten zirkin iragankor askoz baizik, eta auek ez ditezkela zabaldu; betieran, berriz, ez dala ezer iragaiten; guzia orin dala; lena geroak bultzatzen dula, ta geoa lenari darraikola, ta len-geroak beti orain dan Ark egiten eta igiarazten ditula. Nork eduki giza-biotza egonean, betierak lengorik ez dula, len-geroeri egonean nola agintzen dien ikusteko? Ote dezake nere eskuak, edo nere agoaren eskuak egin al dezake mintzatuz olako gauza aundirik.

XII

Sorkari oro Iainkoak sortarazia da. Zeru-lurrak baiño len zerbait egin balu, ua ere sorkari ziteken.

14. Ona emen erantzuna «zer ari zan Iainkoa zeru-lurrak egin aurrean» galde dagidanari. Ez dut erantzunen auzi zaila itzuri naiez Urliak beraizik erantzun omen zuna: «Gauza sakonak aztertzen ditutenentzat ipernua antolatzen». Ikustea bat da, irri egitea bi. Ez dut ori erantzuten. gogozago nerantzuke: «Ez dakidanik ez dakit», eta ez, gauza sakonak galdegin zituna maxiatzekorik, ez eta gezurra esanez gorestekorik. Baiña zuri ari nakizu gure Iainko, sorkari guzien sortzaille Orri. Ta zeru-lurren izenez sorkari oro aditzen bada, biribil diagot: «Zeru-lurrok egin aurrean ez zan ezer ari»; izan ere, ari bazan, zer egiten zun sorkaria baizik? Ai neki-ke onela nere onerako iakin gura nai au dakidan bezala! ez zala sorkaririk egiten, sorkariak egin aurrean.



XIII

Zeru-lurak baiño len aldirik ez zan; zergatik galdegin, orduan zer ari zan? Iainkoaren noizkoa betiera da.

15. Bat edo baten idurimen egalaria, aldietan egan egiñez, Zu guzialdun guziegille, guzi-iabe, zeru-lur ederren Egille orrek, lan aundi ori egin baiño len aleun mende igarotzen utzi zenitula-ta arritu baledi, atzar bedi ta bekus gezurrak arritzen dula. Nola igaro zitezken aleun mende Zuk egin gabeak, Zu baitzera mende guzien Egille ta antolatzaile? Edota, zer noizaldi ziteken Zuk egin ezik? Edota nola iragan, beñiere izan ez baziran? Ortaz, aldi guzien Egille zeralarik, zeru-lurrok egin baiño len aldirik izan bazan zergatik esan lan-opor ziñaudela? Zuk egin baitzenun noizkoa bera, ta aldirik ezin iragan aldia egiña baiño len. Zeru-lurren aurretik aldirik ez bazan, zergatik galde, aldi artan zer ari ziñan? Aldirik ezin izan, ordukorik ezean.

16. Zu etzakio aurreratzen aldieri aldiaren bidez, bestela etziñake aldi guzien aurreko. Lenaldi guziera aurrera zakie bei aurrean daukazun betiera aundiz eta geroaldi guzien urrena, aiek geroan baitira ta iragaitean, len aldi gertatzean. «Zu, berriz, bei zerau, ta Zure urterik ez da aitzen». Zure urteok ioan-etorririk ez dute, gureok ioan-etorrika ari dira, guziak gertatzeko. Zure urteak oro batean daude, egon daudelako; datorrenak doana ez du aizatzen, ez baita iragaiten. gureok aldiz oro ez diranean dira oro. «Zure urteek egun bat», Zure eguna egunoro ez-baiña, «egun» da; Zure egungoak ez baitakar biarkorik ez eta atzokorik. Zure egun dana, betiera. Orregatik erne zendun betikide, «egun nik erne zaitut» esan zenun ua. Aldiak oro Zuk egiñak dira ta oro baiño len zera, ta noizko gabeko iñoizik ez da izan.

XIV

Aldia zer da?

17. Ez zan bada noizik Zu iardun gabe ziñaudenik, «noizkoa» bera Zuk egiña baitzan. Ez da aldirik betikide zaizunik, Zu egon baitzaude, ta aiek egon baleude, ez lirake aldi. Zer da beraz noizaldia? Nork adierazi labur eta erre? Nork artuko ere du buruz artaz mintzatzeko? Zer arruntago ta ezagunago gure iardunean eguraldia baiño? Ulertzen dugu geurok itzegitean, ulertzen ere bestek itzegiña entzutean. Zer da beraz aldia? Iñork galde ez balebada, badakit; bestek galdeginda adierazten ez dakit.

Biribil diagot alare, au dakidala: igarorik ez balitza ez litzake len aldirik, eta etorririk ez balitza ez gerokorik, eta ezer ez balitza ez litzake oraiñaldirik. Bi aldi aiek, ots, lena ta geroa, nola dira izan? Lena ez baita, eta geroa ere ez. Oraiñaldia, berriz, beti orain balitza, ez litzake lenera igaroko: aldi ez-baiña, betiera litzake. Oraiña, aldi izatekoa, len-aldira doalako baldin bada, nola esaten dugu badala, izate guzia ez izateko baldin badu, ots, ez baitezakegu aldi deitu, ez-izatera doalako baizik.

XV

Aldi «luzea, laburra» esan oi dugu, ta ala ote da?

18. Alare aldi luzea esaten dugu ta laburra, baiña lenaz edo geroaz. Lenaldi luzea, ots, eun urtez len; geroaldi luzea berebat, eun urtez gero. Lenaldi laburra, adibidez, amar egun aurretik, eta geroaldi laburra amar egun gero. Baiña nola luze edo labur, izan ere ez dana? Lena ez baita gaur-gero, ta geroa oraiño ez. Ez desagun beraz, «luze *da*», baiña «luze *zan*» lenaz, eta luze *diteke*, geroaz. Nere Iaun, nere Argi, emen ere Zure egiak ez al du axekatuko gizona? Lenaldi luzea, igarota al zan luze, edota igaroten ari zala? Luze zitekenean zan luze; igaro-ala berriz, ezer ez zan; beraz, ezer ez zana, luze ezin izan. Ez esan, beraz: «Aldi luzea zan», ez baitugu arkituko ere luze zanik, igaro dana ez *baita* izan ere; esan, ordea: «Luze zan oraiñaldi ua», aurrean zegolarik baitzan luze. Ez zan igaro oraiño ez-izatera, ta orregatik ziteken luze; igarotakoan ordea, *ez izan* eta *ez luze*, ezer ez.

19. Ikusagun beraz, ene anima, oraiñaldia luze ote ditken, Zuk uneak sumatu ta negurtu baitetzakezu. Zer erantzunen didazu? Oraingo eun urteok aldi luze ote dira? Ikus lenik, eun urteko oraiñalderik ditekunik. Lenengo urtea ari bada ua da *orain*, beste laurogeita emeretzia *gero* dira; beraz ez dira. Bigarrena ari dala, bat iragana da, bat oraiñaldia, enparauak gero. Orrela, ari diran eun urteen edozein tarte arturik, aren aurrekoak «lena» dira, urrengoak «geroa». Beraz, eun urte ez ditezke oraiñaldian izan. Ari dugun urtea bederen, ikus oraiñaldi dan. Len-illabetea ari bada, besteak oraiño ez dira. Beraz, ari dugun urtea ere ez da oraiñaldi, ta guzia oraiñaldi ez bada, ez da aurten-urte. Urteak amabi illabete ditu, ta ari dan illabetea da orain; besteak, len edo gero. Baiñan ari dan illabetea ere ez da oraiñaldi egunka baizik; lena bada, besteak gero; azkena bada, besteak lena; tartekoa bada, len-geroen artean dago.



20. Ara, luze genion oraiñaldia egun bakarrera osta laburtu. Azter dezagun berau ere, egun osoa ere ez baita oraiñaldi. Gau-egunetan ogei-ta lau ordu ditu. Lenak, bestek gerotar ditu; azkenak, lenagotar; tarteko edozeiñek, aurre-atzekoak len-gerotar. Ordu bakarra ere une igeskorrez ari da. Egan doana, iragana da; enparaua, etorkizun. Inola zatitu ez ditek unetxorik txikiena asma al badugu, ua bakarra da oraiñaldi. Baiñan ua ere aiñ azkar doa gerotik lengora, ez baita lipar bat ere gelditzen. Geldi baledi, zatitu litke len-geroetan. Oraiñak, berriz, ez du tarterik. Non da bada «luze» diogun aldia? Geroa? Ez diogu luze *da*, ez baita izan ere, luze izateko: luze *diteke* diogu. Noiz diteke ordea? orduan ere *gero* baldin baditeke, ez diteke luze, ez baita luze-gairik. Oraindik ez dan geroa izaten asi baledi ta luze gai izateko oraingo biurtu, ta orrela luze gertatu, oraiñaldiak garbi esan digu lentxago, bera ez ditekela luze.

XVI

Ala ere, aldia neurtzen dugu luze-laburrean.

21. Alare, Iauna, noizaldian uneak sumatzen ditugu, ta luze-labur deritzegu. negurtu ere egiten ditugu, alako aldi luze edo labur dan alakoren aldean. Eta au «bi alako», «iru alako» diñogu; bakar ua, berriz, «au aña» dala. Doan aldia suma-ala negurtzen dugu; iragana ordea, are ez dana, edo etortzekoa, oraiño ez dana, nork negurtu? Ausartuko al danorbait esaten, ez dana negurtu dezakela? Beraz, noizaldia, iragaitean, suma ta negur diteke, iragandakoan ez ditete, ez baita.

XVII

Len-orain-geroak zerbait dira.

22. Galde dagit, Aita; ez aitor. Ene Iauna, zakida buru ta iaurri nazazu. Zeiñek esan eni aldiak ez dirala iru, aurtzarroan ikasi ta aurreri irakasten diegunez: lena, oraiña, geroa; oraiñaldia bakarra dala izan, beste biak ez izanik? Bai al dira biok ere, gerokoa zoko illunen batetik etorri orain dalarik, eta oraiña, len biurtzean, zokoren batera doalarik? Non ikusi zuten etorkizuna igarri zuten aiek, oraiño ez bazan? Ez danik ez baititeke ikusi. Ta lengoetaz mintzo diranak, ez lesakete egirik, gogoan ikusiko ez baluzkete. Ezer ez balira, ez litezke ikusi ere. Beraz, len-geroak zerbait dira.

XVIII

Len-geroak «orain» ontan asmatzen ditugu.

23. Begokit aurrera galdea, itxaropide zaitudan Iauna. Ez bedi atertu nere asmoa. Len-geroak izan ere baldin badira, non diran iakin nai dut. Ezin badut, badakit beintzat nonai dirala ere, len-geroetan ez baiña berton dirala. An etorkizun badira, ez dira oraiño an eta an iraganik badira diranak oro berton ezik ez dira. Egiz iraganak aipatzean, oroimenetik ateratzen ditugu, gertatu ziran gauzak berak ez-baiña, aiek iragaitean zentzuen bidez gogoan utzi zuten aztarrena itz biurturik. Nere aurtzarroa, naski, orain ez dana, lengo da; beraz, oraingo ez; orduko iduria, aldiz, nik berritzean ta ialkitzean, berton dakusat, oraindik oroipenean baitaukat. Gerokoen iragartea antz ortara ote dan, ots, oraiño ez izanik, orain liran gisan iduriz igarten diran, ez dakit, ene Iauna, egia esan. Au dakit: guk askotan burura ditugula gure eginkizunak, eta bururatze au berton dala. Burura dugun eginkizun ua, ez da oraiño, izateko baitago. Ari ekitean, ots, burura genuna egiten astean, orduan diteke egite ua; gerokoa ez-baiñan ordukoa izanen baita.

24. Gerokoen igarmen izkutu ortaz dana dala, badana besterik ez diteke ikusi. Badana, ordea, gero ez baiñan, orain da. Beraz, «gerokoak ikusi» diogunean —oraiño ez baitira izateko diranak— beraiek ez-baiñan ausaz, aien etorburu edo aztarrenak, orain badiranak dakusaguz. Beraz geroko ez-baiña, oraingo dira dakusaztenentzat, eta auek gogoan ernerik, gerokoeri igarten die. Bururakizun auek badira, berebat; eta berton dakusazte igarten ditutenek. Betorkit adibide bat, letozken oinbesteren artean. Badakusat argi-xinta: igarten dut eguzki-sortzea. Dakusadana, berton dago; igarten dudana, geroan: ez geroko, eguzkia, izan ere bai baita, bai-zik eta agertzea, ez baita ageri. alare agertzea bera iduritan ez baneuka, orain mintzo naizanean bezala ezin nezaio igarri. Ortzian dakusadan argi-xinta ere ez da eki-sortzea, aurretik badator ere, ez eta nere barneko idurikizuna ere: bi auek berton ikusten dira gerokoari lendanik igarri daki-dion. Gerokoak ez dira, beraz, oraiño; ta oraiño ez badira, izan ere ez dira; ta ez badira, ez ditezke inola ikusi; baiñan igarri ditieke, badiran eta ikusten diran bertokoetatik.

**XIX**

Geroa edo etorkizuna nola erakusten dien Iainkoak igarleeri.

25. Zu, beraz, sorkarien Errege, nola darakuskiezu gizoneri, etorkizun dagona? irakatsi beitziezu Iragarleeri. Nola darakuskiezuz gertatzekoak? Zuretzat ez baita gertatzekorik. Edota gerokoetaz oraingoa dirakuskiezu? Ez danik ez diteke, naski, irakatsi. *Nola* au urrun dago nere begitik; mendean nauka ta ezin atzi dutala. Badezaket, ordea, Zugandik, zuk demaidazunean, nere begien argi gozo orrek.

XX

Elkar aditzeko, aldiak iru dirala esan bear: lena, oraiñaldia, geroa.

26. Oraiñarte argi ta garbi dagona, ez dala gerokorik, ez lengorik. Ez dala iator esaten: noizaldiak iru dira, lena, oraiña ta geroa. Ausaz ola iator: noizaldiak iru dira, lengoen oraiñaldia, oraigoen oraiñaldia, gerokoen oraiñaldia. Gogo-barnean badaude iru auek, eta beste iñon ezditut ikusten: lengoen oraingo gogoana, oraigoen begiratua, gerokoen oraingo itxaropidea.

Esatea zillegi bazaida, iru aldi dakustaz eta irurak badira, naski. Esan bedi are: iru dira noizaldiak, lena, oraiña ta geroa, oitura kaxkarra danez. Ez dit axolik, ez naiz mokoka ari, ez atarra-naiean, esana ulertu baledi, ots, izatekoa ez dala oraiño, ez, izana ere. Gutxitan mitnzo gera iator, askotan oker, baiñan igartzen zaio zer desagun.

XXI

Nola neurtu aldiak.

27. Au esan dut aintzitxe: doan aldia negurzen dugula; esaten baitugu, «aldi ua au alako bi dala», edo «au arekin berdin dala», ta orrela berebat aldiaren zatiak otsegin dezazkegula negurtuz. Ortaz, doan aldia negurtzen dugu, niñona; ta norbaitek balesa: «Nola dakizu?», badakit, erantzunen nioke, negurtzen baitugu, ta ez danik ezin negurtu, len-gerorik ez dala ere. Oraiñaldia nola negurtzen dugu tarterik ez badu? Iragaitan negurtzen dugu; iragandakoan ez baita negurtzekorik. Baiña nondik as, non barrena, nora doa guk negurtzean? Nondik? Gerokotik, naski. Non

barna? Berton barna, naski. Nora? Lengora, naski. Beraz, oraiño ez danetik, tartetik ez dunetik, orain ez danera. Edozein tartetan zer negurtzen dugu aldia ezik? Ez baitugu esaten bakun, bikun, irukun, berdin, eta olakorik; eta aldiari buruz olako esaten badugu, tartea diñogu. Zer tartetan neurri oi dugu iragana? Datorren geroan. Baiñan ez danik ezin negurtu. Ari dan oraiñaldian? Tarte utsa ez dezakegu negurtu. Doaneko lenaldian? Baiñan, are, ez danik ez dugu negurtzen.

XXII

Nori galdetu gauza auek, Iainkoari baizik?

28. Sutan daukat barrena, Iauna, pipitaki txit naasi au asmatzeko. Ez izkuta, nere Iainko Iaun, aita on, Kristorengatik otoi, ez izkuta nere gogori, arrunt bezain gorde diran gauza auek! Zure errukiaren argiz, Iauna, aietan, sartu ta argi egidazu. Nori galdegin oietaz? Eta nori aitortu etekin geiagoz nere ez-iakiña, Zuri baiño; ez baitzaizu gaitzi nik Zure Idaztietara dutan griña txit bizkorra. Emazu maite dudana, maite baitut. Eta au ere Zuk eman didazu. Emazu, Aita, Zuk baitakizu semeeri emari onak ematen. Emazu, ezagu-asmo baitut, eta nekea daukat aitzinean Zuk ideki arte. Kristo Sainduen Sainduagatik, otoi, ez bezait iñork galarazi. Nik ere «siñesten dut orregatik mintzo naiz». Au dut itxaropide, ontarako bizi naiz, «Iainkoaren atsegiña ikusteko». «Nere egunak zaartuazi dituzu, ta badoaz». Ez dakit nola. aldi ta aldi, aldiak eta aldiak diogu. «Zer alditan esan zun au arek?»; «Zer alditan egin zun au arek?». Eta «aspaldi da ikusi ez dedala» eta «elezati onek bi iraute ditu bakar laburraren aldean». Ola diogu, ola dantzugu, ta ulertzen dugu ta ulertzen gaitute. Gauza txit arruntak eta egunerokoak dira auek, baiña lar gordetzen zaizkigu ta arkitzea berri zaigu.

XXIII

Aldia ez da gorpuzkien zirkiñ edo mugimentua; ez eguzkiaren eta izarrena.

29. Gizon ikasi bati au entzun nion, baiñan ez siñetsi: eguzki, illargi, izarren zirkiñak dirala aldia. Zergatik ez obeki mukulu guzien zirkiña? Ortziko argizagiak gelditi balitez, eta eltzegille baten pirrila igitu, ez al litzake aldirik, aren giltzak negurtzeko? ta une berdiñetan ari dirala edo batzu-



tan geldiago, bestetan usuago igitu ezker, batzuk luzeago ta besteak ezago dirala esateko? Au esatean ere, ez al gñake gu aldian mintzo? Bai al lirake gure izkuntzan elezati batzuk luze, besteak labur, aiek luzarogo ta auek laburrago ots egin zutelako baizik? Emaiezu gizoneri, Iainko, txikien eta aundien berri guzizkoak txikietan ikustea. Ortziko izar eta argizagiak aldien eta egunen eta urteen aztarren dira. Badira, ordea. Ez nuke nik esanen, pirrillaren inguru-giltza eguna danik, ez eta arek ere aldi ez danik.

30. Nik aldiaren izatea ta iatorra ditut iakin-nai, arekin negurtzen baititugu mukuluaren zirkiñak, eta alako zirkiñ ua, au alako bi iraunkor dala diñogu. Ezperen, eguna, eguzkiak lurtean irautea bakarra ez-baiña — andik baitira gau-egunak — sortaldetik sortaldera bitartea izanik — orregatik baitiogu «oinbeste egun dira», beren gauekin, gaurik lekutu gabe — beraz, eguna, eguzkiaren zirkiñak eta bideak osatzen baitute sortaldetik sortaldera, zirkiña bera al da eguna, ala bideko irautea, ala biak? lera egun balitza, beraz egun ere litzake eguzkiak bere bidean ordu bakarra iraun baleza. Bigarrena balitza, ez litzake, beraz, egun eguzkia sortzetik sortzera ordu beteko epe laburrean balitza; oster, eguzkiak ogeitalau giltz egin bear lituke eguna osatzeko. Biak balira, ua ere ez litzake egun, ordu betean eguzkiak giltz osoa eginen balu; ez eta, ekia geldi egonik, goizetik goizera obo osoan deman aiña aldi iragan baledi. Beraz, zeri deritzan egun ez-baiña, zeri deritzan aldi galdeginen dut orain. Esan baikenezake, arekin eguzki-bidea negurtuz amabi ordutan egin balu, oi dun aldi-erdi eskasean egin dula. Eta bi noiz-aldiak alderatuz, ua esan genezake bakun, au bikun, iñoiz bakun artan edo bikun ontan ekia sortaldetik sortaldera alda baledi. Ez bezait iñork esan, beraz, aldia ortziko mukuluaren igitzea dala; arako aren gurariz, gudan garai ateratzeko ekia gelditu zanean, ekia geldi zegon, baiñan aldia ari zan. Burruka ua, aski zitzaion aiña aldi-tartean egin eta bukatu zan. Beraz, aldia luzaki zerbait bezela dakusat. Ikusi? ala ikusi uste? Zuk ierakatsiko didazu argi, Egi.

XXIV

Lengo atalean iarraitzen du: aldia ez dala gorpuzkien zirkiña.

31. Aldia mukuluaren zirkiña dala baiesteko agintzen al didazu? Ez, naski. Ez omen baita mukulurik igitzen aldian baizik. Zuk diozu. Mukuluaren zirkiñ ori aldi dala ez dut entzuten. Ez diozu. Mukulua igitzean aldi bidez negurtzen dut, ari daño, asi danetik gelditu daño. Asten ikusi ez badut eta iraun badirau, ta bukatzen ikusi ez, ezin dut negurtu; baizik ere

ikusten asi naizanetik ez dutaneñokoa. Luzaro badakusat, aldi luzea dala diñot soilik, ez zenbatik. Zenbat diogunean, besteren aldean diogu onela: «ua aiña au», edota «ua alako bi au», ta onela bestetaz.

Mukulua andik ara doan tartea markatu bageneza, edo-ta aren zatiak, ardatza bezala zora baledi, esan genezake zenbat iraun dun mukuluaren naiz zatien zirkiñ arek toki batetik bestera. Beraz, zirkiña bat eta iraunaren neurria beste bat izanik, nor ez dakusa bietan zein dan iatorrago aldi? Mukulua iñoiz ez-berdin igi baledi, iñoiz egon badago, zirkiña ez-ezen egona ere aldizka negurtzen dugu, ta au esaten: «egon aiña igitu zan», edota, «igitu alako bi edo iru egon zan», eta esan oi dana, gure neurgaia ulertu edo taiutu dezan beste edozer alde aldera. Zirkiña ez da, beraz, mukuluaren noizaldia.

XXV

*Ez dakit zer dan aldia; ez dakit zer ez dakidan ere.
Argitu nazazu Iauna.*

32. Oraindik ez dakit aldia zer dan, Iauna, aitortzen dizut, eta berriz aitortzen, Iauna, badakidala au aldian esaten ari naizala, ta aspaldi aldi ontaz mintzo naizala, eta aspaldi ori ere ez dala aldiaren irautea baizik. Eta nola dakit au, aldia zer dan ez dakidala? Edota, dakidana nola esan ez dakit? Arren, ez dakit zer ez dakidan ere! Zure aurrean, ene Iainko, ez diot gezurrik. Biotzaren ariora mintzo naiz. «Zuk argituko duzu nere zuzia, ene Iauna eta Iainko, Zuk argituko nere illunpea».

XXVI

Aldia, irautea da.

33. Ez al dizu nere animak egiz aitortzen, aldiak neurtzen ditudala? Bai, ene Iaun ta Iainko, negurtzen ditut, eta zer neurtzen dutan ez dakit; mukuluaren zirkiña negurtzen dut aldiarekin. Aldia bera ez al dut negurtzen? Negurtu ote nezake mukuluaren zirkiña zein luze dan, eta zenbat iraun dun andik onara, igitzen daneko aldia negurtu ez baneza? Aldia bera nola negurtzen dut, beraz? Aldi laburragoz luzeagoa, abe bat ukonoz bezala? orrela negurtzen ikusten dugu, ele-zati laburraren irautez ele-zati luzearen irautea, ta bi alako dala esaten. Ola negurtzen ditugu olerki luzeak neurtitz luzean bidez, eta neurtitzen luzea oiñen irautez,



oiñena elezatienez, eta luzeena laburrenez —ez orrialdeka, orrela aldia ez-baiñan aldea negurtzen baitugu—, baizik eta, itzak ebakitzean igaroz doazalako, ta ola esan oi dugu «olerki luzea da» oinbeste neurtitzekin ondua baita; neurtitz luzeak oinbeste oiñeko baitira, oin luzeak, oinbeste elezati artzen baitute; elezati luzea laburra alako bi baita. Orrela ere ez da artzen aldiaren neurri iakiñik, gerta bailiteke neurtitz laburrak astiro-ago ebakiz geiago irautea, luzeak ariñ ebakiz baiño. Orobat, olerkia, oiña, elezatia. Ortatik iduri zait aldia irautea baizik ez dala. Baiña zerrena ez dakit, eta arrigarri da animarena berarena ez ba. Zer negurtzen dut bada, otoi, ene Iainko, et zer diot muga gabe?: «aldi au ua baiño luzeago da»; edo mugatuz: «ua alako bi da». Aldia negurtzen dut, iakiña; baiñan ez geroa ez baita oraiño; ez oraiña, ez baitu tarte zabalik; ez lena, ez baita ere. Zer negurtzen dut, beraz? Aldi iraganak ez-baiñan, iragaitean? Ola dut esana.

XXVII

Negurtzen dugu mintzoa olerkietan.

34. Ekin bizkor, ene barrena, ta zaude ernai. Iainkoa gure laguntzaille; «berak egin gaitu, ez gu geurok». Egiaren xinta badator. Dagigun soiñu bat asi dala ta ari dala, ta oraindik ari ta gero atertu, ta, ixiltasuna. Soiñu ua iragana da, ta ez da soiñu. Otsegin baiño len gerokoa zan eta etziteken negurtu, ez baitzan; orain ere ez ditke, ez baita. otsegitean ziteken, orduan baitzan negurgai. Orduan ere etzegon geldi, iraganez zoan. Orregatik ezago negur ziteken? Ioan-ala tarteka zabaltzen zan, beraz, negurtu ziteken, oraiñak ez baitu tarterik. Ordun negurtu baziteken, dagigun berriro beste soiñua asi dala, ta ari dala luze, atergabe; negurtu dezagun ari danean, atertzean iragana baita, eta ez da neurgairik. Negurtu dezagun osoro ta esan zenbat dan. Baiñan oraindik ari da, ta ez diteke negurtu asieratik baizik eta atertuan azkeneraiño. Tarte negurtu oi dugu edozein asieratik edozein bukaerara. Orregatik, atertu ez dan soiñua ezin neurtu «zein luze zein labur» esateko eran, edo bestea aiña, bakuna, bikuna ta abar dala beste baten aldean. Baiñan atertzean ez da. nola negurtu dite, beraz? Alare aldiak negurtzen ditugu, ez oraiño ez diranak, ez eta geiago ez diranak ez tarterik ez dutenak, ezta mugarik ez dutenak. Beraz ez dugu negurtzen lenik, gerorik, oraiñik, doanik, eta alare aldia negurtzen dugu.

35. *Deus creator omnium.*

Zortzi elezatico neurtitz onek aldi luze ta labur biz batean ditu; beraz, lau labur: lena, arena, bosgarren, zazpigarrena; eta bigarrena, laugarrena, seigarrena, zortzigarrena, luze. Bakoitzek beste bakoitzek alako bi aldi dute. Ebakitzen ditut eta berritzen, eta ala da belarri ernai baten-tzat. Zentzu atzarrientzat zati luzea laburrez negurtzen dut eta bi alako dala sumatzen. Baiña, bata besteren ondotik otsegin dun ezkeroz —lena labur bada ta bigarrena luze— nola atziko dut laburra ta nola egokiko diot luzeari bi alako dala ikusteko, luzea ez baita otsegiten asi, laburra itzali arte? Ta luzea bera berton al dut, negurtzen ez baituket bukatu ezik? Aren bukatzea, iragaitea da. Zer negurtzen dut beraz? Nun da laburra arekin negurtzeko? non da luzea negurtzen dutana? Biek otsegin zuten, egan aldegin zuten; ez dira. Ni, aldiz, negurtzen ari naiz, eta biribil erantzuten dut, zentzu atzarrieri entziñik, ua bakuna dala, au bikuna, irautez naski. Au ere ezin duket, iragan eta bukatu dirala baizik. Ez ditut beraz, aiek negurtzen, ez baitira; zerbait negurtzen dut ene gogoan tinki dagona.

36. Zugan negurtzen dut aldia, ene gogoa. Ez ni naasarazi, ala baita; etzaita naasi, zure eragiñen eragiñez. Zugan negurtzen dut aldia, berriz esan. Doazan gauzak zugan utzi duten eragiña, ta iraganik ere dirauna, ori negurtzen dut berton; ez ua eragiteko iragan ziranak; ori negurtzen dut aldia negurtzean. Ixilaldiak negurtzean eta ixiltasun batek mintzo batek aiña irauñ zula esatean, ez al dugu mintzoaren neurri bururapena zabaltzen, mintzo bailitzan, ixiltarte aldi-gunean aitortu al izateko? Mintzoa ta agoa atertuz, buruz ari baititugu mintzo geran gisan, eta neurtitz eta edozein iardun eta edozein zirkiñen gunea ta aldien tarte bata bestearekin alderatzen ditugu, ozenki ari bagiña bezala. Norbaitek mintzo luzexko bat atera nai balu, ta zein luze diteken aurretik buruz taiutu, iñolaz ere ixilgunean egin du, ta oroimenaren bidez, mintzo ua ateratzen asi da erabaki dun mugaraiño. Otsegin du ta otsegiñen. Mintzo-zati emanak otsegin du naski, ta ematekoak otsegiñen, eta ola bukatzen da bertoko begiratuak geroa len biurtuz, eta lena azieraziz geroa aiturik, guzia lengo dedin arte.

XXVIII

Nola iragaiten da geroa? Kantuarekin gertatzen dana.

37. Baiña, nola xurtzen edo aitzen da geroa oraindik ez dana, edota nola azitzen lena ere ez dana, iraultzen ditun gogoan iru diralako baizik?



Itxaroten du, begiemanen, gogorutzen, itxaroten duna begiemanaren bidez gogoratu dunera igaro dedin. Nork ukatu, beraz, gerokorik oraindik ez dala? Alare gogoan dago gerokoen itxaropena. Ta nork uka lengorik dagoneko ez dala? Alare gogoan dago lengoen oroimena. Ta nork uka «oraiñak» tarterik ez dula, lipar batean iragan oi dalako? Alare gogobegiak irauten du, ta bide ortaz urruntzen da berton izatekoa. Beraz ez da geroaldia luze, ez baita; lenaren oroipen luze da lenaldi luzea.

38. Lelo ezagun bat emaitera noa. Asi-aurrean erabat ikusten du nere gogo-begiak; asi naizanean, lengorako kendu diodana oroimenean erazten zait, eta nere iardun bizi au oroimenera edatzen zati esanarekin, eta itxaroan, esatekoarekin. Nere atzartasuna berton dago, ordea, aren bidez baitoa gero zana lenago izatera. Orrela iardunago ta oroimena luzeagotzen da, itxaroa laburturik, guzia aitu dedin arte, eginkizun ua bukaturik, guzia oroimenera igaro danean. Eta lelo osoarekin gertatzen dana, gertatzen da puska bakoitzarekin eta elezati bakarrarekin. Eginkizun luzeagotan ausaz lelo ori zati dala berori gertatzen da; berori giza-bizi osoan, egite bakoitza bizi orren zati dala; berori gizasemeen mendean, gizon guzien biziak mende orren zati dirala.

XXIX

Nere bizia luzakia (irautea) da.

39. Baiña «Zure errukia biziak baiño obe baita», nere bizia luzaki da. «Zure eskuiñak iaso nau», nere Iaunagan, Zu bakarraren eta gu askoren artean —askotan askoz— bitarteko dan Gizasemeagan, onen bidez «atzi dezadan atzi nauna» ta egun zarretik bildu nadin bakarraren billa, lengoa aantziz, ez geroko edo irazeko diranetara, baizik eta berton, zatiturik ez-baiña osoan, zatiturik ez-baiña «gogoz bildurik bainoa dei gurenaren abarra irixtera». An entzunen dut gores-mintzoa, ta ikusiko Zure atsegiña, ioan-etorrika ez dabillana. Orain, ordea «nere urteak intzirika», ta Zure nere Pozbide, Iauna, nere Aita, eta ni aldiari zatitu naiz ez dakit nolako aldiz-aurrera, eta nere bururapenak, nere gogoaren errai miñak, zarratatzen dira milla zalapartetan, Zure maitasunean urturik Zugan ixuri nadiño.

XXX

Noizik ez dan tokian iñoizik ez da; beraz zozokeri bat galdegiten dute «zer ari zan» orrekin.

40. Egonen naiz gotor Zugan, nere eredu ontan Zure legian gizonen eleta egari gabe; oben-gaitzez iakin-egarriago baitira burudun baiño. «Zer ari zan Iainkoa zeru-lurrak egin baiño len?». Edota, «zer gogok eman zion zerbait egitea len iñoiz ezer egin gabe?». iezu, Iauna, zer diagoten ongi gogoematea. Ikas bezate ez dala iñoiz esaten noizik ez danean. Beraz iñoiz ari etzala esatean, noiza gabe egin zitula besterik zer diagote? Bekusate beraz, noizik ez ditekela sorkaririk gabe, ta uskeririk ez besate. Eda bitez are berton daudenetara, ta bekite, Zu noizaldi guzien betiko Egille ori noizaldi oro baiño len zerala, ta ez dala betikide zaizun aldirik ez sorkaririk, bat edo bat noizaren aurretik balego ere.

XXXI

Iainkoak gauza guziak betiera alda-eziñean ezagutzen ditu.

41. Ene Iaun eta Iainko, zein da Zure ixilgodearen kolko-barrena! Zein urrun iraitzi ninduten ortik nere obenen ondoriak! Senda nere begiok, Zure argiak poztu nazan. Animaren bat baldin bada, iakitez ta aitzin-iakitez iantzia, iraganak eta iragaintekoak dakizana, nik lelo txit ezaguna bezain ongi; arrigarri da, naski, ta izugarri miragarri, ez baitzaio izkutu mendeetan egin danik eta egiñen danik; neri ere ez baitzait izkutu lelo ori kantatzean, aurrenetik zer ta noraiño iragan dan, bukatzeko zer ta zenbat dagon. Utikan, ordea, Zuk orrela lenak eta geroak ezagutea, guzien egille ta animen egille orrek! Bestela dituzu ezagutzen, oso bestela ta askoz izkutuago. Etzaizu gertatzen Zuri, aldagabe betikor orri, animen betiko irazaille orri, lelo ezagun bat esaten edo entzun dunari gertatzen zaiona, ots, geroko itzen itxaroz eta lengoen oroiz lera aldatzea eta zentzua zatitzea. Beraz, zeru-lurrak asieratik ezagutu baitzenitun ezaguera alda gabe, ala egin zenitun asieran zeru-lurrak Zure ekiña zaitu gabe. Au ulertzen dunak, goretsi zaitzala; bai ulertzen ez dunak ere. Bai goitar zerala! Bioz-xapalak dira Zure egoitza, ta ez dira erorten, Zu baitzera aien goitegi.



AMABIGARREN IARDUNA

I

Iainkoaren laguntza du Augustiñek iardun zail ontan.

1. Askotara ari da nere biotz au, Iauna, urritasun ontan, Zure liburu sailduetako itzek bultzatzen dutela. Ortatik dator geienez iardunean giza-ezagu urriaren ugaritasuna; geiago mintzo baikera billaketan, arkituan baiño, ta eskea luzeago da ukana baiño, ta eskua langilleago otsegiten, artzen baiño. Badugu agindua. Nork utsaldu? «Iainkoa gurekin badago, nor gure buruzki?». «Eska, artuko duzute; billa, arkituko; otsegin, zabalduko zaizue. Eskale orok artzen du, billazailleak arkitzen, ots daginari idekiko diote». Zuk agindua da, ta nor da ustel atera-bildur Egiak agindu ezkerro.

II

Non da «zeruen zerua»?

2. Aitortzen du mihi kaxkar onek Zure aunditasuna; Zuk egin dituzula zeru-lurrak, nik dakusadan zeru au, oinpean dutan lurra, ta neregan daroadan lur onen historia. Zuk egin duzu. Non da ordea, *zeruen zerua*? Iauna, salmuak baitiño: «zeruen zerua Iaunarentzat; lurra, ordea, gizasemeeri eman die». Non da ageri ez dan zeru ori, orren aldean lur baita dakusagun oro? Mukulu-mordo guzi au —ez nonai guzi— azkenean eder iantzi zan, gure lurra oiñarri dula; baiñan zeruen zeru aren aldean, gure lurraren zerua ere lur da. Ta bi mukulu aundiok lur dirala esatea ez da belarri-mingarri, gizasemeentzat ez-baiña Iaunarentzat dan alako zeruaren aldean.

III

Lurra antolagabea oraiño: «osin-gaiñean illunpea»; argirik ez.

3. Arian, lur au ikus-eziña ta antolagabea zan, eta alako osin-barrena, aren gaiñean ez baitzan argirik, ez baitzun ezeren eiterik. Orregatik

idatzi zenun «osin-gaiñean illunbea zegon». Zer gero, argirik-eza baizik? Non ziteken argia, izatekotan, gaiña artzen eta argitzen baizik? Argirik ez zan artan, illuna egotea zer zan, argirik-eza baizik? Gaiñean zegon, beraz, illunbea, gaiñean argirik ez baitzan. Soiñurik ez dan tokian ere ixilla dago. Ta zer da ixilla egotea soiñurik-eza baizik? Ez al duzu Zuk eskolatu aitortzen zaitun anima au? Ez al nauzu Zuk eskolatu, Zuk Iauna, Zuk mukulugai eitegabe au tankeratu ta bereizi baiño len ez zala ezer, ez margo, ez eite, ez antz, ez mokorki, ez arnaski? Ez, alare, erabat eza: nahas-mahas bat eiterik batere gabe.

IV

«Naaste-borraste» izen egokia lurrarentzat.

4. Nola deitu beraz, eta zer zentzuz adierazi soraioeri itz ikasi baten bidez? Izadi zabalean zer arkitu erabateko eitegabe oni urbillagorik lurra ta leizea baiño? Ederrez urriago baitira beren maiean, goragoko txit argi ta dirdaitzuen aldean. Zergatik ez ontzat artu beraz, gizoneri egoki adierazi zenielea, «lur ikuseziña ta antolagabea» deituz Zuk eitegabe agindako mukulu gaiari, artatik izadi ederra egiteko?

V

Zer da «naaste-borraste» ori?

5. Gure adimenak galde baleza, zentzuak ortaz zer atzi dezaken, eta berekioko esan: «ez da ezer adigarri, bizia edo zuzentasuna dan bezala, mukulugai baita. Ez eta zentzuen mendeko ere, ez baita ezer ikusgai, ez sumagai, ikus-eziñ eta antolagabea». Giza-adimenak au dionean, alegin beza ezagutzeko ez iakiñez, edo ez iakiteko ezagutuz.

VI

Lurra eiterik edo itxurarik gabea.

6. Nik, ordea, Iauna, lumaz eta mihiz aitortzen badizut gai ontan irakatsi didazuna, len besterengandik izena entzun eta ulertzen ez nuna —ez aiek ere— milla ta milla tankeratan asmatzen nuan. Beraz, ez nuan asmatzen ere. Iraulten nitun gogoan eite itsusi ta bildurgarrik atzekoz



aurrera; eiteak alare; ta eitegabe deitzen nuan, eiterik etzulako ez-baiña alakoa baitzun, agertu bazedin, nere zentzuak egundañoko gaitzegokiz aizatuko zun, eta gizonaren aultasuna ikaratuko. Ala ere nik gogoemana eitegabe zan, eiterik batere etzulako ez-baiña, gauza ederren aldean. Arrazoiak agintzen zidan edozer eiteren aztarrena aiza nezala zearo, eitegabea buruz ernetzeko; ta ezin. Errezago nerizkion etzala zearo eitegabe-rik, eitearen eta utsaren tartean zerbait baiño, ez eite, ez uts, ia utsa. Emen atertu zan ene adimena, nere idurimenari galde egitez, egiteen idurikizunez betea baineukan, nere gogara aldatzen eta antolatzen nitula. Mukulukieri so egin nien eta sakonago aztertu nuan aien izate aldakorra, izan zirana izatea utziz, etzirana izaten asten diralako. Ta eitetik eitera dagon tartea eitegabe zerbaitetz gertatzen zala ez uts gorotzez, usmatu nuan; baiñan usmatu ez-baiña iakin egin nai. Baiña gai ontaz adierazten didazun guztia mintzoz eta lumaz aitortu bear banizu, nork iraun irakurten? Alare nere biotza ez da atertuko Zu goresten eta abesten, ezin-esanaz utziekin. Gauza aldakorren aldakor izatea bera on da, guzien aldakuntzak artzeko. Eta au zer da? Anima? Gorputza? Edo bi oietako zerbait? Esan al baledi: *ezer ez, zer*, edo *ez-dana bada*, nik ola deituko nuke. Alare nolabait bazan eite ikusgarri ta antolatu oriek beregan artzeko.

VII

Zeru-lurrak Iainkoak utsetik egiñak dira.

7. Eta, nolanai ere, nondik zan, Zugandik ez ta? Zugan baitaude oro, diran eiñean. Baiña Zugandik bestelago ta urrunago, ez baitaude tokian ere. Zu beraz, Iauna, ez baitzera orain au, gero ori, baiña berbera ta berbera, «Saindu, Saindu, Saindu, Iainko guzieldun», Zugandiko asieran Zure izatetik datorren iakitean egin zenun zerbait, eta utsetik. Zeru-lurrak egin zenitun, baiñan ez Zutaz; bestela berdin bailirake Zure Seme bakarrarekin, eta beraz, Zurekin; eta ez litzake batere bidezko Zuri berdin izatea, Zutaz egiña ezik. Eta aiek bestetaz egiteko, Zu besterik ezzan, Irutasun bakar eta Batasun irukoitz; beraz, utsetik egin zenitun zeru-lurrak bat aundi ta bestea kaxkar, guzieldun eta on baitzera guziak on egiteko, zerua aundi ta lurra txiki. Zu ziñan, ez besterik, artaz zeru-lurrak egiteko; bi zertzuz, bat Zugandik urbill, bestea utsetik urbill; bata, Zu aundiago zedin, bestea, bera baiño kaxkarragorik etzedin.

VIII

Lurra ikus-eziña ta antolagabea zan: «illunbea zegon leize gaiñean».

8. Baiña «zeruen zeru ua, Zuretzat, Iauna»; baiña gizasemeeri ikusgarri ta ukigarri eman zenien lurra, ez zan orain dakusagun eta ukitzen dugun lakoa. Ikus-eziña baitzan, etaantolagabea, ta leize zan, gaiñean argi gabe, obeki esan, «illunbea zegon leize gaiñean», ots, leizean baiña areago. Ur ikusgarrien osiñ onek badu bere barneanargi bezalako bat arraiztat eta ondarreko narratiztat; ua, ordea, ia utsa zan, guzia oraindik oso eitegabea baitzan; gai zan ordea, eitea artzeko. Zuk egin zenun mundua, eitegabeko gaiez, eta au utsetik, ia uts ontatik gauza aundiak egiteko gizasemeen arrigarri. Oso arrigarri da ukuluen zeru au, ortzantza deitu baitzenun, bi uren tartean, bigarren egunean argia egin ondoren. «Bedi, esan zenun, eta ala egin zan». Ortzantza ori ortzi deitu zenun, baiñan irugarren egunean egin zenun legor-itxasoen ortzia. Orrela eman zenion eite, egunak baiño len egindako gai antolagabeari. Egiña zeneukan ortzia egunak baiño len; baiñan ortzi onen zerua; asieran egin baitzenitun zeru-lurrak. Zuk egin lurra, gai eitegabea zan ikus-eziñ eta antolagabe baitzan. Lur ikus-eziñ, antolagabe, eitegabe, ia uts ortatik egin zenitun izadi aldakor au osatzen duten eta ez duten gauzak. Ortan ageri da aldakortasuna bera, aldiak sumatu ta batbanatu ditezen. Aldia, gauza-aldak egiten baitu, lur ikus-eziña gai dula, gauzen eiteak aldatzen eta iraulten diran bezela.

IX

Zeru-lurrak egitean ez da noizaldirik eta egunik aipatzen.

9. Beraz, Zure otsein irakaslearen asmuak ez du tutik esaten noizaldiaz, lenik zeru-lurrak egin zenitula gogoratzean; ixiltzen ditu egunak. Alegia, asieran egin zenun zeruen zerua, sorkari adiduna da, ez inñola ere Zure Irutasunaren betikide, erdikide baiño; bere aldabera oso galgatzen du Zuri so egoite txit atsegiñez, eta, egiña danetik, atergabe Zuri datxikola, aldi-aldak oro gaintzen ditu. Baiñan eitegabe au, lur ikus-eziñ eta antolagaitz au ere, ez du egunetan aipatzen. Eiterik ez dala, ez da aurren-urrenik, ez ioan-etortzerik; eta ez dalarik, ez da egunik, ez eta aldi-tarteen aldakuntzarik.



X

Illunbea ez-baiña Zu mintza zakit, Jauna.

10. O Egi, nere biotzaren argi! Ez bekida mintzo nere illunbea. Ontara ixuri nintzan eta illundu; baiñan emendik, emendik ere, griñaz maite zaitut. «Aldegin nuan, eta Zutaz oroitu nitzan». Zure mintzoa entzun nuan atzetik, itzul nendila, ta osta entzun, eziñ-egonen asaldaz. Orain, ordea, itzultzen naiz, sutan eta arnaska Zure iturri ortara. Begokit. Au dezadan edan, eta ontaz nadin bizi. Ez nadi ni nere bizi. Gaizki bizi nintzan nerez, erio nintzan nigan; Zugan naiz birbizten. Mintza zakida Zu; itz egidazu. Siñetsi diet Zure liburueri ta ango itz oso izkutueri.

XI

*Iainkoa ez du eiteak ez zirkiñak aldatzen; «zeruen zerua
Iaunarentzat» nola ulertu? Augustiñek Iaunaren etxean bizi nai
du. Eiterik ez dan tokian ez da aldakuntzarik.*

11. Esana didazu, Jauna, ozenki nere belarrira, beti zerala, betiera Zuk bakarrik daukazula, ez baitzaitu ez eitek, ez zirkiñek aldatzen. Zure gogo ez da aldi-aldatzen; bat eta beste dan gogo ez da illezkor. Argi dakusat au Zure aurrean. Dakusadan, otoi, gero ta argiago, ta nagon zugur argialdi ontan Zure egalenpean.

Esan ere didazu ozenki barne-belarrira, sorkari ta zerki guziak —Zu ezik ba-diranak— Zuk egiñak dirala, ta ez dana, soilla, ez dala Zugandik; ez eta Zu zeranagandik gutxiago danerako gogo-eragiña, eragiñ ori oben eta oker baita eta iñoren obenek ez dizutela kalterik edo ez dula Zure aginterriko burubidea naasten, ez gaiñenean ez azpienean. Argi dakusat au Zure aurrean. Dakusadan, otoi, gero ta argiago, ta nagon zugur Zure egalenpean.

12. Esan ere didazu ozenki ta barne-belarrira, Zu atsegin zakion sorkari ua ere etzaizula betikide, ta garbitasun txit iraunkorrea Zu iastatuz, iñon eta iñoiz ez dula aldagaitzik, eta Zu beti berton zaitula, biotz osoz dago; geroko itxarorik gabe, ta gogora zaiona lengora igorri gabe, ez du aldiak aldatzen, ez da aldira luzatzen. Bai doatsu, iñon baldin bada, Zuri doatsu atxikiatz; doatsu Zugatik, bizilagun eta argitzaille Orrengatik. Ez dut arkitzen ere zer deitu dezakedan gogarago «zeruen zerua Iaunarentzat» Zure etxea baiño, ta an Zure atsegiñari so dagona, bestetara irteteko kezka gabe, anima garbia, aingeruki doatsuen pake ezarrian

biotz-biotzez bat egiña, Zurezeruen uriko zerutar egiñik, gure ortzi auen gaiñetik.

13. Ikus beza, emen, atzerrialdi luzea egin dun animak, «Zu egarri zaitun, bere malkoak ogi biurtu zaizkion *non da zure Iainkoa esaten diotela*; Zuri gauza bakarra eskatzen dizun, eta au eskatzen, ots, Zure etxean bizi izatea bere bizialdi guzian». Eta zer biziera du Zurea ezik? Eta Zure egunak zer betiera baizik? «Zure urteak ez baitira aitzen, berbera baitzera». Uler beza al dunak, betiko zerala aldi guzien askoz gaiñetik; Zure etxea ere, atzerriz ibilli ez dana, Zure betikide ez izanik, ala ere, taigabe ta atergabe Zuri atxikiz, ez bait du aldi-aldarik egarten. Argi dakusat au Zure aurrean. Dakusadan otoi, gero ta argiago, ta nagon zugur Zure egalenpean.

14. Ez dakit zer eitegabe arkitzen dudan azkeneko gauzarik kaxkaxrenen aldakuntzetan. Zeiñek neri esan, nere biotz utsalean iduripenka arat-onat iraulten danak baizik? Zeiñek esan orrek baizik, eiteak oro xurturik eta aiturik, eitegabea soil gelditzen dalarik, artatik eitez-eite gauza aldatzen eta biurtzen baitzan, aldi-aldak etorri ditezkelat? Ez diteke iñola, noizaldirik ez baititeke zirkiñaldirik gabe, ta eiterik ez dan tokian, ez da aldakuntzarik.

XII

Bi gauza, aldi gabe egiñak.

15. Au begiemanik, ene Iainko, —Zuk eni emanaren neurrian biotzera naragizun araura ta zerbait idekitzen didazun einean— bi gauza arkitzen ditut aldi gabe egin zenitunak, eta bat ere ez Zuri betikide; Bata Zuri atergabe so egoteko egiña, aldarerik gabe, aldakor dan arren aldagabe, Zure betieran eta alda-eziñean asetzen dana; bestea, eitegabea izanik, eitetik eitera zirkin egiñez naiz egonez, aldi-aldatzerik ez daukana. Baiñan etzenun etsi, au eitegabe zedin, egunak baiño len egiña baitzenun «asieran zeru ta lurra». Bi auetaz ari nintzan: «Lurra, berriz, ikus-eziña zan, eta antolagabea, ta osiñ-gaiñean illuna». Itz oien bidez adirazten da eitegabea, ta ola lekutzen dira maillaka, iñolako idurien izpirik-eza asma ezin dutenak —utsera iritxi gabe ordea—, artatik beste zerua ta ikuskaria ta ur eitenduna eta gero izadi ontan gertatzen dan oro, egunik gabe egiña esan etzedin. Izan ere oietan gertatzen baitira aldi-aldak, zirkiñ eta iduriak eran iokatuz.



XIII

Zeruen zerua; zeru adiduna.

16. Au sumatzen dut inoiz, ene Iainko, Zure liburuak esaten dantzudala: «asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak; lurra, ordea, ikus-eziñ eta antolagabe zegoen, eta osiñ gainean aizaroak zeuden». Baiñan ez du esaten zenbakarren egunean egin zenitun. Ola sumatzen dut inoiz zeruen zeru auengatik zeru adiduna, an ezaguten baitu adimenak erabat, ez alde, ispi-lluz laino tartean ez-baiña, «osotara begiz begi» agertzean. Ez oraiñ au, gero ori, baiñan esan dutana erabat ezagutu, aldi-alda gabe, eta lur ikus-eziñ eta antolagabearen bidez, onela ta ala gerta oi dan aldian alda gabe; an ez baita eiterik, ez au, ez ori. Bi auengatik da lenik antolatua ta oso eite-gabea zeru ua, ots, zeruen zerua; urrena lurra, baiña lur ikus-eziña. Bi auengatik sumatzen dut inoiz Zure liburuak, egunik aipa gabe diagola: «asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak». Berela eratxiki baitzun zer lur esan zun. Eta bigarren egunean egiñik, ortzantza, zeru izena duna aipatzean, adierazten du zer zerutaz diardun len, egunez landa.

XIV

Iainkoaren itzak sakon arrigarriak. Moisek zer adierazi nai ukan zun?

17. Zure itzen sakon arrigarria, Iauna! Orien axalak maite egiten digu ñimiñoeri; baiña sakon arrigarria, ene Iainko, zingo izugarria. Latz-ikara sortzen du oieri begiratzeak, deduzko latz-ikara ta maitezko dardarra. Biziro ditut gorroto oien etsaiak! Illen al zenitu sorbatz biko espatez, eta bitez orien etsai! Baiña, berentzat il ditezen gogo dut, Zuretaz bizitzeko.

Ona, berriz, Etor-liburuaren gaitzezle ez-baiña goresle batzuk diñona: «Iainko-arnasak, Onen bidez mintzo baita Moise, ez zun au adierazi nai ukan; Zuk diozun au ez baiña, guk diogun bestea adierazi nai ukan zun». Onela erantzuten diet, gure guzien On Iainko, Zu epaille.

XV

Iainkoaren zer-izana ta nai-izana ez dira aldakor. Iainkoaren etxea nolako?

18. Gezur dala ote desakezut, neri Egiak ozenki barne-belarrira Irazaillearen betieraz diostana, ots, Aren zer-izana ez dala inola aldatzen adietan, eta Aren gogoa ez dagola zer-dan ortaz landa? Beraz, ez da betikor. Arek oraiñ au gero ori nai ukaitea; baizik eta bein eta batean eta beti nai ukaitea nai dun oro; ez berriz eta berriz, ez oraiñ au, gero ori; ez ta len nai etzuna gero nai ukaitea, edo oraiñ ez nai len naia; gogo au aldakor baita, eta aldakor danik ez da betikor. Gure Iainkoa, aldiz, betikor da. Orobat, eni barne-belarrira diostana, etorkizunen itxaroa begiratu biurtzen dala datozanean, eta begiratu ori oroipen, aiek igarotzean. Beraz, aldatuz dabillan asmo oro aldakor da, ta aldakor danik ez da betikor. Gure Iainkoa, aldiz, betikor da. Auek bilduz eta elkartuz au arkitzen dut: nere Iainkoak, Iainko betikoak, etzula egin sorkaririk asmo berriz, eta aren iakitea ez dagola iraganaren mende.

Zer diozute, bada, bestera? auek gezur dirala? Ez, diagote. Eta au? Gezur al da sorkari eitedun oro ta egingarri oro Argandik baizik ez dala, onik aundiena baita aundienik dalako? Ez dugu ukatzen au ere, diagote. Zer beraz? Ukatzen al duzute ba-dala sorkeri bat, maitasun ain garbiz, egi dan eta egizko Iainko betikorrari atxikia, betikide etziola ere, ez aldi-aldak, ez beste aldarrek Argandik askatzen eta ialkiarazten ez duna; aldiz, Ari begiratu txit egiazkoan atsedeten duna, Zu, Iauna, Zuk agindu ala maite zaitunari agertzen baitzakio ta aski zakio, ta orregatik ez dala saiesten ez Zugandik, ez beregandik? Au da Iainkoaren etxea, ez lurki, ez mukuluki, baizik eta gogaki, Zure betieraren erdikide, ez baita sekulan irotzen. «Betiko ezarri duzu, ta betiren-betiko agindua eman diozu, eta ez du autsi». Ez da, alare, Zure betikide, ez baita asiera gabe; egiña baita.

20. Ua baiño len, noizik ez bada ere, —Zugurtasuna baita orotan lena— ez diagot, ene Iainko, Aitarekin betikide ta berdiñ dan zugurtasun Ua dala, Ark egin baititu diranak oro ta asiera artan egin zenitun zeru-lurrak; baizik eta beste zugurtasun sortarazi ua, berez adidun, argiari so egiñez argi dana, zugurtasun baiteritza, egiña izanik ere; baiñan argi egiten dun argitik erraiñu argira dagon alde bera dago zugurtasun irazan gabetik irazanera; orobat, zindotzen dun grazitik gure zindotasunera; grazi orrek zindotu baikaitu. Guri ere badagokigu «zindotasun» izena, Zure otsein batek dionez: «Arengan Iainkoaren zindotasun gaitezen». Orregatik da gauzak oro egin baiño len egindako zugurtasun bat; egiña izanik ere, Zure uri garbi dan gure Amaren adimen ezaguera dun arrazoiduna da an goiko zeruetan iare ta betikor dagona. Ta zelako zeruetan? Zu goersten zaituten zeruen zeruetan, zeru au ere Iaunarentzat baita. Ua baiño len noizaldirik arkitzen ez badugu, noizaren beraren aurretik baita,



oro baiño len egiña; alare ori baiño len da Irazaillearen Beraren betiera, Argandik baitu asiera egiña danak; ez len-aldiz, ez baitzan aldirik oraiño; bai ber izaeraz.

21. Beraz, Zugandik, gure Aitagandik, Zutaz oso besterik da ,ta ez Zerau. Ua baiño len ez-ezik, artan ere ez dugu noizik arkitzen, gai baita Zure aurpegiari so egiteko, beñere aldegin gabe. Orregatik ez du aldarterik ez aldirik. Berez, ordea, aldakor da. Ortaz illundu ta otzitu ledike, Zugandik argi ta su ez balitza, maitasun aundiz Zuri atxikirik, betiko eguerdi antzo.

Ai, Zu, etxe argitsu ta eder, «maite izan dut Zure edertasuna ta nere iaun Egille ta labearen egoitza ospatsua». Zu zakit asperen nere bidez-bide ontan, eta esaiodan egin zindunari, ni ere bere nazala Zugan, ni ere egiña bainau. «Zor-zor nindabillan ardi galdu antzo»; baiña Zu egin zindun ene Artzaiak, lepoan naramake zurera.

22. Zer diozute nere osterazale oriek —zuekin ari bainintzan— siñesten baituzute alare Moise Iainkoaren otseiñ zintzo zala ta aren liburuak gogo Gurenaren itz izkutu dirala. Au al da iainko-etxea —ez Iainkoari betikide— baiña bere neurrian zeruetan betikor dana, alperrik baita or aldia billatzea, ez baituzute arkituko. Iraute ta aldarte guzien gaiñetik dago, beti Iainkoari atxikitzea on zaiola.

—Bai, diagote—. Beraz, ene biotzak ene Iainkoari Aren gorespen-otsa entzutean egin-oiuetan, zein dala gezur diozute azkenik? Gai eitegabea zalarik, eitegabebaz aurren-aurrenik atzeukala? Aurren-urrenik etzeukala? Aurren-urrenik ez dan tokian ez diteke aldi-arterik izan. Argandik zeterren, naski. «Au ere ez dugu ukatzen», diagote.

XVI

Otoitza Iainkoari egiz biotzera mintza dakion.

23. Oriekin itzegin nai dut Zure aintzinean, ene Iauna, aitortzen baitute Zure egiak barrendik ixildu gabe esaten ditidan gauz ok egi dirala. Ukatzen dutenek egin bezate nai aiña zaunka, belarrieri eragozteko. Albait eragingo diet dezaten pake, ta Zure itzari beregan eman ioten bide. Nai ez badute ta aizatzen banaute, otoi, «Iauna, ez ixildu nere alde». Mintza zakit egiaz biotzean, Zu bakarrik mintzo baitzera ola. Bialduko ditut ara; doazela, autsak begietaraiño arrotuz. Sar nadin nere gelan Zuri maite-leloak abesten, intziri ezin-esanak ene atzerrialdian atereaz, Ierusalen gogoraturaz biotza ara goratuz, Ierusalen ene aberri, Ierusalen ene Ama, ta Zu

ango Errege, argiegille, Aita, iagole, senar, atsegin bizkor eta poz iraunkor, ezin esan-alako ontasun oro batean, Zu baitzera egizko ta gorengo ontasun bakarra. Ez dut aldegiñen nere zatibanatze ta itsustasun ontatik naizan oso au Zuk bilzen eta betiko eraberritzen eta sendotzen nauzun arte, nere Iainko, nere erruki, Ama txit maite orrenpean, ain baitaude nere gogoaren asikiñak, eta andik baitira auek egi ziur. Egi diran aiek oro gezur dirala diotenekin, eta nik bezala Moise sainduak egindako Zure Idazti ua goersten eta aginpide aren gaiñenean ipinten dutenekin, onela iardunen dut, zertxobat ostera baldin badezate. Zaitte Zu epaille, gure Iainko, nere aitorkizunen eta aien osteraitzen artean.

XVII

Zeru-lurren izenez zer adierazi nai ukan zun Moisek.

24. Onela diagote: auek egi ezanik ere, bi gauza oieri etzien so egin Moisek goi-argiz au esan zuanean: «asieran Iainkoak zeru-lurrak egin zitun». Zeru izenez ez zun adierazi beti Iainko aurpegiari so dagon sorkari gogakoi edo adiduna; ez eta lur izenez gai eitegabea ere. Zer, beraz? —Guk dioguna, diote; ori sumatu zun gizon arek, au esan zun itz oriekin—. —Zer da, gero?— Zeru-lurren izenez izadi ikuskari au adierazi nai ukan zun, lenbizi erabat eta laburki, gero egunak batbanatzeko, bata bestearen ondozkatuz, gogo gurenari orrela aipatzea baitzitzaiion egoki. Erri basazi aragikoari mintzo zitzaion, ageri ziran gauzak bakarrak gorantziz. Beraz, etsitzen dute ontan: lur ikus-ezin ta antolagabea, leize illuna, gai eitegabe ua aditu bear dala, ez oker ere, eta artatik ageri da ondorioka, egun aietan egin eta antolatu zitula, guzion begietan dauden agerkari auek oro.

25. Beste batek au esan baleza: eitegabe ta nahas-mahas au zeru-lurren izenez adierazten dala; mundu ikuskari au artatik egiña ta biribildua baita, bertan ageri diran sorkari guziekin?

Beste batek esan baleza: zeru-lurrak sorkari kuskari ta ikus-eziña deritzala, ez gaitzegoki; ta, beraz, Iainkoak zugurtasunez, ots, asieran egin zula sorkari oro, bi itz orietan dagola? Baiña Iainkoaren zer-danetik bereetik ez-baiña, ezer-ezetik oro egiñak diralako, ez baitira Iainkoa dan bera, guzietan aldartea ageri baita, naiz geldi daudela Iainkoaren betiko etxea bezala, naiz alda ditezela gizonaren gorputz-animak bezala; eta ikuskarien eta ikus-eziñen gai au, oraindik eitegabea, baiñan eitegaia, ortatik atera bear baitzuten zeru-lurrak, ots, izadi ikuskari ta ikus-eziña, biak eitedun,



bi izen oiekin aipatuak: «lur ikus-eziña ta antolagabea ta osiñ gaiñean illuna», baiña bitara: lur ikus-eziñ ta antolagabea mukulugai ditela eitea artu baiño len; osiñ-gaiñean illuna, berriz, gogogai, bere begiekiko ixurtasuna geldierazi baiño len eta Zugurtasunak argitu baiño len ditela.

26. Oraindik esan dezake beste batek nai badu: «asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak» esatean, ez dirala ulertu bear zeru-lurrez sorkari ikuskari ta ikus-eziñak, bikainduak eta eratuak; baizik eta, izen oietaz aipatzen dan gai eragaia ta izangaia, artan naaste daudelako, oraindio noleraak artu gabe, orain beren einen bereiz zeru-lur deitzen ditugunak: bata sorkari gogakoi bestea mukuluki.

XVIII

Itz orien adiera banak ulertzea ezerk ez du eragotzen.

27. Auek oro entzunik eta gogoemanik, «ez dut itz-eletarik nai, ez baita ezertako, entzuleak naasiazteko baiño; legea, aldiz, iator erabilli ezkeru, onera eragiteko on da; maitasuna baitu asmo, biotz garbitik eta barne zintzotik eta siñeste alegi gabetik». Badakit zertatik eseki ditun gure Maisuak lege osoa eta Igarleak. Au sutsu nik aitortuz, ene Iainko, nere begien barne-argi, zerk eragotzen dit itz oietan adiera banak ulertzea — egiak, iakiña— zerk eragotzen dit, idatzi zunak diardula uste duntetik nik ostera iriztea? Irakurleok alegiten dugu, irakurtzen dugun idazleak zer esan nai zun billatzen eta ulertzen. Eta egizale dala uste dugunean, ez gera ausartzen gezur dala dakigunik edo uste dugunik esan zula burutan artzen. Beraz, idazleak Liburu Sainduetan ulertu zuna norbaitek ulertu nai izatean, zer gaitz dago, Zuk, gogo egi-zale guzien argi zeran Orrek egi dala erakusten duzuna ulertzen badu; idatzi zunak ori ulertzen ez balu ere, ark ere egi ulertzen baitu, berau ez bada ere?

XIX

Egiazko aburu batzuk.

28. Egi da, naski, Iauna, Zuk egin zenitula zeru-lurrak. Egi da Zure Zugurtasunean egin zenitula oro. Egi da orobat, izadi ikuskari onek bi alderdi aundi ditula, zerua ta lurra, sorkari antolatu guzien laburkizun. Egi ere da, aldakor oro gure ezaguerari eitegabe antza iduri zaiola, eitea artuz, naiz aldatuz, eta biurtuz. Egi da, eite alda-eziñari datxikona, aldakor bada

ere, ez dala aldatzen, eta ez dula aldirik. Egi da, eitegabea, ia uts dana ez ditekela aldidun izan. Egi da, egiten danetik izena artu dezakela nolabait artatik egiña danak: beraz, zeru-lurrak sortarazi zituneko eitegabe ua, «zeru ta lur» izendatu ziteken. Egia da, eitedun guzietan ez dala ezer eitegabeari ain urbil zaionik lurra ta leizea baiño. Egi da, irazanta eiteduna ez-ezen, irazangai ta eitegai oro Zuk egiña dala, Zugandik baitira guziak. Egi da, eitegabetik eitedun dana, lenik eitegabe zala, gero eitedun.

XX

Zeru-lurretaz bost aburu bereizi.

29. Barne-begiz au ikustea eman diezun aiek, eta Moise Zure otseiña egi-arnasaz mintzo zala sendo siñesten duten aiek, egi guzi auetatik bat artzen du au dionak: «asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak», ots, bere itz betikidean egin zitun sorkari adidun, sumakor, gogaki, gorpuzdun oro. Beste bat au dionak: «asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak», ots, Bere Itz betikidean egin zun izadi onen mukulu guzia, berton ageri diran sorkari guziekin. Beste bat au dionak: «asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak», ots, Bere Itz betikidean gogaki ta mukulukien eitegabea. Beste bat au dionak: «asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak», ots, bere itz betikidean egin zun Iainkoak mukulukien eitegabea; artan baitzeuden naaste orain bereiz eta eitedun izadi mukulu ontan ikusten ditugunak. Beste bat au dionak: «asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak», ots, bere egiñaren eta ekiñaren asieran Iainkoak gai eitegabea egin zun, zeru-lurra naaste zeuzkana, Artatik ageri bait dira, orain berton dauden sorkariekin.

XXI

«Lurra, berriz, ikus-eziña ta antolagabea zan»: aburuak.

30. Orobat, urrengo itzen adierari dagokionez, egi guzi aietatik bat artzen du au dionak: «lurra, berriz, ikus-eziña ta antolagabea zan, eta illuna zegon osiñaren gaiñean», ots, Iainkoak egin mukulugai ua, oraindio mukulukien gai eitegabea zan, ez tankera ta ez argi. Beste bat au dionak: «lurra, berriz, ikus-eziña ta antolagabea zan, eta illuna zegon osiñaren gaiñean» ots, zeru-lurrak deritzogun guzi au, oraiño eitegabe ta illuna zan, artatik zeru-lur mukulukiak egiteko, berton dauden guziekin, gorputzeko zentzuen ezaugarri. Beste bat au dionak: «lurra, berriz, ikus-eziña ta anto-



lagabea zan ta illuna zegon osiñaren gaiñean», ots, zeru-lurrak deritzogun guzi au oraindio gai eitegabe ta illuna zan, artatik zeru adigarria, beste nunbait «zeruen zeru», esaten dana egin zedin; lurra, berriz, mukuluki oro, zeru mukuludun au ere barne dala, artatik sorkari oro, ageri dan eta ez dana, egin zedin. Beste bat au dionak: «lurra, berriz, ikus-eziña, ta antolagabea zan, eta illuna zegon osiñaren gaiñean», ots, Idaztiak etzun izendatu zeru-lur eitegabe ua; ba zan, orde, eitegabea bera, lur ikus-ezin eta antolagabe ta leize illun izendatu zuna, esana baitzeukan aurretik, artatik egin zitula Iainkoak zeru-lurrak, ots, sorkari gogoduna ta mukuluduna. Beste bat au dionak: «lurra, berriz, ikus-eziña ta antolagabea zan, ta illuna zegon osiñaren gaiñean»; ots, eitegabe ori orduko gai bat zan Iainkoak artatik zeru-lurrak egin zitula lendanik esana, ots, izadiaren mukulu osoa bi alderditan bnatua, gaiñeko ta azpiko, berton dauden sorkari oiko ta ezagunekin.

XXII

Lengoa irraitzen du.

31. Baten-bat azken-aburu biori iarki baledi ontara: «zeru-lurren gai onen eitegabea izen ortaz deitzen ikusi nai ez baduzute, beraz, bazan zer-bait, artatik zeru-lurrak egiteko». Idaztiak ere ez dio gai ori Iainkoak egin zula, zeru-lurren izenez adierazi nai ez badugu, edo lur utsarenaz, au esatean: «asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak», itz oeri darrikona, ots, «lurra, berriz, ikus-eziña ta antolagabea zan», gai eitegabea ala izendatu nai bazun ere, ez dezagun uler, Iainkoak artaz egiña zuna baizik, aurretik idatzia dagonez: «zeru-lurrak egin zitun». Bi baztarretan ipiñi ditugun bi aburu orien aitorleek, bataren naiz bestearenak au erantzunen dute, auek entzutean: «ez dugu ukatzen gai eitegabe au Iainkoak egiña danik, Iainko orrengandik baitira oro oso eder; esaten baitugu onez ohea dala irazan eta antolatu dana, ta onez urriago dala —on ala ere— irazangai ta antolagai egin dana». Etzula Idaztiak aipatu eitegabe au Iainkoak egiña danik, beste aunitz ere ez baitzitun aipatu, Kerubin eta Serapin, Apostoluak garbi dion beste auekin: Iaun, Nagusi, Agintedun; eta auek ere Iainkoak egin zitula iakiña da. Edota, «zeru-lurrak egin zitun», esate artan oro sarturik badaude, zer diñogu Iainko-arnasa gaiñean zeramaten urtaz? Lurra aipatzearekin batean ulertzen badira, nola artzen dugu gai eitegabea lur izenez ur aiñ ederrak ikustean? Edota, ortara artu ezker, zergatik ez idatzi, eitegabe ortaz egin zula ortzantza, zeru deitua, ta ez idatzi urak egiñak izan zirala?

Ez baitira eitegabe ta ikusgaitz ain ederki ixurtzen ditugunak. Edota, Iainkoak «bildu bedi ortzipean dagon ura» esatean edertasun ori artu ba zuten, biltzea ta eratzea bat litzaken gisan, zer erantzun, ortzi gaiñean dauden uretaz, eitegabe izanik ez baitzuten ain deduzko tokirik artuko, ta ez baitago idatzirik ere, zer itzez eitea artu zuten? Beraz Iatorri-liburuak Iainkoak egindakorik ixiltzen badu —siñeste zindoak eta adimen ziurrak ez baitu kolokan ipinten, Iainkoak egiña danik— eta beragatik, zugur dan ikaskizuna ez baita ausartuko, ur auek Iainkoarekin betikide dirala esaten Iatorri-liburuan aipatzen diralako —ez baitugu an arkitzen noiz egiñak diran— zergatik ez ulertu, egiak irakatsirik, idaztiak lur ikus-eziñ ta antolagabe ta leize illun deritzon gai eitegabea ere Iainkoak utsetik egiña dala; beraz, ez dala betikor, kondaira orrek non egiña dan ixiltzen badu ere?

XXIII

Moisek etzun gezurrik esan.

32. Nere buru-artze aul onen araura —aitortzen dizut, Iauna—, gauza auek entzunik eta gogoemanik, bi galdera mota sortu ditezkelarik dirudit, iragarle ziñak astarrenez ialkitzen: bata, gauzen egiaz eleta beldin bada; bestea, ialkitzen dunaren asmoaz. Batera galdegiten dugu sorkarien egiteaz zer dan egi; bestera, berriz, Zure siñesmenaren otsein garai Moisek itz oriekin irakurle ta entzuleek zer ulertzea nai zun. Lenengo galdera-mota artan, alde nigandik gezurra dan oro badakitela uste duten guziek; bigarrengoan utikan emendik, Moisek gezurrik esan zitula uste dutenek. Bildu nadin Iauna, Zugan, eta poztu nadin Zugan, Zure egian maitasun zabalez iñutzen diran aiekin, eta goazen batean Zure Liburuaren itzetara ta billadezagun an zuk naia Zure otseiñak nai zunez, aren lumaren bidez eman baitiguzuz auek.

XXIV

Zer zedukan Moisek gogoan «asieran Iainkoak zeru-lurrak egin zitun» esatean.

33. Baiña nork arkitu, guk oinbeste eginen artean ola ta ola ulerturiko itz aietan dagona, galde dagitenentzat? «Moisek au sumatu zun, eta kondaira artan au uler zedin nai zun» bezain biribil esan al dateke, «au da egia, ark au ala bestea asmatu?». Ona ni, nere Iainko, Zure otsein: zin egin



baitizut idazki auetan gorespen-oparia; arren, bete dezadan ene zin-itza. «Zure Itz alda-eziñean egin zenitun oro, ikuskari ta ikus-eziñ», ezain-bezain biribill al diot «au besterik etzeukan Moisek gogoan, *asieran egin zitun Iainkoak zeru-lurrak* idaztean?». Zure egian au egi dala ikusten dutan bezala, ez dut ikusten arenean ori gogoeman zula idaztean. Asma zeza-ken, bada, egitearen asieran berean, «asieran» esatean. Nai zezaken toki ontan au uler zedin ere, ots zeru-lurrak, ez sorkari eitedun biribilla, goga-ki naiz mukuluki; baizik eta biak asiak eta oraiño eite-gabeak zirala. Ikusten dut egitan esan zitekela oietan edozer; baiñan itz oietan zer asma-tu zun, ez dut ala ikusten. Ez dut, ordea, dudarik, gizon aundi ark itz auek ateratzean, naiz bere buruan olako zerbait iduki, naiz nik aipatzen ez dudan beste zerbait, egia ikusi zula ta egoki azaldu zula.

XXV

Zenbait adierazleen ausardia: «guk dioguna da egia».

34. Ez bekit onezkero iñor nekagarri au esanez: «Moisek zuk diozu-nik ez-baiña, nik diodan au gogoeman zun». Esanen balida «nondik daki-zu Moisek aren itzetaz zuk diozuna gogoeman zula?» otzan gelditu bear nuke ta len erantzun dedana erantzun, edo luzeago, entzungogor balitza. Baiña «zuk diozuna ez-baiña nik diodana gogoeman zun» esatean, eta bestalde ez ukatzen biok dioguna egi dala, Zuk, ene Iainko, txiroen bizi, ez baitituzu ago batean bi mihi, ixurazu otzantasun ausarki nere biotzera, olako oriek egonarriz egari detzadan. Ez didate au esaten Iainkotar diranez, eta diagotena Zure otseñaren biotzean ikusi dutenez; baizik eta arro diranez eta Moiseren aburua ez dakusatelako; beren aburua maite dutelako; egi da orobat lukete maite, aiek diagotena nik maite dutan bezala, egia diñotenean; aiena dalako ez-baiña egi dalako. Beraz ez aiena ere egi dalako. Egi dalako maite badute, egia aien eta nere da, maite duten guziena baita erabat. Moisek nik diotanik ez-baiña aiek diotena gogoeman zula dasatenean, etzait atsegin, ala baldin bada ere, ausarkeri ori; iakintza ez-baiña ausardi da; ikusiak ez-baiñan arrokeriak erdi du. orregatik, Iauna, Zure iritziak bildurgarri, Zure egia nere edo aren ez-baiña guziona baita. Ontara deitzen gaituzu guziok erabat agerian, bildurgarriro goraintziz, ez dezagula bakarka ukan nai, artaz gabetu nai ez badugu. Zuk guzieri gozatzeko dakarkiezuna bat edo batek beretxo egin nai badu, ta guzien dana bere bezala, guzietatik berera egitziko dute, ots, egitik gezurrera. «Gezurra diagona beretik ari da».

35. Adizu Iainko, epaille txit on, Egia bera, adizu zer desaiodan oste-rarezale orri; adizu, Zure aurrean dasaiot eta legea iator darabilten anaien aurrean, maitasun asmoz. Adizu ta ikus zer desaiodan, atsegiñ bazaizu. Oni pake-mintzo anaikor au egozten diot: biok ikusten badugu Zuk diozuna egi dala, ta biok ikusten nik diodana, non ikusten dugu, otoi? Ez nik zukan, naski, ez zuk nigan; biok ordea, gure buruen gaiñetik dagon egi alda-eziñean. Beraz, gure Iainko Iaunaren argiaz beraz eletarik ez badugu zergatik dugu eleta urkoaren gogoemanaz, ez baitezakegu ikusi, egi aldae-ziaña bezala. Moise bera ager balekigu ta «au asmatu nun» balesa ere ikusi ez-baiña siñetsi egiñen genuke. Beraz, idatzitik aldegiñez, bataren alde besteren lepotik ez bedi iñor arrotu. Maita dezagun gure Iainko Iauna biotz osoz, gogo osoz, adimen osoz eta urkoa gerau bezala. Moisek liburu aietan gogoeman zuna, maitasun-lege bi auengatik gogoeman zula siñesten ezba dugu, Iainkoa gezurti dagigu, gure otseinkide aren gogoaz, ark irakatsi zunaz bestera baderitzogu. Ikus orain zein zozo dan, itz aie-tatik atera ditezken oinbeste aburu egizkoen artean Moisek gogoemana zein dan batez ere ausarkeriz aitortzea, ta eleta galgarriz maitasuna bera zauritzea; onengatik esan baitzitun azaltzen ari ditugun esanok.

XXVI

*Augustiñek ez luke naiko Moise balitza,
aren aburu au uka lezaketen edo ez ezagutu ez dagola egitik alde.*

36. Nik, alare, nere Iainko, —nere xapal onen garaitasun, nere lanaren atsedean, nere aitorkizunok entzuten baitidazu lagun urkoa nerau bezala maitatzea— nik ez dezaket siñetsi, Zure otsein txit zintzo Moisek nik neri ematea nai nuken aiña doai ez zunik, ua iaio zanean iaio banitza, ta aren lekuan ni otsein egin baninduzu, biotzez eta mihiz nere idaztia eragiteko, nik neretzat nai nukenik geroko iendeen onerako mundu zabalean aginpide aiñ aundiz aburu gezurti ta arro guzietaz nausitzeko. Nai nuke, naski, ordun Moise banintza —«oro ore batetik baikatoz; eta zer da gizona oroi zakiolako?»— nai nuke, beraz, ua ordun bezala banintza ta Iatorri-liburua idaztea neri erauntzi bazenida, arena bezalako itz-antzea neri ematea, ta iarduna ark edu bezela eiotea, Iainkoak nola irazaten dun ulertu nai ez dutenek nere itzik uka ez lezaten, aien buruen gaiñetik dagolako; ta ulertu al dutenek, burua irauliz edozer aburutara letozkela Zure otseñaren itz laburretan ez dagola lekturik; eta bestek besterik balekusa egia-aren argitan ori ere, ez legokela ulertzeko itz beraietatik alde.



XXVII

Itz gutxitatik egi aunitz atera diteke.

37. Iturri bat leku ertsian ugarigo baita, eta erreka geiagori ematen baitie ixurkia toki zabalagoetan iturburutik beretik, an emen zabalduz doanak baiño; alaxe Zure eragillearen kondairari —mintzalari askoren onerako baita— izketa labur batetik egiaren ur garbi errekak darizkio, bakoitzak dezaken egi atera dezan, onek au, orrek ua, izketa luzeagoaren erretenetik erakarriz. Zenbaitek au irakur edo entzutean, Iainkoa giza-antzeko iduritara dute edo mukulu-aundi antzeko aal izate bat eta asmo berri ta zarteko batez, berez landa, toki urrunetan egin zitula zeru-lurrak, bi mukulu aundi gañean eta azpian, sorkari oro berekin dauzkatela. Eta «Iainkoak au esan zun: bedi eta bazan» entzutean, itz asiak eta bukatuak asmatzen ditute soiñu egiñez aldian doazanak, eta aiek igaro ta berela bazala, zedilla agindu zana, eta beste olakotsuak asmatzen ditute onela, gorputzaren araura. Animala txiki auengan —itz kaxkar auen barnean, umontzian antzo, eramana baita aien aultasuna— osasunerako eraikitzen da siñesmena, ta ziur daukate iduki, aien zentzuak dakustzin sorkari mota bixiko miragarriak oro Iainkoak egiñak dirala. Baiña aburu aulak dirala-ta aitakoren bat aulkeri arroz, ianaria daukan kabitik zabaltzen bada eit eroriko da doakabea, ta erruki zakio, Iauna, bidez doazanak zapal ez dezaten, eta bial azu aingerua, kabira sar dezan, berriro egan asi arte bizi dedin.

XXVIII

«Aiseran... zeru-lurrak»: aburuak.

38. Beste batzueri, berriz, itz auek, kabi ez-baiña, baratze itxi zaizkie. Ikusten ditute igaliak izkutu, ta egan dagite pozez eta xintaka, billatuz eta bilduz. Ikusten dute, bada, Iainko betikor, Zure itz auek irakur edo entzutean, aldiaren len-gero guzien aldean, egonarrizko irautea garaitun dala; alare ez dala aldian egiñiko sorkaririk, Zuk ez egiñik. Zure naia zerau izanik, iñola aldatugabea, len ez zan nairik Zugan sortu gabe, egin zenitula oro. Ez dute Zugandik antzik, Zu guzien eitea izanik. Utsetik ateratako ez-antza dute, eitegabea, gero zure antzera tankeratzekoa Zu bakarraren-gan itzuliz, bakoitza gai dan ariora, gauza bakoitzari bere einen eman zaionera. Ola egin ziran «oro oso eder», naiz Zure ondoan egon naiz mai-

llaka urruntxago, aldizka ta tokika aldakuntza aunitz egiñez naiz erasanez. Gauza auek ikusten ditute, ta Zure egiaren argiarekin pozten dira, emen dezaketentxoan.

39. Beste batek esan oni so egiten dio: «Iainkoak asieran egin zitun» eta Zugurtasunera da itzultzen, «mintzo zaigun asiera» baita (Io. 8, 25). Orobat besteak, itz beroietara begiratuz asiera gauzen sortzea ulertzen du, ta onela artzen: «asieran egin zitun», ots, lenik egin zitun. Eta «asieran» Zugurtasunean zeru-lurrak egin zitula ulertzen duten aietan, batak zeru-lur berak zeru-lurren sortugaia deritzala uste du; besteak sorkari eitedun eta bixikoak; besteak bata eitedun ta gogaki, zeru deritzona, bestea mukulugai eitegabea lur deritzona. Zeru-lur izenez, gai oraiño eitegabea ulertzen dutenek artatik zeru-lurrak egin zitezen, ek ere ez dute era berean ulertzen; batak, sorkari ulergai ta sumagaia nun bukatuko zan, bestean au soilki: non bukatuko mukulu sumagai au bere kolko aundian sorkari agerikoak gertu zeuzkana. Emen zeru-lurrak, sorkari antolatu eta tankeratuak dirala uste dutenek er, ez dute berdiñ ulertzen: batak, ikus-eziña ta ikuskaria soilki, ontan baitakusagu zeru argitsua ta lur illuna berton daudenekin.

XXIX

«Lenbizi» egin zitun: aburuak.

40. Baiñan «asieran egin zitun» *lenik egin zitun* bestetara ulertzen ez dunak, ez dauka egiz zeru-lurrak ulertzerik, zeru-lurren gaia ulertzen ez badu, ots, sorkari guziena, ulergai ta mukuludunena. Sorkari oro ietedun ulertu nai badu bidez galde legioke, Iainkoak au lenik egin bazun, ze egin gero? ta guzien urrena ez du ezer arkituko, ta ola entzunen du gogoz beste: «nola ua lenik, gero urrenik gabe?». Baiña lenik eitegabe esatea gero eitedun, ez da belarri-miñgarri betieraz zer dan len, zer noizaldiz, zer autatuz, zer sortzez, bereizteko gai baldin bada; betieraz, Iainko bezala len gauza guzieri; noizaldiz, lorea igaliari bezala; autatuz, igalea loreari bezala; sortzez, soiñua kantuari bezala. Lauotan len eta azken aipatu ditudanak, nekez uler ditezke; erdikoak oso errez. Ikusten bakana da ta zaillegia, Iauna, Zure betiera alda-eziñik ikustea aldagaiak egiten eta beraz aurretik. Ostera zein ain buru-ernai, neke aundi gabe bereizteko soiñua nola dan lenago kanta baiño, kantua soiñu eiteduna baita; eta eitegabe zerbait izatea baditekela; ez danari eite ematea, berriz, ez ditekela? Orrela gaia len da, artatik egiña baiño; ez, ordea, len, ark egiten dulako, egiña baita, obeki esan; ez eta noizaldiz ere. Ez baitugu lenbizi soiñu eitegabea ateratzen



kanta gabe ta urrena kantua tankeratzen edo asmatzen, zuretik kutxa edo zillarretik ontzia bezala; gai auek len baitira noizaldiz aietatik datozen eiteak baiño. Kantuan, ordea, ez ola. Kantatzean, entzuten da soiñua, ez lenik eitegabe ta gero kantuan eitedun. Lenik nolabait soiñu egitean badoa ta artatik ez diteke ezer arkitu, antzean ipinteko; orregatik soiñua bera da kantu, ta kantuak soiñu ori du gai; kantua eiteko artzen du. Beraz, len naigona, soiñu-gaia lenik, kantaera gero; ez lenik, egiteko indardun dalako, soiñua ez baita antze-egille; ostera kanta ateratzeko, anima kantariaren mende baitago korputzaren bidez; ez len ere noizaldiz, kantaz ateratzen baita; ez autatuz ere, soiñua ez baita kanta baiñon areago; kanta soiñu ez ezen soiñu ederra baita; baiña bai sortzez, kanta ez baita eratzen soiñu izateko, soiñua bai kanta izateko. Adibide ontaz aaldunak uler beza, nola dan gauzen gaia lenik egiña ta zeru ta lur izendatua, artatik egiñak baitira zeru-lurrak; ez ordea, noizez lenago egiña, eiteak sortarazten baitu noizaldia; gaia, berriz, eitegabe zan. Aldiekin batean autematen dugu alare, artaz ezer esan ez diteken arren noizean, len ez baitzan, baiñan kaxkarrago deritzagulako; obe baita eiteduna eitegabea baiño; ta Egillearen betieraz len, zerbait egiteko utsetik egin zedin.

XXX

Aburu bitxikoak ditugunak elkar maite dezagun.

41. Aburu askotsu auen artean, egiak berak ekar dezala elkartasuna, ta erruki bekigu gure Iainkoa, legea iator erabili dezagun, aginduaren araura, maitasun garbiz. Ortaz, norbaitek galdegiten badit Zure otsein Moisek uste oietan zein izan zun, ez da au nere aitorkizunen mintzagaia. Zuri aitortzen ez badizut, ez dakit; alare badakit aburu aiek egi dirala — aragikeriak ezik— eta aietaz uste aiña mintzatu naiz. Apalean goi, ta laburrean ugari diran Zure liburuko itz auek, ez ditute ikarutzen itxaropen oneko ñimiñoak. Baiñan itz oietan egiak ikusten eta esaten dirala aitor nizaian, orok maita dezagun elkar, maita orobat Zu, gure Iainko egi-iturri, uskerien ez baiñan egi orren egarri baikera. Goretsi ere dezagun Zure Otseiña, Idazti onen eragillea, Zure arnasez betea. Siñez dezagun, Zure goi-argiz auek idaztean, auetan egi-argiz eta etekiñez garai dana zeukela, batez ere, begien aurrean.

XXXI

Moisek aburu egjazko guziak ikusi zitula uste izateko da.

42. Orrela, bestek au esatean: «nik bezala uste zun» eta bestek: «bai zera! nik bezala»; nik iainkotarkiago diñodala uste dut: zergatik ez biak, biak egi badira, ta irugarrena ta laugarrena, ta beste edozer egi itz oietan norbaitek badakusa, zergatik ez siñetsi aiek oro ikusi zitula? aren bidez egokitu baitzitun Iainko bakarrak Idazti Sainduak, egi askotsuak zekusazten, askoren iritzira? Nik, naski, bildur gabe diot ene kolkoan; aginpidearen galdorreen zerbait idatzi baneza, naiago nuke bakoitzak ar lezaken egia nere itzek otsegin lezaten, ez eta, egizko aburu bat argiagi ipiñi besteak lekutzeko, gezurrak ni gaitzitu ezean. Beraz, ene Iainko, ez dut ain buru-ariñ izan nai, gizon arek Zugandik au merezi izan zula ez siñesteko. Itz aiek idaztean, sumatu zun eta gogoeman emen arki aal izan dugun egiarik eta ezin izan dugunik, eta, oraiñ arte ezean, oraiño arki ditekenik.

XXXII

Aburu bakarra izan bazun ere, ark gogoeman zuna bedi.

43. Azkenik, Iauna, Iainko baitzera, ez aragi ta odol, gizon ark gutxiago ikusi bazun, izkuta al zitzaion Zure arnas onari —«ark eramanen bainau lur zuzenera»— gerokoeri Zure itzetan agertuko zeniena, esan zitun aburu askoen artean ausaz buruan bat bakarra bazeukan ere? Ala baldin bada, arek gogoeman zuna bedi beste guzietan garai; guri berriz, Iauna, erakus iguzu, edo gogo zaizun beste bat egizkoa, gizon ari bezala, edo beste zerbait itz orien bidez. Iñutu gaitzatzu, ez gaitzala gezurrak lilluratu. Ikus, ene Iauna ta Iainko, itz gutxi arturik zein ugari idatzi dutan. Zenbat kemen, zenbat asti bear genuken, ontara, zure liburu guzientzako! Aitor zaitzadan aietan laburrago. Auta dezadan Zuk, egi ziur eta on aize-man duzun zerbait, bitartean asko burura bazaizkit ere, asko bururatzeko tokian. Ziñez aitortzen dizut; Zure otseiñak esan zuna esan baneza, ongi baiño obeki artan saiatzea dagokit; ezin baneza, esan dezadan Zure egiak aren itzen bitartez esan nai izan didana, ark ere nai zuna esan baitzion.



AMAIRUGARREN IARDUNA

I

Otoitza Iainkoari. Iainkoak Augustiñi gauza guzietan aurea artzen dio.

1. Zuri dizut dei egiten, ene Iainko, nere erruki. Zuk sortarazi ninduzun, eta ez duzu antzi Zu antzi zaituna. Nere animara deitzen zaitut. Zuk egiten duzu gai, Zu barnean artzeko Zerorrek ematen diozun griñarekin. Etzazu eskutik utzi deitzen zaituna. Deitu baiño len, Zerorrek aurea artu zenidan, eta Zu isitu ziñan oiua aunitzez, milla modutara, urrundik entzun zintzaidan, itzuli nendin, eta nere deitzalle ori deitu zintzaidan. Izan ere, suntsi dituzu, Iauna, nere irabazi gaizto guziak, nere eskuok ez zigorkatzeko, utsegin baitizut auekin, eta nere irabazi onakin aurea artu didazu egin ninduten esku oeri biurtzeko. Ni izan baiño len Zu baziñan; ez nintzan gai Zuk neri naizana emateko, eta alare emen naiz Zure ontasanari esker, egin nauzun guzi au zertatik egin nauzun ere, Zuk neri aurea artuz. Etzenun bada nere bearrik, edo ez naiz ni egiten, Zuri laguntzeko aiña, nere Iaun eta Iaungoikoa, ez nik Zu serbitzeko, lanean nekatu ziñaken gisan, edo Zure aala gutxiko bailitzan nere laguntza gabe; ez eta nik Zu lurra bezala lantzeko, landu gabe egon zaitezten lantzen ez bazaitut; baiñan, serbi zaitzadala ta landu, Zugandik ona dakidan ongi izateko, Zugandik baitzait.

II

Izadiak ere ez zun merezi Zuk egin zenezan: ez zeruak, ez lurak.

2. Zure ontasan betetik da, izan ere, sorkaria, onela: Zuri ezertako etzitzazuna, ta, Zugandik izanik ere, Zuri berdin ez izana, baiña Zuk egin aal zenuna, gabe geldi etzedin. Ze zor zenien, bada, asieran egin zenitun zeru-lurrei? esan bezate, ze zor zenien? Zure Zugurtasunez egin zenitun sorkari, gogaki eta mukulukiak, bakoitza bere einean Zugurtasun Aren mende, gogaki naiz mukuluki, asiak eta eitegabeak ere, eragabe Zure antzetik oso urrun: —gogaki eitegabea mukulu eiteduna baiño areago,

mukulu eitegabea, berriz, uts gorotza baiñon areago ta orela— Zure Itzaren mende eitegabe gelditurik Itz berorrek batasunera deituz tankeratu ez balitu eta Zugandik dira izan oro guziz on, guziz On orrengandik! Zer merezi zuten eitegabe bederen izateko, ori ere ez baitzitezken Zugandik gabe?

3. Zer merezi zuten mukulu gaiek «ikus-ezin» bederen izateko ta lur antolagabe onek ere? ez baitzitezken Zuk egin ezik. Beraz, ez izanik izatea ere etzuten merezi. Edota zer merezi zun sorkari gogakien asierak osiñ antzera bederen itur zedin, Zure ez-antzeko egin zun Itz berorrek beregana biurtu ez balu ta argiturik argi zedin, ez Aren berdiñ, baiña Zure antzera danen antzez berdiñ? Gorputz baten izatea ez baita eder izatea, —bestela itsusirik ez liteke—; alaxe, gogaki irazanari etzaio berdiñ izatea ta zugurki bizitzea. Bestela, aldagabe litzake zugur. On zaio, naski, beti Zuri atxikitzea alderatuz, iritxi dun argia aldenduz, galdu ez dezan, eta leize illun antzeko antzera lerratu ez dedin. gu ere, animaz sorkari geranok, Zugandik gure argitik alde, bizi artan beñola illun gñan, eta illun orren ondarrekin galbitza, Zuan bakarragan, Zure zindotasun geraño. Iainko-mendi antzo, len epaikizun baiñan osin aundi bezala.

III

Argiak ere ez zun merezi izan bizi izatea ta argitsu izatea.

4. Lenengo sorkarietaz esan zenuna: «bedi argia, ta argia bazan» ez dut gaitzegoki ulertzen sorkari gogakiaz, baibaitzan orduko bizi zerbait, Zuk argi egitekoa. Baiñan alako argi ziteken biziak, ez baitzun izata merezi; bein izanik ere, etzun merezi Zuk argi egitea. Aren eitegabea ere ez litzazuke atsegiñ, argi biur ez baledi, izanez ez-baiña argitzen dun argia ikusiz eta ari atxikiz. Nolabait bizi danak eta doatsu bizi danak ez bezaio zor Zure graziari besteri, ez obeago ta ez kaxkarrago biur ditekenera obealduz. Zu bakarra baitzera; izan biribil Zu baitzera; Zuan ez baita besterik, bizi izatea ta ongi bizi izatea, Zu zeure zoriona baitzera.

IV

Gauza auek egin ez balitu ere, Iainkoa ez zan eskaxago.

5. Zerau zeran ortarako zeren bear ziñake, auek ezer ez balira ere, edo eitegabe geldi balediz? beartsuz ez baiña Zure ontasanaren mukuruz



egin baitituzu, bilduz eta eitea emanaz, ez Zure poza, aiek bete bear luke-
ten gisan. Bikaiñ zeran Orri iguin zaizu aien maketsa, Zuk aiek bikainduz
atsegin dizaizkizun, ez Zu makets izanik aien bikaiñean bikaindu bear zin-
duken gisan. «Zure arnasa uren gain eramana zan»; etzinderamaten aiek
aietan atsedeteko bezala, Zure arnasa atsedeten omen dan aiek, berengan
atsederazten ditu. Baiña gain-eraman zan Zure gogo, iro-eziña taalda
eziña, bera beratatzat aski zala Zuk egin zenun biziaren gaiñean. Ari etzaio
berdin bizi ta doatsu bizi, bere illunean ixuriz ere bizi baita. Egin zuna
biurtzea dauka, ta gero ta geiago bizi, «bizi-iturriaren ondoan ta Aren
argian argia ikusi», ta bikaindu, argitu, doatsutu.

V

*Aitak zeru-lurrak egin, iakintasunagan (Semeagan) egin eta «uren
gaiñeko arnasa» arnas saindua; Agusutiñek iru gauza orietan
Irutasuna ikusten du.*

6. Emen ageri zait illun-antzean Zure Irutasuna. Zu zera nere
Iainko. Zuk, Aita Orrek, egiñak baitira zeru-lurrak, gure zugurtasun dan
Aren oiñarrian: Zure zugurtasun, Zugandik, Zure berdiñ ta betikide dan
Zure Semeagan. Askí esana dugu zeruen ta zeru-lur ikus ezin eta eitega-
beaz eta leize illunaz. Gogaki eitegabeen ondar ua laiñotsu gelditu balitza,
bizi zerbaiñtxo eman zion Argana itzuli ez balitza, ta argitasunez eder
biurtu ez balu, etziteken izan «zeruen-zeru», gero uren eta uren tartean
egin zana. Aita neukan, bada, auek egin zitunaren izenean; eta Semea, egin
zitun oiñarriaren izenean; eta nere Iainkoa Irutasun siñetsirik —siñesten
bainun— au billatzen nun aren itz sainduetan, eta ara Zure arnasa uren
gaiñean eramana. Ona Irutasuna, Nere Iainkoa, Aita ta Semea ta Gogo
Gurena sorkari orien sortarazle.

VI

Zergatik aipatzen da azkena «uren gaiñeko arnasa».

7. Zergatik, esaidazu egizko argi, —Zugana daukat biotza, uskeriak
irakas ez dizkidan, otoi maitasun amarengatik otoi— esaidazu zergatik
zerua aipatu ondoren eta lur ikus-eziña ta eitegabear, ta illuna osiñ gaiñean,
zergatik Zure liburuak aipatu zuan azkenean Zure arnasa. Komeni al zan
ola adieraztea, *gaiñ-eramana* zala, ta au etziteken esan beste ua aipatu ezik,

Zure arnasa aren gain eramana zala uler zedin? Ez zan gain-eramana ez
Aitaren ez Semearengan, eta «gain-eraman» ez legoke ongi esana ezeren
gain ez balitza eramana. Beraz, lenik esan bearra zan zeren gain zan era-
mana, gero gaiñeramana zala esan gabe bestela, aipa etziteken ua.
Zergatik ez zan komeni bestela adieraztea, gaiñeramana zala ezik?

VII

*Nork esan eta nola esan «Iainkoaren arnasa urretan gaiñeramana
zala».*

8. Emendik ara iarrai bezaio buru aaldunak Apostoluari, «Zure mai-
takuntza gure biotzetan ixuri dala eman zaigun Gogo Gurenaren bidez»
baitio. Ta gogo-gauzetaz ari dala, irakasten eta erakusten digu maita-bide
gain gaiñekoa, ta belaunikatzen zaitzu gure alde, Kristoren maitasun aren
ezaguera gaiñ-gaiñekoa ar dezaguño. Beraz, asieran gaiñ-gaiñekoa zala, ure-
tan gaiñ-eramana zan. Nori esan, nola nik esan, irritsen zorretik leize mal-
korrera, ta maitasunaren gaindegitik Zure arnasaren bidez urgañean gaiñ-
eramana zala? Nori esan, nola esan? Ez baita tokirik pulunpa ta igeri egi-
teko. Zer antzekoago ta zer bixikoago? Griñak dira; maitasuna da. Gure
barneko satsukeria kaxkarrenera ietxirik lazterka, kezKaren kezkaz; eta
saindutasuna gu gaiñera iasoz tinki egoteko, «biotz ok Zugana gora eduki
ditzagun», Zure Arnasa uren gaiñ-eramana dan artara. Eta gain-gaiñekoa
atsedenera iritxi gaiten, «gure animak ur utsalak igarotakoan».

VIII

«Egin bedi argia». Zein aundi dan sorkari arrazoiduna.

9. Erori zan Aingerua, erori zan giza-anima, ta adierazi zuten sorka-
ri gogaki oroen leizea osiñ illunean, Zuk asieratik au esan ez bazenu ere:
«Bedi argia ta argia izan» ez balitza, alegia, ta Zure zeru uriko adimen esa-
nek oro Zuri atxiki ez balitzaizu, ta aldakor oroen gaiñ aldagabe doan
Zure Arnasagan orok atsedean ez balu. Bestela, «orain Iauagan argi dan
zeruen zerua» ere, osin illun litzake bere baitan. Zure argiz erantzirik
beren illunbea ageri duten gogaki erorikorren ezinegon doakabea ere
aski darakusazu; ez baitzaio aski iñola ere atsedean doatsurako Zu baiño
gutxiago danik; beraz, ez bera ere. Zuk, alegia, Iauna, «argituko duzu gure
illunbea», «Zugandik iaiozten baitira gure soiñekoak, eta gure illunbea



eguerdi bezala date». Emen zakizkit, Iainko; itzul nazazu Zugana. Maite zaitut, eta, gutxi baldin bada, maita zaitzadan areago. Ez dezaket negurtu zeinbait peitu zaidan aski dan maitasunerako, nere bizi au Zu laztantzen igaro dedin, aldegin gabe «Zure aurpegiaren izkutuan» izkuta arte. Au dakit sollik: Zu gabe gaizki nagola, nitaz landa ez ezen neronengan ere; ta ugaritasun oro Iainkoa ezik urritasun dala.

IX

*«Uren gaiñ eramana», zergatik esan Gogo Gurenarengatik
bakarrarengatik.*

10. Aita, naiz Semea, ez al ziran uren gaiñ eramana? Tokian, mukuleran, ez Gogo Gurena ere. Baiñan aldakor oroen gaiñ dagon Iainkotasuna alda-eziña baita, bai Aita, bai Semea, bai Gogo Gurena uren gaiñ eramana zan. Zergatik esan zan ori, beraz, Gogo Gurenarengatik sollik? Zergatik arengatik sollik esan zan, tokian bailegon, ez baita toki, ta Arengaz Zure doai dala bakarrik esan baita? Zure doaiean atsedeten dugu, artan gozatzen zaitugu. Gure tokia, gure atsedea. Maiteak ara garamatzi, ta zure Arnas onak, «gure xapaltasuna eraikitzen du erioaren atekatik». Zure gogo onean daukagu pakea. Mukuluak bere aztaz, bere tokira du ioera. Azta ez da beerako bakarrik; bere tokirako baizik. Suak ioera gora, arriak bera, beren aztak daragiz, beren tokira doaz. Ur azpian ixurritako olio a urez gaiñ ateratzen da; olio-gañean ixurritako ura, oliopean murgiltzen, beren aztak daragiz, beren tokira doaz. Eragaitz daudenean, ezinegonez daude: era onez dute atsedea. Nere miña maita-griña; ark naroa noranai banoa. Zure doaiez goaz gora ta gora igoaz; sutzen gera ta bagoaz; «igotzen ditugu igoerak biotzean, eta zurbil-kanta kantatzen dugu». Zure suz, Zure su onez suturik goazi, gora baikoazi, Ierusalengo pakera; poztu bai naiz au esan didatenean: «*Iaunaren etxera ioanen gera*». An ezarriko gaitu Zure gogo onak, an betiko egona besterik nai ez dugula.

X

Gu, illunbetik argi biurtuak gera.

11. Sorkari doatsua! besterik ezagu eztuna, bera besterako izanik, egin zuten orduko aldakor guzien gaiñ dan Zure doaiez, aldiunerik gabe, artara eraikia izan ez balitz Zuk deituz: «Bedi argia, ta sortu zan argia».

Gugan bada aldi ta aldi, illun giñanekoa ta argi geranekoa; argan, ordean, argitu gabe zer ziteken esan da, lenik ixurki ta illun bailitzan, bestela izarazteko irazalea ager zedin, argi eziñtzalira itzulirik argi zedin. Al dunak uler beza, Zuri eska. Zertako ni nekarazi, «mundu ontara datorren gizonek nik argitu bainezan?»

XI

Zer da Irutasuna? ez bedi edozein ausartu ortaz mintzatzen.

12. Irutasun guzialduna nork ulertuko du? Zein ez da Artaz mintzo, Artaz bada? Bakanik da, Artaz mintzatzean zer diagon dakinik. Eleta ta baieztza; baiñan iñork ez dakusa ikuskari au pakerik gabe. Gizonak beregan iru auek irauli detzan nai nuke: oso besterik dira Irutasunaren aldian. Baiñan artatik zein urrun dauden iardun eta suma dezaten diago. Iru auek derizkiot: izan, iakin, nai. Banaiz, izan ere, badakit, eta nai dut. Iakitun naiz eta naidun, eta banaizala ta nai dudala, nai dut izan eta iakin. Al dunak ikus beza iru auetan bizia zein bereizigaitz dan, bizi bakarra, ezaguera bakarra, izate bakarra. Zer bereizte bereiz-eziña! Bereiztea, ala ere. Aurrean dauka, bai; so egin dio beregan; ikus beza ta esan bezait: baiñan oietan zerbait arki baleza ta esan, ez beza uste ukan orien gaiñetik alda-eziñ dana alda-eziñik dala, alda-eziñik dakila, ta alda-eziñik nai dula. Ta nork errez gogoean iru aiengatik Zuretzat irutasun, bakoitzean irurak, irurak bakoitzaren izateko, naiz biak arrigarriro bakarki ta askoki, bera beretzat mugagabe izanik, Argatik dala berak ezaguten dula, ta bera beretzat aski dala alda-eziñean, bakarraren ugaritasun aundian? Zeiñek esan nolabait? Nork esan nolanai ausarkeriz?

XII

Irutasunaren izenean ateratzen gera illunetik argira Bataioan.

13. Aurrera, nere siñesmen, Zure aitorkizunean! Esaiozu Zure Iainko Iaunari: Guren, Guren, ene Iainko Iauna. «Zure izenean ukuziak gera», Aita eta Seme ta Gogo Guren; Zure izenean ukuzten dugu; eta gure artean ere egin baitzitun bere Kristogan «zeru-lurrak» bere elizako gogakoi ta aragikoi; ta gure lur au ikuskera artu baiño len ikus-eziña zan eta antolagabea, ta ez-ikusiarn illunak estaltzen gindun, «gaiztoz eskolatu baitzenen gizona, ta Zure epaiak leize aundi». Baiña Zure Arnasa uren gaiñ



eramana zalako, Zure errukiak ez gindun utzi gu urrikarri, ta au esan zenun: «bedi argia»; «damu zaitetze, zeru-erria urbildu baita»; «ezazute damu»; «bedi argia». Ta gure barrena gerongan «ikara zegolako», Zutaz oroitu giñan, Iauna, Iordan-lurretik, Zure berdiñ dan menditik, baiñan txiki guregatik. Iguin egin ziguten gure illunbeek, eta Zugana itzuli giñan eta «egin zan argia». Eta «iñoiz illun izandakuok, orain argi gera Iaunagan».

XIII

Argi ori emen, siñestea da, ez ikustea.

14. Eta alare oraiño «siñestez, ez ikustez» (II Cor. 5, 7). «Itxoginiez gera iare. Ikusiarekiko, berriz, ez da itogiñik» (Rom. 8, 24). Oraiño «osiñak osiña deitzen du, baiña Zure ur-iauzien otsean» (Ps. 41, 8). «Gogakoi bezala ez-baiñan aragikoi ziñatenez mintzo nintzaizuen» (I Cor. 3, 1), dionak ere, ez dula iritxi derizkio, ta «atzeangoa aantziz» (Phil. 3, 13), aurrekoetara «edatzen da, ta antzarka ari da ta anima egarri dauka Iainko bizi, basauntzak iturria bezala» ta au diago: «Noiz natorke?» (Ps. 41, 1-2). «Zerutik dan egoitzaz, gaiñetik iantzi naiez» (II Cor. 5, 2), azpiko osiña ere deitzen du onela: «mende oni alki ez izan, baiñan eraberri zaitetze anima berritan» (Rom. 12, 2); eta, «ez aur biurtu ezagueraz, bai gaitzarekiko, gizon eldu zaitetzen» (I Cor. 14, 20); eta, «Galatiar burugabeak, nork lilluratu zaitue?» (Gal. 3, 1). Ez ordea, bere mintzaeran, Zurean baiña, bialdu bait zenigun goietatik Gogo Gurena ta gora igo zanaren bidez bere doaien ur-iauziak ideki zitun (Malach. 3, 10) «ibaiaren oldarrek Zure uria pozarazi zezaten» (Ps. 45, 5). Ua du asperen «senargaiaren lagunak» (Io. 3, 29). Artan «gogoaren asikiñak» ukanik, baiñan oraiño beregan «intzirika dago semautsi izan naiez, bere gorputza iaregiteko» (Rom. 8, 23). Ua du asperen, emaztegiaren atal baita, eta aren atazean dago; senargaiaren adiskide baita, eta aren atazean dago, berean ez-baiña «Zure mintzoaren ur-iauzietan deitzen baitu beste osiña» (Ps. 58, 8); ta aren atazean bildur da «sugeak Eba amarruz atzi zun bezala, aien zentzuak ere galdu ditezen gure senarraren garbitasunetik», Zure bakarrarenetik (II Cor. 11, 3), gau ta egun ogi biurtu zaizkidan malkoak aldegitan (Ps. 41, 4), «Non da zure Iainkoa?» ari baitzait egunero. Au da ikuskarizko argi ua, Bera dan bezala ikusteko (Io. 3, 2).

XIV

Nere anima illun dago. Itxoizu Iaunagan.

15. Nik ere «non da nere Iainkoa» diagot. Ara, zu zauden tokian arnasa lasaxeago dut (Job, 32, 21), ixurtzen baitut ene anima neregan, iai egiten dunaren irrirtiz eta gorespenez (Ps. 4, 15). Oraiño goibel dago, alare, eroten baita, eta osin gertatzen; obeki esan, oraindik osiñ dala sumatzen baitu. Oiñen aurrean gauez piztu didazun siñestek, au diñotso: «zergatik zaude goibel ene barrena? Zergatik naigabetzen nauzu (Ps. 42, 6), itxoizu Iaunagan»: «Aren itza argi-ontzi Zure oiñentzat» (Ps. 118, 105). Itxoizu ta zaude «gaiztoen ama» gaua iragan dediño, Iaunaren asarrea iragan dediño; asarre-seme izanik beiñola illunbe baiñan, eta aren kutsua daukagu «obenagatik ildako gorputzean» (Rom. 8, 10), egun-xintak itzala astadun dezan (Cant. 21, 17). Itxoizu Iaunagan: «goizean aurrean nauka ta so egiñen diot; beti dut aitortuko» (Ps. 5, 5). «Goizean zutiturik, nere aurpegiaren osasuna dut ikusiko, nere Iainkoa» (Ps. 42, 5), «gugan bizi dan arnasarren pitzaraziko baititu gure gorputz ilkorrak» (Rom. 8, 11); gure barne illun eta ixurkorrean errukiko baitzan gaiñ-eramana. Beraz atzerri ontan baikuntza artu dugu, «itxaropenaren bidez iaregiñak gerala argi izateko, ta argi-seme ta egun-seme: ez gau-seme ez illun-seme» (Thess. 5, 5). Izan giñan alare. Orien eta gure artean, giza-iakite koloka ontan, Zuk bakarrik bereizten duzu, biotz-ikertzaille Orrek, «argia egun eta illuna gau izendatuz» (Gen. 1, 5). «Nork bereizten gaitu, Zuk ezik? Zer dugu Zugandik ez arturik» (I Cor. 4, 7). Ore beretik gertatzen gera, batzuk dedu-ontzi, ta besteak geren-ontzi (Rom. 9, 21).

XV

Liburu sainduen zerua: arrokeria zapaltzeko egokiena.

16. Nork egi guregan, Zuk ezik, Zure Iainko-idazti orren aginpidea ortzantza antzo? «Zerua liburu antzo azpilduko da» (Is. 34, 4), ta orain «larru antzo edatzen da gure gaiñ» (Ps. 103, 2). Giza-bidez eman zenigun Iainko-idaztiak, aginpide gurenagoa du, gizon ilkor aiek il da gero. Badakizu Iauna, badakizu nola iantzierazi zenitun gizonak larruz, obenez ilkor egin ziranean. Beraz, larruz antzo edatu zenun liburuarena ortzantza Zure itz elkar-egokiak gizon ilkorren eragiñez gure gaiñ ipiñiz. Aien eriotzez berez, aiek emaniko Zure itzen aginpidea gotorrigo da, ta gaiña-gotik edatzen da, aiek bizi zirala ez baitzegon ain bikaiñ edatua. Oraiño



etzenun zabaldu zerua larruantzo, oraiño ez zenun aien izen ona orotan zabaldu.

17. Ikus detzagun Iauna, «zeruak, Zure beatzen lana» (Ps. 8, 4); urra ezazu gure begiok estali dituzuneko gandu au. An dago Zure aitorra, «ñimiñoeri zugurtasuna emanetz» (Ps. 18, 8). Bikaindu ezazu «gorespena, ene Iainko, aurren eta titikoen aotik» (Ps. 8, 3, 4). Ez baitugu ezagutu libururik, orrela arrokeria zapaltzen dunik, «etsaia ta iagolea suntzitzen dunik» (Id. Ib.), bere obenak iagonez Zure adiskidegoari iarki zaiokenik. Ez dut ezagutu, Iauna, ez dut ezagutu itz ain garbirik, ni orrela aitrotzera naragirik, nere lepoa Zure uztarpean ain arin daukanik, eta Zu urrurik iaures-tera naramanik. Ulertuko dut, Aita on; emaiozu menpeko oni, menpeko-entzat eraiki baituzu.

18. Badira beste ur batzuk ortzantz onen gañean, illezkor eta lurreko ustelkeritik urrun. Gores bezate Zure izena ortzigaiñeko aingeruen taldeek; ez baitute gora begira-bearrik ortzantzara ta Zure itza eezaguteko irakur bearrik, Zure aurpegia beti ikusten ari baitira (Mt. 18, 15), eta an dirakurte, ele-zati alditsu gabe, Zure betiko gogoak zer nai dun. Irakurten, autatzen, maitatzen dute; beti ari dira irakurten; eta dirakurtenik ez da igaroten. Autatuz eta maitatuz irakurten dute Zure onu alda eziña. Ez da ixten aren orri xorta, ez da azpiltzen aien liburua, Zerau baitzakie au, ta betikor zakie, Zur antolatu baitituzu ortzantza onen gaiñetik, azpiko errien oiñarri aulean, andik ikus eta ezagu dezaten Zu iragarten zaitun aldiko errukia, aldi-egille Orrena. «Zeruan, izan ere, Iauna, Zure egi ta errukia odeietaraño» (Ps. 35, 5). Odeiak badoaz zerua geldu dago. Badoaz Zure Iragarleek bizi ontatik bestera; baiñan Zure idaztia mendeen azkenaraiño edatzen da errien gain. «Zeru-lurrak ere iraganen dira; Zure itzak ordea ez dira iraganen» (Mt. 34, 35). Larrua azpilduko da, ta edaturik dagoneko azpiko belarra igatuko da bere argitasunetik; «Zure itzak, berriz, betiko du irauen» (Is. 40, 6). Orain guri laiño itzalpean eta ortzien ispilluan ageri zaigun antzo, ez dan bezala, gu ere, Zure Semearen kuttun izanik, «ez da ageri oraiño zer gaitzeken» (I Io. 3, 21). Gorputzaren saretik so egin zigun, maitte egin zigun, sutu gindun eta aren usaiaren atzetik ioan giñan laisterka (Cant. 1, 3). Baiñan «au ager dedinean, Aren antzeko izango gera, Bera dan bezala ikusiko baitugu». Zeran bezala, Iauna, oraindik ez dugun ikusmenarekin.

XVI

*Adimen aldakorrak ez dezake ezagutu argi alda-eziña,
Iainkoak bezala.*

19. Zu biribil zeran bezala, Zuk bakarrik dakizu alda-eziñ zerala, ta alda-eziñik dakizu, ta alda-eziñik nai duzu. Zure izateak alda-eziñik daki ta nai du; ta iakitea bada ta alda-eziñik nai du, ta Zure naia bada ta alda-eziñik daki. Zure aurrean ez dirudi bidezko, argi alda-eziña Bera Beragan ezaguten dan bezala, «argitu» aldakor batek ezagu dezan. Beraz, «nere barrera, ur gabeko lur antzo Zure aurrean». Bera berez ezin baititeke argitu, ez diteke bere-berez ase. Orrela bai, «Zugan, iturri bizi ortan, Zure argian ezagutuko dugu argia».

XVII

*Animako griña gaiztoen muga, itxasoko uren muga;
Iainkoaz egarri diranen ura, iturriko ur ezta.*

20. Nork bildu ditu atsegabetuak lagunarte bakarrean? Xede bera baitute lurreko zori alditsuarena, ta ortarako dagite guzia, milla kezka bixikotan koloka dabiltzala ere. Nork esan zun Iauna, Zuk ezik, «bildu zitezela urak biltegi batera eta ager zekizula legorra»? «Zure baita itxasoa, Zuk egiña; ta legorra Zure eskuek eratu baitzuten» (Ps. 94, 5). Naimenen samintasuna ez-baiñan uren bilkura baiteritza itxaso. Zuk ezi oi dituzu animen griña gaiztoak, eta Zuk ezarten ditiezu mugak, urak doazan tokiraiño, ugiñak an lertu ditezen; eta onela dagizu itxasoa, guzien gaiñ daukazun mendearen aginduz.

21. Baiña Zutaz egarri diran animak, eta beste xedez itxasoko lagunartetik bakan daudenak Zuk garaztatzen dituzu iturri izkutu eztiz, lurrak bere uzta eman dezan, eta ematen du bere uzta; eta Zuk, Iaun Orrek agindurik, gure animak ernarazten ditu errukizko eginkizunak bere einean, gorputzeko bearretan urkoari lagunduz, azia baitu beregan gure antzekoa, gure gaitzez urrikaltzen baikera beartsueri lagunzera, aiek guri ere laguntzea nai genuen eran, bearrean bagiñaude. Ta ez belar-azi antzeko gauza errezetan; baita zugtuz bizkor, igali on dunaren antzera, aundiaren eskutik irain artzen duna artzeko, epei zuzenaren indar bizkorrez, arigeriza emanetz.



XVIII

Argia ta illuna: gaba ta eguna: gaua adigarrita sumagarrietara artzen diranak. Gogo Gurenaren doaiak.

22. Orrela, Iauna, orrela sortu bedi, dagizunez eta alaitasuna eta antzia eman oi duzunez, «sortu bedi lurretik egia ta zuzentasunak begira beza zerutik» (Gen. 1, 14); eta bitez ortzian argizagiak. Puska zaiogun gure ogia gose danari, ta teillatu gabe dagon beartsua eraman dezagun gure etxera, iantzi dezagun gorri dagona, ta gure aziko etxetiarrrik ez dezagun urruña (Is. 58, 7). Begira, lurrean sortudiran igali oieri, on baita; eta erna bedi gure goiz-argia (Ib. 1, 8); eta egikizun kaxkarragoa dan ontatik ukan dezagun bizi-itza Iainko-ikusleen atseginietan, ta ager gaitezen lurrean argizagi antzo, Zure idaztiaren ortzantziari atxikirik. An ari zera gurekin eletan, ulergai ta sumagaiak bereizi detzagun gaua ta eguna bezala, edota ulergaietara naiz sumagaietara emanik dauden animak. Onela, etzera Zu bakarrik Zure epai izkutuan, ortzantza egin aurretik argi illunak bereizten dituzuna. Baita Zure gogakoiek ortzantza berean bereiz daudenak, lurrean Zure grazia agerturik, egin bezate argi, ta bereizi bezate gaua ta eguna, ta mugatu bezate noizaldiak (Gen. 1, 14); zaarrak iragan baitira ta berri biurtu (Cor. 5, 17); ta gure osasuna uste gendun baiño urbillago baitaukagu (Rom. 13, 11); ta gaua oian da, ta eguna urbildu (Ib. 12); ta Zure urteen buruntza onesten baituzu (Ps. 64, 12), langilleak Zure uztara bialduz, ua ereiten besteek lan egin baitzuten (Io. 4, 38); eta beste uzta batera bialduz, ots, azken-uztara bialduz. Ola betetzen duzu, opa dunaren guraria, ta onesten dituzu zintzoaren urteak. Zu, berriz, berbera zera, ta, aitzen ez diran Zure egunetan (Ps. 101, 2-8), doazan urteetako mandioa betetzen duzu.

23. Zure erabaki betikorrean, zeruko ondasunak mugonez ematen dituzu lurrean; batari zugar-itza ematen baitzaio argizagi aundi danez, egi-argiak goiz-argiz bezala pozten ditunentzat; besteari iakitea Ats beretik, argizagi txiki danez; besteari siñesmena, besteari sendatzeko antzia, beste bati mirari egiteko indarra, beste bati iragarmena, besteari gogoak iker-tzea, besteari izkuntza arrotzez mintzatzea. Auek izar antzo. Guzi auek Ats berak eta bakarrak egiten ditu, bakoitzari nai dezana banatuz, eta izar-rak agerrarazten guzien onerako (I Cor. 12, 8). Iakite-itza, aldiekin aldazten diran izkutuak berekin ditula, illargiaren antzeko da; ta beste doaien ezaguerak, gero izar-antzo aipatu diranak, esan dugun eguneko Zugurtasunaren zuritiesun artatik urrunago ta gauetik urbillago daude. Bearreko ziran doai auek Zure otsein txit zugar ua, gogaki-antzera ez-

baiña aragikoi-antzera baizik ezin mintzo zitzaien aientzat, maketsen artean Zugurtasunez ari zan ua. Gizon aragikoa Kristogan aur ñimi bezala esne-edale, ianari bizkorra ian dezakeño, ta eguzkiari zorrotz begira dioño, bere gaua alde batera utzirik ioan ez-baiña, bego alki illargi izarren argiarekin. Guzi auek Zuk daukazu, gure Iainko, Zure liburuan, ortzantzan, guziak so egite miragarrik bereizi detzagun, oraiño alare mugaz, aldiz, egunez eta urtez.

XIX

Zeruko argizagiak, Apostoluak, munduari argi egitera.

24. Lenik, ordea, «ikuzi zaitezte, zaitezte garbi, ken gaiztakeria zuen animatik, eta nere begien atzetik» (Is. 1, 16); agertu dedilla legorra. «Ikazazute on egiten, egin auzi umezurtzari, eman eskubide alargunari» (Ib. 17), lurra ian-belarra erne dezan eta zugatz igali duna. «Zatozte, iardun dezagun, dio Iaunak, zeruko ortzantzan argizagiak ditezen eta lurra-ri argi dagioten». Aberats arek Maisu onari zer egiñen galdegin zion betiko bizia irixteko. Esan bezaio Maisu onak, gizon baizik etzala uste zunak —on da, bai, Iainko dalako—; besaio, «bizira etorri nai badu aginduak bete detzala»; bereizi beza beregandik gaiztoaren eta okerraren garratzasuna; ez beza kali, ez izortu, ez lapurtu, ez gezur-ziiñik egin, legorra agertu dedin eta aita-amaen dedua ageri dedin urkoaren maitasunarekin. «Auek oro egin ditut», esan zion. Nondik, beraz oinbeste arantza, lurra emankor baldin bada? Zoaz, erantzi etzazu diru gosearen lapardiak, dituzunak sal, eta uztaz bete zaite beartsueri emanez, eta badukezu ondasun zeruan eta zarrakio Iaunari bikaindu nai baduzu, zugurtasuna itz egiten dien aiekin alkartuz; baitaki zer eman egunari ta gauari, Zuk ere iakin dezazun, eta zeru-ortzian zan argizagi gerta dizaizkizun. Ori ez da gertatuko, biotza an ez badaukazu, ez ta ere zure ondasuna an ez badago (Mat. 19, 16), Maisu onari entzun diozun bezala. Lur zikoitza naigabetu da ta «arantzek ito dute» (Ib. 13, 7).

25. Zuek, ostera, enda auta, munduko gaixo (I Cor. 1, 27), Iaunari iarraitzeko guzia utzi duzutenok, zoazkiote atzetik bizkorrak lotsarazteko; zoazkiote, oiñ ederrak, eta argi egiozute ortzantzan, zeruek Aren gorespina ialki dezaten, bikaiñen argia —oraindik ez aingeruena aiña— ñimien illunetik, ez gaiztetsiengandik bereiziz. Argi egizute lur osoan, eta egunak egunari eguzki zuriz iragarri bezaio zugar-itza, ta «gauak gauari illargiz iragarri bezaio iakite-itza» (Ps. 18, 1-4). Illargi-izarrek gauari dagiote argi,



baiño gauak ezditu illuntzen, aiek argitzen baitute eintsu batean. Iainkoak au lesaken gisan: «sortu bitez argizagiak zeru-ortzian»; «betbetan atera zan soiñu bat aize bizkorra ziztuan bezala, su-antzeko mihiak banatu ziran, bakoitzaren gaiñean eseriz», eta zeru-ortzian argizagiak egin ziran, bizi-itza zutenak. «Zoazte orotara, su saindu, su ederrok». Zuek zerate, bada, munduaren argi, ta etzaudete gaitzerupean. Eraikia da, Zuek atxiki zakio-ten Ua, ta eraikiko zaitue. Zoazte, ezaguarazi iozute iende guzieri.

XX

Lengoan iarraitzen du.

26. Ernaldu bedi itsasoa, ta erdi betza zuen egiñak eta «urek sortu betzate narrazti anima bizidunak». Kaxkarra bikaiñagandik lekutuz iainkoarenago gertatu zerate (Ier. 15, 9), au esateko: Sortu betzate urek, ez lurrak sortuko dun anima biziduna, baiña «narrazti anima bizidunak eta lurraren gaiñetik ega dagiten egaztiak». Lerratu ziran bada, Iainko, Zure sagarakiak, Zure sainduen lanen bidez munduko zirikaldi ugiñen erditik iendeak Zure bataioan ukuzteko. Lan auen artean badira, aundi arrigarririk, bale aundi antzo, ta Zure Iragarleen mintzoak lurraren gaiñetik egan, Zure liburuaren ortzi aldean, ua aginpide dutela, arekin noranai egan egiteko. «Ez baita itzik, ez izketarik aien mintzoa entzun gabe danik; lur osora atera baitzan aien entzutea, ta lurraren azkeneraño aien izketa» (Ps. 18, 5). Zuk, Iauna, ugaritu zenitun auek, Zure bedeikuz.

27. Gezurra ote diagot edo naasten ote ditut bereizi gabe zeru-ortziko gauza auen ezagukizun garbiak eta zeru-ortzipeko gorputz-lanak itsaso asarrean? Baitira guzen ezagukizun ziurrak eta bukatuak gizaldien era-txikia gabe, zugurtasunaren eta iakitearen argizagi bezala. Ba eredira beraien gorpuz-lan asko ta bixikoak, eta bata besteagandik aziz ugaritzen dira Zure bedeikuz, Iauna, Zuk arindu baituzu zentzu ilkorren iguiña, animaren ezagueran gauza bat bera askotara eratu ta esandedin, gorputzeko zirkiñen bidez. Urek sortuak dira auek, baiña Zure itzean. Zure egi betikorretik landa zeuden errien bearrak egin zitun auek; baiña Zure Ebanjelioan, Ur berauek iraitziak, baiñan aien garrastasuna zala bide, Zure itzez sortuak.

28. Zuk egiñik eder dira oro, ta Zu eziñ esan-ala ederrago, Zuk egiñak baitira oro. Adan ederretik erori ez balitza, ez zan aterako aren sabeletik itsas-gesala, giza-enda iakin-miñez sakona ta asarre arroa, ta eziñegonez ixurkorra; eta orrela, ez zan bearrak, ur aundietan Zure

otseiñek gorputz eta zentzuen agerian lan eta itz izkutuak egn zetzaten. Ola gogora zaizkit orain narrazti ta egjaztiak. Izkutu aietan sarturik eta murgildurik, sagarakizunen mende, gizonak etziran aurreratuko anima beste ein batean bizi ez balitza, ta asierako itzaren ondotik bukaerara so egin ez balu.

XXI

Iainkoaren itzak egiten ditu sugek eta egaztiak: bizi-iturri da Mixiolariantzat.

29. Eta orregatik Zure itzean, itsasoaren barrenak ez-baiñan ur samiñetatik bereiz dagon lurrak iraitzen du narrazti anima bizidun eta egazti ez-baiñan anima bizia. Onezkero ez baitu, len urek estaltzen zute-
nean bezala, atzerriek bear duten bataiorik bear; ez baitago zeru-errian sartzetik, sartzeko Zukerabaki zenunez bestera. Ez du mirari aundirik billa-bearrak ere siñesteko, ez baita «mirari edo arrigarririk ikusi gabe» (Io. 4, 48), siñesten ez dutenetakoa; lur zintzoa bakandurik baitago itsas-ur gor-bizi samiñetik; eta «mihiak siñestunentzat ez-baiña siñesgabeentzat dira ezaugarri» (I Cor. 14, 22). Uren gaiñean Zure itzez ezarri zenun lur onek, ez du egazti-iende bearrak ere. Bialazu Zure itza zure otseiñen bidez —aien lanak aipatzen ari gera, baiña Zu ari zera aietan— eta egin bezate anima bizia. Lurrak sortzen du, lurra dala bide gertatzen baitira auek, eta itsasoa zala bide sortu ziran narrazti anima bizidunak eta ortzipeko egaztiak, ez baitu lurrak aien bearrak, barnetik ateratako arraia iaten badu ere Zuk siñestunen aurrean antola zenun mai artan (Ps. 22, 5). Orregatik zan barrendik aterea, legorra iñutu dezan.

Egaztia ere itsas-iende da; baiña lurgaiñean ugaritzen da. Gizonen siñestegabea zala bide gertatu ziran lengo berrionzaleen oiuk; baiña zintzoak ere eragiñak dira ta onetsiak askotara, egunetik egunera. Baiñan anima biziak lurrean du biziera; ez baitzaie on siñestuneri ezik, mende au maitatzetik aldegiteta, len atsegiñetan bizirik (II Cor. 5, 15) illa zegon anima Zuretzat bizi dedin. Atsegin ilgariak, Iauna; Zu baitzera biotz garbiaren atsegin bizi.

30. Egin bezate lan, beraz, lurrean Zure otseiñek, ez siñesgabe-
kero uretan bezala mirariz, sagarakiz eta mintzo izkutuz iragarriz eta itzegiñez, orrela esnatzen baita siñale izkutuen bildurrean ez-jakiña arritzearen ama, au baita Zutaz azturik dauden Adan-semeen federa sarrera Zure aurpegi-
tik astanduta osin biurtzen baitira, baiña iardun bezate osiñaren eztarritik



legor berezian bezala, ta zintzoen eredu bitez, aien aurrean biziz eta antzera eragiñez. Izan ere, orrela entzuteko ez-ezen, egiteko dantzute: «Billa zazute Iainkoa, ta zuen anima biziko da» (Ps. 68, 33), lurra anima bizia sortu dezan. «Ez iardun mundu onen antzera» (Rom. 12, 2); lekutu zaitezte argandik. Irritsez iltzen ari dan anima, andik aldegiñez bizi da. Leku zaitezte arrotasun aundiaren ankerkeritik, lizunkerik alperren atsegiñetik eta iakite gezurtiaren izenetik, piztiak ezti, abereak otzan, sugeak min-gabe ditezen. Idurikizun ontan animaren griñak daude, baiñan arrokeriaren arrandia ta ikusmiñaren edena anima illaren griñak dira, ez baita iltzen griña guziz gabetzerañi, bizi-iturritik urrunduz iltzen da, ta orrela artzen du mundu iragankorrak, bere antzeko dula.

31. Zure itza, aldiz, betikor da, Iainko bizi-iturri; ez da iragaiten. Beraz, Zure itzak eragozten du aldegiten, au esaten digunean: «Etzaitezte mundu onen antzera bizi», lurra iturri bizian anima bizia sortu dezan Zure itzak berrionzaleen bidez anima ezia Zure antzera dabilzaneri antzeratuz. Au da «bere arian», gizonak adiskidea baitu leikide. Zaitezte, esan zun, ni edu, ni zuek edu bezala (Gal. 4, 12). Onela dau-deke anima bizian pizti onak, ozan iardunez. —Zuk agindu zenun: «Zure egiñak otzan egizkizu, ta gizon orok maiteko zaitute» (Eccl. 3, 16)—. Bai abere onak ere, ianda aserik ez eta ian gabe goserik ez, eta suge onak, galgarri ez-baiñan ataizerako zugar eta izadia bear aiña aztertzen dutenak, egindakoak ulertuz betiera dakusaten. Pizti auek arrazoiaren mendeko dira, erotzan aurera egitetik ezirik, bizi ta on diranean.

XXII

Berritu bedi gizona Iainkoaren antzera.

32. Ara, bada, gure Iainko Iauna, gure irazaille; guk mundua maitatzeko griña ezitzen dugularik (iltzen ari bikiñan gaizki bizi), gure anima ongi biziz bizitzen asten dalarik eta Zuk Apostoluaren bidez esan itza betetzen; «mundu ontako antzik ez artu, alda zaitezte, ordea» (Rom. 12, 12), iritxiko da oietaz gañera esan zenduana: «Alda zaitezte gogo berrituz, ez zuen arira» lengo urkoaren antzeko izanez, ez ta gizon obearen aginpi-dez biziz, ez baitzun esan: «bedi gizona bere arian», baizik eta: «egigun gizona gure iduri ta antzera» (Gen. 1, 14), Zuk naia zer dan ezagutuz. Ortarako bada, Zure otsein arek Ebanjeliorako egin-semeak, betiaur etzegozkion, esnez iñutuz eta iñude antzo altzoratzuz, «alda zaitezte, esan zun, gogoa berrituz, Iainkoaren gura on, atsegingarri ta bikaiña ezaguteko»

(Rom. 12, 2). Orregatik ez diozu «bedi gizona», baizik-eta «egigun gizona»; eta ez diozu «bere arian», baizik-eta «gure iduri eta antzera». Bein gogoa berrituzkerok ta ulertutako zure egia begi aurrean duala, ez bait-du gizon erakustalle bearrik «zure gura on, atsegingarri ta bikaña ezaguteko», eta gai egiten duzu Bakarraren Irutasuna edo Iruren Batasuna ikusteko. Eta orregatik, askoren izenean esan arren: «egigun gizona», gero bakarki biurtzen duzu «eta egin zuan Iainkoak gizona»; eta askoren izenean esan arren: «gure irudi eta antzera», bakarki biurtzen duzu «Iainkoaren idurira». Orrela, «gizona berritzen da Iainkoaren ezaguerara, bera egin zuanaren irudiaren arauz» (Col. 3, 10); eta gogakoi biurturik, ebaz-bear oro ebazten du; bera, berriz, ez du iñork ebazten (I Cor. 2, 15).

XXIII

Iainkoak nola ebazten ditun gauzak eta gizona.

33. Guziak ebazten ditula, da, badulaantzi alegia, itsas-arraiñen eta zeruko egaztien eta abereen, eta lurrean zarralda dabilzan narratiguzien gain. Adimenaren bidez dagi au, ta bide ortaz, «sumatzen ditu Iainkozkoak» (I Cor. 2, 14). Ostera, «dedutan zegon gizonak etzun ulertu; asto zentzugabeetara alderatu zan, eta aien antzeko egin» (Ps. 48, 13). Baiña Zure Elizan, gure Iainko, Zuk eman diozun graziz (Zure esku-lan baikera «egite onetarako sortuak») (Eph. 2, 10), gogo-agintari diranak ez-ezik, oieri gogo-menpeko zaizkienak ere —gizaki ta emazteki (Gen. 1, 27) egin baitezte gizadia, onela, zure gogo-grazian; ontan ez baita giza-emerik, ez iudirik, ez grezitarrik, ez menpeko ez eskuko danik (Gal. 3, 28)— gogakiek, beraz, agintari naiz menpeko, gogakiro ebazten dute, ez, ortzian argi dagiten gogakien ezagueraz (ezbaita aginpiderik ebazte guren ortaz), ez eta Zure liburuaz ere, an zerbait argi ez badago, menpera baitiogu gure adimena, ta ziur gaude, gure begiratuarentzat ostenik dagona zuzen eta egiz esana dagola. Onela, bada, gizona egin zun Aren idurira, Iainko-ezagueran berritua ta gogaki biurtua, lege-betetzaile bear du ta ez ebazle (Iac. 4, 11). Ez du ebazten ere gizon gogakoi ta aragikoen tankera artara; Zure begietan ezagunak baitituzu, gure Iainko, ta oraiño guri etzaizkigu egiñez agertu, beren arnariz ezagu detzagun (Mt. 7, 20). Zuk, ordea, Iauna, eza-guten zenitun, bereizi zenitun eta izkutuandaitu, ortzantza egin baiño len. Gizonak, gogakoi dala ere, ez du ebazten mende ontako erri eziñegone-taz. «Zer dio, bada, ari, landakoetaz ebaztea» (I Cor. 5, 12), andik zure



grazi gozora nor datorken eta gaiztakerien betiko samínean nor geldituko dan ez dakila?

34. Beraz, Zure idurira egin gizonak, ez du antzirik artu ortziko argizagien gain, ez etazeru izkutuaren gain, ez eta zerua antola baiño len deitu zenitun gau-egunen gain, ez eta itsasoko ur bilduengain; bai, ordea, itsas-arraiñen, zeruko egaztien, abere guzien, lur osoaren eta lur gaiñean zarralda dabilzan narrazti guzien gain. Ebazten du, algia, ta onartzen zuzen dana, ta oker dana gaiztesten, naiz zure errukiak ur aundietan billatzen ditun aien asimasiko sagarakunde ospatsu aietan, naiz ur-zingotik ateratako arraiñ aurkeztua lur aintzoak iatean, naiz itzen zantzuetan edo Zure liburuaren aginpideari menpeko zaizkion mintzoetan, ortzantzan ega balegite bezala; irakurritz, adieraziz, iardunez, eletan, Zu onesten eta deitzen agotik soiñuz lertzen dian xegunekin, erriak «amen» erantzun dezan. Oiu guzi auek gorputzez eda ditezen, mende ontako osiña da sorburu, ta aragiaren itsutasuna, au gogoeman ez baititezke ikusi ta belarrietara zarataka sartu. Beraz, lur-gaiñean egaztiak ugaldtu balediz ere, iatorria uretik dute.

Ebazten ere du gogakioak, zintzoen egiñetan eta oituretan zuzen dana onetsiz, oker dana gaiztetsiz, lur gizeneko ukarrez eta anima biziaren griña pakeatuaz, garbitasunaz, baruaz, zentzuen bidez ezaugarri diran gogamen zintzoetaz. Zentzabidea daukan gauzetan ebazten dula esaten da.

XXIV

Gizona bakarra Iainkoaren antzeko.

35. Baiña zer da au? zelako izkutamena? Onesten dituzu gizonak, Iauna, azi taugaldtu ditezen eta lurra bete dezaten. Onekin ezal diguzu ezer adierazten zerbaitxo uler dezagun, zergatik etzenun onetsi argia, ize-nez «eguna», ez eta ortzantza, ez argizagiak, ez izarrak, ez legorra, ez itsasoa? Esan niro, gure Iainko, Zure idurira egin baikaituzu, esan niro onespeneren doai au gizonari bakarrari eman nai izan zeniola, onela arraiak eta baleak, onetsi ez bazenitu, azi ta ugaldtu zitezen eta itsas-ura bete zezaten eta egaztiak lurtean ugaldtu zitezen. Esan ere nezake, onespide au berenez ernalduz ugaltzen diranengatik, dala, txartaketan eta arnari dunetan eta abereetan arki baneza. Baiñan etzaie esan, ez belarrerri, ez zugatzeri, ez abereeri, ez sugeeri: «azi ta ugaldtu zaitezte» auek ere oro ernez ugaltzen baitira ta aria dute gordetzen, arraiak, egaztiak eta gizonak bezala.

36. Zer esanen dut, beraz, ene argi, ene egi? Alperrik esana dala? — Ez iñola ere, Aita zintzo! utikan Zure itzaren otseñak ori esatea! Izketa ontan zer esan gogo duzun ulertzen ez badut ere, azter bezate obeki obeeek, ots, ni baiño adimentsugoeak, bakoitzari eman diozun iakitearen ariora. Atsegin bekizu nere aitorkizun au, begi oietan aitortzen baitut, Iauna, siñesten dutala, etzerala alperrik ola mintzatu. Ez diot ixilduko ere irakurketa onek idarokitzen didana. Egia da, bai, ez dut ikusten zerk eragozten didan Zure liburuetan iduripean dauden esanak ola ulertzen. Ikusten dut, bai, gorputzak askoara adierazten dula adimenak alde bakarrera ulertzen duna; eta adimenak askotara ulertzen dula, gorputzak alde batera adierazten diona. Ara Iainkoa ta urkoa maitatze soilla zenbat izkutzuz eta zenbat izkuntzaz eta izkuntza berean zenbat aldetara adierazten dan gorpuz-bidez. Onela azitzen dira eta ugaltzen uraren umeak. Soizu berriro au irakurten asi zeran orrek: idaztiak alde batera ta soiñu batean diagona: «Iainkoak asieran egin zitun zeru-lurrak», ez al da askotara ulertzen, gezurraren ustelez ez-baiña egiazko adiera askoz? Onela azitzen eta ugaltzen dira gizakumeak.

37. Beraz, gauzen sorkunak iduribidez ez-baiña iator artzen baditugu, azietatik sortzen diran guziera dagokie itz au: «azi zaitezte ta ugaldtu»; iduribidez artzen badugu berriz, —eta areago uste dut Idaztiak nai dula; ez baitie alperrik egozten onespene au urkumeeri ta gizakumeeri— askotzak arkitzen ditugu, bai gogakietan, bai gorpuzkietan, zeru-lurretan bezala; eta anima zintzoetan eta gaiztoetan, argitan eta illunbetan bezala; eta legea eragin diguten idazle sainduetan, ortzantzan bezala —uren eta uren tartean gotor baitago—; eta erri naigabetuen lagunartean, itsasoan bezala; ta anima iainkotiarren gurarian, legorrean bezala; eta bizialdi ontako eruki-lanetan, belar azidunetan eta zugatz arnari dunetan bezala; eta besteren onerako ageri diran doai gogakietan, zeruko argizagietan bezala; eta neurrizko biotz-eragiñetan, anima bizian bezala. Guzi auetan arkitzen ditugu askotzak, ugaritaunak eta aziketak; baiña gauza bat askotara izkematuz eta izketa ori askotara ulertuz, ola azitzen eta ugaltzen danik ez dugu arkitzen gorputzaren zantzuekin eta animaren asmaketarekin baizik. Uren ernealdiak, ikusi dugu gorputzaren zantzu dirla, aragi sakonaren nai ta naiezko etorritz; adimenez gogoratu gauzak, ordea, gizaldiak dirala adimenaren erne-endarrez. Orregatik siñesten dugu, Iaun, bi mota aueri au esan zeniola: «azi zaitezte ta ugaritu». Eman diguzun almen eta antzi ontan ulertzen dut eman diguzula, bai askotara mintzatzea. adimenean erabat daukaguna, baita askotara ulertzea, batera illuntsu esanik irakurten duguna ere. Onela betetzen dira zantzu bixikoetan baizik igitzen ez diran itsas-



urak, eta orrela betetzen da gizaldiz lurra, bere legorra kezketan agertzen dula, arrazoa nagusi daukala.

XXV

*Augustiñ Iainkoarenetik ari da egia esaten;
gizon oro gezurti baita.*

38. Esan nai ere dut, ene Iainko Iauna, Zure Idaztiak geroxeago esaten didana, eta bildur gabe esanen dut. Ni argituz, itz auetan nik esatea nai nuzken egiak esanen ditut. Ez det uste Zuk bestk argituz egia diodanik, Zu baitzera, egi, ta «gizaki oro gezur» (Ps. 115, 11). Beraz, gezurra diona, beretik ari da. Beraz, egiz itzegiteko, Zuretik ari naiz. Emen diguzu ianari, Iauna, «ereiteko azia darion belar oro, lur osoan arkitzen dana, ta ereiteko arnari-azia beregan daukan zugatz oro» (Gen. 1, 29). Guri bakarriori ez-ezen baita zeruko egazti guzietan, lurreko piztieri ta narratier; arrai aundi ta txikiri ez diezu eman. Lurreko igali aietan eta idurikizunetan erruki-egia adierazirik zeudela esan genun; lur emankkrrak bizi onen bearretarako ematen ditula. Lur ortatik zan Onesipor, etxean erruki eman zeniona, Paul maiz arindu baitzun eta aren kateaz ez bait zan lotsatu (II Tim. 1, 16). Anaiek ere au egiten zuten eta zitu ori eman, «aski etzitzaionna Makedonitik bialduz» (II Cor. 11, 9). Zer samieñez esaten dun, bear zun igalirik eman etzioten zugatz aiena! «Nere lengo iagonaldian ez zan iñor agertu, guziek utzi niaduten bertanbera; ez bekie egotzi» (II Tim. 4, 16). Zor zaizkie, bada, auek Iainko-izkutuak ulertuz irakaskizun aditsua ematen duteneri, ta gizon diranez zaizkie zor. Baiñan anima bizi diranez zor zaie, gaitz-debeku guzitan eredu baitira. Zor zaie, are egazti-antzo diranez, lurgaiñean ugaltzen diran aien onespengatik, «aien aditzera lur osoan zabaldu baita» (Ps. 18, 15).

XXVI

Paul, pozak iñutzen du.

39. Ianari auetan aietan larratzen diranak pozten dira; ez, ordea, «sabela Iainko zaienak» (Phil. 3, 19). Norbaitek ematen ditienetan ere, zer emanean ez-baiña zer biotzez emanean dago etekiña. Beraz, sabelari ez ta Iainkoari otsein zitzaiona garbi dakusat nondik dagon poz; badakusat eta zorian aundiak ematen ditiot. Epaproditen bidez biali ziotena.

Pilipotarrendandik iaso zun; baiña badakit nondik dagon poz. Poz ua datorreneko tokian larratzen da; «aundizki poztu naiz Iainkoagan» diago egitan mintzatuz, «noizbait ere ernaberritu baitzaizue niganako lera, lengo lera ua, aspertu ba ziñaten ere» (Ib. 4, 10). Auek naski, iguiñaldi luzez igatu ziran, eta urbil igartu, onaren zitu ontaz, eta pozten zaie, birloratu diralako, arengatik ez-baiña bearrean lagundu ziotelako. Orregatik diño dagokala: «Ez diñot au iñolako bearraldik eraginda, ikasirik bainago dutanaz aski izaten. Badakit gutxiagorekin egoten, badakit igari ibiltzen, edozertan edozertako azia nago, ase ta goserako, ugari ta urrirako; guzia dezaiket indartzen naun arengan» (Ib. 11).

40. Nondik zure poza, Paul? nondik poz ori? Non larratzen zera, «antzera egin zindun Iainkoaren ezagueran berritu zeran gizon ori?» (Cor. 11, 10-3); Non, anima bizia, oinbeste elikuz, eta izkutuak itzegiten ditun mihi egalari ori? Zerk iñutzen zaitu? Pozak? Entzun dagokana: «ongi egin dezute alare, nere latzaldia erdikidetuz» (Phil. 4, 14). Onek pozten du, onek alatzen, ongi egin zutelako, ez estualditik atera zutelako. An esana baitago: «latzaldian zabaldu nauzu» (Ps. 4, 2); baitaki urri naiz ugari bizitzen Zuk indar demaiozula. «Badakizute, bada, esan zun, zuek Pilipotarrok, Berri ona zabaltzen asi ta Makedonitik irten nintzanean, zuek izan ezik beste elizek etzutela nerekin ar-emanik izan. Zuek bai, Tesalonikera bein ta berriz igorri zenidaten bear nuna» (Phil. 4, 13-16). Egiñ on auetara itzuli ziralako pozten da, ta birloratu ziralako alaitzen da, lur gizen bailiran.

41. «Bear nuna bialdu zenidaten» esatean, orregatik pozten ote da? Ez orregatik. Nondik dakizu ori? Onela baitarra: «zuen emarien zai ez-baiña, zuen zitua nai» (Ib. 16). Ikasi dut, ene Iainko, emaria ta zitua bereizten: Emaria bearretan dagonari eman oi zaion gauz emana bera da, ots, dirua, iana, edana, soiña, etxapea, laguntza. Zitua, berriz, emallearen gogo ona et zuzena da. Ez diago Maisu onak «iragarlea atosten duna» bakarrik, baiñan «iragarle izenean» eratziki zun; ez eta «zintzoa atoste duna», baiña «zintzo izenean» daratxika. Onela bada, arek iragarle-saria, onek zintzo-saria artuko du. Ez diago are «antoxin bat ur otx, txikien auetako bati ematen diona» bakarrik «ikasle izenean» baizik. Au eratziki zun gero: «zin ziñez esan, ez du bere saria galduko». Emaria au da: iragarlea atoste, zintzoa atoste, zintzoa etxean artzea, ikasleari antoxin bat ur otx ematea; zitua, berriz, «iragarle-izenean, zintzo-izenean, ikasle-izenean» au egitea. Alargunak Elias zitua eman zion alatzean, baitzekin gizon iainkotiarra alatzen zula; beleak, aldiz, emariz alatzen zun. Elias barnekoia ez-baiñan, agerikoia alatzen zun; ianari ua gabe akitu baitziteken.

**XXVII**

Gure anima, pozten dun gauzak inñutzen du.

42. Beraz, egi dana dioket zure aurrean Iauna; gizon zozo ta siñes-gabeek (I Cor. 14, 23) —aiek asi-berritzeko ta irabazteko bearreko baitira astapeneko sagaraki ta mirari aundiak, arrai txiki ta aundien izenez adieraziak— atosten ditute Zure otseiñek, gorputza zuzperrerazteko edo bizi ontako zertanbait lagutzeko, zergatik egin bear dan edo zelako diran ez dakitela ere; bañan ezaiek auek, ez auek aiek ez ditute inñutzen, aiek ez baitira ari asmo zuzenez eta sainduz, eta auek ez dira alaitzen emariz, etekiñik ez dakusatenean. Anima, alatzen danetik alaitzen da. Orregatik arraiek eta baleek ez dute erne-gauzarik iaten, baizik eta itsas-ugiñen samiñetik bereizi ta bakandurik dagon lurrekoa.

XXVIII

Iainkoak egiñak bakoizka eder dira; oro batean oso eder.

43. Eta ikusi zenitun Iauna, Zuk egiñak oro, ta oso eder ziran; guk ere ikusten baititugu, ta oro guziz eder baitira. Zure lanen mota bakoitzean egin zitezela esatan, eta ala izan, ikusi zenitun au ta ori eder zirala. Zazpitan auteman dut idatzirik Zuk egiña eder dala, eta au zortzigarrena: Zuk egiñak oro ikusi zenitula, ta eder ez-ezen oso eder zirala guziak era bat. Bakoizka eder soill ziran; orobatean ederrak oso gero. Au diñosku edozeiñ gorputz ederrek ere; askoz ederrago baita guzia atal ederrez eraturako korputza, atal bakoitzak baiño; aien elkartasun txit bikaiñetik egiña baita guzia, aiek bakoizka eder dirala ere.

XXIX

Iainkoak gauzak betieran egiten ditu; guk aldian ikusten.

44. Begieman nuan, zazpitan ala zortzitan ikusi ote zendun, Zuk egiñak eder zirala iakiteko, atsegin zekizkizunean; baiña Zure ikuste ortan ez nun noizaldirik arkitu, egin zenitunak beste oinbeste aldiz ikusi zenitula ulertzeko. A Iauna, esan nuan, Zure Idazti au ez al da egi? Zuk egiña baita, Egi ta egiti Orrek (Io. 3, 3; 14, 8). Zergatik diostazu Zure ikusketan

ez dala aldirik, eta Zure idazti onek egunez egun baitiraust Zuk eginda ikusiak eder dirala, eta batbanatzean ainbeste arkitu nitun. Au erantzunen didazu, nere Iainkoa baitzera, ozenki barne-belarrira Zure otsein oni nere sogorkeria oiuka autsiz: A gizon! izan ere idaztiak diagona diagot Nik. ARek noizaldika; nere itera, berriz, aldirik ez da urbiltzen; nerekin dan betiera baita. Orrela, zuek Nere arnasaren bidez dakusazutena, dakusat; eta zuek Nere arnasaren bidez diozutena, diagot. Orrela, zuek noizkoan ikustean, nik ezdut noizkoan ikusten; eta zuek noizkoan esatean, Nik ez dut noizkoan esaten.

XXX

Zenbait aburu zoro.

45. Badantzut, Iauna, ta soatzi dut ezti-xorta bat Zure egi ortatik, eta ulertzen dut. Baitira Zuk egiñekin atsekabe artzen dutenak. Aietan asko bearrak eraginda egin omen zenitun, ots, ortzien lantegia ta izarren antola. Ta zugandik ez-baiña, len sortuak zirala nonbait eta nondibait. Zuk zenitula bildu, elkartu ta eio, Zure etsaiak garaiturik mundu ontako ar-esiak egitean, esi orrek ikaraturik, Zure buruzki berriro ieiki ez giltzez elkartu ere, ots, ez aragidun, ez moxorro txikienik, ez lurtean erortzen danik; Zuk ez-beste sorkari adidun etsai batek ernarazi ta antolarazi zitula munduaren azpitokietan Zure kaltetan. Zoroek diote au, Zuk egiñak ez baititute Zure arnasaren bidez ikusten eta Zu aietan ezagutzen.

XXXI

On dana Iainkoagan ikusten dugu on; eta ikusten dugun on ori, Iainkoak ikusten du gudan.

46. Zure arnasaren bidez ikusten ditutenek, ordea, aietan Zuk dakusazu. On dirala dakusatenean, Zuk dakusazu on dirala ta Zugatik atsegin zaien edozer, Zu zakie aietan atsegin; eta guri Zure arnasaren bidez atsegin zaiguna, Zuretzat zaigu atsegin. «Nor da gizonetan gizabarnea dezagukunik, norberagan dagon anima baizik?» (I Cor. 2, 11). Orobat, «Iainkoaren barnekoa iñork ez dezagun Iainkoaren gogoak baizik» (Ib.). «Guk ordea, diago, mende ontako gogo ez-baiña, Iainko-gogo artu dugu Iainkoak ematen ditigunak ezaguteko» (Ib. 14). Eragiñik nago esateko «Ez daki, naski, iñork Iainkoarenik Iainko-gogoak ezik» (Ib. 18).



Noladagizuz, beraz, guk ere, Iainkoak eman ditigunak? Aren arnasaren bidez dakizagunak ere, Iainko-gogoak bestek ez dakiza, erantzuten didate. Bidez esan baitzaie Iainko-gogoz mintzo ziranei: «etzerate zuek, mintzo zeratenak», aien bidez esana zaie Iainko gogoz dakiteneri: etzerate zuek dakizutenak. Alare bidez esana zaie, Iainko-gogoz mintzo ziranei: etzerate zuek, mintzo zeratenak, aien bidez esana zaie Iainko gogoz dakiteneri: etzerate zuek dakizutenak. Alare bidez esana zaie, Iainko-gogoz dakusateneri: etzerate zuek dakusazutenak. Beraz, iainko-gogoz on dala dakusaten oro, aiek ez-baiña Iainkoak dakusa on dala. Besterik da, batek on dana gaiztestea, lengoengatik esan duguna; ta besterik da, gizonek on dana on dalako ikustea; askori Zure sorkariak on dir-lako atsegiten baitie. Alare, zu etzakie atsegin, Zugan baiño on dan artan areago gozatu nai badute... Besterik ere, gizonak zerbait on dalako ikusten dunean, argan Iainkoak ikusten dula on dala, ots, Ua maita dezagula egin zun artan. Eta ez genuke maiteko eman zigun arnasez baizik, «Iainkoaren maitekuntza, eman zaigun gogo gurenaren bidez baitago biotzetan zabaldua» (Rom. 5, 5). Aren bidez ikusten dugu, nolabait dan oro on dala; nolabait dan oro, izan badan Arengandik baitda.

XXXII

Eskerrak Iaunari olako gauza ederrak egin ditulako.

47. Esker Zuri, Iauna! Badakusagu zerua ta lurra, ots, gaiñalde ta azpialde mukuluki, baita sorkari gogaki ta mukuluki; ta bi alde auen antolan, naiz mundu mukuluki guzia naiz sorkari oro, badakusagu illunetik bereiz egin zenun argia. Badakusagu ortzantza, munduaren len-mukulu gaiñeko ur gogakien etaazpiko ur mukulukien artean. Bai eurats arte au, au ere zeru baiteritza, lurriñak uren gaiñeramanik egaztiak arat-onat dabiltzaneko zerua; intza ere andik iñosten baita izar dagonean; eta azpian astun ixurtzen diran urak. Badakusagu ur bilduen edertasuna, bai itsaso zaba-lean, bai legor gorrian eta iantzian, belarren eta zugatzen ama ikusgarri ta antolatua zedin. Badakusagu argizagia goian argi egiten, egunari eguzkia aski zaiola, ta illargi izarrek gaua alaitzen dutela, eta guzi oiekin autematen eta adierazten dugula noiz-aldia. Badakusagu lur ezoa, sorkari, arraiez, eizez, eta egaztiz ernaldia, txorien egalak deramatzin egurats mukulua urren lurriñetik loditzen baita. Badakusagu lurraren azala, lur-aberez edertua, ta gizona Zure iduri ta antzera egiña, arrazoigabeen aldean bere iduri ta antz orrekin, ots, adiemaren eta arrazoiaren indarrez obetsia. Eta aren

barnean bat baita aholkuz nagusi dana, ta bestea mendean esaneko dana; alaxe, emaztea gorputzez ere gizonarentzat egiña, arrazoidun izatez berdin bada ere, bere emakuntzez gizakuntzearen menpeko da. Orobat arrazoiak, zuzen iarduteko arreta beregan erne dagion, ekin-gura du mendeko. Auek oro, bakoizka on eta oro guziz on dakusaguz.

XXXIII

Goretsi bezate orok Iaungoikoa, ta guk maita dezagun.

48. Gora zaituzte Zuk egiñak, maita zaitzagun; eta maita zaitugu, Zuk egiñak gora zaitzaten. Noizaldian badute asiera ta amaiera, iaiotea, iltea, geitzea ta gutitzea, ta eitea ta gabea. Badute beraz goiz-atsalde, alde izkutu, alde ageri. Zure ezetik edo len zanetik ez-baiña, batan irazanetik, ots, Zuk batean irazaneko gaietik aren eitegabea noiz-tarterik gabe eitetu baitzenun. Zeru-lurren gaia ta zeru-lurren eitea, bana baitira, gaia uts gorotzetik egin zenun; munduaren eitea, berriz, gai eitegabetik, biak batean alare, gaiaren ondotik an baitzan eitea ere, batere tarterik gabe.

XXXIV

Bere Itzagan bakarragan egin ditu mundua ta Eliza.

49. Aztertu ere dugu zeren iduripean egin diran au ta ori, ta zer burubidez idaztea nai ukan duzun; eta ikusi dugu bakoitza on dala ta guziak oso on, Zure Itzean, Zure Itz Bakarragan, zeru-lurrak Elizaren Buru ta gerri, aldi guziz aurko erabakian goizik eta atsaldetik gabe, alde guziz len dan goiz-atsalde bageko erabakian. Baiñan, erabaki oriek aldiaren egiteratzen asi ziñanean izkutuak agertzeko ta gure antolagabea antolatzeko —«gure obenak gure gaiñ baitziran, eta Zugandik urrun ietsi bai-kiñan osiñ illunera» (Ezek. 23, 10), Zure arnas ona aren gain eramana zala guri mugonez laguntzeko— bigurriak zuzendu zenitun; eta gaiztoengandik berezi ta Zure liburuaren aginpidea gotortu zenun, Zuri menpeko zitzaizkizun gaiñekoen eta aieri mendeko zitzaizkien azpikoen artean, eta siñesgabeen lagun-arte xede batera bildu zenun, siñestunen guraria nabari zedin eta Zuretzat errukigintzak egin zetzaten, gaixoeri ere lurreko ondasunak banatuz, zerukoak ukaiteko.

Urrena, argizagi zenbait piztu zenitun ortzantzian, ots, bizi-itza zuten Zure sainduak, emari gogakiz argi ta aginpide gurenez Buru ezarriak; eta



geo, sieñsgabeak eskolatzeko sortu zenitun mukulu gaietik sagaraki ta mirari agerikoak eta itzen mintzoak, Zure liburuaren ortzantzan siñestunak bedeinkatzeko. Geroago zintzoen anima bizia eratu zenun eliku indartsuz, biotz-eragiñak zuzendu zetzan. Eta geoenik Zure bakarraren mendeko eta ez giza-aginpidearen bearreko, Zure iduri ta antzera berritu zenun. Eta adimen gorengoari arrazoizko ekiña menperatu zenion, gizonari emaztea bezala. Eta bizialdi ontan zintzoen bikaintzeko Zure lanbide guzietan zintzoek berek iardutea nai ukan duzu, oraingo bear aldian, gerorako protxuzko diran lanetan. Badakusaguz auek ere, taguziz eder dira, gugan ikusten baitituzu, ta eman baitiguzu arnasa aiek ikusteko eta aietan Zu maitatzeko.

XXXV

Emaiguzu Iauna pakea, larunbateko atsedena.

50. Iaun eta Iainko, emaiguzu pakea, guzia eman baitiguzu: atsedeenaren pakea, larunbateko pakea, atsalde gabeko pakea. Gauza oso on auen burubide txit ere au bere bidea egiñik, iraganen da. Eta orrela egin zan aietan goiza ta arratsaldea.

XXXVI

*Azkeneko larunbat onek ez du arratsalderik;
zugan atsedeen dezagun.*

51. Zazpigarren eguna atsalde gabe da, ez du illuntzerik, bei irauteko saildutu baituzu. Zure lan oso on aien ondolik zazpigarren egunean atsedeen baitzenun, geldi-egonean egiñ arren; au iragarrean digu Zure liburuaren mintzoak, guk ere gure lanen ondolik —Zuk oso onak izata eman zenigulako— betiko bizitzaren larunbatean atsedengo degula.

XXXVII

Orain guregan ari zeran bezala, orduan guregan atsedenen duzu.

52. Ordun ere, orain gugan ari zeran bezala, gugan atsedenen duzu; ta ala atsedete ua gugatik izenen da, lan auek gugatik diran bezala, Zu, berriz, Iauna, beti zera ari ta beti zaude atsedeen; ez duzu aldian ikusten,

etzera aldian igitzen, ez duzu aldian atsedeten; eta alare Zuk dagizuz aldi-ko ikuskariak eta aldiak berak, ea alditik atsedena.

XXXVIII

*Zuk egiñak bei dirau. Zu beti geldi zaude.
Nork au guri adierazi? Zerorrek, Iauna.*

53. Guk, beraz, egindako auek, diralako dakusaguz; izan, ordea, Zuk ikusten dituzulako dira. guk azaletik ikusten ditugu badirala, ta barnetik on dirala; baiña zuk, egiteko ziran tokian egiñik ikusi zenitun.

Gu beiñola on egitera griñatu giñan gure biotza Zure arnasez ernari zanean. Lenagotik, ordea, gaiztora genun griña Zu erabat utzirik. Zu, berriz, Iainko bakarrik on, etzakigu on egitez beiñere atertu. Badira gure zenbait egite on Zure doaiez, baiña nez betikor. Aien ondolik dugu itxaropide zure Saindutasun aundian atsedeteko. Zu, berriz, bear ez duzun on Ori, beti geldi-egonean zaude, Zure egona zerau baitzera. Au ulertzea zein gizonak eman gizonari? Zein aingeruk gizonari? zuri eska, Zugan billa, Zurean io dezagun. Onela, onela dugu artuko, onela dugu arkituko, onela zaigu idekiko.

U.I.O.G.D.